

Xabier Amuriza

HARRIAK

ikaslegin izenaz argitaratuak



2. maila

Kazetaritza saila

HARRIAK

ikaslegin izenaz argitaratuak

EUSKALTZAINDIAREN
OINARRIZKO
EUSKARARAKO
BATZORDEA



Liburuxkaren egile: XABIER AMURIZA
Irudiaren egile: JOSE LUIS IRIONDO
Prestatzaile: OINARRIZKO EUSKARARAKO
BATZORDEA
Argitarazle: EUSKALTZAINDIA
IBERDUEROKO
EUSKAL KULTUR MINTEGIAREN LAGUNTZAZ

1983

© Euskaltzaindia

1. argitalpena, 1983

I. S. B. N. 84-85479-26-2

Legezko Gordailu: S. S. 670/83

Inprimatzaile: Itxaropena, S. A. - Errikobarra kalea, 2 - Zarautz



Irakasmaila Ertainak

HITZAURREA

Orain bi urte, Euskaltzaindiaren Oinarrizko Euskararako Batzordeak Iberdueroko Euskal Kultur Mintegiaren laguntzaz OINAK liburua argitaratu zuen, horretarako aldiz aurretik egileari eskubideak eskatu ondorean. OINAK, Xabier Amurizak lehen Mailako ikasleentzat IKASLEGINen idatzitako irakurgaien bilduma zen. Liburu horren zabalkundeak hau erakusten digu: alde batetik gure ikaslegoaren nahia eta bestetik idazlearen gaitasuna.

Ezin gara ordea lehen Mailan geratu. Orain, HARRIAK bigarren Mailako liburua aurkezten dizuegu.

...baina zergatik HARRIAK?

OINAK liburuaren hitzaurrean Imanol Berriatuak zera idatzi zuen:

«...Euskarak ere oinak dauzka. Euskaldunberriak oin hoiak behar ditu, euskaraz berba egiten ibili nahi badu...»

Beraz, lehen Mailan oinak behar zituenak, bigarrenean HARRIAK beharko ditu; oin ikasiberri hoiak aurrera joan nahi badu.

Horixe izan nahi du liburuxka honek: euskal ikasleen ibilbidean HARRIzko zimendu irmo eta egoki.

HARRIAK ere, Amurizak IKASLEGINen idatzitako zatiez osotu dugu. Gaiaren azalpen erraza omen da idazlearen lanik zailena. Liburu honetan ere Amurizak ongi frogatu digu bere trebetasuna.

HARRIAK, 2. Mailan idatzitako liburua da.

Mailen nondik norakoa mugatzean HITZ EGIN metodoaren mailaketa hartu dugu kontutan. Izan ere HITZ EGINen materiale osagarri bilduman, bat gehiago duzu HARRIAK.

Lehen Mailan ikasietatik aparte, hauek dira 2. Mailan aurkitzen dituzun deklinabide-kasu, aditz eta egiturarik nabarmenak:

DEKLINABIDEA	<i>Bizidunak</i>	ama(ren) gan Joseba(ren) gana abereengandik
ADITZAK (iraganean)	<i>Nor</i>	zinemara joan ginen zinemara joaten ginen
	<i>Nor nori</i>	giltzak galdu zitzaizkidan egunero galtzen zitzaizkidan
	<i>Nor nork</i>	ikusi zintudan ikusten zintudan
	<i>Nor nori nork</i>	esan zidan esaten zidan
AHAL IZAN, EZIN IZAN		arrantzara joan ahal izan ginen ezin zion ezer esan ikusi ahal izan genituen
ADITZ SUSTANTIBATUAK		gehiegi <i>jateak</i> kalte egin zidan zapatak <i>erostera</i> joan nintzen herria <i>zapaltzeko</i> erabakiak lana <i>amaitzean</i> etxera joango naiz.

ESALDI

MENPERATUAK	<i>Konpletiba</i>	etorriko dela esan didate ez didate esan etorriko denik
	<i>Zehar galdera</i>	ez dakit non ibili garen ea zer ordu den galdetu dizu
	<i>Kausala</i>	gustatu zitzaigulako joan ginen berriro ez du entzun, berandu etorri da eta ezin dugu hitzegin, ez bait dakigu
	<i>Erlatiboa</i>	behar dituzun liburuak ho- riek dira behar dituzunak horiek dira
GRADUAK	<i>Konparatiboa</i>	zu baino altuagoa naiz zu bezain altua da zuk beste diru dauka zuk duzun aina diru dauka
	<i>Superlatiboa</i>	ikaslerik altuena Joxe da

GIDA LIBURUA MAILAZ MAILA liburuan aurkitu ahal duzu HITZ EGIN metodoaren euskalduntze prozesu zehatz, argi, osoa.

Hiztegiak

Hiztegiaren prestatzea izan da Oinarrizko Euskararako Batzordearen eginkizun nagusia liburu honetan. Bigarren Maila burutu duen ikaslearentzat Hiztegia osotzen saiatu gara.

HITZA = ITZULPENA, (lehen Mailan derrigorrezkoa den bikotea) bigarren Mailarako alferregia (sinpleegia) gertatzen zaigu. Dagoeneko ikasleak badu zenbait euskal erreferentzia-puntu hitz berrien esanahia igartzen saiatzeko, itzulpen zuzenik gabe.

Erreferentzia hauek aukeratu ditugu hemen, ikaslearen lagungarri:

DEFINIZIOA	: atso ; emakume zaharra.
ADIBIDEA	: barik ; <i>Euskara barik ez da Euskal Herririk.</i>
SINONIMOA (sin.)	: atsekabe ; / sin. tristura/.
ANTONIMOA (ant.)	: zahar ; / ant. gazte/.

Eta azkenik eta beste erremediorik ez dagoenean.

ITZULPENA	: gerezi ; CEREZA.
-----------	---------------------------

Hiztegi bakoitza idatz-zati bati loturik doa; beraz textuinguru horretan hitzari dagokion esanahia soilik azaltzen dugu. Horrela, hitz batek textuinguru ezberdinetan gauza ezberdinak adierazi ahal ditu.

Hiztegitantza honetan laguntza baliotsua eskeini diguten bi liburuok aipatu behar ditugu esker onez: «Batasunaren Kuxta» (Gabriel Aresti eta Xabier Kintanak moldatua) eta «Euskal Hiztegi Arauemailea» Lehen prestaera. Argitalgen pribatua. (Ibon Sarasola).

Irakurleari ohar bat

Hiztegia gehienetan idatziaren behe aldean ala ertzean ematen da. Liburu honetan idatziaren gainean ezarri dugu. Hona hemen arrazoia: irakurleak hitz ezezagun batekin topogitean hiztegiara jo beharra dauka, argibide bila; honek irakurketaren haria eten egiten du halabeharrez.

Guk hemen zera proposatzen dizuegu: irakurgai lana hasi aurretik, hitz berrien asimilatze ariketa egitea. Textu horri dagokion hiztegitxoaren menperatuz gero, erosoago, gustorago irakurriko duzue, kontsulta etenik gabe. Beraz irakurketa, hiztegia lantzearen ondorengo jardun atsegina izango da, taldean nahiz bakarka.

Euskal irakurle berriarengan atsedean apur hori lortzen badugu ez dugu gutxi lortu.

Hitzaurrari hiztegia

aldez aurretik; *aldez aurretik dirua ipini behar da* / sin. aurretiaz / .

bilduma; antzeko gauzen multzoa: *seilu bilduma*.

gaitasun; zerbait egiteko ahalmena: *Euskararen Gaitasun Agiria*; APTITUD.

aurkez, aurkeztu, aurkezte; inoren aurrean ager(tu): *Lehendakaria Herriaren aurrean ofizialki aurkeztu da*; PRESENTAR.

ikasiberri; oraintxe ikasia: *ikasiberria dut ingelesa*.

irmo; zalantzarik gabe: *borondate irmoa*.

oso, osotu, osotze; zatiak bildu eta zerbait oso egin: *zazpi probintziek osotzen dute Euskal Herria* / sin. osa(tu) / ant. zati(tu) / .

azalpen; / sin. agerpen, aurkezpen / PRESENTACION, EXPLICACION.

trebetasun; zerbait ongi egiteko gaitasuna / sin. abiltasun / .

muga, mugatu, mugatze; *diru laguntza mugatu digute*; DELIMITAR.

nabarmen; agirian dagoena; DESTACADO.

bizidun; bizia duena / ant. bizigabe / .

menpera, menperatu, menperatze; / sin. azpira(tu), oinpera(tu) / SUBORDINAR.

presta, prestatu, prestatze; / sin. era(tu), molda(tu) / CONFECCIONAR, PREPARAR.

eginkizun; egiteko dagoena: *biharko eginkizuna*.

buru, burutu, burutze; *lana burutu dut* / sin. buka(tu) / .

bikote; bi gauza edo pertsonen multzoa: *kantari bikotea*.

dagoeneko; mementu honetarako / sin. honezkero, jadanik / .

igar, igarri, igartze; gauza ilun baten zentzua aurki(tu) / sin. asma(tu) / ADIVINAR.

textuinguru; *textuinguruz kanpo*; CONTEXTO.

soilik; / sin. bakarrik / .

azal, azaldu, azaltze; / sin. ager(tu), esplika(tu) / .

adieraz, adierazi, adierazte; aditzera eman; jakin eraz(i).

aipa, aipatu, aipatze; besteen aurrean izena ager(tu) / sin. aita(tu) / CITAR.

molda, moldatu, moldatze; / sin, presta(tu) / CONFECCIONAR.

arauemaile; *Euskal Hiztegi Arauemailea*; NORMATIVO.

prestaera; PREPARACION.

ohar; / sin. abisu / .

ertz; *ibai ertza* / sin. bazter / .

ezar, ezarri, ezartze; leku batetan jar(ri) / sin. ipin(i) / .

topo egin, egite; aurrez aurre aurki(tu) / sin. topa(tu) / .

argibide; zerbait argitzen duen azalpena: *Hiztegi honek ez dit argibiderik ematen*.

hari; *ipuinarean haria galdu dut* / sin. segida / HILO.

eten, eteten; *katea ez da eten* / sin. hauts(i) / .

halabeharrez; beste erremediorik gabe / sin. nahi ta ez, ezinbestean / .

eroso; zailtasunik gabe: *bide eroso* / sin. erraz lasai / ant. ezeroso / .

eten; *gazte eta zaharren arteko etena*; RUPTURA, INTERRUPCION.

jardun; *gogo jardunak* / sin. ihardunaldi / EJERCICIO.

bakarka; *ikasle honekin bakarka hitz egin behar dut*; A SOLAS.

atseden; *atseden hartu*; DESCANSO.

lor, lortu, lortze; *umeak nahi duena lortzen du*; CONSEGUIR.

1

ZINTZARRI BERRITSUA

zintzarri; /sin. ezkila, txilina/CENCERRO.

berritsu; asko hitz egiten duena: *ume berritsua*/ant. mutu/.

era batera; aldi berean; AL MISMO TIEMPO.

aintzina; orain dela denbora asko/sin. aspaldi/.

zintzilik; *urdaiazpikoa sukaldean daukazu zintzilik*/sin. dindilizka, esekita/COLGANDO.

dilindan; zintzilik mugimenduan: *elizako kanpaiak dilindan*.

derrigorrez; nahi eta nahi ez: *soldadutzara derrigorrez joan behar duzu*.

bestela; beste modu batetan: *jan hori! bestela gaixotuko zara*.

mihigabe; mihirik gabe; SIN LENGUA.

ustel, usteldu, usteltze; *hozkailetik kanpo arraina usteldu egiten da*.
sasi; basoko arantzadun landarea.

Zu zintzarria zara? Bai ala ez? Ni zintzarria naiz. Tilin-tilin. Zintzarri txikia. Zintzarri handiek talan-talan edo tolon-tolon egiten dute. Beste zintzarri batzuk mixtoak dira, eta tilin-tolon egiten dute. Hori da marka! Nola egin era batera tilin eta tolon?

Zintzarria aintzinakoa da. Horregatik aintzinako gizon batek Tintolomeo zeukan izena. Gizon jakintsua zen eta berritsua ere bai. Zintzarri berritsua.

Animaliek non eramaten dute zintzarria? Ardiek, adibidez, non eramaten dute? Hankan? Buztanean? Lepoan? Bizkarran?... Lepoan, ez da? Lepoan eta zintzilik. Zintzilik edo dilindan. Lepotik dilindan, tilin-talan egiten du zintzarriak.

Zintzarriak berritsua izan behar du derrigorrez. Bestela ez da zintzarria. Horregatik esaten da: «zintzarri mihigabea sasia usteltzen da».

Zer da sasia? Ez dakizu? Orduan, begira hiztegiara, edo galde egin lagun bati. Eta zer da usteltzea? Zer da ustela? Freskoa ez dena. Arraina, haragia, arraultzea... Zer duzu nahiago? Arrain freskoa ala arrain ustela? Arraultze freskoak ala arraultze ustelak? Zintzarria, berritsua bada, freskoa da. Zintzarri ixila usteldu egiten da.

Baina ez. Zintzarri hau freskoa da. Berritsua edo berri asko ekartzen duena. Berri asko eta freskoak. Ikusiko duzu.

Ongi etorri!

2

ERROKETXO ETA AMA

behin; aldi batetan: *behin Txanogorritxu...* / ant. sarritan /
ero; zentzua galdu duena / sin. zoro /.

bihur, **bihurtu**, **bihurtze**; / sin. itzul(i) / REGRESAR.

zoaz; joan zu! / ant. zatoz /.

berritsu; asko hitz egiten duena.

dohainik; ezer ordaindu gabe: *euskara denontzat eta dohainik* / sin. debalde /.

bidal, **bidali**, **bidaltze**; ENVIAR.

biluzik; jantzirik gabe / sin. larrugorrik ant, jantzita /.

orratz; tresna fin eta punta zorrotza duena.

gurdi; CARRO.

bertan; toki berean / sin. hantxe /.

etxerantz; norantz? deklinabide-kasua: *etxerantz nentorren*. HACIA CASA.

dardara; TEMBLOR, VIBRACION.

gal, **galdu**, **galtze**; / ant. aurki(tu) /.

biharamun; hurrengo eguna.

lapiko; janariak berotzeko ontzia / sin. eltze /.

maila, **mailatu**, **mailatze**; kolpez oker(tu). ABOLLAR.

bahe; CRIBA, CEDAZO.

zula, **zulatu**, **zulatze**; zuloa egin.

asper, **aspertu**, **aspertze**; ABURRIR.

Ama-semeak bakarrik bizi ziren. Semea apur bat eroa zen. Baina amak ez zuen hori sinestu nahi.

—Mutil! —esan zion behin semeari— Zoaz azokara, esnea saltzera. Berritsuari ez eman, ixilik dagoenari baizik!

Mutila joan eta joan, zakur haundi bat agertu zen. Erroketxok zakurra ixilik zegoela ikusi zuen, eta esne guztia eman zion. Eta etxera bihurtu zen.

—Hori ez da egiten, seme! —esan zion amak— Esnea dohainik eman? Gaizki dagoenari bai, baina zakur bati?

Beste egun batetan Erroketxo arraultzeekin bidali zuen amak. Mutilak arbola bat ikusi zuen bide ertzean, azala astoren batek kendua. Erroketxok arbola hura biluzik zegoela pentsatu zuen. Gaizki zegoela uste izan zuen. Eta arbola gaxoari laguntza emateko, arraultze guztiak klask-klask hautsi zituen eta arbola biluzia ederki jantzi zuen. Eta etxera itzuli zen.

—Hori ez da egiten, seme! —esan zion amak Erroketxori—.

Berriro ere amak azokara bidaltzen du Erroketxo. Orratzak eroatera bidaltzen du.

—Bidean nekatzen bazara, igon hurrengo gurdira, eta etorbertan lasai lasai jezarrita.

Erroketxo, orratzak erosi ondoren, etxerantz dator. Gurdi bat ikusten du eta gainean jezartzen da. Baina, gurdiaren dardaraz, orratz guztiak galtzen dira.

—Ai seme! —esaten dio amak— Nola egin duzu hori? Gauzak ez galtzeko, soka batez lotu behar dituzu.

Biharamunean, lapiko bat eroatera bidaltzen du amak. Erroketxok lapikoa soka batez lotzen du eta arrastaka dakar. Dandarran dandarran kalean zehar. Lapikoa guztiz mailaturik ekartzen du.

—Seme! Hori ez da horrela egiten. —esaten dio amak— Gauzak makila batetan sartu behar dituzu eta lepoan ekarri.

Handik egun batzutara, bahe bat eroatera bidaltzen du amak. Erroketxok makila lodi bat erditik sartzan dio baheari, eta lepoan ekartzen du.

—Seme, nola egin duzu hori? Bahea zulatu duzu.

Ama aspertu egin zen bere seme Erroketxoz eta beste gauza bat pentsatu behar.

3

KAFEA ALA TENPERATURA?

sukar; / sin. kalentura /.

omen; *etorri omen dira* / sin. ei /.

ote; (galde egiteko partikula): *irabaziko ote dugu?*

ahalmen; / sin. potentzia /.

jaits, jaitsi, jaiste; goitik behera joan edo eraman / ant. igon /.

beherantz; *Boltsako akzioak beherantz doaz* / ant. gorantz /.

diotena; esaten dutena.

bestela; beste modutan.

Gorputzak bere temperatura dauka. Buruak ere bai. Gorputzaren temperatura normala hogeitau hamasei gradutatik hogeitau hamazazpi gradutara doa. Hortik gora sukarra da. Zer da sukarra? Gorputzaren temperatura 37 gradutatik gora edukitzea.

Gorputzaren temperatura ez da beti berdina. Arratsaldean apur bat igoten da, eta gero berriro jaisten da.

Gaua, kafea eta anfetaminak ikasleen lagunak dira. Gehiago ikasteko onak omen dira. Baina egia ote da hori?

Bi doktorek ezetz demostratu dute. Ahalmen intelektuala gorputzaren temperaturarekin batera doa. Hori esaten dute doktore hoiek. Baina temperaturak bariazioak dauzka egunaren barruan.

Goizean, ohetik jaikitzeo orduan, burua argi dago. Inoiz baino argiago. Gosaldu eta gero, argitasun hori apur bat jaisten da. Arratsalde erdian gorantz joaten da, eta gero berriro beherantz. Noiz arte? Goizeko laurak arte.

Doktore hoiek aproba asko egiten dituzte ikasle askorekin. Ikasleek ordu desberdinetan ikasten zuten. Eta aproba guztiek konklusio hori eman dute. Temperatura gorago zegoenean, ikasleek gehiago ikasi ahal zuten.

Hori da bi doktore hoiek diotena. Bata Monk deitzen da, eta bestea Folkard. Egia bada, ongi. Bestela, kafea hartzen segi!

itsusi; *itsusi zaude jantzi horrekin / ant. polit /.*

bazter; *kamino bazterrera eraman dut autoa / sin. zoko, ertz /.*

norbera; *norberak jakingo du zer egin; CADA UNO, UNO MISMO.*

iragarki; ANUNCIO.

argitara, argitaratu, argitaratze; *liburu hau Euskaltzaindiak argitaratu du / sin. publika(tu) /.*

esate baterako; / sin. adibidez /.

hautaketa; / sin. selekzio /.

beharrezko; *behar dena: beharrezko zaigu dirua.*

alfer; *lanik egin nahi ez duena: alferra da baina aprobaten du / sin. nagin / ant. bizkor /.*

onar, onartu, onartze; *ondo har(tu).*

Itsusiak bazterrera! Zer edo nor da itsusia? Horixe da bere buruarentzat inork pentsatzen ez duena. Baina askotan beste batzuk pentsatzen dute norberaren orde, eta hori ez da hobe. Estatura txikikoak ere itsusien artean sartzen dira. Eta bai batzuk eta bai besteak diskriminaturik daude Europan eta Estatu Batuetan.

Iragarkietan, adibidez, lanpostu bat eskeintzen denean, klausula hau agertzen da sarritan: «Kandidatuak itxura ona eduki behar du».

New Yorkeko «Wall Street Journal» egunkariak inkesta bat argitaratu zuen, orain denbora luze ez dela. Eta erresultatuak beldurgarriak ziren. Esate baterako, Estatu Batuetako Unibertsitate batzutan, itxura oneko pertsonen ehuneko hamabost (% 15) gehiago irabazten zuten.

Hala ere, denak ez daude klausula horren alde. «Zertarako jarriko dugu klausula hori?» esaten du Uniliver enpresako zuzendariak. «Iragarki horregatik ez du inork bere burua baztertuko. Inork ez du uste, bera itsusia denik. Hautaketa geuk egingo dugu hemen, beharrezkoa bada».

Guz ez dugu bereizkeria edo diskriminaziorik egingo. Baina ez dugu ikasle alferrik ere onartuko.

oraindio; / sin. oraindik / *TODAVIA.*

egunsenti; egunaren hasiera / sin. alba /.

berandu; / ant. goiz /.

zain; *zure erantzunaren zain nago* / sin. itxaroten / *EN ESPERA DE.*

hara han; (hona hemen, horra hor, haran han): *hara han itsasoa!*

itxaron, itxarote; zain egon: *itxaron apur bat mesedez.*

abantaila; *VENTAJA.*

hel, heldu, heltze; *negua heldu da* / sin. iritx(i), ailega(tu) /.

elkarren; bata bestearen: *elkarren etsai dira.*

honantz; (hemen, hona, honantz): *etor honantz!*

harantz; (han, hara, harantz): *joan harantz!*

mandazain; mandoak zaintzen dituen; *MULERO.*

topo egin; elkar aurki(tu): *kalean topo egin genuen* / sin. topa(tu) /.

hain; *hain polita da!*; *TAN.*

lasterka; / sin. korrika, arinka /.

ekialde; eguzkia irteten den aldea / sin. sorkalde / ant. sarkalde, mendebalde /.

mendebalde; eguzkia sartzen den aldea / ant. ekialde /.

bai zera!; ezta pentsatu ere!

koska; / sin. arazo /.

ostean; / sin. atzean /.

etzan, etzate; *ohean etzan da* / ant. jaiki /.

ilunabar; gauaren hasiera / sin. iluntze, arrats /.

txarren; (txar, txarrago, txarren) / ant. onen /.

Ginbel eta Liska goizean goiz irten ziren etxetik. Eguzkia ez zen oraindio agertu. Mendi batetara igon ziren. Eta han egon ziren, egunsentia ikusi arte.

—Gaur eguzkia berandu dator —esan zuen Ginbelek.

—Eguzkia bere orduan etortzen da beti —erantzun zion Liskak.

Beste apur batetan zain egon ziren lagun biak, eta hara han egunsentia.

—Hasiko gara korrika —esan zuen orduan Ginbelek.

—Itxaron apur bat. Jokoa zintzo egin behar da, abantailarik hartu gabe.

Ordua heldu zela pentsatu zuten, eta biak korrika hasi ziren. Biak elkarren atzetik. Eguzkia honantz eta lagun biak ha-

rantz. Joan eta joan, mandazain batekin topo egin zuten bi-dean.

—Nora zoazte hain goiz eta korrika? —galdetu zien gizonak.

—Eguzkiari jokoa egin diogu eta lasterka goaz.

—Eguzkiari jokoa? Eguzkiarekin lasterka?

—Bai, gizon, bai. Eguzkia ekialdetik agertu denean hasi gara korrika. Eta mendebaldera gu aurretik hel baietz.

—Bai zera! Eguzkia gainean daukazue. Hurrengo mendira zuek igon baino lehen, eguzkia aurretik jarriko zaizue.

—Hor dago ba koska —esan zuen Ginbelek—. Eguzkia mendi horren ostean etzan egingo da ilunabarrean. Guk buelta egingo dugu, eta eguzkia baino lehenago helduko gara berriro ekialdera.

—A bai! —esan zuen gizonak—. Txarrena izango da, gaurko eskarmentuarekin eguzkia bihar etxean gelditzea.

6 ALEMANIAN EMAZTEARI JIPOIA

jipoi; / sin. paliza /.

antza; *umea triste dago; ama galdu du, antza* / sin. dirudienez, nonbait / AL PARECER.

egoera; egoteko era: *egoera txarrean aurkitzen gara* / sin. situazio /.

babes; leku segurua: *San Anton mendiaren babesean dago Getaria* / sin. gordeleku /.

auzune; auzo une / sin. auzategi / VECINDAD, BARRIO.

izu, izutu, izutze; biziki beldur(tu).

aurrerapen; zerbait aurrera eramateko ekintza: *ikastaro honetan aurrerapen handia egin dugu* / ant. atzerapen /.

inola ere; / ant. nolabait / DE NINGUNA MANERA.

alferrik; *alferrik ari zara hitz egiten;* INUTILMENTE.

Alemanian gauzak ongi daudela? Alemanak gizon finak eta onak direla? Emakumeentzat ez, antza. Alemanian lau emaztetarik bat, gizonak jo egiten du. Hain egoera alarmantea

ikusirik, Gobernuak babes etxeak egin zituen. Zertarako? Emakumeak senar astoengandik defenditzeko.

Alemaniano selekzioak Austriaren kontra galdu zuen. Krankl austriarrak azken minutuetan gol bat sartu zuen, eta gol horregatik Alemania Munduko Txapelketatik eliminatuta gelditu zen. Egun hartan, Berlingo auzune batetan, etxe bat emakumez bete zen. Emakumeak izuturik zetozen beren umeekin, senarren jipoietatik ihesi.

Gol hura detonante bat besterik ez zen. Azpian dago problema. Eta zifrak beldurgarriak dira. Lau alemanetarik batek jo egiten du bere emaztea. Horra nolako aurrerapena dagoen Alemanian! Famili Ministraritzak etxe bat egin du Berlinen, eta beste bat ere egingo da.

Etxe horretan ez da inola ere gizonik sartzen. Kazetari gizonekorik joaten bada, zera esaten diote:

—Alferrik da. Kazetari emakumezkoei bakarrik ematen diegu informazioa. Zuk informa, nahi duzun modura. Hori zure kontua da.

7 GORPUTZEAN DROGA FABRIKA

hasi baino ez; / sin. hasi besterik ez, hasi bakarrik /.

lasaigarri; lasaitzen duena / ant. ernagarri / TRANQUILIZANTE.

antzeko; antza duena: *ama eta alaba oso antzekoak dira*; PARECIDO.

gero eta ...ago; *gero eta gehiago ikasten ari naiz*; CADA VEZ MAS.

elkarrekin; bata bestearekin: *elkarrekin joan ginen mendira*.

gaixotasun; / sin. eritasun / ant. osasun /.

beharbada; / sin. agian /.

hauts, hautsi, hauste; / sin. puska(tu), apur(tu) /.

gogo; *ez daukat bazkaltzeko gogorik*; MENTE, ESPIRITU, VOLUNTAD.

batera; bat eginik: *denok batera!*

ohar, ohartu, ohartze; *oraindik ez zarete ohartu* / sin. kontura(tu) /

DARSE CUENTA, ADVERTIR.

Natura ezagutzen hasi baino ez gara egin. Natura esatean, gure gorputza ere hortxe dago. Eta begira nolako gauzak aurkitzen ari garen.

Giza organismoak, gure gorputzak, bere drogak fabrikatzen ditu. Droga lasaigarriak. Droga hoiek opioaren edo beste droga batzuren antzeko lana egiten dute. Endorfinei buruz inbestigazio batzuk egin dira.

Gauza bat dago gero eta argiago. Alderdi fisikoa eta psikologikoa elkarrekin loturik daudela. Alderdi bi hoiien sintesia aurkitzea gauza handia izango da. Eritasuna edo gaixotasuna ere hortxe dabil. Horretarako giltza, beharbada, inbestigazio endokrinao izango da.

Izen arraroak aurkitzen dituzu hemen, ez da? Zuk ez duzu hautsi behar zeure burua izen hoiekin. Nahikoa da, izen hoiek zientzigizonek jakitea.

Zuk, jakin hauxe: gorputza eta gogoia elkarrekin batera doazela. Eta beste hauxe: joko honetan gure organismoak bere droga lasaigarriak fabrikatzen dituela.

Eta hori, guztiori, gu ohartu gabe gertatzen da.

8 AEZKOAKO SAKRISTAU A IRUÑERA

erretore; RECTOR, PARROCO.

intsentsontzi; intsentsua edukitzeko ontzia.

ahantz, ahantzi, ahantze; memoriatik gal(du)/sin. ahaz(tu)/ant. gogora(tu), oroi(tu)/.

katilu; *katilu bat esne;* TAZON.

gor; entzumenik ez duena.

erantz, erantzi, erantze; jantzia ken(du)/ant. jantz(i)/.

eragin, eragite; egin eraz(i): *eragiok mutil aurreko danbolin horri;* HACER MOVER.

era batera; aldi berean; AL MISMO TIEMPO.

putz egin, egite; SOPLAR.

adieraz, adierazi, adierazte; aditzera eman; SIGNIFICAR, EXPRESAR.

behingoa; /sin. berehala /.

itzul, itzuli, itzultze; atzera etor(ri)/sin. bihur(tu), buelta(tu)/.

estualdi; mementu estu eta larria; APURO.

Aezkoakoei aetzak esaten zaie. Behin erretoreak Aezkoako sakristaua Iruñera bidali zuen. Zertara? Intsentsontzi berri bat erostera.

Badoa gure mutila, eta bidean intsentsontziaren izena ahanzten zaio. Haren beldurra! Nola esan dendariari behar zuena?

Heldu zen Iruñera eta gora eta behera zebilen. Fraide zahar bat ikusi zuen kalean. Harengana doa eta galde egiten dio:

—Jauna, nola deitzen da eleizan kea botatzen duen kati-lua?

Baina fraidea gorra zen eta alferrik.

Gero hobeto pentsatu zuen zer egin. Abarka bat erantzi zuen eta dendara sartu zen. Kordeletik hartuta, ezkerretatik eskuinetara abarkari eragiten hasi zen. Eta era batera putz egiten zuen kea adierazteko.

Dendariak behingoan ulertu zuen. Eta aetza pozik itzuli zen Aezkoara, estualdi galanta pasatu ondoren.

9

NAPOLESEKO ESAERA BAT

honela; era(modu) honetan: *honela esaten zuen gure aitonak.*

urteotan; urte hauetan.

garizuma; CUARESMA.

zigor; / sin. kastigu /.

partez; *zure partez ni joango naiz* / sin. ordez /.

errudun; *nor ez da errudun?* / sin. kulpadun / ant. errugabe /.

hiri giro; hiriko ambientea.

bihur, bihurtu, bihurtze; / sin. konberti(tu) /.

Honela dio Napoleseko esaera horrek: «Hemen haurrak errorez jaiotzen dira eta kasualitatez bizi». Zergatik esaten dute hori Napolesen? «Virus» gaizto batek milaka haur hil duelako urteotan.

Sermolari batek Garizuman Telebistatik zera esan du:

—Entzun, haurrik eduki nahi ez duzuen emakumeok! Virus hori Jainkoaren zigorra da!

Hau da komedia! Haur gutxi jaio delako, jaio diren apu-

rrok hil! Jaio ez direnen partez, jaiotzen direnak hil! Emakumeak errudun izan eta haurrak hil! Eta hori, Jaungoikoaren zigorra.

Napolesen bertan Geppino Fiorenzak «haur proletarien kantina» bat ireki du. Haur pobreentzat jantokia, jolastokia eta eskola. Baina entzun zer esaten duen:

—Egia esan, Napolesen ez dago haurrik. Ezin da haur izan hemen. Ez daukate tokirik hiri honetan haurrek. Hiri giroak umeak gizontxo bihurtzen ditu berehala. Kontrabandista eta lapur lanetan txiki txikitatik hasten dira.

10 GORPUTZ GUZTIA SEXUALA

alderdi; / sin. zati, atal /.

ikerlan; / sin. inbestigazio /.

hitz batez; / sin. laburki /.

zartailu; LATIGO.

ikuspegi; zerbait ikusteko modua; ASPECTO.

arlo; *karrera amaitu ondoren, zein arlotan espezializatuko zara?*; TERRENO, AREA.

jokaera; / sin. portaera /.

zentzumen; *giza zentzumenak: ikusmena, entzumenak, ukimena...*; SENTIDO.

irendu; CASTRADO.

morroi; mutil zerbitzaria.

izan ezik; / sin. ezik, salbu / EXCEPTO.

Sexuak bere interesa dauka. Baina ez da estudiatua izan beste alderdiak bezala. Edo, estudiatua izan bada, ez ditugu jakin ikerlan hoi ondoak. Zergatik? Erljioak, tabuak, puritanismoak... Hitz batez, zibilizazio faltsu baten zartailua.

Sexologia zientzia bat da, psikologia edo astrologia bezala. Experiencia eta ikuspegi berriak agertzen ari dira arlo honetan ere. Eta zer erakusten digute? Lehengo uste eta jokaera asko okerrak zirela.

Sexu mailan giza zentzumen gehienak irenduak eduki ditugu. Entzumenak apenas dauka baliorik. Usaimena baztertu

egin dugu; eta denok dakigu nolako garrantzia daukan zentzumen honek animalien sexualitatean. Ukimena ikusmenaren morroi jarri da. Etabar... Gorputzean, genitalak izan ezik, beste organu guztiak depreziatu egin dira.

Orienteko sexualitatea beste bide batzuetatik dabil. Gorputz guztia da haientzat erotikoa. Gorputz guztia sexuala.

Hanken erotismoari buruz txinoek liburuak eta liburuak idatzi dituzte.

11

TXIMINOAK HIZKETAN

kaiola; txoriak eta piztiak gordetzeko burdinezko kaxa; *txorinoak kaiolan tristerik du kantatzen.*

hurrera, hurreratu, hurreratze; gertura joan/etor(ri)/sin. hurbil(du), gertura(tu)/ACERCARSE.

haginka egin; hortzak sar(tu): *kontuz txakurrarekin! haginka egiten du eta!* / sin. koska egin / MORDER.

urrakada; RASGUÑO.

benetako; / sin. egiazko /.

kein; eskuen edo begien bitartez, adierazpen ixila; MUECA, SEÑA.

gormutu; entzumenik eta mintzamenik ez daukana.

Koko alfer dago gaur. Kaiola bikain batetan bizi da. Gaur ez dio inori kasurik egin nahi. Gizon gazte bat hurreratu zaio eta Kokok haginka egin dio. Gazte hori Penny Paterson deitzen da, eta Kalifornian irakasten du psikologia, Standfordeko Unibertsitatean.

Pennyk haginkadaren marka erakusten dio Kokori, eta biak hizketan hasten dira.

— Koko, begira zer egin didazun.

— Bah! Urrakada bakarrik —erantzuten dio Kokok.

— Zergatik egin didazu?

— Sentitzen dut. Koko haserre.

— Zergatik zaude haserre?

— Ez jakin —erantzuten dio Kokok.

Nor da Koko hau? Zazpi urtetako neskato lotsagabe hau gorila eme bat da. Laurehun hitzetako hiztegi bat dauka. Benetako elkar hizketak egiten ditu Ameslan hizkuntzan.

Ameslan amerikar keinu-hizkuntza bat da. Hizkuntza hau Estatu Batuetan erabiltzen da gormutei hitz egiten irakasteko. Ez ote da harrigarria, tximinoek ere berba egitea?

12

PEPETXU ETA POPATXU

azpian; behe aldean / ant. gainean /.

asper, aspertu, aspertze; / sin. gogai(tu) / ABURRIRSE.

gura izan, izate; / sin. nahi izan /.

garesti; asko balio duena / ant. merke /.

hel, heldu, heltze; / sin. iritx(i), ailega(tu) /.

lotsa, lotsatu, lotsatze; *zuen aurrean hitz egin beharrak lotsatzen nau;*

AVERGONZAR.

ardandegi; ardoa gordetzeko tokia.

ilun; argirik eza / ant. argi /.

luzeegi; (luze, luzeago, luzeen, luzeegi) / ant. laburregi /.

abia, abiatu, abiatze; martxan jar(ri): *goizean goiz abiatu ginen.*

ostatu; jateko eta lo egiteko tokia / sin. benta /.

ostalari; ostatua zaintzen duen pertsona.

gauzain; gauzez etxea eta inguruak zaintzen dituen; SERENO.

gutziz; *gutziz ondo nabil* / sin. erabat /.

etzan, etzate; *ohean etzanda hobeto nago* / ant. jaiki /.

itzar, itzarri, itzartze; *goizeko lauretan itzarri naiz* / sin. esna(tu) /
ant, loak har(tu) /.

ohostu, ohoste; / sin. lapur(tu), ebats(i) /.

erabaki; *oraintxe hartu behar duzu erabakia* / sin. dezisio /.

Bizkaian Markinaldea dago, eta Markinaldean Bolibar. Bolibar Oiz mendiaren azpian dago. Hantxe bizi ziren Pepetxu eta Popatxu senar-emazteak. Biak on onak ziren.

Pepetxuren anaia bat Madrilen bizi zen. Pepetxu aspertu egin zen Bolibarren, eta Madrileran joan gura izan zuen.

—Popatxu! —esan zion bere emazteari— Madrilera noa. Anaia ikustera noa.

—Ez joan mesedez. Madrile urrun dago eta hango bizitza garestia da.

—Berdin da, Popatxu. Ni Madrilera noa.

Madrilera heldu zen eta anaia ikusi zuen.

—Ene! Hau bai herria! Markina baino handiago da. —esan zuen Pepetxuk Madrilera iritxi zenean.

Anaia aberatsa zen eta Pepetxurekin lotsatu egiten zen.

—Hau ondo tratatzen badugu, ez da hemendik joango. —esan zion harek bere emazteari.

Gaua heldu zen. Eta, lo egiteko, Pepetxu etxeko ardandegian sartu zuten. Ardandegia ilun ilun zegoen. Hiru egun pasatu zituen Pepetxuk ardandegian.

—Egun on Pepetxu. Nola egin duzu lo gaur? —esan zion anaiak.

—Ederki egin dut. Baina hemengo gauak luzeegiak dira.

—Bai ba! —erantzun zion anaiak— Herri handietan gauak ere handiagoak dira.

—Nik ez dut hain gau luzerik gura. Ba noa etxera. Ba noa Bolibarrera.

Pepetxu oinez abiatu zen Madriletik etxerantz. Gaua heldu zenean, ostatu batetara joan zen.

—Hemengo gauak Madrilekoen antzekoak dira? —galde-tu zuen atea jo ondoren.

Baietz erantzun zioten, eta Pepetxu kanpora irteten hasi zen.

—Nora zoaz, gizontxo? —esaten dio ostalariak— Gauzainak harrapatuko zaitu!

Baina Pepetxu aurrera. Bide bazterrean asto bat ikusi zuen. Gauzaina zela pentsatu zuen Pepetxuk, eta korrika hasi zen.

Joan eta joan, azkenean Bolibarrera heldu zen. Guztiz nekaturik iritxi zen. Bere etxearen aurrean etzan zen, eta lo eta lo egin zuen. Itzarri zenean, txapela eta makila falta zitzaizkion. Nork ohostu ote zizkion? Beharbada artzainen batek.

— Pepetxu ote naiz, ala ez ote naiz Pepetxu?— esaten zion bere buruari.

Andreari dei egin zion eta andreak Pepetxu zela esan zion.

Igandean jende guztiak Madrileko berri galdetzen zion.

— Han, gau luzeak. —erantzuten zuen beti Pepetxuk.

— Ikusi duzu Errege?

Eta Pepetxuk ezetz.

— Madrileren joan, eta Errege ikusi gabe etorri?

Pepetxu etxera bihurtu zen eta erabaki bat hartu zuen.

— Popatxu! —esan zion bere emazteari— Madrileren noa berriro. Errege ikusi behar dut.

Pepetxu Madrilerantz atera zen, eta noiz etorriko den ez dakigu.

13

HORI BAI TXAKURRA!

onen; (on, hobe, onen) / ant. txarren /.

irudi; FIGURA.

edozer; *edozertarako bailo du;* CUALQUIER COSA.

agin, agindu, agintze; *nork agintzen du hemen?* ORDENAR, MANDAR.

agerpen; APARICION.

inguru; gutxi gorabehera: *hiru kilometro inguru dira.*

eskain, eskaini, eskaintze; *laguntza eskaintzen dizut* / sin. opa(tu), opa egin / OFRECER.

hel, heldu, heltze; eskuz euts(i): *lepotik heldu zion.*

Zineman aktore oso onak daude. Hori badakigu. Baina, ba ote dakizu, aktorerik onena txakur bat dela? Benji deitzen da txakurtxo.

Joe Camp produktoreak filme bat egitea pentsatu zuen, eta bertan txakur bat jarri zuen protagonista. Filme hori famatua da Amerikan. Benjiren irudiarekin, alkondarak, koadernoak, posterrak eta beste mila gauza saltzen dira. Txakurrak ez daki nolako negozioa ekarri duen.

Benjik edozer egiten du. Agintzen zaion guztia egiten du: kartak buzoira bota, ateak itx eta ireki, ontziak bete etabar. Gure txakurra oso kotizatua da Estatu Batuetan. Ba dakizu zenbat kobratzen duen agerpen bakoitzean? Zazpi mila eta bostehun dolar. Miloi peseta inguru.

Benji abioian ibiltzen da, eta bere bidai txartela eramaten du. Cannesko Festibalera joango da, eta han egongo da formal formal aktorerik onenen artean. Bere filmeak ikustera ere formal formal joaten da.

Baina esku batean dolar bat eta bestean hezur bat eskaintzen badiozu, hezurari heltzen dio.

14

UPEL BEROAK

igertoki; igeri egiteko tokia; PISCINA.

ordez; beste baten lekuan: *irakaslearen ordez etorri naiz.*

abantaila; *ez diot abantailarik ikusten;* VENTAJA.

erlaxapen; RELAJACION.

ei; /sin, omen/.

erlaxa, erlaxatu, erlaxatze; RELAJAR.

batez ere; *euskaldunberrientzat prestatu dugu, batez ere, liburu hau / sin. bereziki / ESPECIALMENTE, PRINCIPALMENTE.*

ahantz, ahantzi, ahantze; *gaur ikasi eta bihar ahantzi egingo dut / ant. gogora(tu) /.*

Ez da erreza, etxean igertoki bat edukitzea. Kalifornian beste moda berri bat hasi da. Igertokien ordez, upel beroak.

Zer da upela? Upela barrika haundi bat da. Ikusi duzu inoiz sagardotegirik? Sagardotegietan upel haundiak egoten dira. Upel beroa zer da? Upel bat ur beroz betea.

Upel batzu, besteak baino haundiagoak izaten dira. Baina denak, pertsona bi edo gehiago sartzeko modukoak. Amerikarrak elkarrekin bainatzen dira. Senar-emazteak, familia osoa eta lagunak. Eta gauza ona dela esaten dute.

Upel beroan sarturik, musika entzuten, kontuak esaten, eta horrela egoten dira. Gehienetan ez dago inplikazio sexualik. Gehienetan upel familiarak dira.

Eta zein da bainu honen abantailarik handiena? Erlaxapena. Bainu hau oso ona ei da erlaxatzeko. Haurrei batez ere asko gustatzen zaie. Eta nagusiei ere, ez gutxiago.

Badakizu zer egin behar duzun. Upel bat erosi, ur beroz bete, barrura sartu eta egon. Noiz arte? Euskaraz hitz egiten ikas arte. Edo dakizuna ahantz arte.

15 DROGARIK TXARRENA ALKOHOLA

txarren; / ant. onen /.

gainera; *berandu eta gainera mozkortuta etorri zen;* ADEMÁS.

debeka, debekatu, debekatz; *erretzea debekatuta dago* / sin. galera-
z(i) / PROHIBIR.

hainbeste; (honenbeste, horrenbeste, hainbeste) / 1., 2. eta 3. pertso-
netan / *non ikasi duzu horrenbeste?*; TANTO.

kalte; ondorio txarra: *zigarroak kalte egingo dizu* / sin. gaitz /.

auzategi; auzoak bizi diren lekua / sin. auzune / BARRIO.

istripu; / sin. akzidente, ezbehar /.

bider; *zenbat bider esan behar dizut hori?* / sin. aldi /.

bazter, baztertu, baztertze; albora eraman; ARRINCONAR.

Mundu guztiak daki, alkohola droga bat dela. Oso txarra gainera. Eta alkohola droga legala da. Ba daude droga txarra-
goak. Baina debekatuta daude, eta ez dira hainbeste zabaltzen. Gaur alkohola da gehien hartzen den droga. Kalterik gehien egiten duena.

Begira zer gertatzen den Espainian. Alkoholak urtean hamar mila lagun hiltzen ditu. Madrileko zenbait auzategitan bar gehiago daude Norvegia guztian baino.

Igaz alkoholagatik 1.900 lagun hil ziren istripuetan. Zirrosiak 3.750 hil zituen. Eta 360 suizidatu ziren.

Eta telebistak zer egiten du? Propaganda eta propaganda alkoholaren alde. Alkoholaren publizitateak urtean bi mila milioi peseta ematen dizkio telebistari. Telebistak urtean lau mila bider egiten du alkoholaren propaganda. Egunean dozena bat aldiz.

Ederki gaude, alkohola baztertze.

16 ALKOHOLA MUNDUAN ZEHAR

zehir; *kaleetan zehir ibili naiz*; POR, A TRAVES DE.

kalte; *bazkariak kalte egin dit / sin. gaitz /*.

erabil, erabili, erabiltze; *euskaldun askok ez du bere hizkuntza erabiltzen*; USAR.

barik; *euskara barik ez da Euskal Herririk / sin. gabe /*.

honda, hondatu, hondatze; *hondatuta geratu naiz*; DESTROZAR, ARRUINAR.

gibel; *gibelego mina*; HIGADO.

makal, makaldu, makaltze; *ume hori makaltzen ari da / sin. ahul(du) / ant. bizkor(tu) / DEBILITAR.*

gorputzadar; *gorputzaren adarrak*; EXTREMIDAD.

dardarkada; TEMBLOR.

Irakurri duzu, alkoholak zer egiten duen Espainian. Eta munduan zehar? Gauza onik ez. Alkoholak penak kentzen ditu. Baina handiagoak ekartzen ditu.

Txilen, sanitatego presupostuaren ehuneko hogeita hamar (30%) alkoholaren kalteen kontra erabiltzen da. Estatu Batuetan, alkoholaren kostu soziala, urtean hiru bilioi dolar dira. Bilioi, ez milioi. Errusian, ehundik hirurogei ta bost (65%) krimen eta ehundik laurogei ta hamar (90%) deliktuzko mozkorrak ekartzen ditu. Munduan gaur, bost milioi alkoholiko daude, erdi alkoholikoak kontatu barik.

Zer egiten du alkoholak? Bizitza eta osasuna hondatu. Alkoholak gibela hondatzen du. Nerbioak makaltzen ditu. Gor-

putzadarretan, batez ere eskuetan, dardarkada sartzen du. Infartua eta tentsioa ekartzen ditu. Zerebroa atrofiatzen du. Eta abar.

Guzti hau entzun ondoren, gizon bat beldurtu egin zen. Eta pentsamendu txar hoiek burutik kentzeko, mozkortu egin zen.

17 HOMOSEXUALAK ETA HOMONATURALAK

ikerlari; ikertzen ari dena; INVESTIGADOR.

ugari; *aurten sagar ugari dago* / sin: asko, franko / ant. gutxi, urri /

ehundaka; *ehundaka lagun bildu ginen*; CENTENARES.

azter, aztertu, aztertze; / sin. examina(tu), iker(tu) /

giza-zerebro; gizasemearen zerebroa.

portaera; *portaera zintzoko ikaslea* / sin. konportamendu /

eztabaida; eritzi borroka / sin. diskusio /

funts; *gizon horrek ez du funtsik* / sin. oinarri, fundamentu /

beraz; / sin. orduan /

Ikerlari talde batek lan handi bat egin du. Dokumentazio ugari bildu dute. Zeri buruz? Homosexualitatea eta zerebroko alterazioen artean dagoen erlazioari buruz.

Ikerlari hauek ehundaka homosexual aztertu zituzten. Sexu bietako homosexualak. Eta zer aurkitu zuten?

Giza-zerebroko zati batek gure portaera sexuala kontrolatzen du. Zati hori «lobulu tenporala» da. Homosexual guztien lobulu tenporalean alterazioak detektatu zituzten.

Hau egia bada, aspaldiko eztabaida zaharrak gaur ez dauka funtsik. Batzuk esaten dute, homosexual jaiotzen dela. Beste batzuk esaten dute, gero egiten dela homosexuala.

Ikerlari horiena egia bada, homosexual jaio egiten da. Zerebroak jaiotzatik dakar diferentzia hori.

Beraz, homosexualak homonaturalak dira.

azeri; ZORRO.

bateldun; /sin. txalupari, batelari/.

itsasadar; itsasoaren adarra: *Gernikaldeko itsasadarra*; RIA.

norbait; *norbaitek deitu zaitu telefonoz* /sin. batenbat, inor/.

Batelduna, batela duena da. Bateldunak, jendea alde bate-tik bestera eramaten lan egiten du. Batez ere itsasadarretan. Adibidez, Bizkaiako Laidatik Sukarrietara.

Behin, bateldun bati azeri bat etorri zitzaion eta berarekin berba egiten hasi zen:

— Zuk eraman ni beste aldera —esan zion azeriak— Eta nik zuri hiru egia esango dizkizut.

— Konforme! —erantzun zion bateldunak— Sar barrura eta esan niri hiru egiak.

Azeria batelean sartu, eta hasi zen:

— Hauxe da lehenengoa: gaua, batzutan, eguna bezain argia dela esango dizu norbaitek. Hori inoiz ere ez. Eguna argi-goa da beti.

— Hori egia da bai —esan zuen bateldunak— Eta bigarre-na?

— Entzun! Batela, tripaz behera eraman behar duzu beti. Eta urik sartzen bazaio, atera.

— Hori ere ez dago txarto esanda. Eta hirugarrena?

— Hirugarrena hauxe da: praka zaharrak dauzkazu, eta nire mixeriak pasatzen badituzu, ez duzu inoiz praka berririk egingo.

erle; ABEJA.

asma, asmatu, asmatze; gogoan sor(tu): *nork asmatu zuen elektrizitate-a?* /sin. inbenta(tu)/.

harrigarri; *gauza harrigarriak esaten ditu;* ASOMBROSO.
gehiegi; (asko, gehiago, gehien, gehiegi): *hori gehiegi da* / ant. gu-
 txiegi /
erlauntza; COLMENA.
belartza; belar asko dagoen zelaia.
tantatxo; tanta txikia: *olio tantatxo bat;* GOTITA.
hego; *hegoak ebaki banizkio;* ALA.
astin, astindu, astintze; kolpeka eragin: *hautsa kentzeko astindu;* SA-
 CUDIR.
lurrun, lurrundu, lurruntze; likidoa gas bihur(tu); EVAPORAR.
heze; / ant. siku, lehor / HUMEDO.

Erleak harrigarriak dira. Mundu guztiak daki hori. Baina, ba ote dakizu, lehen frigorifikoa erleek asmatu zutela?

Erleek, bero gehiegi sentitzen dutenean, frigorifikoa bat egiten dute erlauntzan. Nola egiten dute frigorifikoa hori? Begira! Erlauntzako tenperatura gorantz doa udan. Hogeita hamazortzi gradutara igoten denean, alarma jotzen da erlauntzan, eta erleak arin irteten dira.

Nora irteten dira? erre kara, mendira edo belartzara. Erle bakoitzak bidaia bakoitzean ur tantatxo bat ekartzen du. Eta horrela, denen artean litro bat ur ekarri arte. Tantatxoak erlauntza guztian zabaltzen dituzte.

Eta orain zer? Orain dator harrigarriena. Erle guztiak batera hegoak astintzen hasten dira. Haizea egiten dute, eta haize horrekin ura lurrundu egiten da.

Edozein likidok, lurruntzen denean, beroa absorbitzen du. Horregatik, uretatik kanpora irtetean, hotza sentitzen dugu.

Erlauntzan, aire hezea eta beroa kanpora doaz. Barruko tenperatura, ordea, behera doa. Horra hor, munduan asmatu den lehen frigorifikoa.

20 LEKEITIOKO TALAIARIAREN BELDURRA

talaiari; talaiatik itsasoa zaintzen duena; ATALAYERO.
orain 500 urte; duela (orain dela) 500 urte.
zigor, zigortu, zigortze; CASTIGAR, FLAGELAR.

bihur, **bihurtu**, **bihurtze**; *etxera goiz bihurtu!* / sin. itzul(i), buelta(tu) /.

itzal; *sagarrondoaren itzala, udan bikain* / sin. gerizpe / SOMBRA.

berandu; ordua pasa eta gero: *gaur ere berandu!*

nahiz; *Zarautzen nahiz Donostian bizi, berdin zait* / sin. ala /.

axola izan, izate; *ez zait axola* / sin. inporta izan /.

asti; *ez daukat ezertarako astirik* / sin. denbora /.

eguntsenti; egunaren lehen orduak.

parera; / sin. aurrera /.

astiro; *astiro, baina hitz egin mesedez!* / sin. geldi, poliki / ant. korrika, arin /.

izerditan; izerdi egiten: *izerditan etorri da menditik*; SUDANDO.

hozkil; kemenik gabea / sin. koldar, beldurti / ant. ausart, kemen-tsu / COBARDE.

ukabil; esku itxia: *ukabilaz jo zuen.*

hatz; *eskuak bost hatz dauzka* / sin. hatzamar / DEDO DE LA MANO.

erpe; *deabruaren erpea baino gaiztoagoa da* / sin. hatzapar / GARRA.

amu; ANZUELO.

geldo; arintasunik gabekoa / sin. makal / ant. bizkor /.

tximista; / sin. oineztu / RAYO.

mutur; *muturzikinori!*; MORRO, HOCICO.

alferrik; *kalean euskara praktikatzen ez baduzu, alferrik ari zara ikasten*; INUTILMENTE.

behin betiko; DE UNA VEZ PARA SIEMPRE.

orroa; *behiak orroa egin du*; BRAMIDO.

utz, utzi, uzte; *bakarrik utziko zaitut* / sin. abandona(tu) /.

marruska, marruskatu, marruskatze; FROTAR.

Orain bostehun urte, Lekeition penitenteak ibiltzen ziren gauez. Hiriak bost ate zeuzkan, eta ate bakoitzean Santu baten irudia. Penitenteak irudi haien aurrean gelditu eta zigortu egiten ziren. Beti gauez eta oso gau ilunez.

Txili, Lekeitioko talaiaria zen. Goizaldean, talaiara joaten zen, itsasoaz zaintzeko. Eta gauean, etxera bihurtzen zen.

— Ez daukazu penitenteen beldurrik? — galdetzen zioten.

— Nik beldurra? Infernuko deabrua badator ere ez!

Gau batez Txili talaiatik dator. Gauza handi bat ikusten du aurrean. Beltz beltza da, eta ilunetan ere itzala egiten du.

— Gau on, gizona. Berandu zabilta. — esaten dio Txilik.

— Nahiz goiz nahiz berandu, zer axola zaizu zuri? — erantzuten dio besteak haserre.

— Nor arraio zara zu? Penitenteren bat?

— Ez daukat berba egiteko astirik. Egunsentirako Oiz mendira joan behar dut. Baina ez dakit bidea. Lagunduko didazu? Ala, beldur zara?...

— Ni beldur? Ez deabrua bazara ere!

— Goazen orduan!

Eta Txili eta biak Lekeitiotik Oizerantz doaz. Gaua da, eta ilun ilun dago. Hiriko atea pasatzen dute. Santuaren irudia dago aurrean.

— Zu, adiskide! —esaten dio Txilik lagunari— Nolako penitentea zara zu, Santuaren irudia ez ikusteko?

— Eta zuri zer? Beldur zara ala?

— Ni beldur? Zergatik?

Hiritik atera dira eta Oizerantz doaz. Oleta parera heltzen dira.

— Goazen astiroago! Izerditan nago —esaten du Txilik.

— Izerdia? Beldur zara zu, hozkilor!

Txilik «hozkil» entzun duenean, ukabilak ipintzen ditu eta laguna jo nahi du. Baina lagunaren hatzetan hamar erpe ikusten ditu. Amuak bezalako erpeak. Harriturik gelditzen da Txili.

— Beldur zara, hozkil geldoori!

— Ez! —erantzuten dio Txilik. Hauxe izan zen bere bizitzako lehen gezurra.

Bideari jarraitzen diote. Gizaburuaga parean, tximista batek kanposantuaren azpian jotzen du. Tximistaren argiaz, Txilik lagunaren aurpegia ikusten du. Gau iluna da. Ahuntz muturra ikusten du. Eta ahuntz muturrak irribarrez esaten dio:

— Beldur zara?

Txilik ez du ezer erantzuten. Gero eta arinago doaz. Oibar ondora heltzen dira. Txilik errosarioa ateratzen du eta erreza-tzen hasten da.

— Alferrik! —esaten du lagunak.

Txili, ixil ixilik dago.

— Alfer alferrik! — esaten du berriro ere lagunak.

Txilik ezin du begirik itxi. Lagunaren buruan ahuntzak, akerrak, txakurrak, txerriak eta piztia guztiak batera ikusten ditu.

— Txili! — esaten du lagunak— Esan behin betiko! Beldur zara?

— Oibarko Ama Maria! Beldur naiz, bai!

Eta Txili, Oibar ermitako atearen aurrean, erortzen da. Lagunak orroaka esaten du:

— Txili! Hurrengoan, infernuko deabruari baketan utzi! Neu naiz! Eskerrak Oibarko Amari! Bestela, hauxe zen zure azkena!

Deabruak hori esan, eta bere erpeez ermitako atea marruskatu zuen.

Gizaburuagarrek gero, ate hura erre eta berria ipini zuten.

21 ERREUMAREN KONTRA INURRIAK

inurri; / sin. txindurri / HORMIGA.

inoiz; *lehendik ere inoiz elkar ikusi dugu, ezta?* / sin. noizbait / ALGUNA VEZ.

aintzinako; *aintzinako lagunak* / sin. aspaldiko /.

gutxi, gutxitu, gutxitze; *hau komeria! Dirua gutxitu eta zorrak gehitu!* / sin. urri(tu) / ant. gehi(tu) /.

moko; txoriaren ahoa: *xoxoak galdu du mokoa.*

igortz, igortzi, igortzen; gauza bat beste baten gaintetik behin eta berriro pasa(tu); FROTAR.

arrisku; *arriskutan zaude;* PELIGRO.

pozoin; VENENO.

koko; INSECTO PEQUEÑO.

txonta; PINZON.

zozo; TORDO.

hartxori; ESTORNINO.

asper, aspertu, aspertze; gogoia gal(du): *klasean aspertu egiten naiz* / sin. gogai(tu) /.

Erreumarik badaukazu? Ez? Ba, inoiz edukitzen baduzu, hauxe egin behar duzu: alderdi erreumatua inurritegi batetan sartu.

Aintzinako germaniarrek hori egiten zuten. Beso erreumata inurritegian sartzen zuten eta hantxe edukitzen. Inurriak pik eta pik baina erreumaren minak laster gutxitzen ziren.

Harrigarriena txoriena da. Txoriek ere erreuma edukitzen dute. Eta orduan zer egiten dute? Beren mokoan inurri bat hartzen dute eta harekin beren lumak igorzen dituzte. Eta horrela, inurri bat eta beste bat eta beste bat. Eta zer gertatzen da?

Inurriak arriskua sentitzen duenean, bere defentsa dauka. Pozoin bat botatzen du, azido formikoa deitzen dena. Eta azido hori oso ona da erreumaren kontra.

Asko dira hori egiten duten txoriak: txontak, zozoak, hartxoriak eta abar. Txori hauek, kaiolan daudenean, berdin egiten hasten dira, kokoekin eta inurrien antzekoekin. Baina hoiek ez daukate azidorik eta txoriak laster aspertzen dira.

22 JESUSEN IZENEAN SEXUALKI ANIKILATU

ugal, ugaldu, ugaltze; / sin. gehiago(tu) / ant. urri(tu) / AUMENTAR.

mendebalde; eguzkia sartzen den aldea / ant. ekialde /

aholku; / sin. kontseilu /

goza eraz, erazi, erazte; gozatzeraz bultza(tu) / ant. sufrieraz(i) /

laztan, laztandu, laztantze; maitasunez eskuzta(tu); ACARICIAR.

lauski, lauskitu, lauskitze; gehiegi erabil(i); ESTRUJAR.

lurra jo, jotze; / sin. honda(tu) / DESTROZAR.

erakar, erakarri, erakartze; ekar eraz(i); ATRAER.

lor, lortu, lortze; *nahi baduzu, lortu ahal duzu* / sin. eskura(tu), kontsegi(tu) /

Munduan erlijio asko dago. Eta sektak, belarra baino ugariago. Euskal Herrian ez da askorik zabaldu oraindik, baina ari dira hemen ere ugaltzen.

Sekta hoietako bat «Jainkoaren semeak» deitzen da. Jain-

koaren seme nagusia, sektaren buru dena, David Berg da. Honak Mendebal Alemanian emakume konbertituei aholku hau ematen die:

—Sexualki anikilatu egin behar dituzue gizonak, Jesusen izenean. Egin jolas, flirteatu, dantza, goza erazi, laztandu, eta azkenik lauskitu, gizonak lurra jo arte...

Gizona anikilaturik dagoenean, orduan hasten da sermoia. Emakumeak gizona sektara erakarri behar du.

Lehenengoan lortzen ez bada, hurrenerako plana egin.

23

EGURALDIAREN PROFETAK

aldez aurretik; *mila esker, aldez aurretik*; POR ADELANTADO.

landare; *landare bakoitzak bere lorea*; PLANTA.

estalirik; / sin. tapaturik /.

ingura, inguratu, inguratze; RODEAR.

kukuka; *umeak kukuka jolasten ari dira*; AL ESCONDITE.

bele; *beleak zozoari ipurbeltz*. CUERVO.

barraskilo; / sin. karakola /.

saguzar; MURCIELAGO.

gau, gautu, gautze; *gaua etor(ri) / sin. ilun(du) /.*

enara; / sin. elaija / GOLONDRINA.

hegaz egin, egite; *oraindik ez du hegaz egiten ikasi*; VOLAR.

jazo, jazotze; *zer jazotzen da hor?* / sin. gerta(tu) /.

diztiratsu; BRILLANTE.

zilar; PLATA.

astin, astindu, astintze; SACUDIR.

Zer eguraldi egingo ote du bihar? Galde hori sarritan egin dugu. Aldez aurretik, jakin gura izaten dugu zer eguraldi egingo duen. Hori jakiteko, herriak elementu asko erabiltzen du. Batez ere, astroak, landareak eta animaliak.

Hurrengo gauzak gertatzen direnean, euria eta hotza egingo du. Eguzkia gorri gorri jaikitzen da, eta estalirik sartzen da. Ilargia lainoz inguratzen da edo hodei artean kukuka dabil. Katua, egun guztian, aurpegia garbitzen ari da. Txakurra joan eta etor ari da, eta lurra arraskatzen du. Belea eta zozoa kan-

tari ari dira. Barraskiloa kanpora eta erlea barrura doa. Saguzarra, gautu aurretik, irteten da. Enarak baxu baxu hegaz egiten du.

Hurrengoak jazotzen direnean, eguraldi ona egingo du. Eguzkia gris edo zuri jaiotzen da, eta diztiratsu eta arrosa kolorezko sartzen. Ilargiak zilarrezko plater baten antza dauka. Katuak kanpora joan nahi du. Enarak altu hegaz egiten du. Kanariak hegoak astintzen ditu. Oilarrak eguerdian kantatzen du.

24

GEOGRAFIAN ERE BAI

itzul, itzuli, itzultze; / sin. bihur(tu), buelta(tu) /.

tabernarik taberna; *kalerik kale ibili ginen zure bila.*

nik beste; *nik beste badakizu zuk ere / sin, nik aina, nik hainbat /.*

Gizon bat Ameriketara joan zen, beste asko bezala. Nor eta nongoa zen, ez dugu esango. Baina bizkaitarra zen. Urte asko egin zituen Ameriketan edo kanpoan behintzat. Eta noizbait, herrira itzultzea pentsatu zuen. Bihurtu zen, eta igande eguerdian herrira joan zen. Han zebilen, bere lagunekin, tabernarik taberna.

— Kaixo! Hemen gure aspaldiko gizona!

— Bai! Herria herria da. Eta hemen nago berriro ere, ha-
maikatxo herritan ibili ondoren.

— Ez zara, ba, mendian artzain egon?

— Artzain ni? Ez dago euskaldunik, nik beste ikusi duenik.

— Nondik ibili zara, ba?

— Amerika guztian. Batxistonen, Kalipornian, San Praix-
kon. Eta non ez?... Gero Australian ere bai. Eta Ijiton, eta
Trukian, eta azkenean Torremolinosen ere bai.

— Orduan, zuk ondo ezagutzen duzu geografia, ezta?

— Bai noski! Han ere sarritan egon naiz.

jentila; kristau fedea sinesten ez zuen euskaldun zaharra.

ola; aintzinako burdindegia; FERRERIA.

olagizon; olan lan egiten duena.

menpera, menperatu, menperatze; *kanpotik menperatzen gaituzte / sin. zapal(du), indarpe(tu) /*.

etsai; / sin. arerio / ant. lagun /.

abia, abiatu, abiatze; martxan jar(ri).

sagasti; sagarrondo ugari dagoen tokia.

agure; gizon zaharra.

neur, neurtu, neurtze; neurria har(tu); MEDIR.

hatz; *esku bakoitzak bost hatz.*

kurrikatzar; / sin. suhatzak / TENAZAS GRANDES.

gori; metalak sutan hartzen duen kolore gorria; ROJO VIVO.

garrasika; / sin. oihuka, orroaka / A GRITOS.

erauz, erauzi, erauzte; *tximistak zuhaitza erauzi du*; ARRANCAR.

Aralarren jentil indartsu bat bizi zen. Lagun guztiak menperatzen zituen eta ez zeukan etsairik. Gizon batekin bere indarra neurtu nahi zuen, baina ez zuen gizonik aurkitzen. Mendian behera abiatu zen, eta mutil bat aurkitu zuen.

— Gizona zara? —galdetu zion mutilari.

— Ez! Ez naiz. —erantzun zion mutilak.

Orduan jentilak Mekola sagastirantz segitu zuen. Han agure bat aurkitu zuen.

— Gizona zara? —galdetu zion agureari.

— Izan naiz. Orain ez.

— Nik gizon bat nahi dut, neure indarra neurtzeko.

— Hor aurrean ola beltz bat dago. Hor aurkituko dituzu gizonak.

Jentila joan zen, eta olako atean olagizon bat agertu zen.

— Gizona zara? —gelde egin zion jentilak.

— Bai.

— Neurtuko ditugu indarrak?

— Bai. Baina, utziko didazu neure hatzak zure sudurrean jartzen?

Jentilak baietz esan zuen. Orduan gizonak sutegiko kurrikatzar goriak hartu zituen, eta sudurra erre eta kendu egin zion jentilari.

Jentila garrasika itzuli zen Aralarrera, eta gertatu zitzaiona kontatu zien bere lagunei:

— Ni baino gizon indartsuago bat aurkitu dut. Hatz birekin bakarrik, aurpegi guztia erre eta sudurra erauzi dit.

26 SUGESTIOAREN INDAR HARRIGARRIA

zerrenda; / sin. ilara, lerro / FRANJA, LISTA.

alboan; *itsuak txakurra darama alboan* / sin. aldean, aldamenean /

gogo; *gogo aldaketa;* ESPIRITU, MENTE, DESEO, VOLUNTAD.

bidez; *diru bidez edozer lortzen da;* POR MEDIO DE.

George Kreskin, fama haundiko gizona da. Estatu Batuetan. Telepatia, premonizioa, hipnosia eta abar, ez dira misterioak Kreskinentzat. Amerikako telebistan, beharbada, gehien entzuten dena da. Beraren arma nagusia sugestioa da.

Hona hemen aproba bat. Publikoa begira dago. Hogeita hamar zentimetro zabalerako zerrenda bat pintaturik dago lurrean. Nor ez da ibiliko hortik? Alboan ekilibrista bat agertzen da. Lurretik bi metrotara, alanbre baten gainean dabil, hara eta hona.

Gero Kreskinek elkarrizketa bat egiten dio ekilibristari. Publikoa entzuten ari da. Elkarrizketa bukatu eta gero, publikoko jendea ez zen kapaz, lurreko zerrenda hartan ibiltzeko. Erori egiten zen.

Zer gertatu zen? Sugestio bidez, jendearen gogoan alanbrea eta zerrenda trastokatu egin ziren. Jendeak uste zuen, zerrenda hura lurretik bi metrotara zegoela, alanbrea bezala. Eta erori egiten zen.

Honelakoak, milaka dauzka Kreskinek. Eta tranpa gabe. Sugestio bidez.

izaki; (EL) SER.

errotarri; errotako harri biribil handia; PIEDRA DE MOLINO.

abiada; /sin. martxa/.

Unibertsoan dagoen guztia, espiral moduan egiten da. Atomoak, planetak, izarrak eta izaki bizi guztiak, espiralean formatzen dira. Atomoak, elektroiak dauzka inguruan. Eta elektroiak espiralean dabilta bueltaka.

Gure galaxia ere espiral haundi bat da. Goitik begiraturik, errotarri digante bat bezalakoa da. Hor goian edo behean dauden galaxiek ere, forma horixe daukate.

Galaxiak mila milioika kontatzen dira. Gure galaxiak, berak bakarrik, ehun mila milioli izar dauzka. Eguzkia tamainu erdiko izar bat da. Badaude txikiagoak. Baina haundiagoak ere ez gutxi.

Eguzki sistema osoak, segunduan, berrehun eta berrogei kilometro egiten ditu gure galaxian. Horrez gainera, eguzkiak hemeretzi kilometro segunduan, bere sistema barruan.

Lurra eguzkiaren inguruan, eta gu lurrean korrika. Pentsa nolako abiada daramagun.

txukun; /sin. garbi / ant. zikin /.

zahartegi; zaharrak bizi diren tokia; ASILO.

kinkilari; QUINCALLERO.

ezizen; izen ez dena /sin. gaitzizen / MOTE, SOBRENOMBRE.

saltzaile; saltzen ari dena / ant. erosle /.

indiano; Ameriketatik aberats etorri dena.

birigarro; MALVIZ.

soil; *adibide soil bat emango dizut* /sin. simple, bakar /.

sakel; *sakela bete diru* / sin. poltsiko /
elkar; batak bestea: *elkar maite dute*.
barreka; barre egiten: *barreka irten ginen denok zinematik*.
ustekabe; SORPRESA.
urpe; ur azpia: *batela urpean dago*.
dakarrela; ekartzen duelarik; TRAYENDO.
maltzur; malezia duena: *kontuz gizon maltzur horrekin* / ant. zintzo /
bikote; bi gauzak (pertsonak) osotzen duten multzoa; PAREJA.
galant; *emakume galanta* / sin. eder, bikain /
geroztik; handik aurrera: *geroztik askotan ikusi dut* / sin. harrezke-
 ro / A PARTIR DE ENTONCES.
ezar, **ezarri**, **ezartze**; / sin. ipin(i) / COLOCAR.

Gizon xeble bat bizi zen Bizkaian, Markos izenekoa. Gizon txukuna baina alferra zen. Oso alferra. Amarekin bizi zen. Amak lan guztiak egin behar. Ama zahartu egin zen, eta zahartegira eraman behar izan zuten. Semea, bi aldiz bakarrik joan zen ama ikustera.

Gero Markos, bere antzeko bat bilatu ondoren, ezkondu egin zen. Eta kinkilari hasi zen Bizkaian eta Gipuzkoan zehar. Ezizen asko zeuzkan: Kuku, Mihi laban, Lamertzeres (bere emazteagatik), Peine fino, eta abar... Baina ezizen ezagunena «Diru» zen.

Behin, herrixka batetan, txori-saltzaile bat zegoen. Peru deitzen zen. Bi indianok txori baten izena jakin nahi zuten. Batak «Sinsontea» eta besteak «Marakaiboa» esaten zuten. Peruri galdetu zioten eta honek «cuarenta reales» esaten zuen. Markos ere han zebilen, eta hogeireal eskaini zituen. Tratua egin eta «Ave del Paraiso» esan zuen Peruk. Indianoak han gelditu ziren eta Markos etxera joan zen bere txoriarekin.

—Ederra egin dut! —esan zion bere emazteari— Hogerleko gezurrezkoa eman eta Paradisuko Txoria ekarri!

Hurrengo goizean, ohetik jaikita, bere txori berria ikustera doa Markos. Kaiola ikusten du, eta harriturik gelditzen da. Paradisuko Txoria birigarro soil bat da. Txoria guztiz kanbiatu da.

Peru tabernan dago. «Ederra egin dut», pentsatzen du, gosari on bat jaten duen bitartean. Gero, gosaria ordaintzeko,

Markosen hogerlekoa ateratzen du eta tabernariari ematen dio.

—Aizu! —esaten dio tabernariak— Hogerleko hau gezurrezkoa da. Sar diru faltsu hau zeure sakelean, eta eman niri hogerleko sano bat.

—Arraioa! —pentsatzen du Peruk— Ni bakarrik ez naiz listoa munduan.

Eguerdian Markosek eta Peruk elkar ikusten dute. Biak barreka hasten dira.

—Lagun onak gara. Zer egingo dugu orain? —esaten dio Peruk Markosi.

—Onena hauxe izango da —erantzuten dio Markosek—. Txoria mendira botako dugu, eta dirua errekarara.

—Ederki! —esaten du Peruk— Bota zuk txoria, eta gero nik botako dut dirua.

Markosek libre uzten du birigarroa, eta Peruk hogerlekoa errekarara botatzen du. Agur egiten diote elkarri eta nor bere bidetik doa. Baina Peru disimuluan birigarroaren atzetik doa, eta berriro harrapatzen du bere txoria. Gero ixil ixilik errekarara doa. Zertara? Hogerlekoa ere harrapatzera. Txoria eskuan dauka eta pozik dago.

Joan da Peru errekarara. Eta hura bai ustekabea! Markos han dator urpetik, hogerlekoa eskuan dakarrela.

—Adiskide! —esaten du Peruk— Ez naiz ni maltzur bakarra. Ni adina bazara zu.

—Egia diozu —erantzuten dio Markosek— Biok bikote galanta egiten dugu.

Peruk bere birigarroa berriro «Ave del Paraiso» egin zuen eta Bilbon saldu. Markosek ere bere hogerlekoa ostatu batetan sartu zuen.

Geroztik, «Diru» ezizena ezarri zioten batari eta «Txori» besteari.

29 DORREEN MUGIMENDUA NEURTZEKO

izpi; argi hari mehea: *X izpiak*; RAYO.

sarritan; /sin. askotan / ant. gutxitan /.

bitxi; *gauza bitxi bat esan duzu* / sin. ezezagun, arraro /.

edozer; *tresna horrek edozertarako balio du* / sin. zernahi / CUALQUIER COSA.

azter, aztertu, aztertze; / sin. iker(tu), examina(tu) /.

Badakizu X izpiak daudela. Beharbada, sarritan pasatu zara X izpietatik. Beste izpi batzuk ere badaude, oso famatuak direnak. Beste izpi hauek «Laser» izpiak deitzen dira.

Kanadako teknikari batzuk aplikazio bitxi bat asmatu dute izpi hauentzat. Torontoko dorre batetan, laser-izpidun tresna bat jarri dute. Zertarako? Dorrearen mugimendua neurtzeko. Dorreak mugitu egiten dira ala? Bai. Gutxi edo asko, edozer mugitzen da haizearekin.

Esperimentua hau da. Dorrearen goitik eta perpendikular-ki laser izpi bat projektatzen da. Nora? Beheko tresna batetara. Honek, dorrearen desplazamenduaren seinale bat ematen du. Seinale hori konputagailu batetan erregistraturik gelditzen da, haizearen datuekin batera. Gero, informazioa aztertu ondoren, dorrearen mugimendua eta haizearen indarra konparatzen dira.

Guk hauxe jakin behar dugu: geldi ez dagoela ezer. Haizearekin katedraleak ere mugitzen dira. Arbolak bezala. Baina nola neurtu ahal izango dugu hain mugimendu txiki hori? Orain badaukagu hori neurtzeko inbentua ere.

30 PTOLOMEOREN KRIMENA

aintzinako; orain dela urte askotako: *aintzinako kontuak dira horiek*.

komeni, komenitze; egoki izan: *lagun hori ez zaizu komeni*.

utz, utzi, uzte; *utzi baketan!* / sin. abandona(tu) /.

ager, agertu, agertze; / ant. desager(tu) / APARECER.

irabaz, irabazi, irabazte; *Kaikuk irabazi du* / ant. gal(du) /.

Izen honekin liburu bat argitaratu du Estatu Batuetako astronomo batek.

Ptolomeo aintzinako astronomo bat izan zen. Oso astronomo famatua. Egiptiarra zen. Eguzkia lurraren inguruan dabil, ala lurra eguzkiaren inguruan? Ptolomeok lurra jarri zuen zentruzat. Teoria honek hamabost mende iraun zuen, Koperniko, Galileo eta Newton etorri arte.

Ptolomeok aurreko datu guztiak aztertu zituen. Batzuk hartu eta beste batzuk utzi. Eta komeni zitzaizkion datuak hartu zituen, bakarrik. Gero, asko idatzi zuen. Haren lan nagusia, aurreko astronomoen datuak biltzea, izan zen. Eta datu asko faltsifikatu egin zituen.

Hori da, liburu berri honen autoreak dioena. Eta konklusio hau ateratzen du: «Ptolomeo ez da, ez, aintzinako astronomorik handiena. Zientziaren historia guztian, ez da agertu Ptolomeo baino estafadore handiagorik.»

Titulu ederra irabazi du gure Ptolomeok! Baina, hori hala bada ere, nork eskatuko dizkio hari kontuak?

31 BEHINBEHINEKO HERIOTZA

behinbehineko; *behinbehineko metodoa* / ant. behinbetiko / PROVISIONAL.

hil zorian; A PUNTO DE MORIR.

minbizi; / sin. kantzer /.

azken; / ant. lehen /.

arnasa; *arnasa hartu ezinik heldu zaigu Jon*; RESPIRACION.

berehala; *berehala deituko zaitu* / sin. laster /.

jelazta, jelaztatu, jelaztatze; *arrain jelaztatua* / sin. konjela(tu) /.

honela; modu (era) honetan: *honela jarraitzen baduzu...*

menpera, menperatu, menperatze; / sin. domina(tu) /.

zehir; *median zehir joan ziren*; A TRAVES DE.

ausar, ausartu, ausartze; *ez naiz ausartzen* / sin. atrebi(tu) /.

garesti; / sin. karu / ant. merke /.

osa, osatu, osatze; / sin. senda(tu) / ant. gaixo(tu) /.

biztanle; / sin. bizilagun / HABITANTE.

Mila bederatzirehun hirurogei ta zazpigarreneko Urtarri-laren hamabian, Ipar Amerikako aberats bat, James Bedford, hil zorian zegoen. Minbizia zeukan. Ez zeukan erremediorik. Haren inguruan, espezialista talde bat zegoen, tresna oso aurreratuekin. Azken arnasa eman eta berehala, haren gorputza jelaztatu egin zuten. Nitrogeno likidoaren tenperaturan sartu zuten. Honela, Bedford jaunak, berriro bizitzeko esperantza dauka, minbizia menperatzen denean.

Behinbehineko heriotza honen ondoren eta bost urtetan zehar, hamabost iparramerikar bakarrik ausartu ziren esperientzia hori egitera. Gaur, ehun baino gehiago dira, ausartu direnak.

Operazio hau oso garestia da, eta prozesua oso luzea. Dirua hemen ere nagusi?... Baina esperientzia, harrigarria da.

Minbizia, goiz edo berandu, osatu ahal izango da. Eta orduan, gizon hauek, berriro bizitzeko posibilitatea edukiko dute.

32

MARI URRAKA

atso; emakume zaharra: *atzo hil ziren hamar atso.*

jatorriz; *jatorriz Arrigorriagako zen;* ORIGINARIAMENTE.

ei; / sin. omen /.

neba; neska batentzat beraren aitaren semea.

apez; / sin. abade /.

gurdi; / sin. burdi / CARRO.

elizpe; elizaren behe aldea: *elizpean ikasi zuen pelotan.*

loturik; / sin. lotuta / ant. askaturik, askatuta /.

jantz, jantzi, jantze; / ant. erantz(i) /.

bien bitartean; ENTRE TANTO.

gurdi ta guzti; CON CARRO Y TODO.

geroztik; / sin. harrezkero /.

ilunabar; gauaren hastea.

Mari Urraka Anbotoko atsoa da. Pertsonaia honek izen asko dauzka: Anbotoko atsoa, Anbotoko dama, Anbotoko

sorgina, Anbotoko andrea. Hainbeste modutara deitzen den Mari Urraka honek, modu askotako legendak dauzka. Batek honela dio: Atso hau, jatorriz, Lazkaokoa ei da. Neba bat zeukan, apeza bera. Mari Urraka gaztetxoaren zenean, amak koba batetako andre batengana eramaten zuen, igande eta jai egunetan.

Aitak, elizara joateko esaten zien, baina amak igandero kobara eramaten zuen alabatxoa. Neba apezak, hori jakin zuenean, gurdi bat egin zuen. Bere arreba gurdian sartu, eta elizpera loturik eraman zuen. Eta bera sakristiara joan zen, mezatarako soinekoak janztera. Baina bien bitartean suak hartu zuen gurdia, eta Mari Urraka aidean joan zen, gurdi eta guzti.

Geroztik hor dabil Mari Urraka, Anbototik Oizera eta Oiztik Anbotora. Ilunabarrean, zerua gorritzen hasten denean, orduantxe joaten da, mendi batetik bestera. Zazpi urte egiten ditu Oizen eta beste zazpi Anboton.

33

BERRIRO JAIO

dirudi; *euria dakarrela dirudi;* PARECE.

beraz; POR LO TANTO.

umontzi; ume ontzi; jaio aurretik umeak amaren sabelean okupatzeko duen tokia; UTERO.

birjaio, birjaiotze; berriro jaio.

gazte, gaztetu, gaztetzte; gazte egin: *jantzi horrek hamar urtez gaztetzeko zaitu / ant. zahar(tu) /*.

nortasun; *Mikelek bere nortasuna galdu du / sin. pertsonalitate /*.

Berriro jaio! Nola esan duzu? Berriro jaio? Bai jauna! Berriro jaio!

Fantasia dirudi. Baina zientzia barruan, hau ez da fantasia bat. Begira.

Gizon baten edozein zelulari nukleoa kentzen zaio. Eta nukleo hori emakume baten obuloari sartzen zaio. Aurretik

obuloaren nukleoa hil behar da. Beraz, obuloaren nukleoa hil, eta haren lekuan, zelula maskulino baten nukleoa sartu. Obulo hori enbrioia egiten da. Enbrioia emakume baten umontzian sartu eta gestazio prozesua jarraituko du. Animaliekin operazio hau egina dago.

Hau ez da «probeta kumea» bezala. Teknika berri honen bidez jaioko den haurra eta zelula-nukleo haren jabea, berdin berdinak izango dira. Pertsona beraren kopia bat bezala birjaioko da. Baina erabat gaztetua.

Problema bat dago. Oroimena eta nortasuna nola transmititu zerebro batetik bestera? Zaila dirudi baina honetan ere bada esperientziak.

Guzti hau fikzio zientzia dela? Beharbada. Baina dudarik gabe, urte gutxi barru, nobedade harrigarriak ikusi behar ditugu.

34 HERIOTZA DOHATSUA ALA DOHAKABEA?

dohatsu; / sin. zoriontsu / ant. dohakabe / BIENAVENTURADO.

gaitz; MAL.

jasan, jasate; / sin. soporta(tu) /.

nabarmen; argi dagoena: *gizon horren beldurra nabarmena da.*

jazo, jazotze; / sin. gerta(tu) /.

atzera, atzeratu, atzeratze; *Hirugarren Munduko Herri atzeratuak* / ant. aurrera(tu) /.

zigor; / sin. kastigu, kondena /.

ahantzurik; / sin. ahaztuta /.

gizaixo; giza gaixoa: *gizaixoa kalean hil zen.*

Infartua omen da gaurko gizarteko gaitza. Zenbat hiltzen dira honela futbol partiduetan? Eta beste joko bero batzutan? Fanatikoek, infartuz hiltzeko arrisku handia daukate. Bihotzak ez du fanatismorik jasaten. Eta bihotza gelditzen bada, heriotza dator berehalaxe.

Kasu nabarmen bat 1970.eko mundialean jazo zen. Gizon bat heriotzara kondenaturik zegoen. Futbola asko gustatzen

zitzaion eta exekuzioa atzeratzeko eskatu zuen. Noiz arte? Mundialeko partiduak ikus arte. Ez zuen askorik eskatzen, eta eman zioten. Baina gizona, mundialak bukatu aurretik, hil zen. Nola?

Telebista ikusten zegoen. Mundialeko partidu bat ikusten ari zen, heriotz zigorraz ahanzturik. Beraren ekipoari gol bat sartu zioten. Infartuak gure gizona jo zuen, eta gizaixoa bertan hil zen.

Bada gero, heriotza originala! Haren bihotzak nahiago zuen bere kontura gelditu, fusilamenduko orman gelditu baino. Zer esan behar da? Heriotza, dohatsua ala dohakabea?

35

SUA ETA IZOTZA BATERA

- izotz;** ur konjelatua: *gaur izotza egingo du* / sin. lehia /
batera; *denok batera hitz egiten baduzue...* / sin. batean, baturik /
haitz; *Haitzgorri* / sin. arroka /
porotsu; poro asko duena.
eragin; *maixu horrek eragin handia du ikasleengan* / sin, influentzia /
gai; *ikas-gai, mintza-gai*; MATERIA.
honela; modu honetan: *honela esan zuen*.
irakin, irakite; *urak 100 gradutan irakiten du*.
lur azal; luraren kanpoko aldea / sin. lur gain / SUPERFICIE TERRESTRE.
adibidez; esate baterako.
negutegi; negu tokia; INVERNADERO.
lekazi; LEGUMBRE.
barazki; baratzeko produktua.
klabelin; CLAVEL.
uzta; *uztail*; RECOLECCION.

Islandia goiko polo inguruan dago. Beraz, hotza eta izotza ugari. Baina sua ere badago. Sua eta izotza batera. Lurralde horretan iturri bereziak daude. Ur beroa botatzen duten iturriak. Islandian haitz porotsuak daude. Azpian, bolkanen eraginez, gai erradiaktiboak deskonposatzen ari dira.

Honela, barruko urak irakiten jartzen dira. Eta indar han-

diz irteten dira lur azalera. Iturri edo putzu termalak. Ur bero eta ugari honek, gauza askotarako balio du. Adibidez, negutegiak berotzeko. Eta negutegi batzuk hamar hektarea baino gehiago daukate. Negutegi handiak. Eta zer hartzen da negutegi hoietan? Lekaziak, bananak, barazkiak, pepinoak, meloiak, klabelinak eta abar.

Negutegi hoietako uzta, normala baino hamar bider aberatsagoa da. Entzun duzu? Hamar aldiz aberatsagoa. Hori bai paradisua! Eta gainera ura berotzeko lanik egin gabe.

36

BIZKARRAK BEROTZEN

bizkar; gorputzaren atzeko aldea: *bizkar gainean*.

goiz; ordua baino lehenago / ant. berandu /.

honen; (honen, horren, hain); 1., 2., 3., pertsonan; TAN.

atzera; / sin. berriz, berriro /.

norbait; *norbait ibili da hemen* / sin. batenbat, inor /.

barik; / sin. gabe /.

norbera; *norberak daki non daukan min*; UNO MISMO, CADA CUAL.

lepo; *lehengo lepotik burua*; CUELLO.

agure; gizon zaharra.

gordin; CRUDO, VERDE, OBSCENO.

makilaka; makilaz jo eta jo.

aieneka; LAMENTANDOSE.

Erromeri egun batez, ilunabarrean, lau anaiak etxera etorri ziren. Orduan, goiz etorri behar zen etxera.

—Zer? Honen goiz etxera? —esan zien aita— Ez diozue inori bizkarrik berotu?

—Guk ez —erantzun zioten haiek.

—Orduan, joan atzera erromeriara. Eta ez etor etxera, norbaiti bizkarrak berotu barik.

Joan ziren mutilak.

—Besteak berotzeko, norberak ere bero egon behar du —esan zuen haietariko batek; eta laurak, sagardotegi batetan sartu ziren. Edan eta edan, leporaino bete ziren.

Sagardotegitik irten ondoren, tirrin-tarran zebiltzan. Mozkortuta zeuden eta ezin zuten etxerako bidea aurkitu. Halako batez, agure gordin bat aurkitu zuten.

—Hauxe da gurea! —esan zuten— Honexeri berotuko diogu bizkarra.

Eta makilaka hasi ziren agurearen bizkarrean. Agurea aieneka hasi zen. Lau anaiak orduantxe konturatu ziren hura nor zen. Agurea, beraien aita zen.

37

ETA ORAIN BANANAK

bila, bilatu, bilatze; BUSCAR.

azal; gaineko estalkia; kanpoko aldea: *laranja azala*.

aurki, aurkitu, aurkitze; *bilatzen ibili gara baina ezin aurki!* / sin. topa(tu) / ENCONTRAR.

hauts; *hautsontzi berria ekarri dut;* POLVO.

urezta, ureztatu, ureztatze; urez busti: *lehioetatik ureztatu gaituzte;* REGAR.

laban; / sin. irristagarri / RESBALADIZO.

izotz; ur jelaztatua: *goiko mendian elurra dago, errekaudian izotza* / sin. lehia /.

askotariko; era askotako.

zalekeria; / sin. kapritxu, hobby /.

bilduma, bildumatu, bildumatze; *tximeletak bildumatzen ditut* / sin. kolekziona(tu) /.

miseria gorri; *gerra ostean miseria gorriak jasan genituen* / sin. miseria latz /.

aldean; / sin. alboan, aldamenean /.

Estatu Batuetako polizia bide berriak bilatzen ari da. Bila eta bila, banana azala ona dela aurkitu du. Zertarako ona? Manifestazioen kontra.

Banana azala hauts egin behar da. Urarekin nahastu eta nahaste horrekin kaleak ureztatu. Honela kaleak laban laban geratzen dira. Izotz pistak bezala gelditzen dira.

Manifestazioen kontra tresna asko erabiltzen dira munduan. Porrak dira gehien erabiltzen direnak. Askotariko po-

rrak: porra normalak, lantza antzekoak, makila antzekoak... Gasezko bonbak ere erabiltzen dira, gomazko pelotak eta abar. Eta orain, bananak.

Haitin banana asko dago. Hango presidentea gaztea da. Hogei ta bederatzi urte bakarrik dauzka. Beronen zalekeria, luxuzko autoak bildumatzea da. Herria miseria gorrian bizi da. Presidente gazteak ere zerbaiten beldurra dauka. Jendearen aurrean agertzen denean, pistola bat eramaten du aldean. Eta beti, banana bat eskuan.

38 KOSMOAN ZEHAR IBILIKO GARA

mende; 100 urte: *XX. mendean bizi gara.*

gertakizun; gertatuko den zerbait: *oraindik gertakizun dago.*

sehaska; haurraren ohe txikia: *hautxo politta sehaskan dago.*

ez dago bizitzerik; / sin. ezin da bizi /.

susma, susmatu, susmatze; / sin. sospetxa(tu) /.

jostailu; jolas egiteko tresna.

iratzar, iratzarri, irartzartze; / sin. esna(tu) / ant. lo egin /.

leher, lehertu, lehertze; / sin. leher egin, apur(tu) / ESTALLAR, REVENTAR.

dena dela; SEA LO QUE SEA.

Espazioa abentura izugarria da. Datorren mendetik aurrera kosmoan zehar ibiliko gara. Gertakizun honek, ondorio kultural, mental eta biologiko handiak ekarriko ditu.

Lurra gizonaren sehaska da. Baina ez dago beti sehaskan bizitzerik. Oraintxe ari gara sehaskatik irteten.

Datorren mendean, hirugarren milurtea hasten da. Zer gertatuko da hurrengo hamar mende hoietan? Zerbait susmatu ahal dugu. Hamar Einstein jaioko dira, eta oraingo fisika jostailu bat bezala izango da. Perspektiba hau seguru segurua da. Ez da utopia.

Jupiter eta Saturnoren sateliteetan baseak jarriko dira. Base hoietara joateko, hogei eta hogei ta hamar urte behar

izango dira. Horregatik, astronautak hibernazioan jarriko dira bidean, eta bertara irixten direnean, han iratzarriko dira.

Zer aurkituko dute han? Inork ez daki. Ezin dugu imaginatu. Munstro extraterrestreak eta antzekoak gezurrak dira. Gauza hoiek lur honetako fantasiak dira. Laster jakingo da zer dagoen han.

Asteroideak planeta lehertu baten zatiak dira. Datorren mendeko gizonek, zati hoiek ere harrapatuko dituzte.

Dena dela, datorren mendean, inork irakurtzen baditu le-
rro hauek, ez du barre gutxi egingo.

39 MANDARRAINGO LAMIAK

lamia; Euskal Mitologiako pertsonaia bitxiak; erdi emakume erdi hegaztiak ziren.

gerri; CINTURA.

zintzilik; / sin. esekita /.

bular; *bularrik gabe utziko naute;* PECHO.

golko; *golkoa bete diru;* SENO.

gutxi, gutxitu, gutxitze; *pagoak gutxitu egin dira gure mendietan / sin. urri(tu) / ant. gehi(tu), ugal(du) /.*

Mandarrain Itsasu eta Ezpeleta ondoko mendi handi bat da. Mendi honek leize edo zulo haundiak dauzka. Zulo hoietan lamiak bizi ziren. Gaur ere gelditzen dira batzuk.

Zulo hoietan urre pila handiak zeuden. Jendeak urre hura hartu nahi zuen. Eta hara joaten ziren. Gerrian loturiko soka-tik zintzilik, beherantz hasten ziren. Orduan lamiek zarata handia egiten zuten. Eta jendeak, zarata entzutean, oihuka esaten zuen:

— Ai! Ai! Tira sokari gorantz!

Behin apez bat joan zen. Ostia saildua eramane zuen bularean. Lamiak ixil ixilik egon ziren, eta apeza beheraino jaitsi zen.

—Eman eskerrak golkoan dakarzun horri —esan zioten lamiek apezari.

Apezak urre guztia eraman zuen, eta Mandarraingo lamia orduantxe hasi ziren gutxitzen.

40

HITLER GARESTI DAGO

garesti; / sin. karu / ant. merke /.

eskutitz; / sin. gutun, idazki, karta /.

dirutza; diru asko.

utz, utzi, uzte; / ant. har(tu) /.

saltzaile; / ant. erosle /.

Hitlerren azken eskutitz bat subastan jarriko omen dute New Yorken. Berrogei ta hamar mila dolarrez hasiko da subasta. Dirutza hori, bost milioi peseta baino gehiago da. Hortik gora jotzen badute, Hitlerren eskutitz hau, munduko garestiena izango da.

Bere burua hil baino sei egun aurrerago idatzi zuen Hitlerrek eskutitz hau. Mariskal bati erantzuten dio. Mariskal honek, Berlin uzteko esaten zion Hitleri, eta Bohemiako mendietara joateko. Eta Hitlerrek hauxe erantzuten dio: «Berlinen egon behar dut». Eskutitz honek gaur hainbeste milioi balio du.

Saltzaileak, eskutitz hau Amerikar Armadako nagusi bategandik hartu zuela dio. Eta honek, Berlingo Kantzeilari-tzan Hitlerren mahaitik hartu zuela dio.

Saltzaileak Hitlerren autoerretratu bakarra ere badauka, beste ofiziale batek emana. Autoerretratu hau Hitlerrek lehen gerra mundialean egin zuen, oraindik soldadua zela. Hau ere hogeitai ta bost dolarretatik gorantz subastatuko da.

Hil eta gero ere, ez du gutxi balio Hitlerrek.

bitxi; / sin. arraro /.

zertan edo hartan; *zertan edo hartan, lan egin behar dut;* EN ALGO.

basatipula; basoan hazten den tipula; CEBOLLA SILVESTRE.

baratxuri; / sin. berakatz / AJO.

min; gustu garratzekoa: *biper mina* / sin. pikante /.

arrakasta; EXITO.

lehiaketa; / sin. txapelketa, sariketa /.

gozagarri; gozo egitekoa: *kafe honek gozagarria behar du.*

bigun, bigundu, biguntze; / ant. gogor(tu) /.

Munduan aproba asko egiten da. Apustu asko egiten da. Munduan gauza xeblere asko egiten da. Eta astakeriak ere, ez gutxi. Baina, zertan edo hartan txapeldun gelditzea, beti da zerbait.

Estatu Batuetan, Virginian, txapelketa bitxia irabazi du John Grim jaunak. Hirurogei ta bost basatipula jan zituen. Zenbat kilo ote ziren? Eta pentsa, basatipula oso pikantea dela. Baratxuria eta tipula normala baino askoz ere minagoa.

Landare honek gastronomoen artean arrakasta handia dauka. Horregatik, lehiaketa horretan, bi mila lagunek baino gehiagok parte hartu zuten.

John Grimek, hogeitahamar dolar jaso zituen sari bezala eta flasko bete gozagarri, ahoko eta atzeko mina biguntzeko.

idorte; euririk eza / sin. lehorte / ant. eurite /.

beharrean; *atsoa esan beharrean, astoa esan duzu* / sin. ordez /.

tarteka; *tarteka zerbait ondo ere egiten du;* A RATOS.

hodei; *hodei gorri, haize edo euri* / sin. laino /.

ardura; / sin. kezka, axola, erresponsabilitate /.

aldazgora; / sin. aldapaz gora / ant. aldazbehera /.

erantz, erantzi, eranzte; *jantzia ken(du)* / ant. *jantz(i)* /.

ezkuta, ezkutatu, ezkutitze; *bistatik gal(du): botila hori ezkutatu behar dut* / sin. gorde /.

eskari; eskatzen dena: *Jainkoak entzun du zure eskaria* / sin. eskaera, eskabide, erregru /.

Iparraldean «idor» hitzak lehorra, sikua, esan nahi du. Kanpoko lehortea, euririk eza, «idortea» esaten dute. Gorpuztaren barruko lehortea gaixotasunari berriz, «idorreria» esaten diote.

Entzun orain, hango herritxo batetan zer gertatu zen.

Urte hartan idorte izugarria zegoen. Herritarrek, errogatibak egiteko, eskatu zioten apezari. Prozesioa, elizatik ermita batetaraino joan zen. Apezak, ibilaldia hasi aurretik, sermoitxo bat egin zuen. Mihia trabatu zitzaion eta «idortea» esan beharrean «idorreria» esan zuen. Herritarrek, emakumeek batez ere, barretxoak egin zituzten.

Prozesioa aurrera zihoan. Sakristaua aurretik zihoan bere gurutze handiarekin. Herria atzetik, otoitz egiten eta kantatzen. Tarteka, zerura begiratzen zuten, ea hodeirik agertzen zen. Sakristauak beste ardura bat zeukan.

Aldazgora gogor batetan, gurutzea monagiloari eman zion sakristauak eta prakak eranztera ezkutatu zen. Orduan, agurtxo batek bere ondoko lagunari esaten dio:

— Txo! Jainkoak entzun du gure apezaren eskaria.

43

DROGA NEGOZIOA

argigarri; argia ematen duena / ant. ilungarri /.

arriskugarri; arriskua ematen duena: *elurra bideetan arriskugarria da.*

irabazi; *denda honek irabazi bikainak eman dizkigu* / sin. ganantzia / ant. galera /.

ondorio; *drogaren ondorioak ezagutzen ditugu* / sin. kontsekuentzia / **ondapen;** / sin. ondamen, destrukzio /.

hain zuzen; *hain zuzen, atzo ikusi nuen gizon hori* / sin. prezeski /.

darabilen; *arma darabilena beti dabil arriskutan* / sin. erabiltzen duen /.

sare; arrainak harrapatzeko harizko tranpa; RED.

babespean; / sin. aterpean, protekziopean /.

Droga negozio handia dela, mundu guztiak daki. Hona hemen zenbait zifra eta argigarri. Drogarik arriskugarriena kokaina dela uste da. Eta irabazirik handiena dakarrena ere bai. Kokainaren ondorioak hauek dira: gorputzaren eta buruaren beheraldia, mukosen hondapena, deliramendua eta heriotza.

Orain dela bi urte, hiru hilabetetan bakarrik, mila eta bostehun kilo harrapatu zituzten. Hirurogei ta hamabi milioi dolar balio zuten. Baina, zer da hori? Miamitik bakarrik, urtean berrehun tonelada sartzen dira Estatu Batuetara. Hain zuzen, Floridako Estatua da droga kontuan, negozioirik gehien darabilena. Mafia hortan, merkatari handiak sarturik daude, abokatu sare zabal baten babespean.

Estatu Batuetako bigarren droga, marihuana da. Kontra-bandista handiek, astean, milioi bat dolarretatik gora irabazten dute. Horretarako, gehienetan, aire pilotuak erabiltzen dituzte. Hauek, «misio» bakoitzean, berrehun mila dolar irabazten dituzte. Soldata polita!

44

ERNALMENA GUTXITU

ernal, ernaldu, ernaltze; *arrak emea ernaltzen du*; FECUNDAR.

ernalmen; ernaltzeko mena (ahalmen, kapazidade).

ernari; umedun dagoen emea.

ernalerazle; ernalmena bizkortzen duena.

denerako; *denerako balio du* / ant. ezertarako ere ez /.

kopuru; *ikasle kopuru txikia daukagu* / sin. kantitate /.

estu; zabalera gutxikoa: *kale hestua* / ant. zabal /.

Azken hogeitau bost urtetan analisiak egin dira USAn. Giza esperman, asko gutxitu dira zelula ernalerazleak.

Zer da «ernalerazlea»? Ernal erazten duena. Emea ernari uzten duen zelula. Gizonaren semenaren zelula guztiak ez daude bizirik. Batzuk ez dute balio. Baina milioiak eta milioiak dira, eta denerako dago.

1950.ean mila gizon analizatu zituzten. Ehuneko berrogei ta lauk (% 44) ehun milioi espermatozoide zeuzkaten milimetro kubikoan.

1975.ean beste mila gizon analizatu zituzten. Eta hemen, espermatozoide kopuru hori, ehuneko hoge ta laura (% 24) jaisten da.

1978.ean test berdina egiten zaio beste bi mila gizoni, eta oraingoan gutxiago: ehuneko hoge ta bik bakarrik (% 22).

Zergatik ote da hori? Arrazoi garbirik ez dakite. Hipotesi asko baina gauza segururik ez. Arrazoiatarik bat, hauxe segur asko: galtza estuak erabiltzea. Galtza estuekin, barrabilen tenperatura gora doa. Eta gauza jakina da, berotasunak ernalmena gutxitzen duela.

45

ADIMENA BISTURI PUNTAN

adimen; aditzeko ahalmena: *adimen handiko gizona*; INTELIGENCIA.

tentel; adimen gutxikoa: *zaude ixilik, tentelori!* / ant. azkar /.

orratz; tresnatxo fina, punta zorrotza duena: *gizon orratza*; ALFILER.

inguruko; *bi kilo inguruko oilaskoa* / sin. gutxi gorabeherako /.

algaratsu; / sin. zaratatsu / RUIDOSO.

Batzuk adimen gabe edo adimen gutxiz jaiotzen dira. Ez da berba polita baina, batzuk berez dira tentelak. Hoiei, operazioa egiteko eta adimena emateko, modurik ez dago oraindik. Baina bai, galdu dutenei berriro bihurtzeko. Operazio horrek izen arraroa dauka, baina egin dute.

Begira zer operazio egin duen Londresen Cary Bannister emakumeak. Mikroskopia eta orratz fin finen bidez, bi arteria operatu ditu, bata tenporala eta bestea zerebrala. Arteria hoiek txiki txikiak dira, milimetro bat ingurukoak. Gaixoa, arteria batzuren oklusioagatik, sei urtetako adin mentalera

itzuli zen. Bi hilabete dira operazioa egin ziotela. Eta gaixoa berriro bihurtu da normalitatera.

Bestalde Londresetik abisu bat etorri zaigu. Kontuz barrealdiekin. Barrealdi luze eta algaratsuak hiltzeko arriskua ekartzen ei du. Arnasaren eta bihotzaren erritmoa azeleratzen bait dira.

46

PREFAZIO BERRIA

mando; asto eta behorraren ume antzua: *mandoak umerik ez.*

gizaixo; giza gaixo / sin. zoritxarreko /.

hurrengo; / ant. aurreko / SIGUIENTE.

noizean behin; *noizean behin berandu etortzen da* / sin. batzutan, gutxitan /.

bidezko; / sin. legezko / LEGITIMO.

nork bere; *nork bere osasuna zaindu behar du* / sin. bakoitzak bere /.

berri eman, emate; / sin. notizia eman /.

korupe; *korupeko salmoak* / sin. koru azpi /.

bidez; *negoziaketaren bidez lortuko dugu* / sin. bitartez /.

Apez bat mandoan doa eta herriko lapur batek diru guztiak eta mandoa kentzen dizkio. Lapurrak, Salamon dauka izena.

— Ez esan inori gero! —agintzen dio lapurrak apezari
—Bestela hila zara.

— Jainkoari ere ez? —galdetzen dio apezak.

— Nahi baduzu, esan Jainkoari. Nik ere esango diot.

Apez gizaixoa triste joan zen etxera. Hurrengo igandean eliza bete beterik zegoen. Prefazioa mezaren zati bat da, eta noizean behin kantatu egiten da. Igande hartan apezka kantatzen hasi zen:

«Egoki eta bidezko da bai, zuri Aita Jainkoari, nork bere berri ematea. Eta horrela, herri honetan badago gizon bat, Salamon deitzen dena. Joan den ostegunean, bidera irten zitzai-

dan, eta diru guztiak eta mandoa kendu zizkidan. Inori ez esateko agindu zidan. Baina zuri bai. Horregatik esaten dizut, aita, diru barik utzi nauela. Nik esan gabe ere, zuk badakizu hori. Berak ere esango dizula esan dit. Baina nik esateak ez dizu kalterik egingo. Zuk dena dakizu eta dena egin ahal duzu. Zuk badakizu Salamon hori hortxe, korupean, dagoela. Horregatik, zure seme Jesukristoren bidez...»

Salamonek ez zuen gau hartan etxean lo egin.

47

BURUSI OSOA ALA ERDIA

burusi; oherako estalkia: *hiru burusi behar ditut neguan ohean*; MAN-TA.

zaharraren zaharrez; *zaharraren zaharrez hil da*; DE PURO VIEJO.

igaro, igarotze; / sin. pasa(tu), iragan /.

aterik ate; *aterik ate gabiltza Olentzaro kantatzen* / sin. atez ate /.

opa, opatu, opatze; *zorionak opa dizkizut bihotzez* / sin. desira(tu) /.

hurbil, hurbildu, hurbiltze; *hurbil etor(ri): umea negarrez hurbildu zait* / sin. gertura(tu) / ant. urrun(du), urrutira(tu) /.

makur, makurtu, makurtze; / sin. jaits(i) / ant. altxa(tu) /.

ganbara; baserrietako goi aldea: *liburu zaharrez beteta dago gure ganbara*.

Gizon batek, zaharraren zaharrez, ezin zuen lanik egin. Gizonak seme bat zeukan eta haren etxera joatea pentsatu zuen, bertan bizitzeko. Semea ezkondurik zegoen eta bazeuzkan hiru edo lau seme-alaba.

Urte batzu igaro zituen aitak, semearen etxean. Behin, ez dakigu zergatik, semeak hau esan zion aita zaharrari:

— Aita. Nik ezin dizut gehiago jaten eman. Har, mesedez, burusi hau bizkarrean eta joan aterik ate. Zorte ona opa dizut.

Seme nagusitxoa, zortzi urtetako mutikoa, inguruan zegoen, eta aitak aitonari esandakoa entzun zuen. Hurbildu zen mutikoa eta aitari honela hitz egin zion:

— Aita. Burusi osoa ematen diozu aitonari? Erdiarekin ere

nahikoa dauka. Gorde mesedez, beste erdia, neuk etxetik bidaltzen zaitudan ordurako.

Aitak, hori entzutean, burua makurtu zuen. Aitona abarrik erantzera joan zen, eta aitak amari burusia ganbaran gordetzeko agindu zion.

48

BI BEGI ETA IRUDI BAT

irudi; IMAGEN.

bakar; bat baino ez: *liburu bakar hau daukagu.*

zauri, zauritu, zauritze; *bat hil, eta hiru zauritu dituzte*; HERIR.

itsu; ikusmenik ez duena.

erdibana, erdibanatu, erdibanatze; *irabaziak bion artean erdibanatuko ditugu*; REPARTIR A MEDIAS.

garondo; lepoaren atzeko alde / sin. lepondo / NUCA.

alderantziz; *alderantziz dela uste dut* / sin. aldrebes /.

jario; *a ze hitz jariora duen berritsu horrek!*; FLUJO.

oraindio; *gazteak gara oraindio* / sin. oraindik, oraindino /.

Bi begik nola eman ahal dute irudi bakarra? Alde batetik, gauza guztiz normala dela iruditzen zaigu, baina bestetik oso harrigarria da. Frantzian eta Estatu Batuetan, lan batzuk egin dituzte eta zerbait argitu dute misterio hau.

Begiaren ordenagailua zerebroaren atzean dago, lobulu okzipitalean. Alderdi hau zauritzen bada, itsu edo erdi itsu gelditzen gara. Bi begiek ekipoan lan egiten dute. Erdibanatu egiten dute arlo bisuala. Begi ezkerak, eskuin aldeko arlo bisuala hartzen du, eta garondoaren ezkeraldera eramaten du. Eta begi eskuinak, alderantziz egiten du. Bide erdian gurutzatzean, bi irudiek bat egiten dute.

Zelula nerbioetan zehar, kanale bakoitzetik datozen jarioak, nola batu dira irudi bakarrean? Hori misterioa da oraindio.

Baina dakiguna, hau da. Begietariko bat lehen asteetan bendatzen bada eta estimulu bisuala kentzen bazaio, ekipo lana apurtu egiten da. Begi bakoitza bere aldetik doa. Ume

horrek ez du inoiz irudi baturik ikusiko. Gaitz horri estrabis-moa esaten zaio. Kontuz ba, haurraren lehen bederatzi hilabete-tan.

49

HERIOTZE BATEN BERRIA

adieraz, adierazi, adierazte; aditzera eman: *erlatiboa adieraziko dizuet gaur / sin. azal(du) /*.

bando; / sin. pregoi /.

biharamun; hurrengo egun: *biharamunean eskolara!*

ahuntz; akerraren emea.

txilina; / sin. zintzarri /.

birritan; bi aldiz: *birritan esan dizut.*

Errege batek emaztea oso gaixorik zeukan. Erregek bazekien erregina ez zela sendatuko. Baina ez zuen nahi, bere emaztea hil zela entzuterik. Diru pila haundi bat utzi zuen. Zertarako? Erregina hil zela adierazteko, baina «hil da» esan gabe.

Erregina hil zen eta bandoa zabaldu zen erreinu guztian. Biharamun goizean artzain bat etorri zen Jauregira. Artzaina ahuntz batekin etorri zen. Jauregiko atera heldu eta ahuntzaren txilinari tiratu zion. Txilin hura entzutean, errege lehiora irten zen.

— Nor dabil hor?

— Egun on, errege Salomon!

— Bai zuri ere, artzain Begi-erre.

— Oilarrak gauerdian behin eta birritan jotzen du!

— Hori badakit, zuk esan gabe ere.

— Baina zure emazteak ez du behin, ez birritan entzungo!

— Beraz, hil da?

— Jauna. Nik ez dut hori esan. Zuk, zeuk esan duzu hori.

Eta artzaina etxera itzuli zen.

istripu; / sin. akzidente, ezbehar /.

lasaigarri; / ant. ernagarri /.

bestalde; / sin. gainera / POR LO DEMAS.

gai; *gai likidoak* / sin. materia /.

batez beste; COMO PROMEDIO.

jarraian; *zinemari jarraian elkarriketa egingo dugu* / sin. segidan /.

Bretania Haundiko hiru medikuk abisu bat publikatu dute «British Medical Journal» izeneko aldizkari errespetagarrian. Abisu hori medikuentzat eta jendearentzat da. Zeri buruz? Gaur hain zabaldurik dabilzan lasaigarri batzuri buruz. Lasaigarrien artean, batzuk kaminuetako istripu arriskuak gehitzen omen dituzte, nerbioen funtzionamendua aldatuz.

Bretania Haundian, 309 istripuren estudio estadistiko bat egin dute, eta sei biktima lasaigarrien efektupean zeudela ikusi dute.

Bestalde, Amerikako agintari federalak propaganda egiten ari dira barbiturikoen kontra. Gai hauek, batez beste, hogeita hamar edo berrogei minutu bakarrik luzatzen omen dute loa. Eta aste bete jarraian hartzen badira, zortzigarren egunean, odolak lau edo sei bider metabolito gehiago darama. Zer dira metabolitoak? Gauza onak ez, asko gehitzen badira.

MATXANGOEN EZKONTZAK ETA DIBORTZIOAK

matxango; / sin. tximino, makako /.

berezi; besteak bezalako ez dena: *ardo berezia edan dugu.*

araldi; abereen zelo aldia.

igar, igarri, igartze; gertakizun bat aurretik jakin: *ezetz igar?* / sin. asma(tu) /.

arreske; arra eskatzen duen aberearen egoera.

harro; inor baino gehiago dela uste duena: *santurtziarrak harro dabilta aurten.*

oldarkortasun; / sin. agresibitate /.

bizi, bizitu, bizitze; biziago egin; AVIVAR.

hauta, hautatu, hautatze; batzuren artean bat har(tu): *alkate berria*
hautatu dugu / sin. aukera(tu) /.

bikote; PAREJA.

Matxangoa tximino klase bat da. Matxango batzuk elurretan bizi dira. Animalia bereziak dira. Emeen araldia abenduan hasten da eta martxoan amaitzen. Emeei errez igartzen zaie arreske daudela. Arrak ere asko aldatzen dira. Buztana tente jartzen dute, eta emeen inguruan harro harro ibiltzen dira. Gehien mugitzen direnak eta gorputz-erakusketa ondoen egiten dutenak, hoixek gustatzen zaizkie gehien emeei.

Arren oldarkortasuna ere, bizitu egiten da. Emeen inguruan, arrak elkar joka ibiltzen dira. Eta hori emeei asko gustatzen zaie. Honelako eta bestelako gauza asko egin ondoren, azkenean nork hautatzen du laguna? Arrak ala emeak? Emeak hautatzen du laguna. Eta hortan matxangoak liberalak dira. Ez diote maila sozialari begiratzen.

Bikoteek denbora gutxi egiten dute elkarrekin. Zenbat denbora? Ordu batzuk bakarrik. Gero dibortziatu egiten dira, eta bakoitza beste lagun bat bilatzen, hasten da. Honela pasatzen dituzte bi hilabete. Eta gero, denak lagun eta aurrera.

52

VUDU ERLIJIOKO JAINKOAK

ustez; *hori ez da egia nire ustez* / sin. ustetan, pentsamentuz, eritiziz / **sineskera;** / sin. fede / CREENCIA.

arbaso; aurreko belaunaldietako pertsonak: *gure arbasoen hizkuntza zaharra* / sin. asaba / ANTEPASADO.

erritu; RITO.

bitarteko; beste batengana bidea: *horrekin hitz egin nahi badugu, bitarteko bat behar dugu* / sin. ararteko / INTERMEDIARIO.

eskabide; eskatzen dena: *entzun gure eskabidea* / sin. eskari /.

kutun; AMULETO.

pitxer; edaria gordetzeko ontzia; *sagardo pitxer bat aterako dugu;*
JARRA.

noiz; / sin. noizbait, noizean behin /.

Haitiarrek erlijio berezi bat daukate. Vudu deitzen da. Bartzuren ustez, erlijio hau kanibalismoari loturik dago eta magia beltzaren lehengusua da. Baina, izatez, haitiarren bizitzari loturik dago.

Haitiko erlijio ofiziala, katolikoa da. Baina herriaren sineskerak, Afrikako arbaso zaharren errituen inguruan dabilta. Vudu hitza bera ere Afrikakoa da. Gogoia edo izpiritua esan nahi du.

Vudu erlijioan jainko asko daude. Baina bat da nagusia eta besteak bitartekoak dira. Fededunek baketan uzten dute Jainko nagusia, haundiegia delako. Beren eskabideak egiteko, bitarteko jainkoei dei egiten diete.

Erljio hontako zeremoniak oso teatralak dira. Tanborrak, kutunak, pitxer bereziak eta harriak erabiltzen dituzte. Hoiien barruan, arbasoen izpirituek omen daude. Edariak ere hartzen dituzte, belarrez eta alkohol gogorrez prestatuak. Inoiz animaliak ere hiltzen dituzte, batez ere, oilaskoak eta ahuntzak.

Edan eta edan ondoren, izpirituz ondo kargaturik amaitzen dute zeremonia.

53 ESKLABU IZATEKO BELDURRA

matxinada; herri zapalduaren iraultza.

izan arren; *txikia izan arren, irabazi egin du* / sin. izanda ere, nahiz eta... izan /.

azpitik; / sin. izkutuan, klandestinitatean /.

ardura; / sin. kezka, preokupazio /.

ahaide; *ahaideak bakarrik gonbidatu ditugu* / sin. sendiko, etxeko, familiako /.

iratzar, iratzarri, iratzartze; *iratzargailua* / sin. esnaraz(i) /.

itzar, itzarri, itzartze; *gurasoek iratzarri nahi dute baina umea ez da itzartzen* / sin. esna(tu) /.

bihur, bihurtu, bihurtze; berriro izan: *80 urtez gazte bihurtu zara;*
VOLVER A SER.

jagon, jagote; *txakurrak etxea jagoten du* / sin. zain(du) /.

pizkunde; bizitzara bihurtzea: *Herriaren pizkundera;* RESURRECCION.

Boukman, Haitiko esklabu beltz izugarri bat izan zen. Ahalmen supernaturalak zeuzkala uste zuten. Bere lagunekin 1791.ean esklabutzaren kontra altxatu zen, eta burrukan hil zuten. Baina esklabuen matxinada aurrera zihoan. Haitik 1804.ean lortu zuen independentzia.

Haitiarren erlijio ofiziala katolikoa izan arren, haiek Vudu erlijioa maite dute, azpitik. Haitiarrek heriotzaren ardura handia daukate. Baina begira zergatik. Begira, esklabutzak nolako beldurra ematen dien.

Munduan gertatu ahal den gauzarik txarrena, «defuntu bizia» izatea da haitiarrentzat. Haien erlijiooko kezka nagusia hau da: bide supernaturalez hila hilobitik altxatzea eta berriro esklabu bihurtzea.

Hori ez gertatzeko, hila kontuz zaindu behar da. Haren arima ahaide bati edo auzo bati transmititu behar zaio. Hilak ez dira iratzarri behar. Itzartzea esklabu bihurtzea da. Hilek lo egin behar dute. Eta biziek, hilen loa kontuz kontuz jagon behar dute.

Haitiar pobreek ez dute beren hilen pizkunderik nahi.

54

REQUIEM MEZA

orrialde; *liburu honek 200 orrialde ditu; PAGINA.*

tiki taka; *Koldo tiki taka dabil / sin. oinez /.*

itzul, itzuli, itzultze; *zer ordutan itzuliko zara etxera? / sin. bihur(tu), buelta(tu) /.*

hain zuzen; *hain zuzen, horixe bera esan nuen nik / sin. prezeski /.*

oroit, oroitu, oroitze; *askotan oroitu naiz zutaz / sin. gogora(tu) / ant. ahantz(i) /.*

Requiem, hilen meza esan nahi du. Lehen, hilen meza beltez jantzita ematen zen beti. Entzun orain, Nafarroako Ezkurrari zer gertatu zen.

Larunbat arratsalde batez, apezak sakristauari meza-liburua eman eta Erasunera joateko esan zion. Zertara? Igandeko

meza zein zen jakitera. Erasungo erretoreak meza-liburua hartu zuen, eta bertan paper bat sarturik, «hauxe da biharko meza», esan zion sakristauari.

Sakristauak, orrialde hartan, R handi bat ikusi zuen. Eta meza-liburua harturik tiki-taka Ezkurrara itzuli zen. Elizpean sartu zenean, hango batekin hizketan hasi zen. Eta berba eta berba, liburua behera erori zitzaion eta papertxoa galdu. Hain zuzen, orduantxe atera zen apezka elizatik.

— Jauna! —esan zion sakristauak— paper bat zegoen liburuan, zein orrialde zen jakiteko. Baina papertxoa galdu egin zait. Berriro joango naiz Erasunera?

— Ez zara oroitzen zer saindu edo zer irudi zegoen orrialde hartan?

— Hori bai, jauna! R handi bat ikusi nuen!

— A! Badakit. —esan zuen apezak— Requiem meza.

Eta urte hartan, Ezkurran, Requiem meza kantatu ei zuten Pazko egunez.

55

MARIREN IBILERAK

iheskor; ihes egiten duena: *txakur iheskorra*; FUGAZ, HUIDIZO.
gori, goritu, goritze; sutan berotutako burdinaren kolore gorria har(tu).

jaus, jausi, jauste; *jausiko zara!* / sin. eror(i) /.

arrunt; sarri ikusten dena: *gizon arruntari bertsoak* / ant. berezi /.

kondaira; / sin. historia /.

haitzulo; haitz zuloa / sin. koba /.

adats; ile mataza ongi orraztua; CABELLERA.

atso; emakume zaharra.

Udazkenean, azaroan batez ere, izar iheskorak ikusten dira zeruan. Zer dira izar iheskorak? Izarren gaiak edo materiak. Atmosferan sartzen direnean, goritu egiten dira. Argitasun handia ateratzen dute. Batzuk lurrera jausten dira. Hauek

aerolitoak deitzen dira. Erortzen ez direnak, meteoritoak dira. Izen arrunta «izar iheskorrak».

Izar hauek kondaira asko sortu dute munduan. Euskal Herrian ere bai. Ezagutzen duzue Mariren kondaira?

Mari hau, Aizkorriko dama da. Udazkenean, Akategiko haitzulotik irten eta Anbotora edo Murumendira joaten da. Han, beste haitzulo batzutan, ezkututzen da. Bidean argitasun bizia ematen du. Adats luze eta koloretsua dauka. Izar iheskor baten antzekoa da.

Mari hau, Murumendiko sorgina eta Anbotoko atsoa ere, deitzen da. Euskal mitologian jainkosa hau oso ezaguna da, eta modu askotara agertzen da. Haitzulo asko daude «Mari-zulo» izena daukatenak.

56

TXINPANTZEEN BIZIMODUA

basati; / sin. basoko / SALVAJE.

oihan; zuhaitz asko dagoen lekua: *urtxintxak oihanean* / sin. baso /.

bereizkeria; *Elkarte honetan ez dugu bereizkeriarik* / sin. preferentzia, diskriminazio /.

harreman; *horiekin ez dugu harremanik* / sin. hartueman, erlazio /.

arinki; / sin. lasterka, arin / ant. poliki /.

igurtz, **igurtzi**, **igurtzite**; bata bestearen gainetik, behin eta berriz, *pasa(tu): hori garbitzeko, ondo igurtzi behar duzu*; FROTAR.

uki, **ukitu**, **ukitze**; *ikus, ez uki!* / sin. iku(tu) /.

zehatz; ongi aukeratzen dakiena: *gizon zehatzak behar ditugu hemen* / sin. egoki / ant, gutxi gorabeherako /.

garau; ale lehor txikia.

ehiza, **ehizatu**, **ehizatze**; txoriak eta piztiak harrapa(tu).

marrazka, **marrazkatu**, **marrazkatze**; hortzez harraska(tu) / sin. hortzika(tu) /.

leun; latzik gabea: *esku leunak dauzkazu* / sin. fin / ant. latz /.

miazka, **miazkatu**, **miazkatze**; mihiaz xurga(tu): *katuak esnea miazkatu du* / sin. zurrupa(tu) /.

berez; inoren influentziarik gabe: *berez ikasi du horrek*.

Txinpantzeen bizitza soziala oso organizaturik dago. Jaingarria da guretzat. Bizikera basatian bait daude. Oihanean

dabiltza. Eta elkar agurtzen dute. Baina ez beti eta ez denek berdin. Haien artean ere, bereizkeriak izaten dira.

Harremanak hotzak badira, elkar ikustean, eskuak arinki igurtziten dituzte. Harreman beroak direnean, besarkada haundi bat ematen diote elkarri. Maitasuna adierazteko, organu genitalak goxoki ukitzen dituzte.

Janariak hautatzen ere, oso zehatzak eta bizkorrak dira. Hogeitaz hamar fruita klase gustatzen zaie; hogeitaz hosto klase; sei lore, eta zenbait garau. Nagusiak direnean, beste abereak ere jaten dituzte. Horretarako, aurrekoengandik ikasten dute nola ehiza.

Inurriak eta termitak harrapatzeko, abilitate harrigarria behar da. Makila egoki bat aukeratzen dute, hostoak kendu, azala marrazkatu, eta leun leun ipintzen dute. Termitak noiz irtengo diren badakite. Makila, zuloan ipintzen dute eta geroxeago, kontuz kontuz erretiraten. Makila insektoz bete da; orain eskuan daukaten janari gozoa, «polo» bat bezala, miazkatzen dute.

Inurriak harrapatzeko makila luzeagoa behar dute. Tximinoek ez dakite hau berez, jaiotzaz. Gurasoengandik ikasten dute.

57 NOLA DESAGERTU ZIREN MAYAK?

desager, desagertu, desagertze; ikusezin bihur(tu): *berehala desagertu zen / ant. ager(tu) /*.

honda, hondatu, hondatze; *kutsadurak hondatu egin ditu gure ibaiak / sin. desegin, lur jo /*.

agorpen; / sin. ahitze, bukatze / AGOTAMIENTO.

berezko; inoren influentziarik gabe: *berezkoa du horrek indarra.*

izurrite; izurri sasoi; EPIDEMIA.

aldakuntza; *azken urte hauetan aldakuntza ugari eduki dugu herrian;* CAMBIO.

gainbehera; goitik behera jaistea / sin. dekadentzia /

eraiki, eraikitze; jaiki eraz(i): *etxe berria eraiki behar dugu hemen.*

era berean; modu berdinean: *senarra trenez joan zen eta emaztea era berean / ant. alderantziz /*.

hondamendi; *harrokeria izan da neska horren hondamendia;* RUINA.

erorrera; / sin. jauskera / CAIDA.

eragile; eragiten duena; egin erazlea: *liburu honen eragilea Euskaltzaindia da*; PROMOTOR.

emankortasun; fruitu ugari emateko ahalmena/sin. produktibitate/.

urri; *hobe da urri eta ongi, asko eta gaizki baino* / sin. eskas / ant. ugari/.

Historiako enigma haundi bat da; nola eta zergatik, hargarrien mendearen azkenean, kolpera hondatu zen mayen zibilizazio aberatsa?

Indio hauek hego Mexikon, Guatemalan eta Beliceko zati batetan bizi ziren. Kultiboen agorpena, berezko katastrofe bat, izurritea, klima aldakuntza gogorra, insektuen inbasioa... Hipotesi guzti hauek eta gehiago ere, egin dira baina arrazoi egokirik aurkitu ez.

Kaliforniako Unibertsitateko bi ikerlari mayen estelak aztertzen hasi dira. Karbono 14rekin analizatu, eta 810. urtean estelen kultua gainbehera datorrela ateratzen dute. Azken estela 928.ekoa da.

Aldi horretan, indio mayen lurraldeak izugarriro despuplatzen dira. Mende batean, hiru milioitik larehun mila bizilagunera, jaisten da. Historiako hondamendi demografikorik handienetako.

Beraz, erorrera honen arrazoiatariko bat, mayen elitearen erorrera izan zen. Elite hori bait zen, hain zuzen, estelen eragile.

Beste arrazoi posible batzuk ere badira: superpopulazioa, lurraren emankortasun urria (kultibo bakarra), beste tribuekin gerrak...

Misterioa, hala ere, argitu gabe uzten dugu.

58 NGUMBEN ANTROPOLOGIA SEXUALA

lekutik lekura; toki batetik bestera: *lekutik lekura, euskara ezberdina hitz egiten da*.

haurdun; emakume ernaria; EN CINTA.

ohar, oharu, ohartze; *ez nintzen oharu* / sin. kontura(tu) /.

gehi, gehitu, gehitze; / sin. gehiago(tu), ugari(tu) / ant. gutxi(tu) /.

oinarri; *oinarrizko euskara* / sin. funts, fundamentu /.

saia, saiatu, saiatze; *saiatzen gara baina...* / sin. ari izan, ihardun, ekin /.

azti; *etorkizuna igartzen duena: aztiarengana joan beharko dut, ki-nielak egitera.*

usantza; / sin. ohitura /.

masaia; MASAJE.

ernagarri; *kafea ernagarria da* / ant. lasaigarri /.

haz, hazi, hazte; *landareak eta animaliak handi(tu).*

jasan, jasate; *haginetako min hau ezin dut jasan* / sin. sufri(tu), aguanta(tu) /.

Ngumbak, Kamerungo tribu bat dira. Sexualitatea mundu guztikoa da, baina oso desberdina lekutik lekura. Tribu honetan ama haurdun gelditzen dela ohartzen direnean, gurasoek harreman sexualak gehitzen dituzte. Zertarako? Haurra indartzeko eta, batez ere, haurraren geroko sexua indartzeko.

Ohitura honen oinarria hau da: fetoak, gizonaren espermaz eta emakumearen odolez, bizi direla uste dute. Hirugarren hilean, gurasoak haurrari sexua bilatzen saiatzen dira. Horretarako aztiengana joaten dira. Amak belar salda batzu hartzen ditu eta sexua fijaturik gelditzen da.

Haurra jaiotzen denean, zirkuntzidapenerako preparatzen dute. Hori sei edo zazpi urterekin izaten da. Horretarako preparaturik egon behar du haurrak, eta operazioa kexarik gabe jasateko, gai izan behar du. Han ez dago anestesiarik.

Gero, gaztetxoan artean, organu genitalak preparatzeko usantza publikoa dago. Mutilek elkarri eta neskek elkarri masaia eta ernagarriak ematen dizkiete organu genitalak hazteko.

Nagusien sexualitatea oso biologikoa eta aberatsa da. Faktore sikologikoak oso garrantzi gutxi du.

59

AMERIKANOA ETA MANDAZAINA

behinola; *behinola Pernando Amezketarra...* / sin. behin batean /.

gizen; / sin. lodik / ant. argal /.

bezain; (kualitatezko berdintasuna adierazten duen partikula): *zu bezain ondo ez.*

perra, perratu, perratze; zaldiei eta behiei ankapetan burdinezko zapatak ezar(ri).

errementaldegi; burdinezko lanak egiteko lantokia.

errota; *haize errota;* MOLINO.

launa; bakoitzak lau: *launa sagar jan dugu.*

Behinola, amerikano bat bizi zen basaburuko herri batean. Gizen bezain aberats eta aberats bezain gizen zen. Oso gizona eta astuna zen. Behin, amerikanoa mandoa perratzerara joan zen. Errementaldegian beste mandazain bat aurkitu zuen. Hura ere mandoa perratzerara joana zen. Mandazaina bere indarrak eta abildadeak pregonatzen hasi zen.

Amerikanoak orduan esan zion:

— Hain indartsua zu? To! Jokoa egingo dugu. Lau kintale nork lehenago jaso mando gainera.

— Bai eta bai. Eginda jokoa.

Badoaz errotara eta launa kintaleko bi zaku ipintzen dituzte. Bi gari zorro handi dira. Mandazainak zakua hartzen du eta amerikanoa geldu ikusten du. Eta esaten du:

— Gero, hitza hitz! Orain ez dago atzera egiterik.

Amerikano tripandiak dio:

— Bai, hitza hitz. Aurrera.

Eta esku batekin mandoari heldu eta plau! mando gainera igoten da bera. Eta esaten du:

— Hona hemen, lau kintale mandoaren gainean.

60

SINGAPURREN IRRIBARRE UGARI

irribarre; *irribarretxo bat mesedez;* SONRISA.

nonahi; toki guztietan: *nonahi aurkitzen zaitut / sin. edonon / ant. inon ere ez /.*

hobe, hobetu, hobetze; hobe egin: *eguraldia hobetu da* / sin. hobeago-
(tu) / ant. txar(tu) /
lor, lortu, lortze; *nahi baduzu lortuko duzu* / sin. eskura(tu), kontsegi-
(tu) /
atzerritar; / sin. kanpotar / ant. herritar /
bertako; / sin. etxeko, herriko / ant. kanpoko /
umil, umildu, umiltze; / sin. apal(du) / HUMILLAR.

Singarpurgo kaleetan, gero eta irribarre gehiago ikusten da. Irribarrea aurpegietan, irribarrea eranskailuetan, irribarrea intsignietan, irribarrea nonnahi. Zergatik? Bizitza hobetu delako? Ez. Kanpaina ofizial bat asmatu dute. Kanpaina hori turistekin hasi zen. Kanpoko turistak ondo tratatu behar dira. Zertarako? Dibisak lortzeko.

Baina gero, herritarrak kexatzen hasi dira. Adibidez, taxistek atzerritarrak bakarrik atenditzen omen dituzte. Dendetan ere turistei aurpegi ona baina bertakoekin lotsagabeak omen dira. Orduan agintariek gauzak hobeki pentsatu dituzte. Eta kanpaina zabaltzeko, deklaratu dute:

«Turistekin kortesak eta herritarrekin lotsagabeak izatea, geure burua umiltzea da».

Kanpaina hori egin dute. Ez dakigu jendeak zenbat erantzun duen. Hemen ere izan dira horrelako sloganak: «Irripar egizu» eta abar.

Esaera da: «Diruari txakurrak ere irribarre». Singapurren ere hori gertatuko da. Irribarre tristea.

61 TELEBISTA ETA LOGABETASUNA

logabetasun; lo egin ezina: *sendagai horrek logabetasuna ematen du;*
INSOMNIO.

logarri; lo egiteko lagungarria: *sendagai hori logarri da* / sin. lasaigarri / ant. ernagarri /.

galeraz, galerazi, galerazte; *muga pasatzea galerazi didate* / sin. eragotz(i), traba(tu), debeka(tu) / IMPEDIR, OBLIGAR A PERDER.

ihardun; *ihardun neketsua* / sin. ekintza, aktibitate /.

ahalmen; / sin. botere, indar / ant. ezin /
ahi, ahitu, ahitze; *lehen edizioa ahitu egin da* / sin. agor(tu) / AGOTAR.
gutxienez; *ehun kilo ditu gutxienez* / ant. gehienez /.

Batzuk telebista martxan jarri, eta berehalaxe lo egiten dute. Filmeetan ere gertatzen da hori. Begira eta begira, ordu erdi barru lo. Zer gertatzen da? Telebista logarria da? Programa logarriak daude? Lo egiteko laguntzen badu, ez da lagun txarra. Baina horrela da hori?

New York-eko Estatuko eta beste unibertsitate batzuetako zientzizigonek aldrebes demostratu dute. Berek behintzat hori esaten dute. Zer demostratu dute? Telebista normalki gaeuz ikusteak loa galerazten duela. Eta ez hori bakarrik. Teleikuslearen errendimendu fisikoa eta ihardun psikologikoa ere hondatzen du. Hori diote zientzizigonek.

Zerebroak, estimuluak hartzeko ahalmen bat dauka. Estudioak egin dituzte eta estimulu optikoek, akustikoek baino lehenago ahitzen dute pertsona. Bi edo hiru ordu lehenago. Gainera ahitze hori luzeagoa da. Horrela, bada, lan-egun neketsu baten ondoren, telebista ordu batzutan ikusten duenak badaki: haren zerebroa ez da «freskatuko», gutxienez, bi ordu geroago arte.

62

LAMIAREN SENARGAIA

lamia; Euskal Mitologian erdi emakume erdi hegazti den pertsonaia.

noizik noizera; *noizik noizera, afaltzera irteten gara* / sin. noizean behin, noiz behinka /.

erabil, erabili, erabiltze; *ibil eraz(i): nire autoa erabili ahal duzu.*

oroigarri; *Arantzazuko oroigarri* / sin. gomutagarri / RECORDATORIO.

eratzun; hatzamarrean eramaten den bitxi biribila.

txirkanda; hatzamarretarik txikiena.

biharamun; hurrengo egun: *biharamunean lanera joan behar.*

ahate; hegazti urzalea, moko zapalekoa; hankak urgainean igeri egiteko egokiak dituena; PATO.

jaurtiki, jaurtikitze; urrunera bidal(i) / sin. bota /.

Anboto eta Arangio bitarteko haitzetan, mutil bat artzain ibiltzen zen. Noizik noizera, lamiak etortzen ziren. Mutila dantzan eta airean erabiltzen zuten. Eta mutila pozik. Lamia batek etxeraino laguntzen zion eta ezkontzeko tratua egin zuten. Lamiak oroigarritzat eraztun bat eman zion. Mutilak txirkandan jarri zuen. Etxera heldu zen eta amari esaten dio:

— Ama, ezkondu edo zerbait egin behar dut oraingoan.

— Norekin, mutil?

— Neska eder batekin. Basora etortzen zait.

Amak apezari hitz egin zion. Apezak mutilari esan zion:

— Begira neska horren oinetara. Ea nolako oinak dituen.

Mutila biharamunean neskarekin egon zen eta gero apezari esan zion:

— Ahate oinak ditu, jauna.

— Eman berriz eraztuna —esan zion apezak.

Badoa mutila eta lamiari eraztuna eman nahi dio. Baina ezin du hatzamarretik atera. Azkenean, hatzamar txikia moztu, eta zapla jaurtikitzen dio eraztun eta guzti. Etxerantz lamiak atzetik segitzen dio. Mutila ohera joan zen eta ez zen gehiago jeiki. .

63

ETNAREN HASERREAK

forjari; forjan lan egiten duena.

orroaka; /sin. oihuka, deiadarka /.

sumin, sumindu, sumintze; /sin. su(tu), haserre(tu) /.

leher, lehertu, lehertze; indarrez eta zarataz hauts(i): *barrez lehertu ginen.*

miragarri; /sin. harrigarri /.

lingirdatsu; likidoetaz mintzatzen, bigun eta lodi; VISCOSO.

ur, urtu, urtze; likido bihur(tu): *elurra urtzen denean*; DERRETIRSE, FUNDIRSE.

joera; *mutil horrek zientzietara du joera*; TENDENCIA.

orhetsu; PASTOSO.

iragaz, iragazi, iragazte; likidoa garbitzeko leku hestu batetik pasatu (tu); FILTRAR, COLAR.

ito, itotze; arnasa gal(du): *beroak itota*; AHOGAR.

lurrun; likido gas bihurtua: *leihoko lurruna kendu dut*; VAPOR.

nondik edo handik; *dirua, nondik edo handik, aterako dugu* / sin. non-baitetik, handik edo hemendik /.

eragile; egin erazlea; PROMOTOR, CAUSANTE.

estalki; goialdea tapatzeko zerbait: *estalki ederraren azpian, barne ustela*.

irents, irentsi, irenste; ahotik sar(tu) eta bat batean barrura(tu): *su-geak xagua irentsi du*.

Etna sumendi edo bolkan famatua da. Siziliako mendi famatu honen barruan, Bulkanoren forjariak lanean eta orroaka ari dira. Bulkano suaren Jainkoa da. Etna, batzutan, haserretu egiten da. Sumintzen da eta lehertzen da. Kontuz orduan Etnarekin. Zergatik lehertzen da? Begira bolkan honetan zer gertatzen den.

Bolkan miragarri honen laba, oso berezia eta arriskugarria da. Etnak magma lingirdatsua botatzen du, haitz urtuz egina. Salda honek loditzeko joera dauka. Loditu eta gogortu. Haitz orhetsuak ez dira ondo iragazten. Jarioaren aho naturalak ataskatu egite dira. Salda lodi hori gogortzen denean, bolkana itota gelditzen da.

Baina gasak eta ur lurrinak, nondik edo handik, derrigor irten behar dute. Horiek dira erupzioaren eragileak. Segurantzako balbulak ataskatzean, noizik noizera, ifernuko eltzearen estalkia lehertzen da. Jesukristoren aurreko 1.470. urtean, kaktalismo izugarria gertatu zen. Minostar zibilizazioa lurrak irentsi zuen.

64

IRLA MUGIKORRA

mugikor; mugitu ahal dena: *etxe mugikorra*.

untzira, untziratu, untziratze; untzira sar(tu): *Bermeon untziratu ginen*.

lehorrera, lehorreratu, lehorreratze; untzitik lurrera pasa(tu): *Donostian lehorreratu ginen.*

meza ondoren; meza eta gero: *Meza ondoren, pilota partidua / ant. Meza aurretik /.*

ikara, ikaratu, ikaratze; *bizar horrekin umea ikaratuko duzu / sin. beldur(tu) /.*

balea; BALLENA.

bizkar; arrainaren gaineko aldea.

nabari, nabaritu, nabaritze; / sin. antzeman, senti(tu) /.

itzar, itzarri, itzartze; / sin. esna(tu) /.

484. urtean, hamazazpi fraile untziratu ziren, irla batetan monastegi bat fundatzeko. Joan eta joan, Pazko eguna itsasoan pasatzea tokatu zitzairen. Fraileek pena handia zuten. Hain egun handia eta mezarik ezin eman.

— Ene! —esan zuen batek—. Irla bat han.

Irla txiki bat zen. Joan, lehorreratu eta aldare probisional bat jarri zuten. Eta hantxe meza eman zuten. Pozik eta alai, bazkaltzea pentsatu zuten meza ondoren. Sua egin eta jana-riak berotzen hasi ziren.

Baina sua egin zutenean, irla mugitzen hasi zen.

— Gure Jainkoa! Non gaude gu? Nora ekarri gaituzu?

Fraileak ikaraturik zeuden. Orduantxe ohartu ziren balea baten gainean zeudela. Baina balea ez zen haserretu. Lo egon zen. Sua bizkarrean nabaritu zuenean, itzarri eta mugitzen hasi zen. Balea untziaren ondoan jarri zen, fraileek beren gauzak hartu arte. Fraile guztiak untzian sartu zirenean, balea itsasoan ezkutatu zen.

65 ERLAXA ETA AUTOSUGESTIOA

erlax; RELAX.

jakinez gero; jakin eta gero: *jakinez gero erraza da.*

atseden; eman, *Jauna, betiko atsedena / sin. deskantsu, lasaitasun /.*

era batera; aldi berean, aldi berdinean.

itzarrik; *goizeko bostetan itzarrik egoten naiz egunero* / sin. esanaturik / ant. lo /.

amets; lo gaudelarik, burura etortzen zaiguna: *amets txar bat egin dut.*

ameskaitz; amets gaiztoa (txarra).

jarrera; *jarrera horretan ez duzue ezer irabaziko* / sin. portaera /.

zolu; *kontuz! Zolu irristakorra!* / sin. behe / SUELO, PISO.

mezu; / sin. abisu, berri / MENSAJE.

Erlaxa edo erlaxapena gauza ederra da egiten jakinez gero. Atsedetik onena erlaxa da. Era batera lo eta itzarrik egotea bezala da. Loa ere sarritan ez da atsedeen osoa izaten. Ametsak, ameskaitzak, eta abar. Subkontzientea lehertzen da eta gorputza ere tentsioan egoten da.

Erlax jarrera on bat nahi duzu? Begira. Gorpuaren jarrera hartu behar da. Behe gogorrean etzan behar da. Ahal bada zolan. Bi hankak zabaldu behar dira. Zenbat? Berrogeiren bat zentimetro. Eta behatzak alboetara erortzen utzi. Besoak solte uzten dira gorputzaren bi aldeetara. Ahurrak edo esku barruak gorantz jarri behar dituzu eta hatzamarrak apur bat okerturik. Orduan arnasa hartzen hasten zara. Arnasketa geldia, ritmikoa eta diafragmatikoa. Eta orduan, autosugestia hasten da.

Lehenbizi, behatzen erlaxapena hasten da. Autosugestioz behatzei erlaxatzeko agintzen diezu. Gero gorantz zatoz. Hankak, belaunak, muskuluak eta gorputz guztia, begi eta belarrietaraino. Orduan geldiro, gibelera, bihotzera etab. mezuak bidaltzen dituzu. Erlaxatzeko mezuak. Tratamendu hau hipertentsiorako oso ona da. Eta atsedeen hartzeko ere bai.

66 ARROLANEN HARRIAK BASABURUN

bizkar; / sin. gain /.

mairu; / sin. moru /.

amorrazio; / sin. haserre /.

harrika; *harrika hil dute piztia;* A PEDRADAS.

abiadura; / sin. *martxa* / VELOCIDAD.

gorotz; *abereen kaka*.

irrista, irristatu, irristatze; *kaminu izoztuan errez irristatzen da* / sin. *laban egin, irrist egin* / RESBALAR.

jaurtiki, jaurtikitze; *urrutira bidal(i)* / sin. *bota* /.

geroztik; / sin. *harrezkero* /.

elkarri so; *bata besteari begira: maitaleak beti elkarri so.*

Arrolan (Roldan) Lexigietako bizkarrera heldu zen. Maidalena puntan burua jaso eta Espainietako mendi lerroa mairuz beterik ikusten du. Denak dira soldadu mairuak. Armada izugarri hura desegin behar dela pentsatzen du Arrolanek. Berehala desegin behar da. Amorrazioa sartu zaio. Zer egin?

Arrolanek mendi punta oso bat eskuan hartzen du. Eta zati hura harrika bota nahi du. Baina mendian behi asko zebilen. Arrolanek abiada hartzen du eta gorotz fresko batetan irristatzen da. Harri handi hura gaizki jaurtiki zuen eta hiru puska egin ziren. Lehen puska Ligiko mendian gelditu zen zutik, erdia lurpean sarturik. Bigarren puska Etxebarreko mendian eta hirugarrena Lakarrin.

Geroztik han daude beste haitzetatik aparte. Beste haitzak baino handiagoak dira. Han daude hirurak elkarri so. Eta non daude mairuak? Mairuak inkisizioak erre zituen. Eta non dago Arrolan? Arrolan Orreagako guduan hil zuten euskaldunek. Hiru mendiak gelditzen dira. Basaburutarrek «Arrolan harriak» esaten diete. Eta behiak? Han dabilta oraindik ere.

67

ALFERRA ZUHAITZEAN

joera; *txakur horrek joera gaiztoak ditu* / sin. *zaletasun* / TENDENCIA.
hauts, hautsi, hauste; / sin. *apur(tu)* /.

zorrotz; *erantzun zorrotza* / sin. *azkar* / AGUDO.

hezadura; HUMEDAD.

xerlo; *ile sorta*; MECHON DE PELO.

batez beste; *batez beste astean hamar ikastordu ditugu*; TERMINO MEDIO.

kurubilkaturik; ACURRUCADO.

ahalik ...en; / sin. *ahal den ...en* / LO MAS... POSIBLE.

aurrez, aurreztu, aurrezte; aurrez gorde; AHORRAR.
oharkabea; konturatu gabe; DESAPERCIBIDO.
euts, eutsi, euste; gauza bat ez galtzeko, berari indarrez lot(u): *Lege Zaharrari eutsi!* RESISTIR.
euspen; / sin. erresistentzia /.
menderik mende; *menderen mendetan amen* / sin. gizaldiz gizaldi /.
iraun, iraute; izaten jarrai(tu): *luzaro irau!*

Bada animalia bat «alferra» izena duena. Animalia xelebrea eta guztiz originala. Animalien eboluzioaren joera guztiak hausten ditu gure alferrak. Ez dauka buztanik. Ez dauka saltatzeko ahalmenik. Eta hala ere zuhaitz-adar artean zintzilik bizi da. Ez dauka bizkortasunik, ez dauka abiadurarik ez zentzumen zorrotzik. Bere arma nagusia eta bakarra nagitasuna edo apatia da.

Eskuetan hiru hatzamar edo erpe dauzka. Larru berezia eta iletsua dauka, hotzetik eta hezeduratik defenditzeko. Xerlo luzeak dauzka. Hauen azpian alga txikiak hazten dira. Horrela inguruko begetazioaren antza hartzen du. Egunean, batez beste, bost ordu egiten ditu jaten eta zuhaitzean gora eta behera. Beste ordu guztiak lotan ematen ditu. Eta kukubilkaturik, berotasunik ez galtzeko. Honen sekretua, ahalik gutxien mugitzea da. Zertarako? Energia aurrezteko eta oharkabean ibiltzeko.

Ahalmen harrigarri hau dauka: burua 180 gradu jiratu, gorputzik batera mugitu gabe. Hori da bere defentsa nagusia, ingurua zaintzeko. Inork atakatzean, alferraren arma erresistentzia da. Zuhaitzari heldu eta eutsi hor, atakatzalea aspertu arte. Euspen izugarria dauka. Urteak pasatzen ditu zuhaitz berean, bere janaria (hostoak) bukatu arte. Eta erresistentzia hutssez, menderik mende irau du gure alferrak eta beste hainbeste irauteko asmoa dauka.

oneritzi; gauza bati buruz pentsamentu ona: *zure oneritzia behar du* / sin. onartze, aprobazio, onespen /.

biharamun; hurrengo eguna.

alegia; / sin. hau da, hots / ES DECIR.

ados; *zurekin ados nago* / sin. bat, batera, konforme, akort /.

Australiaren goialdean Sumba izeneko irla bat dago. Bai mundu desberdina guregandik! Badute joko edo burruka bat «pasola» izena daukana. Mutilek zaldi gainean, gerran bezala, elkarri zurezko geziak botatzen dizkiote. Joko edo burruka hau nesken aurrean egiten dute mutilek. Baina, mutilak neska bat irabazi eta gero, ezkontzea ez da hain erraza.

Neskaren oneritiziz, mutila neskaren etxean sartzen da gau batez. Berarekin lo egiten du eta biharamun goizerarte gelditzen da apropos. Zertarako eskandalu hori? Horixe nahi dute, alegia, sorprendituak izatea. Neskaren aita eta etxeokak haseurretzen dira. Orduan mutilak, berehalaxe, zaldi bat ematen dio neskaren aitari. Mutilaren aitak lehendik daki, eta bera ere badator eta tratua hasten da. Eztabaida luzea.

Neskaren prezioan ados jartzen badira, txakur bat hil eta familia bien artean jaten dute. Gero, neskaren aitari ur bufalo bat eta lantza bat ematen zaio. Honek txerri bat ematen du. Bikotea neskaren etxean biziko da orain, prezio guztia ordaindu arte. Ez da erraza: berrogeiren bat bufalo, txerri, abere eta zaldi. Tramite luze hori bukatu aurretik, sarritan haserrenen bat sortzen da eta agur ezkontza.

69

ANIMALIA HARRIGARRIAK

matelhezur; mazail hezur; MANDIBULA.

kiribil, kiribildu, kiribiltze; espiralearen itxura har(tu); ENROSCARSE.

inurri; / sin. txindurri / HORMIGA.

ereintza; *harriak ereintzak hondatu dizkigu aurten*; SEMBRADO.

onddo; *onddo beltza*; HONGO.

Piraina izenekoa, arrain bildurgarri bat da. Hortzak zorrotzak dauzka, eta matelhezurra guztiz gogorra. 45 kilotako animalia bat, minutu batetan, eskeleto hutsean uzten du. Piraina arrain txikia da eta ez du inoiz bakarka atakatzen.

Aingira elektrikoa da beste arrain harrigarri bat. Buruaren ondoan organu genitalak dauzka. Hortik atzeraino, guztia buztan luze bat. Kalanbrazo izugarriak ematen dituen buztana; 650 boltiotako deskarga ematen du.

Badakizu boak eta horrelako suge handiek nola estrangulatzen duten? Animalia handien gorputzean kiribiltzen da. Baina nola? Animaliak arnasa hartzen du. Airea botatzen due-nean, orduantxe aprobetxatzen du. Hestutu eta ez dio uzten berriro ainerik hartzen. Horrela astiro astiro, animalia ito egiten du. Heriotza tristea, noski.

Badira inurri bildurgarriak ere. Espedizio masiboetan so-roak, ereintzak eta zuhaitzak arrasatzen dituzte. Hostoak mastekatzen dituzte, baina hori ez da haien janaria. Hosto mastekatuekin, onddo berezi bat kultibatzen dute era hura da haien janaria.

70

ASTOA ETA ASTRONOMOAK

itaizur; teilatutik tantaka erortzen den ura: *gela horretan itaizura dago* / sin. itogina /.

elkarri; batak besteari.

Lau astronomo etorri ziren Euskal Herrira. Frantsesa, espainola, ingelesa eta alemana ziren. Beren bilera zientifikoa egin zuten. Eta mendira irten ziren. Bileraren ondorio nagusia hau izan zen: bi hilabetez euririk ez zuela egingo. Baserri bate-tatik pasatzean, etxekoandrea topatu zuten. Honek itaizura hartzeko baldea, lurrean jarri zuen. Astronomoek esan zioten:

— Zertan ari zara, etxekoandre?

— Gaur euria egin behar du eta itaizura hartu nahi dut.

— Euria gaur? Nola dakizu hori?

— Hamasei urteko asto bat daukagu. Asto honek, belarriekin bi aldetara pli-pla egiten duenean, euria egingo du. Haxe egin du lehentxoago eta laster euria dator.

— Ken hortik. Gu astronomoak gara eta bi hilabetez ez dago euririk hemen.

— Zuek hori uste duzue. Baina gure astoak ez du horrela uste eta nik astoari sinetsi.

Apustua egin zuten eta ordu erdi barru, euria eta euria zen. Astronomoek elkarri esan zioten:

— Gizonak, goazen hemendik. Asto euskaldunek guk baino gehiago dakite.

71

SOMOZA PARAGUAYRA

nabarmen; DESTACADO.

babes; / sin. aterpe, protekzio, laguntza /.

etsiko dio; / sin. aguantatuko du /.

Somozak, Nikaraguara bihurtzeko esperantza galdu du. Ezin du Nikaraguan estatu kolperik eman. Zer egin orain? Somozaren ondasunik gehienak Nikaraguan gelditzen dira. Lu-rrik eta latifundiorik ezin du atera. Baina ez du dena galdu. Somozak oraindik miloi asko dauzka. Non inbertitu?

Han dago Paraguayn beste diktadore handi bat: Alfredo Stroessner. Amerikako dekanoa da hau. Paraguayko erregi-
mena oso nabarmena da, hainbeste nazi handiri babesa eman diolako. Bigarren Mundu-Gerrako nazi asko bizi dira Paraguayn. Orain Somoza ere tratuan dabil. Bat gehiagorengatik Paraguayk etsiko dio.

Baina Paraguayn bertan ere bildur dira. Paraguayko oposizioa berehalaxe protestatzen hasi da. Egunkari tradizionalak ere, erreparoa jartzen dituzte. Zergatik? Nazioaren irudia konprometitzen duelako. Beste aldetik, Somoza milioiak tentagarriak dira. Zer egingo dute? Ikusiko da. Paraguayn lehendik ere Somoza asko dago. Bat gehiagorengatik zer? Ai Paraguay, Paraguay.

72

HARITZEZKO KOROA

haritz; ezkurak ematen dituen zuhaitza; ROBLE.

keltar; CELTA.

ito, itotze; arnasa gal(du): *itsasora erori eta ito egin zen.*

lorratz; / sin. arrasto / HUELLA.

omen, omendu, omentze; norbaiti omenaldi egin: *Xalbador bertsolaria omenduko dugu.*

Haritza euskaldunen artean zuhaitz bikaina da, ia sakratua. Beste kultura batzutan ere bai.

Keltarren inperioa handia izan zen. Turkiatik Irlandaraino. Gero erromatarren inperioak keltarren kultura itotzen du. Batez ere, kristautasuna zabaldu zenean. Keltarren erlijioari druidismoa esaten zaio. Druidak keltar apezak dira. Hauek kristautasuna European nagusitzean, klandestinitatera pasatu behar dute... Edo fraile kristau egin. Druidismoa ez zen guztiz galdu. Britainia Haundian, oraindik, druidismoaren lorratz asko dago.

1979.eko Irailaren 23an Paris ondoan, Drancyn, haritzezko koroapena ospatu zen. Druidismoa edo keltarren zibilizaioa oraindik bizirik dago. Zer da haritzezko koroapena?

Batzarre bat egiten da. Eta haritzaren inguruan, bueltak ematen dituzte, biribilean edo zirkuluan. Zeremonia honekin zerua eta lurra omendu nahi dira. Batzarrearen azkenean, sekretuki, lagun bat hautatzen dute. Zertarako? Urtean zehar haritzezko koroa eramateko. Lagun horri haritzezko koroa

bat ipintzen diote. Gero koroa hori, bururik buru, pasatzen da. Eta zeremonia bukatzeko, druidar otoitza errezitatzen dute, eguzkiaren aurrean. Haritza eta eguzkia.

73

OREIN LURRINTSUAK

orein; CIERVO.

lurrintsu; usai gozoduna.

moeta; / sin. mota, klase /.

ahuntz; akerraren emea.

oihan; zuhaitz asko dagoen lekua / sin. baso /.

galzorian; galtzeko arriskuan.

gupidagabe; / sin. errukigabe / IMPLACABLE.

eraits, eraitsi, eraiste; esnea atera: *behiak eraitsi ditut* / sin. jaits(i) /.

iraupen; denbora luzean izaten jarraitzea / sin. jarraipen /.

Lurrin edo usain gozoen artean, Txinan badago bat, oso fina eta estimatua. Zer da hau? Gai edo sustantzia lurrintsu bat. Ez da landarea. Ez dago landarean. Orein moeta batetako arrek, boltsatxo bat dute sabelean, organu sexualen aurrean. Boltsatxo hau glandula bat da eta glandula horrek sekrezio bat ematen du. Sekrezio hori oso lurrintsua eta gozoa da.

Orein hau ahuntz baten antzekoa da. Arrak ere ez dauka adarrik. Asiako Ekialdean aspalditik bizi da, hango oiha handietan. Baina gaizki dabil. Galzorian dago. Ehiza gupidagabea gainean dauka beti. Haren sekrezio lurrintsua oso estimatua da. Sekrezio hori, amodio garaian batez ere, ugaria da. Orduan dauka lurrinik gehien eta orduantxe da txarrena, arrak hiltzea.

Txinoek, duela pare bat urte, orein moeta hori domestikatzeari lortu dute. Horrela, ez dago hil beharrik. Arrari bere sekrezioa eraisten zaio, emeari esnea bezala. Eta berriro aberea libre. Handik denboraldi batetara, berriro sekrezioa eraitsi eta berriro libre. Horrela, abere txiki hauen iraupena segur dago.

pagondo; HAYA.

iragan, iragate; / sin. pasa(tu) /.

jaramonik; / sin. kasurik /.

ebaki, ebakitze; tresna zorrotzez zati(tu): *besoak ebakiko dizkidate.*

uzker; ipurditik botatzen den haizea.

oroit, oroitu, oroitze; gogora etor(ri): *zutaz oroitu nintzen* / sin. gogora(tu) / ant. ahantz(i) /.

larri, larritu, larritze; / sin. ikara(tu), apura(tu) /.

katabute; / sin. zerraldo, ataute /.

bidagurutze; bide bi edo gehiago batzen diren puntua.

eramale; eramaten duena.

atxintxika; / sin. arineketan, lasterka /.

Ezkurrako gizon bat haizkoran ari zen, pagondo baten gainean. Pagondoari loturik asto bat zeukan, egurrez erdi kargatua. Mandazain bat handik iragan zen eta esan zuen:

— Heup, adiskide!. Lurra jo behar duzu.

Ezkurrarrak ez zuen jaramonik egin. Bera pago adarrean eserita zegoen eta adar huraxe ebakitzen ari zen. Ebaki zuenean, adar eta guzti lurrera erori zen, mandazainak esan bezala. Mandazainaren atzetik joan eta ezkurrarrak esan zuen:

— Heup, adiskidea. Nola dakizu hainbeste? Igarri egin duzu. Zuk esan bezala, lurra jo dut. Hain buruargia bazara, badakizu ni noiz hilko naizen?

— Bai, gizona. Hori lehengoa baino gauza errazagoa da. Noiz hilko zaren jakin nahi duzu? Begira. Asto hori egurrez ondo kargatu. Bidean hiru uzker botatzen dituenean, orduan hilko zara.

Mandazainak esan bezala, ezkurrara bidean doa bere astoarekin. Aldapan gora hasten dira eta astoak tarrat uzker bat botatzen du. Ezkurrara mandazainaz oroitzen da eta esaten du:

— Beste bi dauzkat oraindik.

Bidean aurrera doaz eta ordu laurden baino lehenago, beste uzker bat botatzen du astoak. Oraingoan gogorragoa eta luzeagoa. Ezkurrarrak tristeki esaten du:

—Orain bat bakarrik gelditzen da.

Bidean aurrera doaz eta hirugarren uzkerre ere laster dator. Hura entzun eta ezkurrra blaust erortzen da lurrera. Hil dela uste du.

Astoa etxera heltzen da. Bakarrik dator gaixoa. Etxekoak larritzen dira. Non dago nagusia? Ezkurrrako gizon guztiak bildu eta bila hasten dira.

Ezkurrra lurrean etzanda dago. Ezkurrrako gizonak heltzen dira, hura aurkitzen dute eta esaten dute:

—Gizon hau hilik dago.

Batzuk baietz eta beste batzuk ezetz esaten dute. Gehienek baietz esaten dute. Orduan gorpu hura katabutean sartzen dute eta herrirantz abiatzen dira. Bidagurutzera heltzen dira eta batek galdetzen du:

—Goiko bidetik ala beheko bidetik joango gara?

Orduan ere, batzuk goitik eta beste batzuk behetik esaten dute. Eztabaidan hasten dira. Eztabaida gero eta luzeago doa. Halako batean, inork uste gabe, hila jaiki, eta hitz egiten hasten da:

—Ni bizi nintzenean, beheko bidetik joaten nintzen.

Ezkurrra eramaleak ikaratzen dira. Katabutea bertan bota eta Ezkurrra atxintxika doaz. Herriko andreak zer gertatzen den galdetzean, gizonek esaten dute:

—Hilak hizketan hasi dira eta biziok hitz gabe gelditu gara.

75

LOAREN MOLEKULA

ahalguztidun; guztia ahal duena.

era batera; modu berdinean.

heste; sabeleko tripa luzeak.

eragile; /sin. probokatzaile/
aurkikunde; /sin. deskubrimendu/
logabetasun; lorik egin ezina; INSOMNIO.

Loa misterioa da. Baina gero eta gutxiago. Loaren ikerketak ez dira bukatu eta konklusio harrigarriak datoz. Orain aurkitu dute loaren hormona zerebrala. Iraultza osoa da arlo honetan. Hiru urtetatik hona, neurokimikak dena zintzilik jarri du.

Ez da zerebroa jainko ahalguztiduna. Molekula nahiko sinpleak, era batera, zerebroan eta beste organo batzutan ari dira. Hesteetan, adibidez. Molekula hauek «peptidak» deitzen dira. Izena da gutxiena. Zer egiten dute molekula hauek? Gure sentsazio intimo batzuren eragileak dira: poza, amodioa eta loa.

Loari buruz, azken aurkikundeak harrigarriak dira. Logabetasunari tratamendu ezberdina emango diote laster mendi-kuek. Logabetasuna, gaur, askoren buruko mina da. Tratamendu hori loaren hormonara zuzen joango da. Horrela, beste ondorio sekundariorik ez du edukiko. Egia izango ote da? Hala bada, estimazio ederra merezi du.

76

ALBOKARI BAT PARISEN

albokari; alboka jotzen duena.
haran; mendi arteko zelai luzea /sin. bailara /
belaunaldi; GENERACION.
birika; PULMON.
mutur; zerbaiten bukaera: *soka muturra*.
gorpu; gorputz hila, bizigabea.

Bizkaiko Arratia harana, albokari lekua izan da beti. Due-la lauehun urte Zeanurin bizi zen Arratiako albokaririk famatuena. Hil eta gero ere, hiru belaunalditan esaten zen: «Hura zen bularra, hura!». Behin Undurragako tabernan zegoen eta esan zuen: «Nork dauka nik bezalako birikarik? Pa-

risko kalerik luzeena mandoan pasatzeko, kapaz naiz eta ahotik kendu gabe, alboka jo». Lagun batek esan zuen: «Hori ikustera ni ere joango naiz. Zer jokatuko dugu?»

Mando gorri eder bana jokatu zuten. Astelehen goizean irten eta Gasteiztik Parisera doaz biak. Parisen kalerik handiena zein zen galdetu eta goizean, eguzkiarekin batera, hasten dira. Albokaria aurretik eta bestea atzetik. Biak mando gainean. Joan eta joan, albokaria ez zen isiltzen. Bestea bildurtzen hasi zen. Orduan, aurrera pasatu eta albokaren muturra tapatzen dio. Albokari gaixoak ezin du arnasarik hartu. Bertan ito zen eta mando gainetik gorpu erori zen. Baina apusturik galdu gabe.

77

LEGIONARIEN ERITASUNA

eritasun; / sin. gaixotasun, gaitz /.

ustekabez; pentsatu gabe.

ahaide; / sin. sendiko, familiako /.

eztul; *txakur eztula*; TOS.

ikerketa; / sin. inbestigazio /.

eroturik; burua galdurik / sin. zoraturik /.

izurri; gaixotasun kutsakorra; EPIDEMIA.

Aurkikunde asko ustekabez etortzen dira. Honelakoa da legionarien eritasuna ere. Duela hiru urte gertatu zen. Pensilvaniako Amerikar Legioak bere urteroko bilera egin zuen Bellevue-Stratford hotelean. Lau mila eta laurehun delegatuetxeko, ahaide eta lagun bildu ziren. Desfile militarrek, hitzaldiak eta abar. Konbentzio militar bat gehiago. Orduan inork ez zuen uste konbentzio hura medikuntzaren historian geldituko zenik.

Ehun berrogeita bederatzi lagun sintoma arraroak sentitzen hasi ziren: sukarra gora, eztula eta neumonia. Bilera hiru egunetakoa izan zen. Jende asko etxera itzulia zen, gaixotu aurretik. Zaharrek gazteek baino askoz gehiago sufritu zuten.

Eta gizonezkoak andrezkoak baino hiru bider gehiago gaixotu ziren.

Ikerketak egiten hasi eta eroturik ibili ziren. Zer arraio zen izurri hura? Azkenean harrapatu zuten erruduna. Bakteria berri bat zen. Berria edo ezezaguna behintzat. Bakteriak piztia txiki-txikiak dira, mikroskopikoak. Horiek dira izurri edo epidemien errudunak. Bakteria berri hau oso kapritxosoa zen. Aurkitzea oso zaila izan zen. Eta bakteriarri «legionarien eritasuna» jarri zioten izena.

78

ATARRABIOREN AHALMENAK

garia jo, jotze; TRILLAR.

hez, hezi, hezitze; animalia basatiak menpera(tu): *lehoiak hezitzen ditu / sin. otzan(du) /*.

upel; barrika haundia.

itzal; *zuhaitzaren itzalean, atsedean hartuko dugu / sin. gerizpe / SOM-BRA.*

Atarrabio apeza, siesta egitera joan zen. Hodei beltz handi bat ikusi zuen horizontean eta amari esan zion:

—Ama, hodei hura handitzen bada, deitu niri trumoia hasi aurretik.

Ama deskoidatu zen eta berandu deitu zion semeari. Hodeia ganean zegoen. Presaka jaiki zen apeza. Goñin gari ederrak ziren urte hartan. Hodei artetik deabruak esan zuen:

—Ai Goñi, Goñi! Zer zaldiak ditudan zure gariak jotzeko!

Atarrabio apezak konjuru liburua eta gurutzea eskuan hartu eta esan zuen:

—Ai zer frenoak ditudan zure zaldiak hezteko!

Kanposantu ondoan, upel pila handi bat zegoen. Hodei artetik eroritako harri guztia, upel haietan sartu omen zen. Ata-

rrabio, lehenago, ifernuan egona zen eta itzal gabe etorri zen handik. Deabruak esan zion:

— Berriro ifernura zatozenezan, itzala mundura eta zu bertan geldituko zara.

— Egon lasai —erantzun zuen Atarrabiok—. Zu bezala ibiliko naiz ni han ere.

79

SENARGAI HILA AGERTU

ezkongai; senargai edo emaztegaia.

bat batean; / sin. bapatean, derrepente /.

ezkonberri; duela denbora gutxi ezkondu dena: *Zorionak ezkonberri.*

honda, hondatu, hondatze; / sin. ezereztatu, deuseztatu /.

ardatzean; HILANDO.

ohos, ohostu, ohoste; / sin. lapur(tu), ebats(i) /.

Aranatzen bi neska-mutil ezkongai ziren. Mutilak, bat batean gerrara joan behar izan zuen. Frentean zebilen. Herri bat hartu zuten. Komandanteak «saqueo libre» esan zuen. Aranzeko mutilak elizan kaliz bat harrapatu zuen. Eta gero gerran hil zen.

Neska beste mutil batekin ezkondu zen. Ezkondu eta biharamunean, lehengo senargai defuntua agertzen hasi zen. Neska ezkonberriak ez zekien zer egin. Urte haietan Beran, fraile handi bat bizi zen, ifernuan Atarrabiorekin asko ikasia. Neskak fraileari azaldu zion kasua.

Fraileak esan zuen:

— Berriro datorrenean hauxe esan: «Onaren aldekoa bazara, egin hitz. Gaiztoaren aldekoa bazara, honda zaitez».

Gauetz, emakumea ardatzean ari zen eta senargai hila agertu zen.

Emakumeak esan zion:

— Onaren aldekoa bazara, egin hitz. Gaiztoaren aldekoa bazara, honda zaitez.

— Onaren aldekoa naiz —esan zuen agertuak—. Hil aurretik, kaliz bat ohostu nuen eta haitzean gorde nuen. Hura bere lekura eramaten baduzu, zerura joango naiz.

Hau esan eta desagertu egin zen.

80

LABAZKO LAKUAK

itzal, itzali, itzaltze; / ant. piz(tu) /.

oka egin, egite; ahotik kanpora bota.

hotz, hoztu, hozte; beroa galdu eta hotz bihur(tu) / ant. bero(tu) /.

gori; metalak sutan hartzen duen kolore gorria.

eragozpen; / sin. zailtasun, oztopo /.

manea, maneiatu, maneatze; esku artean erabil(i).

Munduan, bostehun bolkan baino gehiago dira. Bolkan aktiboak, jakina. Bolkan itzaliak askoz ere gehiago dira. Aintzina lur guztia zen bolkana. Lurraren barruan salda lodi bat dago: magma izenekoa. Salda horrek tenperatura izugarria dauka. Hori da bolkanek oka egiten dutena. Gero kanpoan hoztu eta gogortzen da eta basaltoa, granittoa eta horrelako haitz gogorrek egiten dira.

Hawain, bada bolkan bat Kilauea izena daukana. Honen erupzioak ikusgarriak dira. Basalto likidozko putzuak uzten ditu eta hortik labazko lakuak egiten dira... Putzu hauek urte asko egiten dute gogortzen edo solidatzen. Hogeita bost urte inguru. Pentsa nolako salda.

Orain arte, laba solidatua aztertu dute laborategietan. Hori errazagoa da. Nola, ordea, magma hain bero horri heldu? Horixe nahi dute orain. Hawaiko Kilauea aztertzen ari dira. Zer atera dute? Gauza gutxi oraindik. Baina gauza bat, bai. Magma gori horrek badauka energi positibitatearik? Pentsa haitz urtuak zenbat berotasun edukiko duen. Baina praktikan eragozpen asko dago. Nola maneiatu salda hori? Petrolioarekin segi beharko.

pinadi; pinu oihana / sin. pinudi /.

ondasun; / sin. aberastasun /.

pinugin; pinaditako langilea.

soineko; gorputz osoa estaltzen duen jantzia.

erantz, erantzi, eranzte; jantzia ken(du) / ant. jantz(i) /.

ohaburu; ohearen burua; CABECERA.

biluzik; jantzirik gabe.

Soriako ondasun nagusia pinua da eta zen. Soriara beste herri batzutatik ere joaten zen jendea. Zertara? Pinuaren usainera. Hauen artean juduak eta euskaldunak daude batez ere. Euskaldunak ere bai? Bai, jauna.

Liburu batek —Pedro Gil egilea— 125 euskal deitura biltzen ditu, Soriako herrietan. Baita euskal hitz asko ere. Deitura eta hitz horiek gaur ere jarraitzen dute.

Ez dakigu soriarrek berek asmatua den ala euskaldunei edo juduei ikasia den, baina bazen ohitura guztiz bitxi bat, Soriako pinuginen artean: emakumeen soineko bat.

Emakumeak pinu lanean ari izaten ziren. Horretarako, zakuaren antzeko soineko bat jazten zuten. Burua sartzeko zulo bat zeukan. Soinekoa oso hestua zen gorputzean. Hura eranzteko, iltze bat zegoen ohaburuan. Emakumeek, lepo aldetik, iltze hartan lotu, tiratu eta ohean sartzen ziren, jadanik biluzik. Zakuaren azpian ez zegoen ezer. Zaku harekin egunez ez zegoen arriskurik, gizona zegoen artean ibiltzeko.

Zerbait egin behar, euskaldun eta juduen beroaldiak kontrolatzeko.

debeka, debekatu, debekatzte; *debekaturik dago erretzea* / sin. eragoztz(i), galeraz(i) /.

Ekialde; Asia eta inguruko lurraldeak: *Ekialde Hurbila* / ant. Mendebalde /.

noiznahi; edozein mementutan.

arrastaka; *arrastaka ekarri behar izan dute*; A RASTRAS.

biluz, biluztu, biluzte; arropak ken(du).

eskegi, eskegitze; zintzilik jar(ri); lurra ikutu gabe lot(u)/sin. eseki/.

nonnahi; edozein tokitan: *nonnahi, noiznahi aurkitzen zaitut*.

Kurdoek herri bat egiten dute: Kurdistan. Lurralde handia da. Bizilagunak lau edo bost milioi dira. Oso lur aberatsa da: Irakeko petroliotik %74, Iraneko %50 eta Siriako eta Turkiako %100, Kurdistanen ateratzen da. Baina herria bera, jendea bera, oso pobrea da. Eta lau Estatutan zatiturik dago.

Turkiako Kurdistanen, debekaturik dago kurderaz idaztea edo hitzegitea. Baita, kurdoz jaztea eta kurdoen musika ere. «Kurdo» izena bera ere debekaturik dago. «Ekialdeko anatoliarrak» esan behar da. «Españoles del Norte» bezala.

«Nor zara?» galdetu eta «Kurdoa naiz» esaten bada, preso eramateko motiboa da, beste gabe. Herri bat zapaltzeko armarik onena analfabetismoa da. Ia ez dago eskolarik Kurdistanen. %75ek ez daki irakurtzen ez idazten.

Ez hori bakarrik. Begira nolako zapalketak gertatzen diren. Noiznahi, auto blindatuz eta helikopteroz, Kurdistanen herri bat inbaditzen dute. Herritarrak zelai batetara eramaten dituzte, besoak goian. Armak entregatzeko agintzen dute. Nekazariak armarik ez dutela esaten dute. Orduan hasten da sesioa: jo, lurrera bota, arrastaka eta korrika ibil erazi, biluztu, hanketatik eskegi, emakumeak biolatu ere bai... Eta gero beste herri batetara. Sirian, Iraken eta Iranen ere, kurdoak berdin daude. Kurdo herria gerran ari da. Gerra osorik ez, baina gerrila gogorrek eta nonnahi.

83

BASABIKUAREN LOREA

basabiku; basoan hazten den bikondoa.

leize; haizulo sakona: *ifernuko su-leizea*.

hondo; goitik behera neurria / sin. sakonera /.

sasi; basoko arantzadun landarea: *sasi guztien gainetik*.

ote; ARGOMA.

itsu, itsutu, itsutze; / sin. zarra(tu) / CEGAR.

iragan, iragate; / sin. pasa(tu) /.

saguxar; / sin. saguzahar / MURCIELAGO.

belatxinga; CORNEJA.

amil, amildu, amiltze; goitik behera eror(i).

Bizkaiko Nabarniz gainean, Illuntzar izeneko mendian, leize bat dago. Haren hondorik ez du inork inoiz neurtu. Leize honen ahoa sasiz itsuturik zegoen. Bazen han lehenago basabiku bat. Behin emakume gonagorri bat bere haurrarekin leize ondotik iragan zen. Haurrak basabikuaren adarrean lore bat ikusi zuen eta esan zuen:

— Ama, pitxia.

— Ez maitetxo. Kaka dauka horrek.

— Pitxia, ama, pitxia.

Hori esan eta haurra negarrez hasi zen. Gero blaust salto egin eta sasi eta ote artean gelditu zen haurra, ez gora ez behe-
ra. Amak ere salto egin zuen, haurra ateratzeko. Baina ezin. Ama eta haurra gero eta barrurago doaz. Hainbeste saguxar eta belatxinga leizetik irteten dira. Ama eta haurra, geldi geldi-
ka, leize barruan amildu ziren. Inork ez daki haien berririk.

84

GLOBOEN AZKENA

harrogarri; ENORGULLECEDOR.

susmo; / sin. errezelu / SOSPECHA.

iragarpen; gertakizunen berri ematea; VATICINIO.

arrasto; / sin. seinale / RASTRO.

eztanda egin, egite; hots haundiz leher(tu).

irents, irentsi, irenste; ahotik bat batean sar(tu).

kiskal, kiskali, kiskaltze; guztiz erre: *bixigua kiskali egin duzu*.

aro; / sin. sasoi, garai /.

Globoen eta abioien teknika ez da berdina. 1937an gaude. «Zepelin» globoak Alemaniaren harrogarri dira. Baten izena

«Hindenburg» da. Tratatlantiko dotorea eta harroa, Alemaniatik New Yorkera bidaia egiten duena. Baina susmo txarrak zabaltzen ari dira. Fatalismoaren hego beltzak sentitzen hasten dira. Amerikar emakume parasikologo batek iragarpen estrainioak egiten ditu. Zepelina bonba batek apurto duela amets egiten du.

Naziak bildur dira. Ea etsaiek sabotai kolperen bat jotzen duten. Gestapok bere agenteak tripulazioan sartzen ditu. Ez dute arrastorik aurkitzen. Dena dago ondo. Ez dago ezeren bildurrik. «Hindenburg» badator bere lekura. Espektazio handia sortu da. Han dator eta jendeari arnasa lasaitzen zaio.

Bat batera, lurretik 60 metrotara dago eta atzeko parteak eztanda egiten du. Bolkan baten antzeko su ikaragarria. Zepelina airean apur bat eskoratzen da, eta beherantz abiatzen da. Pasajeruek, ahal bezala, saltatzen dute. Baina gehienek ezin dute.

Aireportuan milaren bat lagun dago zain: argazkilariak, filmegileak, kazetariak, irrati hizlariak «Hindenburg»-en etorrera emateko. Eta kolpera, begira zer tragedia irentsi behar duten. Hogeita hamalau hil eta nazien dirigible harroa kiskalia. Eta dena filmatua. Hor bukatzen da dirigibleen aroa.

85

PIZTIEN OPOSIZIOAK

piztia; basoko animalia.

gaindi, gainditu, gainditze; *horrek marka guztiak gainditu ditu;* SUPERRAR.

bizi lege; LEY DE VIDA.

ezkutaketa; / sin. ezkutatze / ant. agerketa / OCULTAMIENTO.

txirrita; CIGARRA.

hosto; HOJA VERDE.

nerbadura; NERVADURA.

ehundura; ehunen egitura; TEXTURA.

lohidura; / sin. mantxa /.

lautada; lurralde berdina eta zabala.

belarjale; belarra jaten duena.

saldo; / sin. talde /.

trinko; / sin. hertsia, zarratu / ESPESO, COMPACTO.
etengabe; deskantsurik gabe: *euria ari du etengabe.*

Piztiak ez dira erraz bizi. Bizitzeko asko ikasi behar dute. Oposizioak egin behar dituzte, eta gainditzen ez dituen hila da. Bizi legez, batak bestea nola jan ikasi behar dute; eta norbera inork jan gabe nola bizi.

Askotan, defentsarik onena ezkutaketa eta bakardadea da. Ezkutaketa hori oso ezberdina izaten da.

Txirritak, adibidez, hostoak osoki imitatzen ditu. Hostoen nerbadura eta ehundura ere, erreproduzitzen du bere anatomian. Jaguarrak lohidurak ditu larruan, arrosatxoan antzekoak. Horrela, hosto artean, eguzki izpien antza hartzen du eta ederki disimulatzen du.

Lautadan, animalia belarjaleak ezin du beti ezkutuan egon.

Orduan zer dauka? Ikusmen zorrotza eta abiadura handia. Baita saldoan ibiltzea ere. Oihan trinkoan, ordea, pertsekuzio-ko abiaduraren ordez, bizkortasuna behar du. Eta saldoan ibili gabe, bakarrik ibili. Oihan trinkoan, piztia handirik ez dago. Txikiak eta asko. Piztia handiek leku zabala behar dute. Animaliak etengabe ari dira oposizioak egiten.

86

NUDISMOA ATZO

edonork; / sin. nornahik, edozeinek /.

orkatila; TOBILLO.

bereiz, bereizi, bereitze; *senar emazteak elkarrengandik bereizi ziren / sin. separa(tu) /.*

begiramendu; MIRAMIENTO.

izan ere; EN EFECTO.

Askok uste du nudismoa gaurko moda berria dela. Edonork daki joan zen mendeko berri hondartzetan: gotik beherako soinekoa, galtzak orkatiletaraino, gona luzeak, mangak ere luzeak; eta abar... Guzti hori egia da, baina ez guztia edo ez guztiz.

Bartzelonan 1.850 aldean komediak izan ziren. Hiriko udalak bainu-lekuak bereizi zituen: batzuk gizonezkoentzat eta beste batzuk andrezkoentzat. Eta gainera, gizonezkoentzat galtzontziloak erabiltzeko agindu zuen. Horrek esan nahi du, bat baino gehiago biluzik ibiltzen zela.

Eta hona, orain, sorpresa nagusia. Aginduak esaten du:

«Troparentzat hiru leku jartzen dira. Hauetan beste gizonezkoak ere bainatu ahal dira, beste lekuetako begiramenduei kasurik egin gabe».

Begiramendu hauek soinekoak ziren noski. Beraz «jende nobleen» protesta eta guzti ere, hiru leku utzi zituzten biluzik bainatzeko.

Modarik zaharrena, izan ere, biluzia da. Gizona da, jantzi-ta dabilen animalia bakarra.

87 BEHOR ANTZUA ETA MOXALAK

behor; zaldiaren emea.

antzu; fruiturik eman ezin duena: *emakume antzua*.

moxal; zaldi behorren ume arra; POTRO.

oilo loka; GALLINA CLUECA.

habia; txoriek eta piztiek humeak ateratzeko daukaten tokia.

jauzika; / sin. saltoka /.

agudo; / sin. laster, arin /.

Gizon batek behor bat zeukan. Baina beti antzu zegoen. Behin Iruñeara joan zen jakitera. Zer jakitera? Behorra nola umedun utzi. Estudiante batek hori jakin zuen eta zer egiten du? Bi gauza handi, eder eta biribil eman. Eta esaten dio gizonari:

—Hauek behor arraultzeak dira. Behorrek ere, oilo lokak bezala, umeak ateratzen ditu. Ez dakizu hori?

Estudianteari arraultzeak ordaindu eta etxera doa gizona. Habia handi bat egin, arraultzeak jarri eta behorra ondoan lo-

tzen du. Biharamun goizean, hura gizonaren poza! Badoa eta bi moxal ikusten ditu behorraren ondoan.

— Hau da behorra! Bai agudo umeak atera ere!

Bi moxalek ihes egiten dute.

— Putxo, putxo —dei egiten du gizonak—. Baina moxalak ez datoz.

— Etorriko dira —pentsatzen du—.

Gero behorraren ondora joan zen eta, ai! Zer da hau? Behorra hilik aurkitu zuen. Hilik eta erdi janik. Arraultzeak kalabazak ziren eta moxalak bi otso.

88 AMAZONAK ESPAINOLEN AURKA

gurutza, gurutzatu, gurutzatze; zeharka igaro: *kalea gurutzatzean auto batek jo zuen.*

gerlari; / sin. gudari /.

erromes; *Arantzazura erromes;* PEREGRINO.

miragarri; / sin. miresgarri /.

oihan; / sin. baso /.

Espainolak Amerika konkistatzen ari ziren. Hego Amerika, alde batetik bestera pasatu behar zen. Ez zekiten beste alde non zen. Bide luzea eta zaila. Baina espainolek edozer egiten zuten. Haiek konkistatzen ari ziren. Haiek urrea behar zuten. Francisco de Orellana izan zen Amerika gurutzatu zuen lehenengoa.

Ibai handi bat aurkitu zuten eta hari jarraitu zioten. Lehenbizi Orellana izena jarri zioten, baina gaur «Amazonas» izenaz ezagutzen dugu. Zergatik «Amazonas»?

Amazonak emakume mitikoak dira, gerlariak eta bizkorak. Orellanak eta espainolek indioen kontra burruka asko izan zuten bidean. Eta harriturik gelditu ziren. Indioen artean emakume gerlariak ziren. Gizonek bezala edo gehiago burrukatzen zuten. Orduan pentsatu zuten mitologiako Amazonak egiazkoak zirela.

Indio talde batzu erromes ibiltzen ziren (gaur ere bai batzu) «gaitz gabeko lurraren» bila. Hauek gauza miragarriak kontatzen zituzten. Eta espainolak urre bila. Indio presoek ere gauza bera esaten zuten: oihan barnean Amazonen erreinu bat zegoela. Eta honela ibai hari, munduko handienari, Amazonas izena jarri zioten.

89

CUZCO, MUNDUAREN ZILA

zil; / sin. zilbor / OMBLIGO.

ketxuera; ketxua-indioen hizkera.

itzal, itzali, itzaltze; / sin. amata(tu) / ant. piz(tu) /.

burezur; buruko hezurra.

asma, asmatu, asmatze; gogoan sor(tu) / sin. inbenta(tu) /.

multzo; / sin. talde, bilduma, mordo, pila /.

zehazki; / sin. egoki /.

ebaki, ebakitze; tresna zorrotzez zati(tu).

nahasketa; / sin. nahaste borrate / MEZCLA.

murko; / sin. ontzi /.

etsipen; esperantzarik eza.

jaurtiki, jaurtikitze; abiada handiz bota; LANZAR.

harri eta larri; / sin. harrituta eta larrituta /.

Qosqo, ketxuera, «munduko zila» da eta zibilizazio handi baten hiriburua eta hiri sakratua zen. Berrogei miloi lagun Amerikako Andean zehar; Inkak edo Indio Inkak. Inken inperioa kolonizatzaileekin itzali zen.

Zibilizazio harrigarria. Badakite burezur zirugia, badakite metalak urtzen, nekazaritzan teknika aurreratuak dituzte eta izarren mugimenduak ere ezagutzen dituzte. Horretarako tresna zehatzak eta estetikaz fin-finak dauzkate.

Eta batez ere hainbeste milioi lagun dirurik gabe bizi ziren. Ez daukate dirurik. Ez dute asmatu eta ez dute nahi. Dirurik ez dute, baina goserik ere ez.

Inken erruinak harrigarriak dira. Hiri osoak, harriz eta hormaz. Multzo izugarriak. Misterio handi bat bada harrietan. Zer metal edo zer metodo erabiltzen zuten haitz harria hain zehazki eta kurioso ebakitzeke?

Haitza biguntzen al zuten eta gero ebakitzen? Hori da teoria bat. Nola egiten zuten, ordea? Bada zenbait datu metalezko edo hondarrezko nahasketaren bat ezagutzen zutela pentsatzeko. Nahasketa horrek erreakzio kimikoren bat zeukan eta horrela, haitza biguntzen zen.

Bada txori bat, habia haitzean egiten duena. Horretarako, belar batzuren bidez, haitza biguntzen du. Inkek ere hori egiten ote zuten? Eta hemen dator Cuzco-ko kondaira.

Espainolak hiria eskabatzen ari ziren urre bila. Baina urre gorri ederraren orde, lurrezko murkoak aurkitu zituzten. Amorrazioz eta frakasuaren etsipenez, murkoak lurrera jaurtiki zituzten. Eta apurtzean, likido beltza zabaldu zen. Espainolak harri eta larri zeuden bitartean, salda hark inguruko haitz guztiak desintegratu zituen.

Kondaira ederra, baina Inkak hil ziren eta kolonizatzaileak aurrera.

90 BERRIATUKO TXANBOLINEN TXAKURRA

maltzur; malezia duena.

harroturik; / sin. harro / ant. apal /.

ezezagun; / ant. ezagun /.

begiluze; / sin. kurioso /.

ingura, inguratu, inguratze; / sin. gertura(tu), hurbil(du) /.

buztanpean; buztanaren azpian.

Berriatuko Txanbolinek txakur bat zeukan oso alferra, baina maltzurra. Txanbolinen andrea harroturik zebilen txakurrarekin. Txanbolinek saltzea pentsatu zuen. Berak eta beste lagun batek Bilbora eramaten dute txakurra. Bilboko azokara heldu eta Txanbolin apartatzen da eta beste gizona jartzen da txakurra saltzen. Laster dator Txanbolin, ezezagun bat bezala. Eta galdetzen du:

— Zenbat balio du txakur horrek?

— Mila erreal.

—Horrenbeste? —esaten du Txanbolinek. Eta kordela atera eta txakurra neurtzen du. Jende begiluzea inguratu zen. Orduan Txanbolinek:

—Txakur ederra. Neuk erosiko dut. Hemen bostehun erreal bakarrik ditut. Etxera noa eta oraintxe ekarriko ditut beste bostehun.

Jendeak saltzaileari galdetzen dio:

—Zertarako da txakur hau, hainbeste balio izateko?

—Honen jabea zapataria eta txistularia da. Herrietara doanean, txakurrari bizkarrean lotuta, alde batean danbolina eramaten du, bestean zapata pareta eta txistua buztanpean.

Gauza hauek entzunda, jende arteko batek esaten du:

—Tori mila eta ehun erreal eta txakurra niretzat.

Txanbolin eta laguna, bazkari ederra janda, itzuli ziren Berriatura.

91 HEMINGWAY IRUIÑEKO ENTZERRUAN

erro; /sin. sustrai /.

ikuskizun; ikusteko dagoena: *hori, ikuskizun dago oraindik.*

bilaka, bilakatu, bilakatze; /sin. bihur(tu) / CONVERTIRSE.

atzerri; norberarena ez den edozein herri / sin. erbeste / ant. aberri /.

entzute; *entzute handiko gizona* / sin. ospe, izen, fama /.

zuzenki; modu zuzenez / sin. artez / ant. zeharka /.

oinarri, oinarritu, oinarritze; oinarri har(tu); BASARSE.

Iruñeko entzerrua, mende honetan, errotik aldatzen da. Lehenago mito bat zen eta orain ikuskizun bilakatzen da. Atzeritik ere, milaka lagun etortzen da gaur. Nork egin du propaganda hori? Hemen dator Hemingway.

Ernest Hemingway amerikar idazle famatua da. Espainia-ko gerran ibili zen Frankoren kontra. 1.953an Literaturako

Nobel saria irabazten du. Gizon honek, 1.926an nobela bat idatzi zuen: «The Sun also rises». Nobela honen bigarren zatia, aurreko urteko Iruñeko jaietan dabil. Amerikan eta Europa guztian milioika irakurle du. Nobela hori asko irakurtzen da. Eta horra zergatik, Iruñeko Sanferminek entzute mundiala hartzen duten. Horregatik da benetan?

1.954an Turismo Bulegoen bidez, inkesta bat egiten da zenbait naziotan. Ia ehuneko laurogeita hamar atzerritar nobela hori zuzenki ezagutzeagatik datoz edo «Festa» izeneko filmea ikusi dutelako. Filme hori Hemingwayren nobelan oinarritzen da.

92 ONDO HILTZEKO ELKARTEA

berez; inoren laguntzarik gabe.

hots; /sin. hau da, alegia, halanola/.

gomendio; /sin. errekomentazio/.

bazkide; bazkun kidea /sin. sozio/.

Hiltzeko bi era daude. Bata berez hiltzea eta bestea nork bere burua hiltzea. Bigarren hauek uste baino gehiago dira. Euskal Herrian ere asko izan dira. Eta orain ere badira.

Ingalaterran elkarte berri bat dago: Eutanasi Elkarte Gogozkoa. Zer da eutanasia? Ondo hiltzea, hots, min gabe edo sufritu gabe hiltzea. Eutanasi Elkarte Gogozko horrek urtero bere biltzarrea egiten du. Aurtengo biltzarrean, beste zenbait gauzaren artean, hauxe erabaki dute: gomendio liburu bat aterra. Nolako gomendioak edo zertarako gomendioak? «Nola egin norberaren buruari bizia kentzeko, hala erabaki badu.»

Aurrerapenak gauza guztietan egiten dira. Zergatik ez ondo hiltzeko ere? Elkarteak bi mila eta bostehun bazkide ditu eta liburua denentzat aterako da. Beraz, bi mila eta bostehun ale. Bizi ezinik bazaude, badakizu nora joan.

hilberri; orain dela gutxi hil dena / ant. jaioberri /.

hilik; *hilik aurkitu dute* / sin. hilda / ant. bizirik /.

belauniko; belaunak lurreen izanik: *belauniko eskatuko dizut*.

erantz, erantzi, erantzte; / ant. jantz(i) /.

urtean baino, urtean handiagoa; desio ona adierazten duen esaera zaharra; QUE VAYA EN AUMENTO CADA AÑO.

juxtuan; / sin. juntu juntu, ozta ozta /.

lehenbaitlehen; ahal den lasterren.

ihar, ihartu, ihartze; landarea urik gabe gera(tu) / sin. sika(tu) /.

txerta, txertatu, txertatze; INJERTAR.

geroztik; handik aurrera / sin. harrezkero /.

Ama aspertu zen bere seme Erroketxoz eta esan zion:

— Seme, lagun bat behar duzu. Joan etxe horretara eta neska on bati begia bota.

Erroketxo badoa eta bidean ardi bati begia kentzen dio. Neskaren etxera joan eta zapla, begi hura aurpegira botatzen dio.

Amak esaten dio:

— Zer egin duzu, seme? Dantzan goxoki egin eta horrela irabazten da nesken bihotza.

Erroketxo, berriro, lehengo neskaren etxera doa. Etxe hartan ama hilberri da eta otoitzean ari dira. Erroketxo joan eta dantzan hasten da. Etxekoak haserretu eta bultzaka bidaltzen dute.

Amak esaten dio Erroketxori:

— Nola egin duzu hori, seme? Norbait hilik badago, belau-niko jarri eta otoitz egin behar da.

Erroketxo berriro doa neskaren etxera. Orduan txerria hilik daukate eta txerria erretzen ari dira. Erroketxok belau-niko jarri, txapela erantzi eta otoitz egiten du.

Amak Erroketxori esaten dio:

— Nola egin duzu hori, seme? Horrelako kasuetan «urtean baino urtean handiagoa» esaten da.

Berriro ere badoa Erroketxo neskaren etxera. Aitak begia

handiturik dauka eta alaba aita sendatzen ari da. Erroketxok gizonaren begia ikusi eta esaten du:

— Urtean baino urtean handiagoa.

Aita eta alaba haserretzen dira. Erroketxok juxtuan ihes egiten du.

Etxera heldu eta amak esaten dio:

— Hori ez da esaten, seme. «Lehenbaitlehen ihartu» esaten da.

Erroketxo, berriro, neskaren etxera doa eta aita-alabak arbolak txertatzen ari dira.

— Lehenbaitlehen ihartu! —esaten du Erroketxok.

Mutil gaixoa bero-bero egiten dute eta etxe hartan esaten dute:

— Gehiago ez etorri gure etxera.

Amak Erroketxori esaten dio:

— Hori ere egin duzu, seme?

Geroztik, amak ez du semea inora bidaltzen. Beti berarekin eramaten du.

94 SENAR EMAZTEEN BIXIGUA

iltze; CLAVO.

etxerantzean; etxerantz etortzean.

otzara; zumez (mimbre) egindako boltsa / sin. otarre, saski /

ohos, ohostu, ohoste; / sin. lapur(tu), ebats(i) /

irakin, irakite; *esnea, edan baino lehen irakin;* HERVIR.

Senar-emazte batzuk bixigu bat zeukaten afaltzeko. Arratsaldean gizona mendira joan zen lanera. Bitartean, emazteak bixigua erre eta jan zuen. Gizona etxeratu zenean, emazteak esan zion:

—Peru, izugarria gertatu zaigu. Bixigua iltzetik zintzilik eduki dut eta erre kara ihes egin du lotsagabeak.

Gizona makila bat hartu eta erre kara joan zen. Alferrik egon zen han. Etxerantzean, arrain saltzaile baten otzaran, bixigu eder bat ikusi zuen eta esan zion:

—Hor zaude, begigorri?

Eta bixigua hartu eta etxera eraman zuen.

—Nork ohostu dit bixigua? —esaten zuen gero saltzaileak.

Peru etxeratu zen, lapikorik handiena urez bete eta sutan jarri zuen. Bixigua barruan sartu eta bera makila batekin alboan.

—Ez duzu berriro ihes egingo!

Lapikoa irakiten hasi zen eta bixigua saltoka. Arrainak ihes egingo zuela pentsatu zuen eta Peru makilaka hasi zen. Lapikoa apurtu zen, baina bixiguak ez zuen ihes egin.

95

KATU SALBATZAILEA

suge; hankarik gabeko narrastia: *eta sugeak Ebari esan zion...*

enbor; *hiru zati ditu zuhaitzak: sustraia, enborra eta adarrak.*

bat batean; /sin. bapatean, derrepente /.

haril; hariz egindako pilotaren antzeko bola; OVILLO.

marraoka; miao haserreka (katua).

ileak kizkurturik; ileak puntan.

alden, alden du, alden zite; alde egin.

Suge familia batek bere habia, edo bizilekua, etxe baten ondoan jarri zuen. Zergatik? Beraiek jakingo dute hori. Etxe ondoan zuhaitz erori bat zegoen eta harexen azpian sartu ziren.

Behin, suge bat enbor azpitik irten eta arrastaka zetorren. Etxe aurrean haurtxoa zegoen, lurrean eserita. Haurtxoak ez zekien oinez. Sugea haurtxoarengana arrastatzen zen eta haur-

txoak eskua luzatzen zion sugeari. Zentimetro gutxi falta ziren haurtxoaren eskuak eta sugeak bat egiteko. Aita ohartu zen, baina urrun zegoen eta sugea hurbil.

—Orduan —kontatzen du aitak— bat batean, ez dakit zerk, sugearen gainera saltatu zuen eta zerbait, harila bezalako zerbait, patioan bueltaka hasi zen. Harila askatu zenean, sugearen burua hilda zegoen bazterrean eta katua marraoka ari zen, ileak kizkurturik. Katua gaixotu zen. Ilea erori zitzaion. Etxetik aldendu zen. Baina ez zen hil. Bi hilabetera berriro etxera itzuli zen.

96 WOUNDED KNEE: INDIOAK HIL

ehunen bat; / sin. ehun inguru, ehun gutxi gorabehera /.

zaldun; zaldidun: *ez dugu zaldirik, ez gara zaldunak.*

uzteko; / sin. abandonatzeko /.

gero eta ...ago; *gero eta gehiago ulertzen dut.*

ahalegin; / sin. eginahal, esfortzu /.

ohorezko domina; / sin. ohorezko medaila /.

hestu, hestutu, hestutze; / sin. apura(tu) /.

zabalkunde; / sin. hedakuntza, difusio /.

iraun, iraute; denbora luzean izan: *ehurteak aurten luzaro iraungo du.*

nahaspila; ordenarik gabeko egoera.

zalantzan; *zinemara ala dantzara joan, zalantzan nago.*

Wounded Knee izen famatua da indioen masakrean. 1890. urtea eta 1973. urtea historiarako gelditu dira. Zer gertatu zen 1890ean? Masakre izugarria. Indioek gosez hil behar zuten. Orduan Pine Ridge-rantz doaz. Laurehun lagun inguru dira. Ehunen bat soldadu eta beste guztiak emakumeak eta haurrak.

«Zazpigarren zaldieria» bidera irteten zaie. Estatu Batuetako zaldun konpainia bat da hori. Indioei, arma guztiak uzteko, agintzen diete. Denak desarmatu zituzten. Indio batek, ordea, ez zuen armarik utzi nahi. Eta disparatu egin zuen. Orduan, tropa zuriak dinbi eta danba hasi ziren eta indiorik gehienak bertan hil ziren. Emakumeak eta haurrak ere bai.

Geroztik, indioak gero eta okerrago joan dira. Zurien azpian beti. Erreserbetara baztertu behar izan dute. Eta administrazioak ahalegin guztiak egiten ditu, indioa gero eta zuriago egiteko. Masakre hura egin ondoren, hamazortzi soldaduk ohorezko domina hartu zuten Kongresuan. Wounded Knee hori, berriro famatu egin zen 1973an, duela hamar urte. Zer gertatu zen?

Yankien armadak Sioux indioen erreserba okupatu zuen. Aurretik historia luzea dago. Indioak oso desgustora daude eta aktibismoa sortzen hasten da. Gauzak hestutzen hasi dira. Estatu Batuetako gobernuak ez du ezer uzten. Aurreko urtean indio asko hiltzen ditu.

1973an gobernuaren begiak Hego Dakotara doaz. Han daude Sioux indioak. Otsailaren 27an Wounded Knee okupatzen dute. Inbasio honek zabalkunde internazionala hartzen du. Okupazioak hirurogeita hamar egun irauten du. Estatu Batuetan nahaspila handia sortu zen. Amerikar herriaren inkesta batek hauxe eman zuen: ehuneko 51 indioen alde. Ehuneko 21 indioen kontra eta besteak zalantzan daude.

Hura, ondo edo gaizki konpondu zen. Indioek han segitzen dute. Baina indioek ez dute lekurik, zurien zibilizazioan. Indioek bi bide bakarrik dituzte: zuri egin ala hil.

97

KAPELA PAREGABEA

paregabe; berdinek ez duena.

honenbeste; *honenbeste ordaindutako etxea!*; TANTO.

kito; zorrik gabe: *kito geratu gara.*

hauta, hautatu, hautatze; / sin. aukera(tu) /.

inola ere ez; / ant. nolana / DE NINGUNA MANERA.

ostatu; jateko eta lo egiteko etxea / sin. benta /.

biziki; / sin. biziro / VIVAMENTE.

gor; entzumenik ez duena.

oihuka; / sin. garrasika, deiadarka, zarataka /.

Gizon alfer batek lanik egin gabe bizi nahi zuen. Eta kapela polit bat asmatu zuen. Gizon alferrak tabernariarekin hitz egin eta tratua egin zuen. Bazkaldu zuen eta kontua eskatu zuen. Tabernariak «honenbeste» esan zuenean, kapeladunak kapela jiratu zuen.

—Ondo dago —esan zuen tabernariak.

Gizon alferra beste gabe joan zen. Hurrengo egunetan ere, berdin:

—Zenbat da nire kontua?

—Honenbeste—.

Gizonak kapela jiratu, tabernariak «ondo dago» eta kito.

Taberna hartan zaldun batzuk egoten ziren. Hauek harriturik daude eta galdetzen diote alferrari:

—Nola da hori? Dirurik ordaindu gabe, «ondo dago» esan eta etxera?

—Kapela eder honek edozer egiten du. Kapela hau honela jiratu eta debalde ematen dute. Nahi baduzue bihar egingo dugu aproba —esan zien gizon alferrak.

Gizon alferrak eta zaldunek Patxi Bizarren ostatua hautatzen dute. Han aproba egitea pentsatzen dute. Gizon alferrak bezperan Patxi Bizarrekin hitz egin du:

—Aizu, Patxi. Denen bazkaria etzi ordainduko dut. Bihar nik kapela jiratu eta zuk «ondo dago» esan.

Patxi Bizarrek baietz esaten du. Gizon alferrak eta zaldunek ederki bazkaltzen dute. Kontua eskatu, alferrak kapela jiratu eta Patxik «ondo dago» esaten du.

—Ikusi duzue? —esaten du alferrak—.

Zaldunek esaten dute:

—Mutil, kapela hori erosi nahi dugu.

—Ez, inola ere ez —esaten du alferrak—. Hauxe da nire jantzia, nire jana eta nire dena.

—Eskatu nahi duzuna, baina kapela hori guk behar dugu.

Azkenean tratua egiten dute. Gizon alferrak kapela saldu eta diru asko hartzen du.

Zaldunak pozik daude. Kapela paregabea erosi dute. Hiri-
ra joan eta ostatu ederrenean jan eta lo egiten dute. Biharamu-
nean kontua eskatzen dute. Ostalariak «honenbeste» esaten
du eta zaldun batek kapela jiratu eta agur egiten du. Ostala-
riak esaten du:

— Ez duzue entzun? Honenbeste esan dut.

Bigarren zaldunak kapela hartu eta galdetzen du:

— Zenbat esan duzu?

— Gorrak zarete? Honenbeste esan dut.

Bigarren zaldunak kapela jiratu eta agur egiten du. Ostala-
ria haserretzen da. Hirugarren zaldunak ere, kapela jiratzen
du. Ostalaria biziki haserretzen da eta oihuka hasten da. Hiru
zaldunek ez dute beste erremediorik: ordaindu egin behar
dute. Eta bidean esaten dute:

— Kapela erosi dugu eta burua galdu dugu. Non dago gi-
zon madarikatu hura?

Baina gizon alferra ez dago inon. Kapelaren diruekin ihes
egin zuen.

98

TURKIAKO KIROL NAGUSIA

bitxi; normala ez dena / sin. ikusgarri /.

oliozta, olioztatu, olioztatze; oliozt busti.

igurtz, igurtzi, igurzte; behin eta berriz gainetik pasa(tu): *eskuak
igurtz(i)*.

etzanda; / ant. zutik /.

egurgin; basoan egur egiten duen langilea.

ahiturik; / sin. agorturik / AGOTADO.

nekearen nekez; DE PURO CANSANCIO.

bikuondo; bikuak ematen dituen arbola.

ehortz, ehortzi, ehortze; hila obira(tu) / sin. lur eman /.

Turkian bada burruka bat «Yagli» izena duena. Burruka bitxia, Turkian bakarrik egiten dena, hango kirol nazionala. Gorputza olioztatu edo olioz igurtzi, galtza espezial batzu eta gerritik gora biluzik. Zer egin behar da? Kontrarioa airean jaso eta eduki edo lurrean etzanda ipini. Orduantxe amaitzen da burruka.

Hiru urtez behin, egiten da txapelketa nazionala. 1978an 344 burrukalaria bildu ziren, Turkiako bazter guztietatik. Batzuk hiru egunetako bidaia egin behar izan dute autobusez. Eliminatoriak egiten dira azkenean kanpeoi bat atera arte, futbol zelaiaren antzeko zelai batetan.

Milaka eta milaka ikusle biltzen dira. Burrukalaria edo jokalaria gizon indartsuak dira, nekazariak, artzainak, egurginak eta horrelakoak. Hiru egunetako jokoak izaten dira. Egun horietan armonia izugarria izaten da. Burruka hau erdi ritoa edo zeremonia bezalakoa da.

Burruka edo joko horren jatorria aintzinako kondaira bat da. 1356an Soliman Bajá printzea, Dardanelon zehar doa, berrogei gizonekin. Traziako Demonzhisar portua okupatzera doa.

Bi soldadu indartsu, Ali eta Selin, haserretu egiten dira, bidaiari. Eta burrukan hasten dira, gorputzez gorputz. Larruzko galtzak eta gorputza olioz igurtzia dute. Martxa jarraitu eta bi gerlariak, Edirnen, berriro burrukan hasten dira. Egun osoa egin zuten burrukan eta gauerdian bi gizonak ahiturik eta guttiz nekaturik zeuden. Beren dendara eramaten dituzte eta hantxe hiltzen dira biak nekearen nekez.

Soldadu lagunek, bikuondo baten azpian, ehortzen dituzte eta aurrera doaz. Baina bueltan, handik berriro pasatzean, zelai hura iturriz beterik aurkitzen dute. Zelai hark geroztik Kirkpınar dauka izena. Berrogei iturrien zelaia esan nahi du. Hantxe jokutzen da gaur burruka oliotsua edo Turkiako kirol nazionala.

apaingarri; *egongelarako apaingarri bat erosi dut*; ADORNO.

haran; mendi arteko zelai luzea / sin. bailara /.

golda, goldatu, goldatze; lurra goldeaz iraul(i); ARAR.

mahasti; mahats landare ugari dagoen lekua.

gehi, gehitu, gehitze; / sin. ugari(tu) / ant. gutxi(tu) /.

XVI. mendearen hasieran, artoa landare apaingarria zen. Hala diote datu batzuk. Gosea bazterretan eta artoa apaingarri. Janari bezala, mende bat geroago zabaldu zen Kantauri aldean. XVII. mendearen azkenean, artoa labore printzipala zen Euskal Herrian.

Gipuzkoan izan zela dirudi, eta Gipuzkoan Bidasoako haranean. 1616an Hondarribian baziren arto errotak. Geroztik, artoa janari nagusia izan da Euskal Herrian ia gaur arte.

Hamaseigarren mendean, aldakuntza handiak izan ziren. Eta burrukak ere bai. Labore gehiago hartzeko, lurrak goldatu eta hautsi behar ziren. Beraz, arbola eta baso gutxiago. Gipuzkoako udalek sarritan ematen dute agindu hau: lurrak goldatzeko, baimena eskatu behar da. Horrek esan nahi du jendeak hori egiten zuela. Gero udalak eskuak zabaltzen hasi ziren. Honela, laborea (artoa eta garia batez ere) eta mahastia gehitu eta gaztaina gutxitu egin zen.

herensuge; Euskal Mitologiako suge beldurgarri haundia.

leize; haitzulo sakona.

zotz egin, egite; zozketa egin / sin. zortea(tu) /.

iragar, iragarri, iragartze; aditzera eman, berri eman: *euskarazko klaseak egunkarian iragarri ditugu*.

ausart, ausartu, ausartze; / sin. atrebi(tu) /.

ostean; / sin. atzean /.

mahaiburu; mahaiaren ohorezko lekua; leku hau okupatzen duen pertsona / sin. presidentzia /.

Errege hiri eder batetan bizi zen. Inguruan leize handi bat zegoen. Eta leize hartan, suge handi bat. Suge izugarria, zazpi burutako sugea. Herensugea. Jende asko jaten zuen herensugeak. Herriak herensugearekin tratu bat egin zuen:

— Urtean, neska bat edukiko duzu, baina beste jendeari barkatu.

Herensugea konformatu zen. Etxe guztietan zotz egin zuten eta behin, Erregeren alabari tokatu. Erregek, orduan, erreinu osoan iragartzen du.

— Nire alaba herensugearengandik salbatzen duena, bera-rekin ezkonduko da eta gero Errege izango da.

Eguna heldu zen eta Erregeren alaba zuhaitz batetan lotu zuten, leize inguruan. Jende asko bildu zen, baina denak zuhaitz adarretara igon ziren. Inor ez zen ausartu lurraren gainean egoten. Herensugea irten aurretik, artzain bat agertu zen zakur batekin. Neska loturik ikustean, galdetzen du:

— Zer egiten duzu hor?

— Herensugea ni jatera dator.

Artzaina zuhaitz ostean ezkututzen da bere zakurrarekin. Heresungea badator eta artzainak zakurrari:

— Zesar, heldu horri!

Zakurrak piztiari heldu eta hiltzen du. Artzainak erregeren alaba askatzen du. Herensugearen zazpi buruen mihiak kendu eta gordetzen ditu. Neskaren gonatik, beste zazpi zatitxo ere bai.

Herensugea hil da eta Erregeren alaba libre dago. Orduan jendea zuhaitzetatik jaisten da. Gizon batek herensugearen zazpi buruak mozten ditu. Zaku batetan sartu eta etxera eramaten ditu herensugearen buruak.

Erregek bazkari handi bat prestatzen du. Jai handiak dira erreinu guztian. Mahaiburuan Errege, alaba eta senargaia daude. Senargai honek herensugearen buruak dauzka zakuan. Artzaina ez du inork gonbidatu. Baina bazkariaren azkenean heltzen da. Jantokian sartu eta han dago bazterrean isilik.

Bazkal ondoren, Erregek esaten du:

— Jaun-andreak, egun handia da hau. Nire alaba bizi da eta herensugearen buruak non daude?

— Hemen daude—esaten du senargaiak.

Eta zazpi buruak zakutik ateratzen ditu.

— Gizon trebea!—esaten du Erregek—. Zuk salbatu duzu nire alaba eta zu ezkonduko zara nire alabarekin.

Orduan artzaina jaiki, eta esaten du:

— Hori ez da horrela. Herensugea nire zakurrak hil du. Ni naiz zure alabaren senargaia.

— Nola zu?—esaten du harriturik Erregek—. Hemen daude herensugearen zazpi buruak.

— Buru horiei zerbait falta zaie. Hemen daude buru horien zazpi mihiak. Hemen neskaren gonaren zazpi zati ere.

Orduan, Erregek artzaina bere alabarekin ezkontzen du eta beste senargai gezurtia preso sartzen du.

101 TXINPANTZEA ETA POLITIKA

huts; *huts egin du*; FALLO.

epe; zerbait egiteko aurretik jartzen den denbora: *epetan ordainduko duzu*.

portaera; portatzeko modua / sin. konportamendu /.

adimen; aditzeko gaitasuna / sin. ezagumen /.

arautegi; arau multzoa: *Euskaltzaindiaren Arautegia*.

sen; INSTINTO.

Gizona «animalia politiko» omen da. Politika gizonena bakarrik zela uste genuen.

«Huts handia—dio ekologista holandar batek—Txinpantzeak ez dio ezer zor politikorik onenari. Aliantza koiunturalak eta epe luzeko koalizioak egiten badaki txinpantzeak».

Frans de Waal doktoreak hala uste du. Gizon hau Utrecht-ko unibertsitatean dago. Urte batzutan zehar txinpantze kolonia baten portaera aztertzen du. Hogeita hiru txinpantze lagun dira. Lau ar, bederatzi eme eta hamar gazte. Txinpantzeak askatasunean bizi dira. Zer aurkitu du?

De Waal doktoreak konklusio harrigarri hau atera du: Txinpantzeek adimen soziala oso aurreraturik eta desarroilaturik daukate. Elkarrekin komunikatzeko arautegi oso landua daukate. Eta baita, portaera edo sen politikoa ere. Aliantzak egiten dituzte, elkar laguntzak eta koalizioak egiten dituzte. Eta ez egun bat edo bitarako bakarrik, koalizio luzeak baizik.

Ea txinpantzeengana joan behar dugun, politika nola egin ikastera.

102

AMA BESOGABEA

errukitsu; / ant. errukigabe / COMPASIVO.

honda, hondatu, hondatze; *lantegia hondatu dugu;* ARRUINAR.

eskale; diru eske bizi den pobrea / sin. eskeko /.

urrun; *urrundik ikusten dut* / sin. urruti / ant. gertu /.

basamortu; / sin. desertu /.

eskegi, eskegitze; zintzilik jar(ri) / sin. eseki /.

biki; beste haur batekin jaioa.

mandatari; mezua daramana: *uso mandatari.*

jauregi; / sin. palazio /.

sineste; / sin. fede /.

eragin, eragite; mugi erazi: *haizeak eragiten du ikurrina.*

topo egin, egite; elkar aurki(tu): *kalean Joxerekin topo egin nuen.*

luzaro; denbora luzez: *luzaro mintzatu da.*

belauniko; belaunak lurrean.

Gizon batek alaba bakarra zeukan. Alaba ona eta errukitsu zen. Behin atso sorgin batek atea jo zuen. Alabak, hari ere, dirua eta gauza asko eman zion. Atso sorgina neskaren aitarengana joan zen eta esan zion:

— Zure alabak etxea hondatu behar du. Zuk irabazten du-

zuna gutxi da, hark eskaleei emateko. Begira, niri ere, zenbat eman didan.

Aitak atsoari sinetsi eta alaba urrun eraman zuen. Basamortura heltzean, zuhaitz batetan eskegi zuen alaba, bi besoak mozturik.

Soldadu batzu etorri ziren Erregeren semearekin. Emakumea ikustean, harritu ziren. Oraindik bizirik zegoen. Gertatua jakitean, jauregira eraman zuten. Neska besogabea denek maitate zuten. Erregeren semea berarekin ezkondu zen. Ezkondu eta laster, senarrak gerrara joan behar izan zuen urrun. Neska besogabea haurdun geratu zen eta bikiak egin zituen. Aitari eskutitza bidali zioten, esanez:

— Zure emazteak seme-alabak egin ditu.

Eta mandataria gerrara doa aitari berria ematera.

Atso sorginak mandataria bidean gelditu eta disimuloz eskutitza aldatzen du. «Zure emazteak seme-alabak egin ditu» kendu eta haxe jartzen du: «Zure emazte besogabeak katakumeak egin ditu». Erregek eskutitza hartu eta erantzuten du:

— Dena dela, ene emaztea ondo zaindu.

Sorgina berriro mandatariari bidera irten, erregeren erantzuna aldatu eta haxe jartzen du:

— Bidal etxetik emakume hori!

Ama besogabea, jauregitik kanpora, bidaltzen dute eta bere haurtxoekin eskean ari da. Noizbait, Errege etxeratzen da eta gertatua jakitean, esaten du:

— Nik ez dut horrelakorik agindu. Non dira nire emazte-haurrak?

Errege, haien bila irteten da baina ezin aurkitu. Ama besogabea herriz herri dabil. Behin, bi haurrak egarri dira. Ura edaten, erregera erortzen dira. Amak ez dauka besorik eta ezin ditu atera. Negarrez ari da. Andre bat etortzen da eta esaten du:

— Zergatik negar egiten duzu?

— Ene haurrak errekarera erori dira eta ito behar dute.

Andreak esaten du:

— Eduki sinestea Jainkoarengan. Sartu uretan eskua eta aterako duzu.

— Nik ez daukat ez eskurik ez besorik.

— Zuk, egin nire esana!

Gorputzari eragin eta besoa eta eskua sortzen dira eta semetxoa ateratzen du. Beste hainbeste berriro eta beste besoa eta eskua sortzen dira eta alabatxoa ateratzen du. Orain bizi-rik daude haurrak. Hura poza! Eta aurrera doa. Behin, Erre-gerekin bidean topo egiten du. Erregek galdetzen du:

— Ikusi duzu hemendik, emakume besogabe bat bi haurrekin?

— Baietz uste dut. Sarritan ikusi dut.

— Andrea—esaten du Erregek—zeuk daukazu haren antza handia!

— Neu naiz—esaten du andreak.

Jauregi bat, bertan, egiten dute eta bertan bizi dira luzaro. Behin, eskale batek atea jotzen du. Ama besogabearen aita da. Agureak alaba hura hil zela uste du. Ezagutzen du eta be-launiko erortzen da. Alabak esaten du:

— Zuk baino erru gehiago dauka atso sorginak.

Agureari jauregi hura utzi eta Errege-Erreginak hirira joan ziren beren haurrekin.

103

EUSKAL MUSIKA NONDIK

zerikusi; *euskarak ez dauka grekoarekin zerikusirik* / sin. erlazio /.

ustez; *horrek ez dauka garrantzirik, nire ustez* / sin. eritziz /.

kidetasun; / sin. hurbiltasun / AFINIDAD.

aurkikunde; / sin. deskubrimendu /.

hegazti; hegaldun eta lumadun animalia.

turuta; / sin. tronpeta /.

orein; CIERVO.

gisa; *Lizardiren gisara idatzi nahi du* / sin. modu, era /.

Bada autore bat Francisco Gascue izena duena. Honek ez du zerikusirik, Azkue hizkuntzalari handiarekin. Gascueren ustez, euskal musika bretoien eta galestarren inportazioa da. Beste herri batzuren antza ere badauka: Norvegia eta Suedia, Ingalaterra, Alemania eta Frantzia. Espainiako musikarekin, ordea, kidetasunik batere ez du aurkitzen Gascuek.

Harreman edo erlazio guzti hauek, egiak dira. Baina Gascuek gehiegi esaten du: «Gure euskal musika X. menderarte ez da ezer». Konklusio hori gehiegi da. Hala ere, oraindik gauzak ilun daude.

Gascueren liburuaren ondoren, bi aurkikunde handi egin dira. Bat: xirula bat Isturitzen. Hegazti hezur bat da, hiru zuloz. Tresna hau duela 22.000 urtetakoa da. Bi: Bizkaiko Forum, Atxeta koban, turuta bezalako bat. Orein adar bat da, hiru adartxo eta adartxo bat hutsik, tubo gisa. Honek 10.000 urte inguru ditu. Zer jotzen zuten euskaldunek tresna hauekin?

104

NOLA OSASUNEZ JANTZI

helburu; lortu nahi dena: *azken helburua*.

autoerregulapen; AUTOREGULACION.

egoki, egokitu, egokitze; *lanpostu berrira egokitu behar duzu* / sin. molda(tu) / ADAPTAR.

hestu, hestutu, hestutze; / ant. zabal(du), dilata(tu) /.

babes, babestu, babeste; laguntza eman: *Gobernuak babesten du Zentru hori*.

estal, estali, estaltze; / sin. tapa(tu) /.

saka, sakatu, sakatze; *saka atea mesedez* / sin. bultza(tu) / ant. erakar(ri) /.

oztopa, oztopatu, oztopatze; egiten ez utz(i); enbarazu egin / sin. tra-ba(tu), eragotz(i) /.

nasai; / sin. lasai / HOLGADO.

zenbat eta ...ago; CUANTO MAS...

Jantziak edo soinekoak bi helburu eduki ahal ditu: bata osasuna eta bestea luzimendua. Bi helburuok onartzen ez baiditugu, zoraturik gaude. Jantzia gure bigarren azala da. Beraz gorputza egoki jantzi behar da. Ez modak agintzen duen moduan. Jantziak hiru baldintza bete behar ditu.

Lehenbizi, ez du temperaturaren autoerregulapenik kendu behar. Zer da hori? Gure azalak ahalmen bat du: gorputzaren temperatura, kanpoko hotz-beroarekin egokitzen du. Hotzean hestutu egiten da eta beroan dilatatu. Horrela, barruko tenperatura babesten du. Arropa gehiegi badaukagu, azalak ez du operazio hori ondo egiten.

Bigarren, jantziak ez du odolaren zirkulapenik aleratu behar. Jantziak gorputz guztia uniformeki edo berdintsu estali behar du. Ez du presiorik egin behar, ez du hestutu edo sakatu behar.

Azkenik, jantziak ez du azalaren izerketa edo transpiraziorik oztopatu behar. Azalak arnasa hartzen du. Oxigenoa hartu eta barruko gasak botatzen ditu. Eta izerdia ere bai. Nola jantzi baldintza horiek ondo betetzeko?

Hiru baldintza:

Bat: temperaturaren autoerregulapena lagundu. Erregulapen hori azalak egiten du. Beraz ez dugu gehiegi estali behar. Airea behar da azalaren gainean.

Bi: jantziak ez du odolaren zirkulapenik aleratu behar. Zenbat eta arropa nasaiagoak, hobe. Eta gorputz guztian berdintsu. Moda batzu guztiz antihigienikoak dira. Kortseak, galtza estuak («bakeroak»), gerriko estuak, lepo itxiak, liga eta zapata estuak... txarrak dira. Gainera gorputza uniformeki edo berdintsu jantzi behar da. Adibidez, negu aldean lepo aldean ondo berotzen badugu, gorputzean zirkulazioaren desoreka edo diferentzia sortzen dugu. Hori ez da ona.

Hiru: jantziak ez du azalaren izerketa edo transpiraziorik oztopatu behar. Azalak aire ugaria eta freskoa behar du. Beraz, jantzi inpermeableak ez dira onak. Euriagatik etab., ibili behar badira, zabalak eta nasaiak izan behar dute.

Hitz batez, jantzi nasai, gorputz guztian homogenoa edo berdintsua eta gehiegi kargatu gabe.

105

OKERRETIK OKERRERA

okerretik okerrera; DE MAL EN PEOR.

azeri; ZORRO.

uzker; ipurditik botatzen den haizea / sin. putz /.

eltze bete gurin; gurinez betetako eltzea: *baso bete ardo.*

bertan; toki berdinean: *bertan goxo gaude, inora joan gabe.*

urdama; txerri ama.

osin; / sin. putzu / POZO.

muturkada; muturraz kolpea.

zimel; bere edertasuna galdu duena: *arpegi zimela jarri zaio / ant. xamur /.*

moxal; zaldi behorren ume arra.

ahuntz; akerraren emea.

ahume; ahuntz umea / sin. ahuña /.

Azeri bat, goizean, bere habian zegoen. Habiatic irten aurretik, uzker bero bat bota zuen. Eta esaten dio bere buruari:

— Putz bero honek zori ona esan nahi du. Gaur, han edo hemen, zerbait ona jan behar dut.

Bidera irten eta eltze bete gurin aurkitu zuen, baina bertan utzi zuen, esanez:

— Gaur egun handia da. Hau jaten badut, tripa beteko zait. Gaur gauza hobeak jan behar ditut.

Joan zen aurrera eta urdama bat aurkitu zuen zazpi edo zortzi txerrikumerekin. Urdamari esan zion:

— Nireak zarete. Ez mugitu. Jan behar zaituztet.

— Honela gu jan? —esan zuen urdamak—. Oso zikin gaude. Hobe duzu, nire umeok, hor garbituta, jatea.

— Ez da gaizki esana.

Osin bazterrera joan ziren. Azeria txerrikumeak garbitzen

hasi zen. Urdamak orduan, atzetik muturkada bat eman eta azeria osinera erori zen. Eta urdamak eta txerrikumeek ihes egin zuten.

Azeria osinetik irteten da eta pentsatzen du:

—Ondo egina. Zergatik garbitu txerrikumeak jateko? Goazen aurrera. Aurkituko dut zerbait hobea.

Aurrera doa eta behor bat aurkitzen du bere umearekin.

—Nireak zarete—esaten du azeriak.

—Ni ere bai?—galdetzen du behorrak—Ni zaharra naiz. Eta zimela.

—Bai, arrazoia daukazu. Zu ez. Zure umea jango dut.

—Hori hobeki dago. Baina nik arantze bat daukat hankan. Umea jan aurretik, aterako duzu arantze hau nire hankatik?

—Hori egingo dut.

Azeria behorraren hanka begiratzen hasten da. Orduan, behorrak ostikada bat ematen dio muturrean. Azeria luze erortzen da, hortzak hautsita. Behorrak eta umeak ihes egiten dute. Azeria jaikitzen da. Mina dauka eta esaten du:

—Ai! Zergatik ez dut goizeko gurina jan? Zergatik ez ditut txerrikumeak garbitu gabe jan? Zergatik ez dut moxala jan, medikuntza utzita? Baina zerbait aurkituko dut. Gaur egun handia da.

Aurrera doa eta ahuntz zahar bat aurkitzen du.

—Nirea zara—esaten du azeriak.

—Ni jan?—galdetzen du ahuntzak—. Ni zaharra naiz. Hezurra eta azala bakarrik naiz. Hobe duzu nire bi ahumeak jatea. Hortxe daude, errota horretan.

—Errotan egonda ez dut ezer egiten—esaten du azeriak.

—Nahi baduzu, ekarriko ditut.

—Ondo. Ekarri agudo!

Ahuntza errotara doa. Baina ez du ahumerik ekartzen. Zer egiten du? Errotariari esan. Orduan errotariak eskupeta hartu

eta errotako leihotik, danba! hiltzen du azeria. Eta horrela hiltzen azeria, uzker beroa habian utzita.

106

TXINAKO HARRESIA

harresi; harriz egindako hesia / sin. murraila /.

zimendu; / sin. oinarri /.

murru; orma zabala.

inguru; gutxi gorabehera: *milioi erdi inguru elkartu ginen txapeldu-nei ongiatorria ematera.*

adreilu; / sin. ladrilu /.

harritzar; harri haundia.

buztin; ARCILLA.

kare; CAL.

mortairu; MORTERO.

zirritu; / sin. zirrikitu, tarte / RESQUICIO.

igeltsero; igeltsuz (zementuz) lan egiten duena.

lepamoztu; lepoa moz(tu).

ehortz, ehortzi, ehortzte; / sin. hobira(tu), lurpera(tu) /.

bihurri; / sin. oker / ant. zuzen /.

oharkabez; konturatu gabe.

Entzun duzu Txinako harresiaren berririk? Harresi izugarria. Munduan egin denik handiena. 3.600 kilometro dituen harresia. Bilbotik Cadizera lau bider edo Bilbotik Iruñeara hogeitamar bider.

Zimendutzat harri handiak ditu. Bi metrotatik lau metro-tarako harriak. Metro-erdi zabal oinean eta metro-erdi goian. Bi murruek zazpi edo zortzi metrotako goiera daukate. Ez gutxi ere. Murru batetik bestera bost metro daude. Beraz, harresiaren zabalera ere, hamar metro inguru da. Harri horien gaitetik, murruek adreiluzkoak dira. Adreiluak bertan egiten zituzten, baina harritzar haiek urrundik ekarri behar. Murrutik murrura buztinez betetzen zuten. Pentsa zenbat buztin behar zen.

Adreiluak kare mortairuz batzen zituzten. Iltze bat sartzeko zirriturik gelditzen bazen, heriotz zigorra zuten igeltseroek. Zertarako egin zuten harresi izugarri hau? Txinako inperioa

defenditzeko. Tsin enperadoreak aginduta egin zen. Txinaren izena ere, Tsin horrengandik dator.

Enperadore izugarria zen, Jesukristoren aurreko 331. urtean laurogei mila prisionari lepamoztu zituen; 293. urtean berrehun eta berrogei mila eta 274. urtean ehun eta berrogeita hamar mila. 260. urtean, bizia errespetatzea agindu eta gero, lauhun mila prisionari lepamoztu zituen Txhvang-Siang generalak. Ohitura normala zen orduan. Zergatik? Tsinen gertariak, buru moztuen kontura bakarrik, kobratzen zuten. Hamaiak sufritu da munduan.

Eta harresi handia egiten, nola ibili ziren? Milioiak eta milioiak eraman zituzten Tsinen harresira. Eriak eta hilak harresian bertan ehorzten zituzten. Milioi erdi langile baino gehiago hil ziren.

Hain lan gogor eta neketsuan ere, ez ziren beti desesperaturik bizi. Eta hala sortu ziren kondaira politak. Bat harresiari buruz. Zergatik da harresi bihurria eta ez zuzena? Hona hemen kondaira. Zimenduak bota eta elurte batek obrak gelditu zituen. Eta adreiluak bigundu ziren. Herensugea handik iragan zen eta oharkabez murru bigunaren kontra lo egin zuen. Eta halaxe eman zion bere forma polita.

107 GORPUTZ ERDIA ARTIFIZIALA

edozer; *edozerk ikarutzen zaitu / sin. zernahi /*

zailen; (*zail, zailago (konp.), zailen (superlatiboa)*) / *ant. errezen /*

onar, onartu, onartze; *ondo har(tu) / sin. admiti(tu) /*

urre; ORO.

egoki, egokitu, egokitze; *egokitasuna eman: antzerkia egiteko, eleiza egokitu dute.*

Hanka bat falta zaizu? Esku bat edo hezur bat edo beste zerbait falta zaizu? Ez duzu hanka gabe edo esku gabe egon beharrik. Gaur, teknikak edozer konpontzen du.

Zer izan da zailena? Gai edo material egokiak aurkitzea. Zergatik? Organismoak ez du edozer onartzen. Gai batzu atze-

ra botatzen ditu. Organismoak milaka sustantzia ditu. Hauek gogorki erreakzionatzen dute. Erreaktiboa ez den gaia edo materialea behar da. Urrea ona da horretarako, baina bai garestia ere.

1.900ean Haynes-ek metale merkeago bat aurkitu zuen hortz artifizialak egiteko. Metal berri bat egin zuen. Baina ez da berdin ahoan, hankan, hezurrian, bihotzean, etab. Milaka probatzen dira egunero.

Urrengo arazoa pieza artifizialak diseinatzea eta ondo egokitzea da. Eta gainera merke egitea. Zientzia asko aurreratu da eta gaur posible da gorputz-erdi pieza artifizialez egitea.

108 HIRI BERRI BAT OIHANEAN

oihan; / sin. baso /.

alferrik; *alferrik eskatuko didazu;* INUTILMENTE.

komunikabide; komunikatzeko bidea: *Euskal Herriko komunikabideak euskaraz nahi ditugu.*

merezi, merezitu, merezitze; *zigorra merezi du;* MERECER.

abia, abiatu, abiatze; martxan jar(ri): *goizeko seiretan abiatu ginen.*

zentso; CENSO.

duela; orain dela: *duela astebate.*

Brasil handia da, mugarik gabea. Itsas ertzean bizi dira brasildar gehienak. Lur barrua izugarria da, misterioitsua. Fantasia guztiak kabitzen dira han. Brasilgo erdialdean, hiri berri bat egin dute. Lanak 1.956an hasi ziren. Baina idea hori hemeretzigarren mendetik dator.

Zertarako hiri berri hau? Brasilen barrualdea esplotatzeko. Lur handiak eta aberatsak daude han alferrik. Hiri berri bat eginik eta administrazioa hara eramanik, bizitza berria sortuko da. Hori zen asmoa. Eta hiria egiten hasi ziren.

Materialik gehienak abioiz eraman zituzten. Ez zegoen beste komunikabiderik. Hiri berriaren kostua mila milioi dolar inguru izan zen. Baina merezi izan zuen. Barrualdeko lu-

rrak biztutzen hasi ziren. Nekazariak hiri berrirantz abiatu ziren, «Itzaropenaren hirira».

Hiri berriak Brasilia dauka izena eta 1.970.eko zentsoan milioi erdi bizilagun zeuzkan. Gaur askoz gehiago edukiko ditu. Inguruan, badira beste hiri txikiago batzuk. Duela hamar urte, denek batera, milioi bat eta berrehun mila bizilagun ematen zuten.

109 IZURRIAK EUSKAL HERRIAN

izurri; gaixotasun zital eta kutsakorra; EPIDEMIA.

sailean; *gaitzak sailean etortzen dira;* EN SERIE.

zorne; *zauriari zornea dario;* PUS.

ozpin; ardo garraztua; VINAGRE.

suil; / sin. pitxar / RECIPIENTE.

azti; etorkizuna aurrez igartzen duena.

trebe; / sin. bizkor /.

etengabe; gelditu gabe: *ikasten ari gara etengabe.*

jiraka; bueltak emanez: *lurra, eguzkiaren inguruan, etengabe jiraka dabil* / sin. bueltaka /.

ekinaldi; / sin. aktuazio /.

Izurriak ez du mugarik errespetatzen. Hamaseigarren eta hamazazpigarren mendean, izurriak sailean izan ziren. 1.599an «zorne izurriak» Europa guztia jo zuen, Flandestik Iruineara. Bizkaia eta Gipuzkoa ere harrapatu zituen. Marsellako izurri famatua zabaltzen hasi zen eta osasun-neurri bezala Frantziako eskutitzak orratz batez traspasatu behar ziren. Eta gainera ozpinez busti.

1.597an Donibane Pasaian, erdiak hil ziren. Erremedioa hau zen: izurridunen etxean, belar onak erre eta etxea ozpinez edo ur irakinez busti. Eliza desinfektatzeko, hogeita hamalau suil ozpin gastatu omen ziren. Santu ozpinduak gero.

Pasaian, Lesakar emakume batek «grazia handia» omen zuen, izurriaren kontra.

Lucas de Ayerbe izeneko bat, Tolosarra zen. Hau erdi sendagile eta erdi azti omen zen. Izpiritu gaiztoak ateratzen tre-

bea. Badakizu zer erremedio erabiltzen zuen? Gaisoak bildu eta esaten zuten:

— Aker-buru txakur-buru, Aker-buru txakur-buru...

Eta horrela etengabe eta jiraka. Ekinaldi batzutan, hama-bost izpiritu ateratzen omen zituen.

110 GIZONA GALDU ETA KAUTXUA AURKITU

bilatzaile; bila ari dena.

asperkaitz; nekez aspertzen dena: *irakurle asperkaitza*; INCANSABLE.

itzar, itzarri, itzartze; / sin. esna(tu) / ant. loak har(tu) /.

ustekabe; espero ez dena; SORPRESA.

orratz; BRUJULA.

bakarti; bakarrik egotea gustatzen zaiona: *artzaia gizon bakartia omen da*; SOLITARIO.

ebatura; / sin. ebaki / CORTE.

erretxina; RESINA.

hauskaitz; nekez hausten dena / sin. gogor / ant. hauskor /.

malko; negar tanta; LAGRIMA.

Charles-Marie de La Condamine hamazortzigarren mendeko gizona da. Bilatzaile asperkaitza. Amerikan zehar abiatu zen esplorazioan. Behin, goiz batez, itzarri zen eta hura ustekabea! Bakarrik zegoen. Lagunek ihes egin zioten. Orduan bere orratza hartu eta bidea aizkoraz irekirik, oihanean zehar doa. Egunak eta egunak galduta dabil Quito hiriaren bila.

Ibilaldi bakarti horretan, kautxua aurkitzen du. Hala idazten du, Zientzi Akademiara:

Indioek «hevea» esaten dute. Aski da, zuhaitzean ebatura bat. Erretxina zuria irteten da, esnea bezalakoa. Eguzkitan jarri eta gogortu eta ilundu egiten da. Sua egiten du eta ez du tantarik botatzen. Zuhaitz hau Amazonetan ere badela jakin dut. Indio mayek «kautxu» esaten dute. Botilak egiten dituzte. Botila arinak eta ia hauskaitzak dira».

Kautxua esplotatzen hasi ziren eta gaur munduko ondasun handi bat da. «Kautxu» hitza indioen hitza da. «Cao» oihana

da eta «chu» malkoa. Beraz «oihanaren malkoa». Kautxuaren erretxina, negarra bezala irteten delako.

111

DOMINISTIKUN

zikiro; ardiaren arra, irendua.

bataio; BAUTISMO.

ohos, ohostu, ohoste; / sin. lapur(tu), ebats(i) /.

jaioberri; orain dela gutxi jaio dena: *zorionak jaioberriari.*

usin; airea, aho sudurretik, indarrez botatzea / sin. domistikun / ESTORNUDO.

Senar-emazte batzuk ez zeukaten haurrik. Egunero Jainkoari eskatu, baina alferrik. Deabrua etorri zen ta esan zuen:

— Haurra, gero, niretzat izango bada, semea edukiko duzue.

Gurasoek baietz esan zuten. Haurra jaio zen. Aita-amek zikiro eder bat ekarri zuten etxera, biharamunean hil eta bataioa ospatzeko. Hauzoko batek zikiro hura ohostu nahi zuen. Gauetz, etxe hartan sartu zen eta deabrua aurkitu zuen han.

— Zertara zatoz zu?

— Zikiroa ohostera. Eta zu zertara etorri zara?

— Haurraren arima eramatera. Haur jaioberri horrek hiru usin egingo ditu. Zu isilik egon. Inork «Doministikun» esaten ez badu, haurra hil eta arima ifernura eramango dut.

Gerotxoago, haurrak usin egin zuen. Inork ez zuen ezer esan. Geroago, berriro, usin egin zuen haurrak. Inork ez zuen ezer esan. Haurrak hirugarrenez usin egin zuen. Inork ezer ez esatean, lapurrak berak esan zuen:

— Doministikun! zikirorik ohostuko ez badut ere.

Deabrua ihesi joan zen. Aita-amak etorri ziren. Zer gertatu zen jakitean, zikiroa pozik eman zioten lapurrari.

nonnahi; edozein tokitan / sin. edonon / ant. inon ere ez /.

artapean; artearen behean; DEBAJO DEL ENCINO.

ezkur; artearen fruitua; BELLOTA.

astin, astindu, astintze; mugi eraz(i): *hautsak kentzeko, astindu!* / sin. eragin / SACUDIR.

artadi; arte ugari dagoen tokia; ENCINAR.

bila; bilatzen: *perretxiko bila joan ginen mendira*; EN BUSCA DE.

haizpe; haitzaren behea; GRUTA.

Mendiko urdaiazpikoa edo «jamón serrano» esaten dena, Jabugoko urdaiazpikoa da. Zergatik da hain ona? Zergatik du hainbeste kalitate? Meritua txerriena da. Mendi txerriak edo mendiko txerriak.

Huelva, Badajoz eta horko mendietan edo serrerian bada txerri berezi bat, txerri iberikoa. Han, hemen, nonnahi ikusiko duzu gure txerri muturluzea. Artapean muturka ari da. Ezkur bila ari da. Arbolak—arteak—astintzen dituzte eta ezkurak erortzen dira.

Txerri beltz hau «bere kontura dabil». Hori esaten du hango jendeak. Artadietan bera bakarrik ibiltzen da. Libre eta aparte bizi da. Beti bila ari da. Eta esaten du:

—Niri baketan utzi!

Ez du ezkurra bakarrik aurkitzen. Arocena izeneko herrian, haizpe bat dago: «Haizpe miragarria». Badakizu nork aurkitu zuen? Txerri beltz iberikoak. Mutiko batzuk txerri bati segitu zioten eta txerria haizpe hartan sartu zen. Ene! Zer da hau? Haizpe miragarria: «Gruta de las Maravillas».

biluzik; jantzirik gabe / sin. larrugorritan /.

gizaki; giza-pertsona.

bizidun; / ant. bizigabe /.

huts; *mitoak, hitz hutsak*; PURO.

banakuntza; /sin. bereizketa, separazio /.

uko egin, egite; ezetza eman: *ezkontzeari uko egin dio*; RENUNCIAR.

Indiako Rajasthan Estatuan, gehineak hinduak dira. Baina bada beste erlijio original bat ere: jainismoa. Erlijio hau budismoaren denborakoa da. Beraz, Jesukristo baino seirehun urte lehenago hasi zen.

Jainak aszeta mistikoak dira. Haientzat arima ez da giza-kiena bakarrik, bizidun guztiena baizik. Arima gorputzean preso dago eta hil arte ez dago askatasunik.

Jainak landarejale edo begetariano hutsak dira. Ez-biolentziaren aldekoak dira. Beraz, edozein bizidun errespetatu behar da. Animaliarik ezin da hil.

Aszeta batzu, begira zer zorrotzak diren: ahoan zapitxo bat daramate intsekturik ez irensteko. Ez dute deskoidurik ere nahi. Gehienek ez dute nekazari izan nahi. Zergatik? Animalia-riaren bati min egiteko bildur direlako.

Jesukristoren aurreko II. Mendean, banakuntza bitxia izan zen aszeten artean. Batzuk «jantzi zuria» nahi zuten. Besteek «jantzi espaziala». Zer da jantzi espazial hori? Espazioa bera izatea jantzi bakarra. Beste guztiari uko egin. Hori da fina iza-tea.

114

ARGIAREN ABIADURAN

abiadura; /sin. martxa /.

iraul, irauli, iraultze; REVOLUCIONAR.

ausart; arriskuari beldur ez diona /sin. adoretu / ant. beldurti /.

adimen; gauzak aditzeko ahalmena /sin. intelijentzia /.

Albert Einstein 1.879an jaio zen. Einstein zientzigizon famatua da. Ez dago esan beharrik. Zientzia iraultzen du. Zientzia atomikoaren bidea irekitzen du. Hori badakigu. Nola ematen du saltoa? Argiaren abiadura.

Matematikako irakaslea da. Gero astronomo kalkuluak egiten ari da, gero eskola partikularrak. Gero, urtean 675 dolar irabazten du Bernako Patente Bulego Federalean. Hirugarren mailako funtzionaria da. Baina, bere kontura ikasten ari da. Mileva Maritch-ekin ezkontzen da. Hogeita bost urte ditu. Lan bat bidaltzen du «Fisika Urtekaria» aldizkarira. Lanak hogeita hamar horrialde ditu.

«Ez dut nahi ezer —esaten du—argitaratu bakarrik».

Hilabete batzu pasatzen dira. Noizbait, lekua betetzeko, Einsteinen lana argitaratzen dute. Editoreek esaten dute: «Famazole soil baten espekulazio ausartak».

Hamabost egun geroago, Einstein kobratzera doa. Dirua baino sorpresa handiagoa dago han. Max Planck fisiko famatuak eskutitz bat idatzi du aldizkarira eta hauxe esaten du: «Einsteinen lana harrigarria da; gauzarik handiena adimenaren historia guztian. Mutil hori ezagutu nahi dut».

115

LANETIK TXISTUKA

txistuka; txistu jotzen: *jendea txistuka hasi zen.*

amorraturik; / sin. ernegaturik, haserre /.

oihal; TELA.

hona; HE AQUI.

Jokoa ez da errenta. Hori esaten du euskal esaera batek. Eta lana, errenta da? Lana egin beharra dago. Zer erremedio? Langileak beren lanetik nekaturik irteten dira. Eta ez gutxi, amorraturik. Posible da lan gehiago egin eta pozagotz irtetea? Posible da zenbat eta lan gehiago hainbat eta gustorago lan egitea? Ba, horixe gertatu da Estatu Batuetan.

Elhungintza edo oihal fabrika batetan, gerentea harrituta zegoen. Bere langileak zenbat eta ordu gehiago lan egin, pozagotz eta euforikoago irteten ziren. Batzuk kantatzen, txistua jotzen edo dantzan amaitzen zuten lana.

Misterioa argitzeko kontseilari bat ekarri zuten. Eta hona zer gertatzen zen. Langileek oihal edo telen mantxak kentzen ari ziren. Koipe edo grasa mantxak ziren. Eta zer erabiltzen zuten garbitzeko? Disolbente bat, metilozko kloroformoz egina. Kloroformo klase horrek intoxikatu egiten duela deskubritu zuten. Eta denak gero eta euforikoago jartzen zituen. Euskaraz ikasteko ere, balio ote du?

116 MUTIKO BAT 11.000 KILOMETRO IHESI

ihesi; / sin. ihes eginez, ospa eginez, hanka eginez, eskapaturik /
bidaiari; bidaiatzen dena: *Txori bidaiaria;* VIAJERO.
jarleku; jezartzeko tokia / sin. esertoki /.

Ihes egitea eskapatzea da, fugatzea. Eta ihesi? Eskapaturik joatea, iheska edo fugan joatea. Mutiko batek ihesaldi harri-garria egin du. Hamaika mila kilometro egin ditu ihesi. Nondik nora ihes egin du? Sudafrikatik Londresera. Hamabi urte ditu eta Johannesburgon bizi zen. Vicent Kelly dauka izena. Mutikoak ez zuen nahi internatura sartzerik. Eta zer egin zuen? Ihes egin zuen Londresko amonarengana.

Johanesburgoko aireportura joan zen. Han, bidaiari talde batetan infiltratu zen. Inork ez du uste mutikoa bakarrik dagoenik. Eta besteekin batera, kontrol guztiak pasatu eta abioian sartu zen. Azafatak jarleku bat seinalatzen dio eta karameloak ematen dizkio.

Gure mutila Londreseko aireportura heldu zen. Han ere besteekin nahasten da eta kontrol guztiak pasatzen ditu. Autobusa hartu, gero trena eta horrela amonaren etxean presentatzen da. Amonak susto izugarria hartzen du. Gure mutikoa berriro Sudafrikara daramate. Laster bukatu ziren haren ilusioak.

117 HERENSUGEAREN AZKENA

herensuge; Euskal Mitologiako suge beldurgarri handia; DRAGON.
ohatze; / sin. habia /.

kalte; *edariak kalte egin dio* / sin. gaitz /.

larru, larrutu, larrutze; animalari azala ken(du).

jos, josi, joste; *botoiak josi.*

ahokada; / sin. haginkada, mokau / BOCADO.

irents, irentsi, irenste; *otsoak arkumea irentsi du.*

orroaka; / sin. oihuka /.

leher egin, egite; guztiz neka(tu): *leher eginda, bidean geratu da.*

Lehenago Basaburuko mendietan, piztia izugarriak bizi ziren. Eta izugarriena herensugea. Bere ohatzea Ahuztiko haitzulo batetan zeukan. Bai piztia izugarria! Kalte handiak egiten zituen. Ardi, txahal, behi, zaldi eta abere guztiak jaten zituen. Jan eta gero, Apura ibaira jaisten zen, ura edatera.

Egun batez, herriko gizonak bildu ziren eta herensugea hiltzea pentsatu zuten. Txahal bat larrutu zuten. Larru hura polboraz bete, berriro josi eta haitzuloaren ahoan utzi zuten.

Herensugea etorri zen. Hura txahal bat zela pentsatu zuen. Eta ahokada batez irentsi zuen. Polbora laster hasi zen, barruan bere lana egiten. Herensugea haserretu zen, orroaka hasi zen. Beste abere guztiak jan nahi zituen. Baina ezin zuen. Leher egin zuen eta buztan kolpeka, Sobeko haitzak hautsi zituen. Gero itsasora salto egin zuen eta hantxe ito zen herensugea.

118 NESKATOA ETA «IDI PINTATUAK»

duela; orain dela.

ehiztari; piztiak eta hegaztiak harrapatzen dituen: *gure arbasoak ehiztariak ziren.*

zirritu; bi zatiren artean irekidura luze eta mehea: *atearen zirritua* / sin. zirrikitu /.

maizter; errenta pagatzen duena: *nagusia eta maizterra* / sin. errentadore / ant. nagusi /.

kriseilu; kandeladun argiontzia.

areto; gela zabala: *areto nagusian egingo dugu batzarrea*.

Altamirako koba oso famatua da. Santanderreko Santillanan dago. Duela hamabost mila urte, han bizi ziren gizonak. Eta pintura harrigarriak utzi ere bai, kobako hormetan. Nola aurkitu zuten koba hau?

1868an ehiztari bat dabil han. Txakurra haitz artean harra-paturik gelditzen da. Ehiztaria txakurra askatzera doa eta ziritu bat ikusten du. Sartu eta koba bat aurkitzen du. Baina ez dio garrantziarik ematen eta etxera doa. Zazpi urte geroago, Sautuolatarren maizter batek historia hau kontatzen dio Marcelino Sautuolari. Sautuola aztertzen hasi zen. Baina ez zuen gauza handirik egin. Haurrik ez sartzeko, Altamirako sarrera tapatu eta ahaztu zen.

Urtebete geroago, udan, Sautuola berriro sartu zen kobara. Behin, bere alabatxoa eraman zuen berarekin. Neskatoa han zebilen jolasean.

Haurra kriseilua eskuan hartu eta pasilu batetan aurrera joan zen. Bat batean, harriturik gelditu zen neskatoa eta hots egin zuen.

— Aita, begira. Idiak pintaturik.

Hitz hauek, famatuak dira arkeologian. Altamirako pintura areto harrigarria aurkitu zuen neskatoak. Hango bisontek eta animaliak, harentzat idiak ziren.

119

GANTZAGAKO HIRU EGIAK

zaunkaka; *zakurra zaunkaka ibili da gau osoan* / sin. orroaka /.

hona hemen; *hona hemen, gure alkate berria;* HE AQUI.

larri eta hestu; oso ikaraturik.

ugazama; aitaren bigarren emaztea.

ahosabai; PALADAR.

Aramaioko Gantzagan, tabernatik irten ziren gauez. Mendian argi bat ikusi zuten. Batzu bildurto ziren, baina beste bat tek esan zuen:

—Bildurra? Ni joan baietz hara, eta seinaleztat, pinu adar bat ekarri?

Jokoa egin zuten eta mutila joan zen. Bidean zakur handi bat agertu zen zaunkaka eta galdetu zion mutilari:

—Nora zoaz, mutil?

—Apostu egin dut —esan zuen mutilak, ikaraturik—. Argi horretara joan baietz eta seinaleztat, pinu adar bat eramán.

—Adarra eramango duzu. Baina aurretik, hiru egia esan behar dituzu.

—Hona hemen hiru egiak —esan zuen mutilak larri eta hestu—. Bat: gaurik argiena baino, egunik ilunena argiagoa da. Bi: Norbere amarik txarrena hobea da, ugazamarik onena baino. Hiru: hogeita lau urte eta hiru hilabete ditut, baina ez dut ikusi zu bezalako zakurrik.

—Ederki —esan zuen zakurrak—. Ez dira gezurrak. Igon orain nire bizkarrera eta hartu adar bat.

Gero zakurrak berriro esan zuen:

—Ez egin berriro horrelako jokorik. Eguna zuentzat da eta gaua niretzat.

Argi hura zakurrak berak zeukan ahosabaian zintzilik. Mutila etxera joan zen, ohean sartu eta ez zen gehiago jaiki.

ezti; erleek egiten duten janari gozoa: *eztia bezain gozo*.

elikagarri; NUTRITIVO.

koipe; GRASA.

inurri; / sin. txingurri / HORMIGA.

trebetasun; / sin. abildade /.

Munduko populazioak landare dieta orekatua behar du. Dieta horretan esnegaiak eta ezta sartu behar dira. Bestela, Hirugarren Munduko desastre hori —gosea— ez da kenduko. Algak eta bakteriak estudiatzen ari dira, proteinak emateko.

Orain, Australian beste bide batetik hasi dira. Intsektuak estudiatzen ari dira. Oso elikagarriak omen dira. Intsektu batzuk, erraz digeritzeko, proteinak dituzte. Baita ere koipeak, karbono hidratoak eta bitaminak eta mineralak. Termitak inurrien antzekoak dira. Termita horien ehun gramok 561 kaloria eman ahal ditu.

Txinpantzeek inurritegiak oso maite dituzte. Beren trebetasun nagusia horretan dago: palu bat egin, inurritegian sartu, atera eta txupatu. Txinpantzea geure antzekoa da. Inurri horiek harentzat onak badira, guretzat ere, ez dira txarrak izango. Laster etxeko kukaraxen atzetik hasiko gara.

121

ZORRIA ETA DANBORRA

zorri; PIOJO.

orraz, orraztu, orrazte; ilea apain(du).

haz, hazi, hazte; landare eta animaliak haundi(tu).

atsekabe; / sin. tristura / ant. atsegin /.

oroitzapen; *haurtzaroko oroitzapenak*; RECUERDO.

igar, igarri, igartze; / sin. asma(tu), adibina(tu) /.

solas; *solas egin* / sin. hizketa /.

azeri; *azeria eta mahatsa* / sin. luki / ZORRO.

etzanda; *belarretan etzanda* / ant. zutik /.

erne, ernetze; landarea sortu eta hazten has(i).

erro; sustrai handia: *errotik atera dugu zuhaitza*.

belarri erne; / sin. belarri bizkor / OIDO FINO.

aski; *aski da!* / sin. nahiko /.

eskale; eskatzen ari dena / sin. eskeko /.

Erregina batek alaba txiki bat zeukan. Behin, alaba orrazten ari zen ama-erregina eta zorri bat harrapatu zuen. Baina ez zuen zorri hura hil. Gorde egin zuen, zenbat hazten zen ikusteko. Egunak joan eta egunak etorri, zorria txerrikumea bezala zen. Baina zahartu eta hil zen.

Erreginak eta alabak atsekabe handia hartu zuten. Zorriaren oroitzapen bat edukizeko, larrua kendu eta danbor bat egin zuten. Nahi zutenean danborra jo eta zorriaz oroitzen ziren. Behin, alabak amari esaten dio:

— Nork igarri, danbor hau zorri larruz egina dela?

— Inork ere ez. Hori ez du inork igarriko.

Solas hori, Erregek entzun zuen eta dirua irabaztea pentsatu zuen. Sari handi bat eskaini zuen, igartzen zuenarentzat. Eta igartzen ez zuenak diru apur bat eman behar. Sari hura irabazteko, jende asko bildu zen Erregeren jauregira. Danborra jo zuten, eta:

— Azeri larruz egina da —esan zuen batek.

— Katu larruz egina da —beste batek.

— Oilo larruz egin dute —besteak.

Eta Erregek diru asko biltzen du.

Egun haietan gizon erdi-ero batek etxetik ihes egiten du. Munduz mundu joatea pentsatzen du. Eta hirirantz doa. Bidean gizon bat aurkitzen du, etzanda eta belarriak lurrean.

— Zertan ari zara hor?

— Belarra nola ernetzen den, entzuten ari naiz.

— Horiek dira belarriak. Bazatoz nirekin?

Eta biak aurrera doaz. Hirirantz doaz. Bidean beste gizon bat aurkitzen dute. Gizon hau zuhaitzak erroitik ateratzen ari da. Belarrak bezala ateratzen ditu zuhaitzak.

— Zertan ari zara?

— Hamabi dozenaz karga bat egin behar dut eta saltzera eramán.

— Hori da indarra. Bazatoz gurekin?

Eta hiru gizonak aurrera doaz. Hirirantz doaz. Hirira heldu eta jende asko ikusten dute. Zer gertatzen da hemen? Eta jakiten dute.

Gauetz jendea jauregitik erretiratzen da etxera. Hiru gizonak ostatura doaz. Afal ondoan, belarri-ernea jauregi ingurura doa. Lechio baten azpian jarri eta solas hau entzuten du jauregi barruan:

— Hau da diru irabaztea, gure danborrari eskerrak.

— Eta gehiago irabaziko dugu. Inork ere ez du igarriko zorriarena denik.

— Arraioal — esaten du belarri-erneak —. Zorriarena dela.

Biharamunean, hiru gizonak jauregira joan eta belarri-erneak esaten du:

— Errege jauna: danbor hori zorri larruz egin duzu.

Errege harriturik gelditzen da. Eta esaten du:

— Zenbat diru nahi duzue?

— Aski da gizon batek jasotzen duena.

Errege konforme dago. Orduan, zuhaitz gizonak Erregeren diru eta urre guztiak jasotzen ditu. Hiru gizonak munduz mundu doaz eta Errege eta familia guztia eskale egiten dira.

122 ALKATEA GALTZONTZILO ETA GUZTI

makina bat; kopuru handia: *makina bat jende hil da!* / sin. asko, ha-
maika /.

jaits, jaitsi, jaiste; behera eraman (etorri) / sin. behera(tu) /.

makur, makurtu, makurtze; INCLINARSE.

zuti, zutitu, zutitze; zutik jar(ri) / ant. etzan /.

ikustezin; ikusi ezin dena; INVISIBLE.

antza; *euria egingo du, antza* / sin. nonbait, dirudienez /.

Juntetxe; Junta etxea.

eser, eseri, esertze; / sin. jeczar(i).

jarleku; jezartzeko lekua: *jarleku hau hutsik dago.*
lotsagarri; lotsa ematen duena.

Bizkaiko Lea Ibarreko herritxo batetan, alkate berria hautatu zuten. Eta Gernikako Juntetara joan behar zuten. Orduan normala zen galtzontzilo gabe ibiltzea. Gaur ere makina bat bizi dira, lehenago galtzontzilo gabe ibili direnak. Andreak gizonari esan zion:

— Peru! Alkate bezala Gernikara joateko, galtzontziloak ere beharko dituzu, ba.

Bazihoan gure alkate berria Gernikarantz, oinez. Bidean, beti bezala eta betiko lekuan, galtzak jaitsi beharra gertatu zitzaion. Baina galtzontziloen akordurik gabe. Makurtu zen, bere lana egin zuen eta zutitzean, beti bezala, atzera begiratu zuen.

— Koino! Alkateen kaka ikustezina da, antza. Galtzak jaso eta aurrera. Gernikako Juntetxean eseri zenean, mutur arraroak ziren inguruan. Berak pentsatu zuen: «Hauxe jarleku biguna eta freskoa!». Etxera etorri zenean andreak esan zion:

— Zer egin duzu, Peru? Hori da lotsagarria!

Peru, orduantxe konturatu zen eta esan zion:

— Andrea, Junta horiek horrela dira. Eramaten den gutzia etxera ekarri behar dela agindu dute.

123 AINTZINAKO EUSKALDUNAK IBAIZALE

ase, asetze; gose edo egarria guztiz ken(du): *ase naiz.*

atseden; *betiko atsedena* / sin. deskantsu / ant. neke /.

batez ere; / sin. bereziki /.

arbaso; / sin. asaba / ANTEPASADO.

gizaki; giza pertsona: *gizaki ohitura.*

ehiza; CAZA.

asaba; / sin. arbaso /.

hurbil; *Aitzgorri, Urbiatik hurbil dago* / sin. gertu / ant. urrun /.

Urak egarria asetzen digu. Garbitzeko eta komunika biderako ere balio du. Eta jana ematen digu. Arrainak, eta mariskoak ematen dizkigu. Eta egoteko, atsedean hartzeko, lo egiteko ere, ur ertzea ederra da, eguzkiak jotzen duenean.

Horregatik aintzinako euskaldunen bizilekuak ibaialdeak eta itsasondoak ziren, batez ere. Euskal Arkeologian izen hauek oso ezagunak dira: Laminazilo (Isturitz), Harixtoy, Olha, Ibarritz, Bidart, Haitzbitarte, Lezetxiki, Kurtzia, Axlor. Hor zebilen, orain arte ezagutzen dugun gure arbasorik zaharrena, «Neanderthal gizakia» esaten zaiona. Duela hirurogei mila urtetako kontuak dira hauek. Gizon hura ehizatik bizi zen. Baina arrantza ere ezagutzen zuen.

Geroago «Cro-Magnon» deitzen dugun gizona dator. Hau ere gure asaba eta ehiztaria. Baina arrantzalea ere bai. Eta ibaitik hurbil bizi zen. Itsasotik hurbil eta itsas ertzean ere bai.

124 ERLOJUAK ATZEKOZ AURRERA

atzekoz aurrera; *atzekoz aurrera jantzi dituzu prakak / sin. alderantziz, aldrebes /.*

ilunabar; *arratsaldearen bukaera; gauaren hasiera.*

zurrutean; *beti zurrutean zabilta! / sin. edaten /.*

ardura; */ sin. kezka /.*

kezka; kezkatu, kezkatze; *etorkizunak kezkatzen gaitu / sin. preokupa(tu), ardura(tu) /.*

Elgoibarko San Migelen, bazen lehenago baserri-taberna bat, sakristauarena bera. Ilunabarrean gizonak musean hasi ziren tabernan, eta hordagoka gauerdia heldu zitzaien, jokoan eta zurrutean. Hamabiak jo zuten, eta sakristauak:

— Ea gizonak! Hamabiak jo dute!

Besteak jokoan aurrera; sakristauak berriro ere, hamabiak eta bost, hamabiak eta hamar... zirela esaten jarraitu zuen. Muslarietako bat aspertu zen eta esan zion:

— Egon ixilik! Baserriko erlojuak ordubete aurrerago da-
biltza!

Sakristauak, hurrengo egunean, apezarekin komentatu
zuen;... zerbait egin beharra bazegoela... gizonak tabernan
egoteko orduak ez zirela... sakristauak esenplu txarrik ematea
gaizki dagoela...

Igandeko meza ordua zen. Jendea elizan sartu zen. Apeza
aldarera irten eta plaust!, bertan eseri zen. Eseri eta egon. Jen-
dea aspertzen eta kezkatzen ari zen. Ez zekiten zein zeremonia
arraro zen hura: denok ixilik, eserita.

Hurrengo ordu osoa jo zuenean, apeza jaiki eta meza ema-
ten hasi zen. Sermoian esan zuen:

— Jaunak! Herri hontan erlojuak puntuan ipintzen ez ba-
ditugu, laster ez daukazue ez apezik, ez azken juiziorik.

125 BURUA GALTZONTZILOEN ORDEZ

ordez; beste nor edo zerbaiten lekuan: *irakaslearen ordez nator.*

hamaika; kopuru handia / sin. makina bat /

etsai; / sin. arerio / ant. lagun /

apal, apaldu, apaltze; / sin. umil(du) /

azoka; *Durangoko diska eta liburu azoka* / sin. peria, merkatu /

ate joka; atea jo eta jo.

irudi, iruditu, iruditze; *ederra iruditzen zaigu*; PARECER.

halako... non...; TAN... QUE...

ataburu; atearen goiko aldea.

motz, moztu, mozte; zerbaiti punta edo goiko aldea ken(du): *bizarra
moztu.*

Euskal Herrian, bandoen burrukak famatuak izan ziren.
Hamaika gerra eta odol. Hona hemen, Mendozarren eta Ge-
bararren arteko historio harrigarri bat.

Arabako Arratoko guduan, Don Iñigo Gebarak Don
Lope Mendoza hil zuen. Iñigok etsaia gehiago apaltzeko, Lo-
peren galtzontziloak Gazteizko azokan saldu zituen. Merkan-

tzia ederra. Lopek bost urtetako seme bat utzi zuen. Hau handi egin zenean, pentsamendu bakarra zeukan buruan: Aita bengatu. Gebararen gaztelura joan zen eta ate joka hasi zen. Iñigo Gebara irten zen atera eta esan zuen:

—Ondo iruditzen zait, aita bengatzeko, ni hil nahi izatea. Baina horretarako ez dago atea apurtu beharrik. Ni ez naiz ezkutaturik ibiltzen den gizona.

Iñigo berehalaxe armatu zen. Zaldira igon eta atea irekitzeko agindu zuen. Halako furiaz zetorren, non ataburua buruarekin jo eta bertan hilda erori baitzen. Mendozarra ez zen oraindik bengaturik kontsideratu. Hilari burua moztu eta Gazteizko azokara eraman zuen, bere aitaren galtzontziloak bezala.

126

OTXANDIOKO BIKUAK

izozte; izotz denbora / sin. leialdi /.

nekez; eragozpen(lan) handiz: *nekez hitzegiten du euskaraz.*

hel, heldu, heltze; *laster helduko dira gereziak;* MADURAR.

biku; / sin. piku / HIGO.

adieraz, adierazi, adierazte; jakin eraz(i).

gisa; *hitzaurre gisa* / sin. modura, erara /.

zerga; IMPUESTO.

sakel; / sin. poltsiku /.

aurtengo; urte honetako: *aurtengo txakolina.*

gurean; gure etxean.

Otxandio Bizkaiko herri bat da. Urkiolatik aurrera, Arabako muga jotzen du. Otxandio oso goi dago. Bostehun edo seirehun metrotara. Negua luzea eta hotza izaten da han, elurte eta izozte handiekin.. Otxandion nekez heltzen dira bikuak, heltzen baldin badira. Horregatik urte ona adierazteko, esaera da inguruetan: «Aurten Otxandion ere, bikuak heldu».

Ez dakigu bikua oso estimatua zelako, ala zergatik. Baina Otxandion bikurik erdiak herrira entregatu beharra zegoen kontribuzio gisa. Urte batez, eta ez gutxi kostaturik, bi biku

ale heldu ziren herri guztian eta biak etxe berean. Erdiak udal-
letxera eraman behar ziren eta, han azaldu zen gizona zerga-
mahaira. Biku alea jakearen barruko sakeletik atera, eta esan
zuen:

— Hemen daukazu, jauna, gure aurtengo partea.

— Nola «gure partea»? Biku bat bakarrik?

— Gurean aurten bi bakarrik heldu dira, jauna.

— Eta bigarrenari zer egin diozue?

— Hauxe!

Eta gizonak bertan jan zuen bikua.

127

AINTZINAKO OHITURAK GAUR ERE

aurkikunde; /sin. deskubrimendu /.

eragozpen; /sin. oztopo, zailtasun /.

euts, eutsi, euste; *eutsi horri!*; MANTENER.

itzal, itzali, itzaltze; *pipa itzali zait berriro* / ant. piz(tu) /.

mangolino; itsasoko marraskiloa.

mazkor; CONCHA.

zurezko; /sin. egurrezko /.

gori; sutan berotutako mineraleak hartzen duen kolorea: *ikatz gor-
ria*.

hala; (honela, horrela, hala); modu hartan: *hala bedi*.

ilenti; egur zati gorria.

egos, egosi, egoste; COCER.

Aintzina, sua izan zen aurkikunderik handiena. Baina hura
erabiltzen komediak zeuden. Nola eutsi suari?

Gure aintzinakoek, batez ere Santimamiñen eta Lumen-
txan, mariskoak harrapatzen zituzten. Hauen artean mangoli-
noak. Mangolinoei mamia edo haragia kentzeko, mazkorra
apurtu edo uretan berotu behar ziren. Baina, ura berotzeko ez
zegoen garai hartan ontzi egokirik. Zurezko ontziak bakarrik

zituzten. Zer egin? Harri goriak uretan sartu eta hala berotzen zuten ura.

Ohitura hori gaur arte heldu da. Artzainen artean batez ere, normala izan da ilenti bat sartu eta esnea berotzea.

Ontzi egokiak badaude gaur, baina horrela egiten jarraitzen dute. Zergatik? Ohitura zaharren indarragatik. Baita gustuagatik ere. Horrela egosten edo berotzen den esneak, gustoa ere, desberdina dauka. Ohitura hori euskara bera baino zaharragoa da.

128 MUNITIBARTARRAREN KONFESIOA

isileko; *isileko poltsa* / sin. sekretu /.

xehetasun; *xehetasunetan sartu gabe*; DETALLE.

galdezka; / sin. galde eginez, galdetzen /.

berorrek; (errespetuzko tratamendua 2. pertsona singularrean) / sin. zuk /.

bertan; *bertan hilko zaitu* / sin. hantxe /.

Munitibartar batek Markinara joateko ohitura zeukan urtean behin konfesioa egitera. Mutilzaharra zen bera. Konfesio kontuak isilekoak omen dira, baina hark ez zuen hori kontatzeko problemarik edukitzen.

Konfesioa normal zihoan, beti bezala, seigarren agindura heldu arte. Frailea zaharra zen eta xehetasun guztiak galdeztzen zizkion. Hari ere horixe irakatsi baitzioten. Eta galdezka hasten zaio:

— Seigarrenean pentsamendu, egite edo horrelakorik?

— Ez, jauna. Nahi bai, baina zoritxarrez ez daukat ezer.

— Baina inoiz emakumeekin edo...

— Emakumeekin? Erraz dago, ala?

— Beno, emakumeekin ez bada ere, zeure gorputzarekin edo...

— Berorrek asko egiten du, ala?

Fraileari hementxe bukatu zitzaizkion galdera guztiak eta bertan bukatu zen konfesioa ere.

129

GAUBELATIK ILARGIRA

gaubela; gauz defuntuari egiten zaion belatorioa.

hamaika gauza; / sin. makina bat gauza /.

atseden; / sin. deskantsu, pausa /.

agure; gizon zaharra.

ilargi bete; LUNA LLENA.

aurrez aurre; / sin. parean, aurrean /.

txapligu; / sin. bolandera, suziri, zipunga / COHETE.

Gizona lehen aldiz ilargirantz zihoanean, hamaika gauza entzuten zen Euskal Herrian. Askok ez zuen hori sinesten. Hona hemen geure belarriez entzundako elkarrizketa bat, baserriko gaubela batetan. Gau luzeak izaten dira horiek. Errosariotik errosariora, atseden apur bat izaten da.

Bi agure etxe aurrera atera ziren, beren berriketak egitera. Ilargi bete betea zetorren, aurrez aurre.

— Hau da komedia! Orain ilargira omen doaz.

— Aspertuko dira. Ilargi hori egin zuenak, guk harrapatze-ko baino seguruago jarri zuen.

— Bidaiariak zer egin behar dute, bada han? Laster eroriko dira berriro lurrera.

— Hori baino okerrago da bestea. Orain ilargi betea daukagu. Baina hura akabatzen denean, nora joan behar dute?

— Nik asuntu honetan gauza bat ikusten dut xelebrea. Gaur txapligu edo horrelako zer bat harantz bota arren, ilargira heldu aurretik, hura joanda dago handik.

— Goazen. Errosarioa hasi dute.

alaborde; alabaren ordezkoa; HIJASTRA.

alargun; ezkonkidea hil zaiona: *alargun batekin ezkondu da.*
gorroto; / ant. maitasun /.

gero eta ...ago; *gero eta alferrago zabilta;* CADA VEZ MAS...

soineko; pieza bateko jantzia, gorputz osoa estaltzen duena.

marrubi; / sin. mailuki /; FRESA.

amorde; amaren ordezkoa; MADRASTRA.

eskain, eskaini, eskaintze; / sin. eman /.

Gizon bat alaba gaztetxo batekin alargun gelditu zen. Bigarren aldiz ezkondu zen eta emazte berria sorgina zen. Honengandik ere, beste alaba bat eduki zuen. Aita hil zen eta sorgina gelditu zen, bere alaba eta alabordearekin. Alabari maitasuna bezala, alabordeari gorroto zion. Alabordea gero eta ederragoa zetorren. Bere alaba, berriz, itsusia zen.

Behin, negu gorrian paperezko soinekoz jantzi eta marrubi bila bidali zuen sorginak alabordea. Mendiko borda batetan hiru gizon aurkitu zituen.

— Nora zoaz, neskato, goiz hotz honetan?

— Amak marrubi bila bidali nau.

— Nolako ama da, ordea, hori?

— Amordea da.

Eta borda atzean marrubi pila erakutsi zioten. Gizonei eskerrak ematera joan zenean, hauek hiru erregalu eskaini zizkioten.

Lehenak: Hitz bakoitzean, urre zati bat eroriko zaizu ahotik.

Bigarrenak: Gero eta ederragoa izango zara.

Hirugarrenak: Hil eta gero, aingeruek zeruan hartuko zaituzte.

Alabordea etxera heldu zenean, amordea harriturik gelditu zen. Marrubi asko, lehen baino ederrago eta hitz bakoitzean urre zatia.

— Non izan zara, neska? — galdetu zion amorde sorginak.

— Borda batetan. Hiru gizon daude bertan.

Hau entzunda, bere alaba jantzi zuen eta marrubi bila bidali. Sorginaren alaba bordara heldu zenean, esan zuen:

— Amak marrubi bila bidali nau.

— Berriro marrubi bila? Lehengoak ez dira nahiko?

Eta ez zioten marrubirik erakutsi. Baina bai hiru erregalu.

Lehenak: Hitz bakoitzean, zapoa eroriko zaizu.

Bigarrenak: Gero eta itsusiagoa izango zara.

Eta hirugarrenak: Hil eta gero, deabruak infernura eramango zaitu.

Etxera heldu zenean eta sorginak bere alaba hala ikusi zenean, bere buruari su eman eta tximinitik gora, ihes egin zuen.

131 PETRALANDAKO SORGIN BATZARRA

bezain; (kualitatezko berdintasun konparazioetan erabiltzen den partikula): *zu bezain ondo.*

harroaren harroz; DE PURO ORGULLO.

makur, makurtu, makurtze; beherantz oker(tu).

haritz; ROBLE.

tantai; zuhaitz luze eta zuzena; ARBOL BRAVIO.

harroputz; VANIDOSO.

miazka, miazkatu, miazkatze; zerbaiten gaineretik mihia igaro.

zoko; / sin. bazter / RINCON.

sasitza; sasiz beteriko lurra; MATORRAL.

orduantxe; mementu hartan bertan.

Bizkaiko Akelarre, Arratiako Dimako Petralanda da. Igorren andre aberats bat bizi zen. Aberatsa bezain harroa. Beste herrietan bezala Igorren ere, meza nagusitan, ogi bedeinkatua banatzen zuen sakristauak.

Behin, andreari ogi zatia lurrera erori zitzaion. Baina, harroaren harroz, ez zen makurtu eta han gelditu zen ogia. Hu-

rrengo egunetan, gero eta meheago eta makalago zihoan andrea.

Petralandan, larunbatero gauean, sorginak biltzen ziren. Behin, mutiko bizkor bat joan zen, ezkutuan batzarrerara. Haritz tantai batetara igon eta handik ikusten zuen sorginen batzarra. Eta sorgin bati entzun zion:

—Harroputz hori ez da sendatuko, ogia erori zen lekua miazkatu arte.

Mutikoa andre harengana joan zen eta dena kontatu zion. Andrea elizara joan zen eta behea miazkatu zuen. Berehalaxe sendo eta bizkor jarri zen.

Hurrengo batzarrean sorginak haserre ziren Petralandan.

—Begiluzeren bat dugu hemen —esaten zuten—.

Zokoak eta sasitzak begiratzen hasi ziren eta:

—Han bera! han bera!

Han zegoen, bai, gure mutiltxoa. Hari eman zioten paliza! Halako batetan «Jesus» esan zuen eta orduantxe ihes egin zuten sorginek.

132

BETI ZERBAIT FALTA

gerra ondoa; gerra ondoren datorren sasoia; POSTGUERRA.

izan ere; EN EFECTO.

amorratu; / sin. porrokatu / EMPEDERNIDO.

eskailu; BERMEJUELA.

herrira, herriratu, herriratz; herrira etor(ri).

sarekada; sare bete; REDADA.

Gerra ondoa zen. Garai hartakoek badakite gosearen berri. Marino pelotaria han zebilen atzera eta aurrera. Gosea nola kenduko pentsatzen beti. Lagun batek esan zion:

—Marino, argaldu egin zara.

— Ez. Errekan ibili naiz eta urak laburtu egin nau, galtza mahonezkoak bezala.

Izan ere, Marino errekazalea zen. Arrantzazale amorratua. Eta behin, ikaragarritzko eskailu pila harrapatu zuen.

— Mutilak! —esan zuen—. Batzutan hutsa eta beste batzutan dena. Eskerrak, dena hutsa baino errazago, banatzen dela.

Marino pozik herriratu zen. Tabernara joan, tabernandreari sarekada, hura erakutsi eta ipintzeko eskatu zion. Tabernandreak hainbeste eskailu ikustean, hots egin zuen:

— Jesus! Nondik aterako dut nik, hainbeste olio?

Arrazionamendu garaia zen eta oliorik ez zen inon.

Marinok esan zuen:

— Pentsatzen nuen bai nik, zorte gehiegi izango zela niretzat...

133

KATUAREN DEABRUAK

neskame; etxe batetan zerbitzari dagoen neska.

nazka, nazkatu, nazkatze; / sin. gogai(tu), asper(tu) / ASQUEARSE.

gupida gabeko; / sin. erruki gabeko / ant. errukitsu / CRUEL.

jipoi; / sin. paliza /.

isaskada; ESCOBAZO.

buztan; RABO.

izu; beldur handia.

zirrika; maitekiro ikutzen / sin. laztanka /.

bilaka, bilakatu, bilakatze; itxura berria har(tu) / sin. bihur(tu).

katuño; katu txiki maitea.

atsekabe; / sin. tristura, pena / ant. atsegin /.

Katuari kapritxo guztiak egiten zizkion andre horietariko bat, Bilbon bizi zen. Andre hark neskame bat ere behar zuen, katuak egiten ez zizkion lanetarako eta baserriko neska bat etorri zitzaion. Tratua egin zuten eta gauzak normal zihoazen, neskamea katuaz nazkatu arte.

Etxekoandrea falta zen orduetan, neskameak katuari gupida gabeko jipoiak ematen zizkion, isaskada bakoitzean «Jesus» esanez. Horrela egunero. Katuak buztan puntaraino sarturik zeukan izua. Hilabetearen buruan, etxekoandrea katuari zirrika ari zenean, neskameak esan zuen:

— Jesus! Horixe katu mantsoa.

«Jesus» entzunez batera, katuaren mantsotasunak erotasun bilakatu ziren. Berriro ere neskameak:

— Jesus! Zer gertatzen zaio katu horri?

Katua gero eta larriago eta eskandalosoago zihoan. Etxekoandrea harriturik zegoen bere katuñoaz, batez ere «Jesus» izenak hala jartzen zuela ikustean.

— Etxekoandre —esan zuen neskameak—. Katu horri deabruak sartu zaizkio.

Eta hala kendu zuten katua bistatik, etxekoandrearen atsekabez eta neskamearen atseginez.

134

KINKIÑA ALKATEA

igeri egin, egite; uretan hondoratu gabe mugi(tu): *arrain batek bezala igeri egiten du / sin. ugar egin /*.

luzaro; denbora luzean.

noizbait; uneren batetan: *noizbait entzun dut hori / sin. inoiz, noiz edo noiz /*.

txaputxeru; lekeitiarren ezizena.

Kinkiña izeneko gizon bat Lekeitioko alkate egin zuten. Gaur ere, Lekeitio da euskararik gehien mintzatzen den herritariko bat; orduan gehiago. Erdaraz baterez edo apenas zekitenak, ez ziren gutxi. Horietariko bat zen Kinkiña ere.

Kinkiña alkate egin zen. Erregina Isabel II Lekeitiora etortzen zen. Alkateak bazeukan orduan zer egin. Zereginetariko bat, erreginari igeri irakastea zen.

Lekeition uretan sartzeari edo murgiltzeari, «dzanga egin» esaten diote. «Dzanga» hori, uretan sartzearen hitz onomato-peikoa da. Kinkiña alkatea Erreginari igeri irakasten ari zen eta esaten zion:

— Erregina, dzángate.

Behin, misio bat Madrilera joan zen, Kinkiña ere tartean. Luzaro zain egon ondoren, noizbait agertu zen Erregina. Kinkiña han ikustean, harriturik esan omen zuen:

— Kinkiña, venga usted aquí.

Lekeition kale bat ere dedikatu zioten Kinkiñari eta orain inskripzio hau jartzeko omen dira:

«Kinkiña Dzangate, txaputxeruen alkate.»

135

BIZKAITARRAK IZUTURIK

izuturik; / sin. beldurturik /.

iraingarri; / sin. desohoretsu / ULTRAJANTE.

buruzagi; talde baten buru eta gidari.

suturik; / sin. beroturik / ENARDECIDO.

hankapera, hankaperatu, hankaperatze; / sin. zapal(du), menperatu) /.

irain; / sin. desohore / INJURIA.

geroztik; / sin. harrezkero /.

Mende honen hasieran bazen, «El Ejército Español» izeneko egunkari bat. Orduan ere euskal eta katalan nazionalismoak ematen zizkion Espainiako armadari, buruko minik handienak. Begira «El Ejército Español» horrek zer idazten duen 1905eko azaroaren 23an:

«Maiatzaren 2.eko ibilaldi zibikoak» ospatzen ari ziren Bilboko hiri inbikto hartan. «Bizkaitarrek» beren bandera jaso zuten beren zirkuluan. Koronel agurgarri batek bandera iraingarri hura ikustean, latigazo bat bezala sentitu zuen

aurpegian. «Arriba» —hots egin zuen. Ondoan zihoazen buruzagi eta ofizialek, berehalaxe ulertu zuten.

Sentimendu berak suturik, desfiletik irten, «bizkaitarren» zirkulura igon, hango sozioak hankaperatu, bandera zati-zati egin eta balkoitik behera bota zuten. Espainiaren iraina bengaturik, lasai-lasai jaitsi eta berriro desfileak aurrera egin zuen. Han gelditu ziren bandera zatiak eta «bizkaitarrak» izuturik. Ez ziren kechatzen ere ausartzen, militarrek berriro etortzeko bildurrez. Geroztik ez da Bilbon manifestazio separatistarik izan».

Duela 78 urte gertatua da hau.

136 ANDRE GIZONAK APARTATZEKO

haz, hazi, hazte; umea handi egin.

txantxetako; / sin. brometako /.

asperturik; / sin. gogaiturik / ABURRIDO.

onean; modu onean / ant. txarrean / A BUENAS.

konpon, konpondu, konpontze; apurtuta dagoena osotu: *erlojua konpotzera bidali dut.*

erabaki, erabakitze; asmoa har(tu): *Ameriketara joatea erabaki dut;* DECIDIR.

horren; *horren txarto zaude!*; TAN.

berorrek; (errespetuzko tratamendua) / sin. zuk /.

Bizkaiko baserri batetan bederatzi seme alaba ziren. Familia hura haztea, ez zen txantxetako lana. «Hiru eta hiru sei eta hiru bederatzi, gonak jaso edo galtzak jaitsi». Gizona mozkorra eta alferra zen. Andrea asperturik zegoen eta esan zion:

— Umeak hazten direnean, ez uste zure kapritxoak mantentzen geratuko naizenik.

Umeak hazi ziren eta andrea separaziorako tramiteak egin hasi zen. Herriko apezak eta juezak gauzak onean konpondu nahi zituzten. Apezak esan zion:

— Baina, andrea, badakizu zer egitera zoazen?

— Hau erabakita dago, jauna. Ez eman bueltarik.

— Etxe guztietan dago zerbait, andrea. Noiztik zarete horren haserre?

— Betidanik. Ezkondu gineretik.

Orduan apezak esan zion:

— Bederatzi ume edukitzeko, beti ez zarete hain haserre ibili...

Eta andreak:

— Jauna, hamargarrena berorrek egingo duenean, orduan hitz egingo dugu.

137 KONFORMITATE ONEKO NESKA-LAGUNTZEA

neska-laguntzea; neska etxerako bidean laguntzea.

adintsu; / sin. adineko, zahar / ant. gazte /.

suerta, suertatu, suertatze; / sin. egoki(tu), toka(tu) /.

luzeago eta nahiago; *gorago eta elur gehiago;* CUANTO MAS LARGO MAS DESEADO.

oinezaldi; oinez egiteko bidea.

erruki; / sin. pena /.

honaino; (noraino galderari erantzun); HASTA AQUÍ.

Gizon adintsuei sarritan entzuten zaie, oraingo neska -laguntzek ez dutela batere gatzik. Duela urte batzu, neska-laguntzea mutil gazteen bizitzako abenturarik gozoenatarikoa zen. Erromeria bukatutakoan, neskaren bati etxera laguntzea, jaietako zereginik preziatuena zen. Batez ere, norbere gustukoari laguntzerik suertatzen bazen. Gaur baserririk gehienetara, bidea dago eta kotxeak asko aldatu ditu gauzak. Baina orduan, bide luzeak egin behar izaten ziren. Eta sarritan, luzeago eta nahiago.

Behin, Durango ondoko mutil batek Elorrioko neska bati laguntzeko zortea eduki zuen. Durangotik Elorriora oinezaldi

ederra dago. Hala joan ziren gure neska-mutilak. Neskaren etxe ondoraino heltzean, gelditu eta hizketan ari ziren. Neskak mutilari errukia hartu zion, antza, eta disimuluan tentatu zuen:

— Zuk, honaino etorri eta gero, zerbait nahi izango duzu ba...?

Eta mutilak erantzun:

— Ez, ba. «Lapiko» renean afaldu dut eta ederki nago.

138 SAN ANTONIOREN TXERRIA

hestuasun; / sin. larritasun / APURO.

sal, saldu, saltze; / ant. eros(i) /.

bestela; beste moduz: *Itxi atea! Bestela haizeak eramango gaitu.*

bide batez; aldi berean: *bide batez, pakete hau ere eramán!*

besarka, besarkatu, besarkatze; beso artean maitekiro har(tu): *elkar besarkatu zuten.*

Senar-emazte haiek ez zuten seme-alabarik. Bai, ordea, txerrikume bat, beren esperantza guztia zena. Goiz batez aberea gaizki aurkitu zuten. Hestuasun larri hartan, San Antoniori otoitzean jarri ziren:

— Gure Aita San Antonio. Txerritxo hau sendatzen bada, handia hazten denean, erdia zuretzat izango da.

Txerrikumea sendatu zen. Handia hazi zenean, saltzea pentsatu zuten, San Antoniori erdia dirutan emateko. Bestela nola joan Urkiolara txerri erdi bizkarrean harturik? Gizona badoa txerriarekin azokara; bide batez, oilasko batzu ere eramán zituen saltzera. «Oilaskoak zenbat balio du?» galdetzean, «mila erreal» erantzuten zuen. «Eta txerria?» «Txerria hamalau erreal». Eta erosle bati, denak batera saldu zizkion. Etxera heltzean, emazteak galdetzen dio:

— Zenbatetan saldu duzu txerria, senartxo?

- Hamalau errealetan, emaztetxo.
- Hamalau erreal, hainbeste kostaturiko txerria?
- Bai, andrea. Ez dakizu erdia San Antoniori agindu geniola?
- Eta oilaskoak?
- Oilaskoak mila errealetan saldu ditut.
- Emazteak senarra besarkatu eta hots egin zuen:
- Hau da senarra daukadana! Zurekin ez dut seme-alabarik behar.

139

BEHATZ IZORRATUA

izorratu; / sin. gaixotu /.

soma, somatu, somatze; / sin. senti(tu) /.

minbera; ukitzen denean min ematen duena: *zauri minbera* / sin. sentikor / SENSIBLE AL DOLOR.

antzeman; / sin. igar(ri) /.

inola ere ez; *hori ez dut inola ere egingo;* DE NINGUNA MANERA.

hatsitu; usain txarreko.

Ez zekien noiz, ez zekien nola, baina baserritar batek oin batetako behatz lodia gaizki somatzen zuen. Ahalegin guztiak eginik ere, gero eta minberago zuekan. Ez zegoen beste erremediorik. Medikuairengana joan behar. Joan zen eta medikuak esan zion:

— Erantzi abarka.

Medikuak begiratzen zion, tiratzen zion pixka bat eta:

— Ai, geldi!

— Non? hementxe?

— Ez dakit non, baina hor nonbait. Min izugarria!

Medikuak begiz ez zion ezer apartekorik ikusten. Ez ze-

goen handiturik, ez zeukan itxura txarrik; ezin zion antzeman eta esan zion:

— Erantzi beste hankako abarka.

— Beste hankakoa? Zertarako, ordea, hori sano baitago?

— Zer diferentzia dagoen ikusteko.

Gizonak ez zuen inola ere beste abarkarik erantzi nahi. Azkenean derrigorrean, erantzi beharra izan zuen eta han azaldu zen bekatua, hanka zikin-zikina eta hatsitua. Medikiak esan zion:

— Badago, bai, diferentzia!

140

ZERGATIK GEHIEGI JAN?

gizaseme; gizaki arra: «gizasemea eta emakumea egin zituen, Jainkoak».

jasan, jasate; / sin. sufri(tu) /.

nahiz eta; / sin. -arren / AUNQUE.

oraintsu arte; orain dela gutxi arte.

ase, asetze; gosea edo egarria guttiz ken(du).

barazki; baratzeko fruitua, HORTALIZA.

labore; CEREAL.

eskasia; / sin. pobrezia /.

itsats, itsatsi, itsaste; gauza bat beste baten azalean lot(u): *lapa har-kaitzari itsasten zaio*.

finka, finkatu, finkatze; *aditzen iragana hobeto finkatu behar duzu* / sin. erro(tu), oinarri(tu) /.

narrazti; REPTIL.

molda, moldatu, moldatze; / sin. presta(tu), era(tu) /.

elikadura; janari eta edaria.

alda, aldatu, aldatze; nor edo zerbaiten ordez beste bat ipin(i) / sin. kanbia(tu) /.

Gizasemeak bere historian gose luzea jasan du. Eta jasaten ari da. Oraintsu arte, haragia talde dominatzailearen pribilegioa izan da. Gabonetan, herriko jaietan, ezkontza eta horre-

lakoetan bakarrik jaten zen haragia. Jenderik gehiena, urtean hiru edo lau bider asetzen zen haragiz.

Asealdi edo betekada horiek ez ziren hain kaltegarri, urteko egunik gehienak barazkiz eta laborez pasatzen baitzuten. Orain haragia ugariago da, eta gehiegi jaten da. Zergaitik? Lehengo gosea, lehengo eskasia zerebroan itsatsi da. Gure zerebroan memoria genetiko bat bezala dago, mende eta herentziaz, genetean edo sistema genetikoan finkatu da. Narrazti bat ikustean sentitzen den nazka instintiboa, memoria genetiko horretatik dator.

Gerran ibilitako bizkaitar batek esaten du, berari gosea «burura pasatu» zitzaiola. Horregatik, orain sabela bete arren, ez omen zaio goserik joaten. Hori ez da esaera hutsa. Oinarri zientifikoa du. Goseak edo eskasiak zerebroa moldatzen du. Egun batetik bestera elikadura aldatu ahal da. Baina giza-zerebroak urte asko (eta mende asko) behar ditu aldatzeko.

141

PATXIKO GARRATZA

garratz; *ardo garratza* / sin. mingots / AGRIO.

amorru; / sin. errabia /.

xamur; / sin. erraz / ant. zail /.

biribil, biribildu, biribiltze; REDONDEAR.

bana; bakoitzak bat; *hartu pezeta bana!*

garesti; / sin. karu, ant. merke /.

Duela hainbat urte Errealak eta Bilboko Athletic-ek partidua zeukaten Donostian. Euskaldunek euskaldunen kontra amorru gehiago dutelako edo ez dakigu zergatik, partidua horiek ez dira xamurrenak izaten. Hara joan ziren Biztkaitik ere gernikar batzu, tartean Patxiko Garratza. Pentsa nolako jendetza izango zen. Partidu ondoren Patxikori galdetu zioten:

— Zer moduzko partidua iruditu zaizu?

— Ez dakit. Jendeak sartu nau eta jendeak atera nau.

Irungo lagun batek Irunera gonbidatu zituen. Donostiara helduz gero, eguna biribiltzea tokatzen zela eta laster ziren Irunen gure gernikarrak. Irundarrak eskatu zuen lehen erronda. Eta ez edozer eskatu ere! Martel kopa bana. Hura nobedadea bizkaitarrentzat! Gernikan hiru hogerleko zena, Irunen bi hogerleko kostatzen zen. Garai haietarako diru asko zen. Patxiko animatu zen eta beste erronda bat eskatu zuen. Koadrilako bat martxa hartaz bildurtzen hasi zen:

— Berriro ere Martela? Hori garestia da gero!

Eta Patxikok:

— Zer garesti eta zer merkesti. Kopa bakoitzean hogerlekoa irabazten ari gara!

142 ZUHAITZ MALATUA ETA ARMAK

zuhaitz malatua; Euskal Herriko zuhaitz famatu baten izena: ROBLE MALATO.

norbere; bakoitza bere: *norbere autoz etorri dira.*

jaurerri; jaun herria; SEÑORIO.

Luiando; Arabako herri txiki bat.

eskubide; *langileen eskubideak;* DERECHO.

baldintza; / sin. kondizio /.

aitonseme; HIDALGO.

Slogan bat gero eta indar gehiago hartzen ari da: «soldadutza norbere herrian».

Entzun duzu zuhaitz malatuaren berririk? Bizkaiako Jaurerriko historia da hori. Zuhaitz handi bat zen, Luiandon zegoena. Gaur zuhaitz haren lekuan harri handi bat dago.

Zuhaitz hau Jaurerriaren muga zen. Orduan Bizkaiko Jau-nak armetara deitzeko eskubidea zeukan. Ez bake garaian, zerbait defenditzeko edo norbait laguntzeko garaian baizik. Baina baldintza batzurekin. Bizkai barruan ez zegoen soldata ordaindu beharrik. Bizkai barrua zuhaitz malaturaino zen.

Handik aurrera, zuhaitz malatutik aurrera joan behar bazen, soldata ordaindu behar zen.

Nafarroan edozein aitonsemek hiru egun egin beharra zeukan, Erregek deitzen bazuen. Baina hortik gora ordaindu egin behar zen. Araban herriko kanpaiak entzutean, armaturik presentatu behar zen. Baina bake garaian ez zegoen soldadutzarik.

Gipuzkoan ere soldata ordaindu behar zen. Eta joan aurretik ordaindu ere. Bestela ez zegoen joan beharrik. Zenbat ordaintzen zuten? Hori beste kontu bat da.

143

MENDITIK MAHAIRA

ehiza; CAZA.

halako batetan; EN UNA DE ESTAS.

trinko; hutsarterik gabe elkarturik: *aditz trinkoa;* COMPACTO, SINTETICO.

hegada; VUELO.

zozo saila; / sin. zozo banda (taldea /.

hain zuzen; / sin. prezeski /.

albotik; / sin. aldamenetik /.

izorratuik; FASTIDIADO.

Bi lagun ehizara atera ziren, egun hotz eta ilun batez. Beren polaina handiak hanketan eta eskopetak bizkarrean, errespeto pixka bat sartu nahian. Baina txoriek haien tiroekin, direkzioa aldatu besterik ez zuten egiten. Halako batetan zozo pila bat zetorren, beltza eta trinkoa bere hegada arinean. «Hauxe da gurea», esan zuten. Batek dinbi danba tiratu zion berehalaxe. Erdiak eroriko zirela uste zuen, baina, zozo saila aurrera zihoan direkziorik ere aldatu gabe.

—Hau da marka! —hots egiten du tiratzaileak.

—Lasai — esaten dio besteak—. Zuk daukazu bista, zuk!, hor, hainbeste perdigoi ezer jo gabe pasatzeko.

Beste ibilaldi bat egin ondoren, hamaiketako on bat hobe izango zela pentsatu zuten. Lekeitiora jaitsi ziren eta taberna batetan haragia eskatu zuten; hain zuzen, haratuzte edo bijili eguna zen. Hasi ziren jaten, ari ziren koloregorritzen eta batek albotik hots egin zien:

— Kondenaturik zaudete. Bijili eguna eta haragia jaten?

Bietariko batek erantzun zuen:

— Arima izorraturik daukagunez gero, ea gorputza salbatzen dugun.

144 OÑAZTARREN ETA GANBOARREN KAZETARIA

berezi; /sin. aparta, espezial/.

burruka, burrukatu, burrukatz; talde batek bestea menperatzeko ahaleginak egin: *Errekalde kaleko burruka.*

digante; /sin. gizandi, erraldoi/ GIGANTE.

garbi, garbitu, garbitze; /sin. erahil/.

garratz; /sin. latz/ant. atsegin/.

basakeria; egite basatia; SALVAJADA.

Oñaztarrak eta ganboarrak eta beste bandoak noiz sortu ziren, ez dago argi. Hamaika gerra izan zen Euskal Herrian. Gerra haien kronistarik onena Lope Garcia Salazar da. Honen liburu bat idatzi zuen: «Las bienandanzas e fortunas». Testigu berezia zen, bera ere oñaztarren bandoan burrukatu baitzen. Elementu ederra.

Familia handikoa zen, Bizkaiko Muñatonesko eta Arabako Nofraroko jauna.

Honen familian bazen beste Lope Garcia Salazar bat; hau ere oso famatua. Hamabost urterekin seme bastardo bat eduki zuen, bere etxeko neska batekin. Hogeita bat urtez, edozein zaldun kristau desafiatzen zuen; mairu digante bat garbitu

zuen Toledon. Gerran bezain trebea zen amodioan ere, ehun eta hogeisei seme bastardo utzi baitzituen. Marka polita.

Lope Garcia Salazar kazetariak, azken garrantza eduki zuen. Semeek, Muñatonesko gazteluan entzerratu zuten aita. Eta han, presondegian, 1475.urte inguruan, idatzi zuen liburua. Basakeriarik krudelenak lasai-lasai kontatzen ditu. Eta gainera «Las bienandanzas e fortunas» titulu gozoa jarri.

Esku onetan zegoen, orduan ere, Euskal Herria.

145 URKIOLARA IPURDIA BISTAN

erromesaldi; / sin. peregrinazio /.

azpiko gona; emakumeek beste jantzien azpitik eraman ohi duten gona.

sorreraz, sorrerazi, sorrerazte; sortu eraz(i).

marmario; hitzen hots ixila; MURMULLO.

ohar, ohartu, ohartzte; / sin. kontura(tu) /.

Mañarin gora Urkiolara, badira lau edo bost kilometro. San Antonio egunez, erromesaldi handiak egiten ziren oinez. Hala zihoazen bi atso-agure ere jende artean. Eguzkiak jotzen zuelako, aldaparen erdi inguruan, atsoak bere gona beltza atzetik burura bota zuen. Deskoidatu zen gaixoa eta azpiko gona zuria ere han joan zen burura, ipurdia bistan gelditurik.

Estanpa hark pentsa nolako armonia sorreraziko zuen inguruan. Atso-agureak aurrera zihoazen, beren errezu zintzoan. Hala sartu ziren Urkiolako elizan ere. Atsoak ez zuen ulertzen elizako marmario hura zerena zen.

Eta agureari galdetu zion:

— Zeri egiten diote barre?

— Zeuri, azpiko gona ere burugainean daramazu eta...

— Ene Jesus! Eta zu ez zara ohartu?

— Nola ez, bada?

—Eta zergatik ez didazu ezer esan?

—Nik zer dakit, bada, promes hori egin duzun ere?

146 TXAKURRAREN MIRAKULUA

mirakulu; / sin. mirari /.

topo egin, egite; elkar aurki(tu).

azpigarri; abereen ohea egiteko erabiltzen dena.

endreda, endredatu, endredatze; / sin. nahas(tu), enreda(tu) /.

troka; zulo haundi, zabal eta sakona; SIMA.

zital; / sin. gaizto /.

aurrez; / ant. atzez / DE FRENTE.

aukera; / sin. okasio /.

sekula; / sin. inoiz /.

Luzio Arrola, mendaroarra, Bizkaiko Nabarnizko Arrola baserrira ezkondu zen. Ehun eta berrogeita hamar kilotatik gora zituen; inguruetan oso ezaguna zen.

Behin Luzio Arrola Urkiolara zihoan. Bidean Zeferino Onaindiarekin topo egin zuen, hau ere oso ezaguna Gernikaldean. Zeferinok esan zion:

—Zer Luzio, zu ere Urkiolara?

—Bai ba!. Esango dizut zergatik —hasi zen Luzio—. Aulestiarrak azpigarri lanean ari ziren gure mendian. Haien txakur batek artalde guztia endredatu zidan. Txakur madarikatua! Ardi mordo bat troka batetara bildu zen. Zulo zuloa zen hura eta aldapa gogorra goitik behera. Neure erreuma zitatez, aurrez ezin eta atzez jaitsi behar izan nuen. Hura zen trantzea! San Antoniori esan nion:

—Ea, San Antonio, oraintxe duzu aukera mirakulu bat egiteko.

Jaitsi nintzen, igon nintzen eta geroztik ez dut sekula gehiago erreumarik sentitu. Hargatik nator Urkiolara, San Antonio ikustera.

Zeferinok orduan:

— Zer San Antonio, ordea? Txakurrari eskerrak, egin zenuen hura.

147 GURPILAK ETA PERRETXIKOAK

gurpil; *bizikletak bi gurpil dauzka, autoak lau.*

bila; *lapurrak diru bila ibili dira / sin. bilatzen /.*

egunsenti; egunaren hasiera: *atzo egunsentian etxeratu zinen.*

bago; / sin. pago / HAYA.

gurean; *gurean ez dago txakurrik / sin. gure etxean /.*

gurdi; idiek bultza ohi duten gurpildun garraio-tresna / sin. burdi /
CARRO.

ets, etsi, etsitze; esperantza gal(du): *Euskadik ez du etsiko / sin. amore eman /.*

ordezko; *irakaslea gaixotu egin delako, ordezko bat behar dugu.*

topa, topatu, topatze; / sin. aurki(tu) / ant. gal(du) /.

Igande goiz batez, bi gizon perretxiko bila atera ziren. Ba-
zeutaken kotxe zahar bat, gelditu arte ibiltzeko balio zuena.
Aldapan gora zihoazen eta egunsentia goitik behera zetorren.
Kotxeak maniobra ero bat egin zuen. Trinkulun-trankulun
bide bazterreko bagoa jo zuen eta gurpil bat, beren begien bis-
tan, mendian behera joan zen. Gizon parek ere, mendian behe-
ra abiatu zen, esanez:

— Hau da komedia! Perretxiko bila etorri eta gurpil bila
hasi behar.

Ari ziren bila baina, ez zuten aurkitzen. Behe aldeko base-
rri batetan galdetu zuten:

— Aizu, gizona. Ikusi duzu gurpil bat hemendik?

— Gurean ez du aterik jo. Galde beste etxe horretan! Hor
dena jakiten baitute.

Beste etxean galdetu zuten:

— Aizu. Hemen dena dakizuela esan digute eta, ikusi du-
zue gurpil bat hemendik?

—Gure gurdiak bi gurpil ditu. Besterik ez da hemendik agertu.

Bi gizonek etsi zuten. Kotxe zaharrari ordezeko gurpila jarri eta batak esan zuen:

—Geuk ikusitako gurpila topatu ezin badugu, nola arraio topatuko dugu, ikusi ez dugun perretxikorik?

—Goazen etxera —esan zuen besteak—. Hurrengoan oinez etorriko gara eta ez da perretxikorik geldituko mendian.

148

KOKOTA KONPONDU

kokot; *legatz-kokot errea jan dugu* / sin. lepondo / COGOTE.

bizargin; bizarra eta ilea mozten duena.

bizartegi; / sin. ileapaindegi /.

hel, heldu, heltze / sin. ailega(tu), etor(ri) /.

neronek; *neronek ikusi dut hori* / sin. nik neuk /.

ihar; edertasuna galdu duena / sin. zimel /.

zain; gorputz barruan odola daraman kanala.

aurrez; / sin. parean, aurrean /.

Bazen Gernikan bizargin famatu bat. Patxiko Garratzane-koa esaten zioten. «Arrien» jatatxearen ondoan zeukan bizartegia. Gizon bat heldu zitzaion eta esan zion:

—Lan pixka bat egingo dugu?

—Benoa. Zu geldi bazaude, neronek bakarrik lan egingo dut.

Gizona aulkian eseri zen, geldi eta mantso. Argala eta iharra zen. Azala eta zainak aparte, gauza gutxi gelditzen zen haren lepoan. Patxikok begirada bat bota zion eta esan zion:

—Zer, ilea moztu?

—Ez, kokota.

— Goitik zer bait?

Gizonak eskuarekin seinالاتuz esan zuen:

— Ez. Kokota konpondu bakarrik.

— Kokot hau konpondu? —esan zuen Patxikok—. Horretarako hara joan behar duzu.

Eta bizartegitik, aurrez aurre ikusten zen «Vasca» restaurantea erakutsi zion.

149

HORTZAK ETA HANKAK

hartz; janaria mastikatzeko ahoan dauzkagun hezur zuriak.

nagi; / sin. alfer /.

samar; / sin. nahiko, aski /.

zorrotz, zorrotzu, zorrotze; punta edo ertzea mehe(tu): *aizkora zorrotzera eramán dut* / ant. kamus(tu) /.

ustel, usteldu, usteltze; gai organiko bat honda(tu): *beroak haragia usteltzen du.*

eska eraz, erazi, erazte; eskatzera behar(tu).

ezer gutxi; gauza askorik ez.

bestela; beste moduz.

irents, irentsi, irenste; / sin. traga(tu) /.

Mutil bat soldadu zegoen. Nagia eta zikin samarra omen zen. Goseak batzuri hortzak zorrotzen dizkie. Hari usteldu egin zizkion. Lagunek ez garbitzeagatik zela, esaten zuten. Eta hark beti erantzuten zuen:

— Ez garbitzeagatik? Bada hemen zerekin zikindu?

Baina ahoa ez zeukan ondo: gaitzen bat baitzuen. Lagunek medikua eska erazi zioten eta kapitanarengana eramán zuten. Kapitanak galdetzen dio:

— Zer pasatzen da aho horretan?

— Ezer gutxi, jauna. Horixe da txarrena. Gosearena da hau.

— Ea, ireki ahoa —agindu zion kapitanak.

Hortz ustel haiek ikustean, esan zion:

— Mutil! Hilabeterako permisua ematen dizut, aho hori konpontzeko.

Lagun batek besteari esan zion:

— Hankak ikusi ez dizkiolako... Bestela, lizenziatu!

Pare bat hilabetera aho berriarekin itzuli zen mutila koartelera. Gau batez lotan, hortz aparatua irentsi egin zuen. Operazioa egin behar izan zioten eta orduantxe, lehenengoz garbitu omen zizkioten hankak.

150

ARRATEKO USO TIROA

antola, antolatu, antolatze; *datorren urtean guk antolatuko ditugu herriko jaiak / sin. organiza(tu) /*.

upela; / sin. barrika /.

tema, tematu, tematze; iritzi edo erabaki bat, behin eta berriro, errepika(tu); OBSTINARSE.

huts egin, egite; *hutsik egin gabe jokatu du; FALLAR.*

baibentsu; alde batetik bestera balantzan; TAMBALEANTE.

sailean; bata bestearen ondoren / sin. sailka / EN SERIE.

molda, moldatu, moldatze; / sin. konpon(du) /.

Beste toki askotan bezala. Arrateko gainalde ederrean, uso tiroa antolatu zuten. Bazen han eibartarrik ugari, dinbi eta danba. Tiroka ari zirenean, gizon bat agertzen da, upela baino mozkorrago. Berak ere tiratu behar zuela tematzen zuen.

— Ken hortik —esaten zuen—. Ez da direkziorik ere bizi-rik geldituko.

Ez zioten, ordea, kasurik egiten.

— Zer, bada? —berriro ere hark—. Zuek huts egindakoak joko ditudala eta... bildur zarete?

Azkenean, denen bakerako ere, tiratzen utzi zioten. Tiobi-boa baino baibentsuago, hartu zuen eskopeta eta:

— Solta, solta! Ez dira urrun joango.

Hasi ziren usoak soltatzen, eta gure gizonak denak sailean jotzen zituen. Hura zen marka! Batek galdetu zion:

— Nola moldatzen zinen horrela jotzeko?

Eta berak:

— Joko ez nituen, bada? Bandadak botatzen baitzituzten!

151

DOKTOR KASTRO

dotore; *dotore jantzita zaude* / sin. ederki /.

ezizen; / sin. izenorde, mote /.

irtenberri; duela gutxi irten dena; RECIEN SALIDO.

zure galdez; zutaz galde eginez; zutaz galdezka.

atsegin ukan; *atsegin dut futbola* / sin. gusta(tu) /.

ohar, ohartu, ohartze; / sin. kontura(tu) /.

Gernikaldean gizon bati Doktor Kastro esaten zioten, ez dakigu Kastro deitura zuelako ala Kubatik ibilia zelako. Ezta ere ez dakigu doktoretik zenbat zeukan, baina bai basutik dotore edaten zuela. Denboraz bere ezizena zerbait sinesten hasi zen bera ere.

— Qué dice el Doctor Castro? —galdetzen zioten gernikar ilustratuek eta hark erantzuten:

— Galderak kontsulta orduetan.

Bakarrik ibiltzen zen. Behin tabernan zegoen. Handik irten eta telefonoz beste leku batetatik hara deitu zuen berak:

— Doktor Kastro hor da?

— Ez, oraintxe irtenberri da.

Gero tabernara itzuli eta esan zioten:

— Hemen zaude? Zure galdez deitu dute oraintxe.

Gizonak joku hura atsegin zuen eta behin baino sarriago-tan egin zuen operazioa. Baina jokuaz ohartu ziren besteak eta bera ere konturatu zen igarri ziotela.

Tabernan zegoen eta lagun batzu sartu ziren. Eta berari galdetu zioten:

— Kaixo, hemen da Doktor Kastro?

Eta hark erantzun:

— Ez, Doktor hemen da, baina Kastro irtenberri da.

152

BURUA ERREKARA

erreka; ARROYO.

etsai; / sin. arerio / ant. lagun /.

luma, lumatu, lumatze; hegaztiari lumak ken(du); inor ezer gabe utz(i); DESPLUMAR.

mehatxu; norbait beldurtzeko egiten den hitz edo keinua: *mehatxu-ka hasi zen* / sin. amenazu /.

saskil; / sin. zikin, itsusi /.

sinets, sinetsi, sineste; *sinesten dut*; CREER.

uluka; / sin. oihuka /.

araka, arakatu, arakatze; / sin. mia(tu), bila(tu), azter(tu) /.

urez gora; uraren norabidearen kontra; ur korrontearen kontra.

gorpu; gorputz hila, bizigabea.

Bi senar-emazteak bakarrik bizi ziren. Ez ziren ondoegi konpontzen. Etsaiak izateko, bat kontra egotea nahiko izaten da, eta haiek biak zeuden kontra. Etxe hartako bakea ederki lumaturik zebilen. Emazteak azken mehatxua bota zuen:

— Neure burua erre kara botako dut eta kito.

— Egia bada —erantzun zion gizonak— burua bakarrik ez bota. Ipurdi saskil hori ere bota!

— Zuk ez duzu uste, baina botako dut, bai.

— Bota, andrea, bota! Garbituko dugu erreka.

Goiz batez, andreak bere burua errekarra bota egin zuen. Gizonak ez zuen sinetsi, txakurra erreka bazterrean uluka ikusi arte.

— Andreak bere burua errekarra bota du —esan zion auzoko bati.

— Andrea errekan eta zu hemen?

— Nik ez dut bota. Bera joan da.

Auzoak bildu eta bila hasi ziren. Goiz guztian ez zuten ezer aurkitu.

— Gezurra diozu zuk. —esan zioten gizonari—. Ia itsasoraino arakatu dugu eta hor ez dago ezer.

— Itsasoraino? Kontra egiteagatik, hura urez gora joango zen.

Berriro joan, eta han aurkitu zuten gorpua kilometro bat gorago.

153

ASTOA SALGAI

salgai; saltzeko dagoena: *etxea salgai daukagu*.

sar-irten; bisita laburra: *itxoin pixka bat*; *sar-irrentxo bat egitera noa*.

ezar, ezarri, ezartze; / sin, ipin(i) /.

soma, somatu, somatze; zerbaitez ohar(tu): *txakurrak berehala somatu zuen oilagorra*.

arrantzaka; astoa oihuka.

jan eraz, erazi, erazte; jatera behar(tu).

asta gorotz; astoaren kaka.

Urtero bezala, Lazkaora ere heldu zen inozente eguna. Lantegi batetako nagusiak bazeukan ohitura bat. Asteko jorنالاک ordaintzeko, diru bila Beasainera joaten zen eta bidean lagun baten tailerrean sar-irten bat egin gabe, ezin utzi. Sartu

zen eta bai ederki irten ere. Hango mutiko batek gizonari bizkarrean kartel bat ezarri zion:

«Asto hau salgai dago».

Gure gizona lasai zihoan Beasain aldera. Bidean begirada eta barre arraroak somatzen zituen. Mutiko talde bat bere atzetik zetorren, asto oihuak imitatu nahian, arrantzaka.

— Madarikatuok. Ez duzue edukaziorik jaten?

Emakume batek adierazi zion bizkarrean zer zeraman.

— Hau ere bai?

Eguerdian bere koinatuarekin batu zen eta honek esan zion:

— Zer gertatzen zaizu gizon? Haserre aurpegia duzu.

— Mutiko bati nola kaka jan erazi, pentsatzen ari naiz.

— Erraza da hori!

Bien artean, biku handi batzu asta gorotzez bete zituzten eta arratsaldean, mutiko hura zegoen lekura joan zen. Bikuak mahai gainera atera eta mutikoa laster hasi zen jaten.

— Txo! —esan zion orduan gizonak—. Astoa salgai dago, baina bere prezioan.

154

HIL ALA ZER

zorian; *atea, puskatzeko zorian dago*; A PUNTO DE.

sinets, sinetsi, sineste; zerbait egiazkotzat onar(tu): *esaten dioten guztia sinesten du.*

hain zuzen; *horixe esan nahi nuen, hain zuzen / sin. prezeski /.*

luzaro; denbora luzean: *luzaro ez zaitut ikusi.*

Gizona hil zorian zegoen. Hil ondoren zer gertatzen den ez dakigu, baina hil ingurua, bai, ezagutzen dugu. Hauzoko emakume guztiak pasatu ziren haren ohe aurretik. Denek esaten zioten:

— Hil? Pentsatu ere ez horrelakorik. Oraindik dantzan egin behar duzu zuk, Simon.

Eta gizonak:

— Dantzan non, andretxoa? Apezaren isopoan?

Hala ere, denek esaten zioten berdin: negua bazihoala, udaberria bazetorrela eta behin kukua entzunez gero, biziko zela. Illunabarrean gizonak emakume bati esan zion:

— Ai, Engrazi! Oraintxe sinetsi dut hil behar dudala.

— Nola hori? Denek esan dizute biziko zarela.

— Horrexegatik hain zuzen. Denak etorri zaizkit gauza bera esatera.

Engrazi joan zen eta semeak salda bero ederra ekarri zion aitari. Aitak edan zuen eta esan zuen:

— Ea egia den denek esan dutena. Honelako saldez, luzaro bizi ahal izango naiz.

— Ez aita —esan zion semeak—. Hil egin behar duzu, hileta gastuak eginak daude eta.

155 AUZO-LANAK ETA AUZO-JANAK

auzo; VECINO.

auzolan; auzoek elkaturik egiten duten lana: *bidea auzolanean konponduko dugu.*

ira; HELECHO.

jorra; lur landuetan belar txarrak kentzeko egintza: *artajorra.*

beharrean; *etxera joan beharrean, tabernan sartu naiz / sin. ordez /.*

elkarren artean; bata bestearen laguntzaz.

tankera; *tankera ona daukazu / sin. itxura /.*

lan saria; lanaren truke irabazten dena.

jan-edana; / sin. janari eta edaria, elikadura /.

maizter; etxe bat errentaren truke hartzen duen pertsona / ant. uga-zaba / INQUILINO.

jan truke; lanaren ordaina janaria denean: *jan truke, baserrian lan egiten, euskara ikasi du / sin. tripa truke /.*

ezbehar; / sin. istripu, zorigaitz, akzidente /.

esate baterako; / sin. adibidez, halanola /.

erein, ereite; *garia erein*; SEMBRAR.

derrigorrez; *soldadutzara joan behar derrigorrez* / sin. nahi ta nahi ez, beharrez /.

Auzo-lana, auzoek elkarren artean egiten duten lanari esaten zaio. Ohitura edo jokaera honek indar handia eduki du Euskal Herrian, bai materialki, bai kulturalki. Baziren lan batzu —gari lana, ira lanak, jorrak eta abar— bakoitzak bereak egin beharrean, denen artean egiten zituztenak; gaur etxe batekoak eta bihar bestekoak. Egun horietan auzoak eta herriak beste bizitasunik eta beste tankerarik hartzen zuen, alderdi guztietan.

Beste auzolan batzu herriarentzat egiten ziren. Egun horietako lan saria, jan-edana izaten zen. Horrela egin izan dira Euskal Herriko auzo biderik eta herri biderik gehienak, baita ere herri basoak garbitzea, landareak sartzea eta abar ere. Maizterrek ere bazeukaten egin beharrik ugazabarentzat, jan truke.

Etxeren batetan ezbeharrik gertatzen zenean, etxe hartako lanak auzo-lanez egiten ziren. Esate baterako, emakume bat alarguntzen zenean, egun batean auzo guztiak bildu eta etxe hartako artoak edo gariak, ereinda utziko zituzten.

Herriko etxeak, abadetxeak, komentuenak, mediku etxeak eta zer publikorik gehienak, auzo-lanez eginak ziren lehengo Euskal herrian; batzutan herritarren pozez eta ez gutxitan erdi derrigorrez ere.

Ahozko literaturak eta folklore guztiak ez dio gutxi zor auzo-lanari.

156 AITA SEMEAK LAPUR ARTEAN

goren; *munduko mendirik gorena Everest da* / sin. altuen /.

industrigintza; / sin. industrializazio /.

errepide; errege-bidea / sin. kamino / CARRETERA.

garraio; toki batetik bestera gauzak eramatea: *Garraio Enpresa*.

araka, arakatu, arakatze; / sin. mia(tu), errejistra(tu) /.

galtzapeko; galtzen azpian dagoena.

izan ezik; *zu izan ezik, beste guztiak joango dira mendira* / sin. ezik, salbu / ant. ez ezik / EXCEPTO.

Otxandio, Bizkaiko herririk gorena da. Industrian berriz oso aintzinakoa. Hangoak dira, industriakuntzak ekarritako ola zahar famatuak. Arabatik Bizkaira, Otxandion zehar eta Urkiolan behera, errepide handia zen. Handik zebilen garraiorik gehiena. Baina bai lapurrak ere ugari, Otxandio inguruan.

Bazetozen aita-sembleak eta Otxandiotik Urkiolara bitartean, lapurrak bidera irten.

—Gora eskuak!

Ondo arakatu, eta diru guztiak kendu zizkieten. Ez askorik, ordea. Lapurrak ez zeuden hain konforme.

—Diru hau besterik ez dakarzue?

—Zuek aurkitzen ez baduzue, horixe bakarrik izango da.

—Adarra jo oraindik? Behera galtzak eta galtzapekoak!

Gure aita-sembleei dena kendu zieten lapurrek, aitari txapela izan ezik. Lapurrek ihes egin ondoren, semeak esan zion aitari:

—Aita, txapela hor utzi dizute.

—Horixe bakarrik falta zen! —hotsegin zuen aitak—. Aitari txapela kendu?

157 ELIZAREN LURRA ALA HERRIARENA

pilaketa; *negozio horretan diru pilaketa ederra egin du*; ACUMULACION.

istilu; arazo larria.

baimen; zerbait egiteko eskubide-hitza ala iskribua: *baimena eskatu*.

akats; / sin. huts, erru / FALLO.

baldintza; / sin. kondizio /.

dote; emakumeak ezkontzara ala monja sartzean, eramaten duen dirua.

apezpikutegi; OBISPADO.

argudio; / sin. arrazoi /.

zuzenbide; DERECHO.

ohiturazko; sarritan egiten dena.

amore eman, emate; / sin. ets(i) / CEDER.

Euskal Herriko zuzenbide edo deretxoan, jabetasun pribatuak bere mugak eduki ditu, lurren pilaketa ebitatzeko.

XVII. mendean begira nolako istilua sortu zen Azkoitin. Brigiden ordenako komentu bat egin nahi zuten, Basarteko Santa Gurutze ermitaren ondoan. Peñafloidako kondeak eta Granadako dukeak eliz baimen guztiak lortu zituzten.

Baina bazen beste akats bat. Azkoitiko herriak ere baime-na eman behar zuen. Azkoitik ez zuen ezer monja haien kontra, baina aurretik baldintza bat jarri behar zela uste zuen. Eta hauxe zen baldintza: monja berrien dotez, Azkoitin erosten ziren lurrak, berriro saldu behar zirela herritaren batek erosi nahi bazituen.

Iruñeako Apezpikutegiak ez zuen baldintza hori onartu eta argudio hau jartzen zuen: «Elizak eskubidea du ondasun tenporalak edukitzeko eta baldintza hori elizaren eskubidearen kontra doa».

Eliza, Zuzenbide Kanonikoan zebilen eta Azkoitiko herria, Euskal Zuzenbide Ohiturazkoan. Azkenean Iruñeako Apezpikutegiak amore eman zuen, baina ez gustora.

Non dago gaur Euskal Zuzenbide Ohiturazko hori?

158

HURA ZEN ERBIA HURA!

erbi; *erbi txakurra*; LIEBRE.

tarteka; / sin. noizean behin /.

lotsaturik; / sin. lotsatuta / AVERGONZADO.

gerezi; CEREZA.

gereziondo; gereziak ematen dituen arbola.

Ehiztaria zen, mutil haren aita. Mutikoa pozik ibiltzen zen aitarekin. Tarteka tiro bat edo beste botatzen uzten bazion ere, mutikoaren arma tiragoma zen. Beste ehiztariekin tabernan edo nonahi biltzean, han zen ehiztari txikia ere bere tiragoma bizkarretik zintzilik eta belarriak zorrotz. Aita ere harro zebilen bere semearekin. Behin semeak lotsaturik utzi zuen aita.

—Lehengo batez —kontakten zuen aitak— tiroa aurrerantz bota eta atzetik zetorren usoa bota nuen. Sustoz izango zela uste nuen, baina ez. Han zeukan perdigoi parea bihotz-bihotzean.

Jendearen barreak entzutean, mutikoak esan zuen:

—Hori ez da ezer. Ez zara gogoratzen, aita, nola ihaz erbi bati tiragomaz tiratu nion? Gerezi hezur bat bota nion. Erbia aurrera joan zen. Zuk, ez nuela jo esaten zenuen, baina nik jo nuen hura. Atzo bertan ikusi dut pasatzen, gereziondoa belarritik zintzilik.

—Koino! —esan zioten lagunek aitari—. Motoserra bat erosi beharko diozu semeari.

—Ez da behar motoserrarik —bukatu zuen mutikoak—. Gerezi garaian, zozoak gerezi jatera joango dira eta tiro batez hilko ditut erbi eta zozo.

159 KATU LAPURRAREN SENTENTZIA

lehenbizi; /sin. aurren, lehenik /.

sutako gako; sua berdintzeko erabiltzen den burdinezko pieza / sin. su-hatzak /.

erratz; /sin. isats / ESCOBA.

akuilu; *idi horrek ez du akuilu beharrik;* AGUIJON.

sastada; /sin. labainkada / CUCHILLADA.

Aita, ama eta lau seme bizi ziren etxe hartan. Katu mada-rikatu batek egunero etxean sartu eta bere lapurreta egiten zien. Bazkaltzean eta afaltzean egunero zen katuaren komen-
tarioa mahaian: «Gaur ere bai?».

Larunbat gau batez aita etxeratu zen lehenbizi. Arraioa! Han zegoen katua, sukaldean. Ate-leihoak hixten hasi zen be-
rehala. Emazteak ohetik hots egin zuen:

— Gizona, katuak alde egin dizu.

— Zaude isilik, andrea. Katua barruan dago.

Honetan seme bat iristen da etxera eta atzetik beste hiru-
rak.

— Kontuz, mutilak! —dio aitak—. Katua barruan daukagu.

Lau semeak han jarri ziren zain, bata sutako gako, bestea
erratzez, bestea akuiluz, laugarrena manta batez eta aita labai-
na handi batez.

— Geldi hor, mutilak!

Aita makurtu zen eta hara non ikusten duen katua armario
azpian. Sastada bat eman zion; eta zer? Katiuska bat atera la-
baina puntan.

160 ASTOLASTERRAK ETA GALARROSAK

golde; lurra iraultzeko lantresna; ARADO.

uztarri; idi pareari buru gainean ezartzen zaion egurrezko pieza /
sin. buztarri / YUGO.

goldaketa; goldeaz lurra iraultze lana.

galai; GALAN.

jasale; sufritzen duena; VICTIMA.

Toberak edo zentzerradak galdu dira Euskal Herrian. Le-
henago ugari ziren. Beste herri guztietan ere izan da ohitura
hori: Andaluzian, Gaztelan, Katalunian etab. Gehienetan ohi-

tura krudela eta gogorra zen. Astolasterrak eta Galarrosak toberen barianteak dira.

Gizon alargun bat bigarrenez ezkontzen zenean, asto lasterrak edo asto karrerak egiten ziren.

Baztan aldean, emazteak senarra jotzen bazuen edo jipioia ematen bazion, hurrengo igande arratsaldean komediak ziren, herriko plazan. Goldea, behi uztarri bat eta baserri tresnak plazara eramaten zituzten. Bi mutil gazte irteten ziren, bata emakumez jantzirik. Senar-emazteak ziren. Emazteak senarra jotzen zuen, hau goldaketan ari zen bitartean.

Luzaiden asto jokua esaten zen. Barkoxen, gizon bat beste norbaiten emaztearekin ondoegi kopontzen zenean, asto lasterrak ziren.

Luzaiden berriz ere, agure bat neska gazte batekin nahasten zenean «galarrosak» ziren. Bi gazte taldek, galaiaren etxe ondoan, antzerki antzeko elkarrizketa bat egiten zuten eta azkenean adarrak eta zintzarriak jotzen zituzten.

Ohitura hauek gogorrak ziren. Toberen, asto-lasterren edo galarrosen gai edo jasale izatea ez zen gauza gozoa izango.

161

GABIRIAKO MISIOAK

orroe; / sin. oihu /.

inoiz; / sin. noizbait /.

iragan, iragate / sin. igaro, pasa(tu) /.

damu; gaizki eginak berez sortzen duen sentimendu mingarria:
damu naiz.

makur; behera begira.

xuka, xukatu, xukatze; ura ken(du).

Duela urte gutxi, herrietako misioak ohitura indartsua ziren. Kanpoko apezten bat edo frailerren bat ekartzen zen. Misiolariak gogor hitz egin behar zuen. Orroe handiak eta latzak. Inoiz elizak ilundu ere bai.

Gabiriako Misioetan, infernuari buruz ari zen misiolaria:

«Ene entzule bihotzekoak. Betiko. Betiko. Betiko. Badakizue zer den hori? Mende bat iragan eta alferrik. Mila mende iragan eta alfer alferrik. Orduan ez du damuak balio izango. Orduan alferrik izango da apezari deitzea: jauna, jauna! Orduan alferrik, dena. Betiko. Betiko...»

Gabiriarrak buru makur elizatik irten ziren. Emakumeren batzu erdi negarrez ere bai. Txintxurreta agoazila entzule izan zen eta kanpoan esan zuen:

—Horrek zer daki, bada, Jainkoari gogoak ematen badio, hamar egunetako bakazioak ematen dituen ere!...

Gero, begietako malkoak xukatzen ari zen emakume bati esan zion:

—Zu! Negar gutxiago elizan, eta gehiago etxean!

HIZTEGIEN ZERRENDA ALFABETIKOA

A

- abantaila;** *ez diot abantailarik ikusten;* VENTAJA.
- abia, abiatu, abiatze;** martxan jar(ri): *goizeko seiretan abiatu ginen.*
- abiada;** / sin. martxa /.
- abiadura;** / sin. martxa / VELOCIDAD.
- adats;** ile mataza ongi orraztua; CABELLERA.
- adibidez;** esate baterako.
- adieraz, adierazi, adierazte;** aditzera eman: *erlatiboa adieraziko dizuet gaur*
/ sin. azal(du) /.
- adimen;** aditzeko ahalmena: *adimen handiko gizona;* INTELIGENCIA.
- adintsu;** / sin. adineko, zahar / ant. gazte /.
- ados;** *zurekin ados nago* / sin. bat, batera, konforme, akort /.
- adreilu;** / sin. ladrilu /.
- ager, agertu, agertze;** / ant. desager(tu) / APARECER.
- agerpen;** APARICION.
- agin, agindu, agintze;** *nork agintzen du hemen?* ORDENAR, MANDAR.
- agorpen;** / sin. ahitze, bukatze / AGOTAMIENTO.
- agudo;** / sin. laster, arin /.
- agure;** gizon zaharra.
- ahaide;** *ahaideak bakarrik gonbidatu ditugu* / sin. sendiko, etxeko, familiako /.
- ahalegin;** / sin. eginahal, esfortzu /.
- ahalguztidun;** guztia ahal duena.
- ahalik ...en;** / sin. ahal den ...en / LO MAS... POSIBLE.
- ahalmen;** / sin. botere, indar / ant. ezin / ant. gogora(tu), oroi(tu) /.
- ahantz, ahantzi, ahantze;** memoriatik gal(du): *gaur ikasi eta bihar ahantzi egin-go dut* / sin. ahaz(tu) / ant. gogora(tu), oroitu(tu) /.
- ahantzurik;** / sin. ahaztuta /.
- ahate;** hegazti urzalea, moko zapalekoa, hankak urgainean igeri egiteko ego-kiak dituena; PATO.
- ahi, ahitu, ahitze;** *lehen edizioa ahitu egin da* / sin. agor(tu) / AGOTAR.
- ahiturik;** / sin. agorturik / AGOTADO.
- ahokada;** / sin. haginkada, mokau / BOCADO.

aholku; / sin. kontseilu /.
ahosabai; PALADAR.
ahume; ahuntz umea / sin. ahuña /.
ahuntz; akerraren emea.
aieneka; LAMENTANDOSE.
aintzina; orain dela denbora asko/sin. aspaldi /.
aintzinako; orain dela urte askotako: *aintzinako kontuak dira horiek* / sin. *aspaldiko* /.
aitonseme; HIDALGO
akats; / sin. huts, erru / FALLO.
akuilu; *idi horrek ez du akuilu beharrik*; AGUIJON.
alaborde; alabaren ordezkoa; HIJASTRA.
alargun; ezkonkidea hil zaiona: *alargun batekin ezkondu da*.
alboan; *itsuak txakurra darama alboan* / sin. aldean, aldamenean /.
albokari; alboka jotzen duena.
albotik; / sin. aldamenetik /.
alda, aldatu, aldatze; nor edo zerbaiten ordeztu beste bat ipin(i) / sin. kanbia(tu) /.
aldakuntza; *azken urte hauetan aldakuntza ugari eduki dugu herrian*; CAMBIO.
aldazgora; / sin. aldapaz gora / ant. aldazbehera /.
aldean; / sin. alboan, aldamenean /.
alden, aldentu, aldentze; alde egin.
alderantziz; *alderantziz dela uste dut* / sin. aldrebes /.
alderdi; / sin. zati, atal /.
aldez aurretik; *mila esker, aldez aurretik*; POR ADELANTADO.
alegia; / sin. hau da, hots / ES DECIR.
alfer; lanik egin nahi ez duena: *alferra da baina aprobatazen du* / sin. nagin / ant. bizkor /.
alferrik; *kalean euskara praktikatzeko ez baduzu, alferrik ari zara ikasten*; INUTILMENTE.
algaratsu; / sin. zaratatsu / RUIDOSO.
ameskaitz; amets gaiztoa (txarra).
amets; lo gaudelarik, burura etortzen zaiguna: *amets txar bat egin dut*.
amil, amildu, amiltze; goitik behera eror(i).
amorde; amaren ordezkoa; MADRASTRA.
amore eman, emate; / sin. ets(i) / CEDER.
amorratu; / sin. porrokatu / EMPEDERNIDO.
amorraturik; / sin. ernegaturik, haserre /.
amorrazio; / sin. haserre, amorru /.
amu; ANZUELO.
antola, antolatu, antolatze; *datarren urtean guk antolatuko ditugu herriko jaiak* / sin. organiza(tu) /.
antza; *euria egingo du, antza* / sin. nonbait, dirudienetz / AL PARECER
antzeko; antza duena: *ama eta alaba oso antzekoak dira*; PARECIDO.
antzeman; / sin. igar(ri) /.
antzu; fruiturik eman ezin duena: *emakume antzua*.
apaingarri; *egongelarako apaingarri bat erosi dut*; ADORNO.
apal, apaldu, apaltze; / sin. umil(du) /.
apez; / sin. abade /.

apezpikutegi; OBISPADO.
araka, arakatu, arakatzte; / sin. mia(tu), bila(tu), azter(tu) /.
araldi; abereen zelo aldia.
arautegi; arau multzoa: *Euskaltzaindiaren Arautegia*.
arbaso; aurreko belaunaldietako pertsonak: *gure arbasoen hizkuntza zaharra* / sin. asaba / ANTEPASADO.
ardandegi; ardoa gordetzeko tokia.
ardatzean; HILANDO.
ardura; / sin. kezka, axola, erresponzabilitate /.
areto; gela zabala: *areto nagusian egingo dugu batzarrea*.
argigarri; argia ematen duena / ant. ilungarri /.
argitara, argitaratu, argitaratzte; *liburu hau Euskaltzaindiak argitaratu du* / sin. *publika(tu)* /.
argudio; / sin. arrazoi /.
arinki; / sin. lasterka, arin / ant. poliki /.
arlo; *karrera amaitu ondoren, zein arlotan espezializatuko zara?*; TERRENO, AREA.
arnasa; *arnasa hartu ezinik heldu zaigu Jon*; RESPIRACION.
aro; / sin. sasoi, garai /.
arrakasta; EXITO.
arrantzaka; astoa oihuka.
arrastaka; *arrastaka ekarri behar izan dute*; A RASTRAS.
arrasto; / sin. seinale / RASTRO.
arreske; arra eskatzen duen aberearen egoera.
arrisku; *arriskutan zaude*; PELIGRO.
arriskugarri; arriskua ematen duena: *elurra bideetan arriskugarria da*.
arrunt; sarri ikusten dena: *gizon arruntari bertsoak* / ant. berezi /.
artadi; arte ugari dagoen tokia; ENCINAR.
artapean; artearen behean; DEBAJO DEL ENCINO.
asaba; / sin. arbaso /.
ase, asetze; gose edo egarria guztiz ken(du): *ase naiz*.
aski; *aski da!* / sin. nahiko /.
askotariko; era askotako.
asma, asmatu, asmatze; gogoan sor(tu): *nork asmatu zuen elektrizitatea?* / sin. *inbenta(tu)* /.
asper, aspertu, aspertze; gogoan gal(du): *klasean aspertu egiten naiz* / sin. *gogait(u)* /.
asperkaitz; nekez aspertzen dena: *irakurle asperkaitza*; INCANSABLE.
asperturik; / sin. gogaiturik / ABURRIDO.
asta gorotz; astoaren kaka.
asti; *ez daukat ezertarako astirik* / sin. denbora /.
astin, astindu, astintze; mugi eraz(i): *hautsak kentzeko, astindu!* / sin. eragin / SACUDIR.
astiro; *astiro, baina hitz egin mesedez!* / sin. geldi, poliki / ant. korrika, arin /.
ataburu; atearen goiko aldea.
ate joka; atea jo eta jo.
aterik ate; *aterik ate gabiltza Olentzaro kantatzen* / sin. atez ate /.
atseden; *eman, Jauna, betiko atsedena* / sin. deskantsu, lasaitasun, pausa / ant. *neke* /.

atsegin ukan; *atsegin dut futbola* / sin. gusta(tu) /
atsekabe; / sin. tristura, pena / ant. atsegin /
atso; emakume zaharra: *atzo hil ziren hamar atso.*
atxintxika; / sin. arineketan, lasterka /
atzekoz aurrera; *atzekoz aurrera jantzi dituzu prakak* / sin. alderantziz, aldrebes /
atzera; / sin. berriz, berriro /
atzera, atzeratu, atzeratze; *Hirugarren Munduko Herri atzeratuak* / ant. aurrea(tu) /
atzerri; norberarena ez den edozein herri / sin. erbeste / ant. aberri /
atzerritar; / sin. kanpotar / ant. herritar /
aukera; *oraintxe dugu aukera* / sin. okasio /
aurki, aurkitu, aurkitze; *bilatzen ibili gara baina ezin aurki!* / sin. topa(tu) / EN-CONTRAR.
aurkikunde; / sin. deskubrimendu /
aurrerapen; zerbait aurrera eramateko ekintza: *ikastaro honetan aurrerapen handia egin dugu* / ant. atzerapen /
aurrez; / sin. parean, aurrean / ant. atzez /
aurrez, aurreztu, aurrezte; aurrez gorde; AHORRAR.
aurrez aurre; / sin. parean, aurrean /
aurtengo; urte honetako: *aurtengo txakolina.*
ausar, ausartu, ausartze; *ez naiz ausartzen* / sin. atrebi(tu) /
ausart; arriskuari beldur ez diona / sin. adoretzu / ant. beldurti /
autoerregulapen; AUTOREGULACION.
auzategi; auzoak bizi diren lekua / sin. auzune / BARRIO.
auzo; VECINO.
auzolan; auzoek elkaturik egiten duten lana: *bidea auzolanean konponduko dugu.*
auzune; auzo une / sin. auzategi / VECINDAD, BARRIO.
axola izan, izate; *ez zait axola* / sin. inporta izan /
azal; gaineko estalkia; kanpoko aldea: *laranja azala.*
azeri; *azeria eta mahatsa* / sin. luki / ZORRO.
azken; / ant. lehen /
azoka; *Durangoko diska eta liburu azoka* / sin. peria, merkatu /
azpian; behe aldean / ant. gainean /
azpigarri; abereen ohea egiteko erabiltzen dena.
azpiko gona; emakumeek beste jantzien azpitik eraman ohi duten gona.
azpitik; / sin. izkutuan, klandestinitatean /
azter, aztertu, aztertze; / sin. iker(tu), examina(tu) /
azti; etorkizuna igartzen duena: *aztiarengana joan beharko dut, kinielak egite-ra.*

B

babes; leku segurua: *San Anton mendiaren babesean dago Getaria* / sin. gordeleku, aterpe, laguntza, protekzio /
babes, babestu, babeste; laguntza eman: *Gobernuak babesten du Zentru hori.*

babespean; / sin. aterpean, protekziopean /
bago; / sin. pago / HAYA.
bahe; CRIBA, CEDAZO.
bai zera!; ezta pentsatu ere!
baibentsu; alde batetik bestera balantzan; TAMBALEANTE.
baimen; zerbait egiteko eskubide-hitza ala iskribua: *baimena eskatu*.
bakar; bat baino ez: *liburu bakar hau daukagu*.
bakarti; bakarrik egotea gustatzen zaiona: *artzaia gizon bakartia omen da*; SO-LITARIO.
baldintza; / sin. kondizio /
bailea; BALLENA.
bana; bakoitzak bat; *hartu pezeta bana!*
banakuntza; / sin. bereizketa, separazio /
bando; / sin. pregoi /
baratzuri; / sin. berakatz / AJO.
barazki; baratzeko fruitua; HORTALIZA.
barik; *euskara barik ez da Euskal Herririk* / sin. gabe /
barraskilo; / sin. karakola /
barreka; barre egiten: *barreka irten ginen denok zinematik*.
basabiku; basoan hazten den bikondoa.
basakeria; egite basatia; SALVAJADA.
basamortu; / sin. desertu /
basati; / sin. basoko / SALVAJE.
basatipula; basoan hazten den tipula; CEBOLLA SILVESTRE.
bat batean; / sin. bapatean, derrepente /
bataio; BAUTISMO.
bateldun; / sin. txalupari, batelari /
batera; *denok batera hitz egiten baduzue...* / sin. batean, baturik /
batez beste; *batez beste astean hamar ikastordu ditugu*; TERMINO MEDIO.
batez ere; *euskaldunberrientzat prestatu dugu, batez ere, liburu hau* / sin. berezi-ki / ESPECIALMENTE, PRINCIPALMENTE.
bazkide; bazkun kidea / sin. sozio /
bazter; *kamino bazterreara eraman dut autoa* / sin. zoko, ertz /
bazter, baztertu, baztertze; albora eraman; ARRINCONAR.
begiluze; / sin. kurioso /
begiramendu; MIRAMIENTO.
beharbada; / sin. agian /
beharrean; *atsoa esan beharrean, astoa esan duzu* / sin. ordezt /
beharrezko; behar dena: *beharrezko dugu dirua*.
beherantz; *Boltsako akzioak beherantz doaz* / ant. gorantz /
behin; aldi batetan: *behin Txanogorritxu...* / ant. sarritan /
behin betiko; DE UNA VEZ PARA SIEMPRE.
behinbehineko; *behinbehineko metodoa* / ant. behinbetiko / PROVISIONAL.
behingoan; / sin. berehala /
behinola; *behinola Fernando Amezketarra...* / sin. behin batean /
behor; zaldiaren emea.
belarjale; belarra jaten duena.
belarri erne; / sin. belarri bizkor / OIDO FINO.
belartza; belar asko dagoen zelaia.

belatxinga; CORNEJA.
belaunaldi; GENERACION.
belauniko; belaunak lurtean izanik: *belauniko eskatuko dizut*.
bele; *beleak zozoari ipurbeltz*. CUERVO.
benetako; / sin. egiazko /.
berandu; ordua pasa eta gero: *gaur ere berandu!* / ant. goiz /.
beraz; / sin. orduan / . POR LO TANTO.
berehala; *berehala deituko zaitu* / sin. laster /.
bereiz, **bereizi**, **bereizte**; *senar emazteak elkarrengandik bereizi ziren* / sin. separa(tu) /.
bereizkeria; *Elkarte honetan ez dugu bereizkeriarik* / sin. preferentzia, diskriminazio /.
berez; inoren influentziarik gabe: *berez ikasi du horrek*.
berezi; besteak bezalakoa ez dena: *ardo berezia edan dugu* / sin, aparta, espezial /.
berezko; inoren influentziarik gabe: *berezkoa du horrek indarra*.
berorrek; (errespetuzko tratamendua 2. pertsona singularrean) / sin. zuk /.
berri eman, **emate**; / sin. notizia eman /.
berritsu; asko hitz egiten duena: *ume berritsua*/ant. mutu /.
bertako; / ant. kanpoko /.
bertan; toki berean / sin. hantxe /.
besarka, **besarkatu**, **besarkatze**; beso artean maitekiro har(tu): *elkar besarkatu zuten*.
bestalde; / sin. gainera / POR LO DEMAS.
bestela; beste modu batetan: *jan hori! bestela gaixotuko zara*.
bezain; (kualitatezko berdintasuna adierazten duen partikula): *zu bezain ondo ez*.
bidagurutze; bide bi edo gehiago batzen diren puntua.
bidaiari; bidaiatzen dena: *Txori bidaiaria*; VIAJERO.
bidal, **bidali**, **bidaltze**; ENVIAR.
bide batez; aldi berean: *bide batez, pakete hau ere eraman!*
bider; *zenbat bider esan behar dizut hori?* / sin. aldi /.
bidez; *negozia ketaren bidez lortuko dugu* / sin. bitartez / . POR MIEDO DE.
bidezko; / sin. legezko / LEGITIMO.
bien bitartean; ENTRE TANTO.
bigun, **bigundu**, **biguntze**; / ant. gogor(tu) /.
biharamun; hurrengo egun: *biharamunean eskolara!*
bihur, **bihurtu**, **bihurtze**; berriro izan: *80 urtez gazte bihurtu zara* / sin. itzul(i), buelta(tu) / REGRESAR, VOLVER A SER.
bihurri; / sin. oker / ant. zuzen /.
biki; beste haur batekin jaioa.
bikote; bi gauzak (pertsonak) osotzen duten multzoa; PAREJA.
biku; / sin. piku / HIGO.
bikuondo; bikuak ematen dituen arbola.
bila, **bilatu**, **bilatze**; BUSCAR.
bila; bilatzen: *perretxiko bila joan ginen mendira*; EN BUSCA DE.
bilaka, **bilakatu**, **bilakatze**; itxura berria har(tu) / sin. bihurtu(tu) /.
bilatzaile; bila ari dena.
bilduma, **bildumatu**, **bildumatze**; *tximeletak bildumatzen ditut* / sin. kolekzioa(tu) / .

biluz, biluztu, biluzte; arropak ken(du).
biluzik; jantzirik gabe / sin. larrugorririk / ant, jantzita /.
biribil, biribildu, biribiltze; REDONDEAR.
birigarro; MALVIZ.
birika; PULMON.
birjaio, birjaiotze; berriro jaio.
birritan; bi aldiz: *birritan esan dizut.*
bitarteko; beste batengana bidea: *horrekin hitz egin nahi badugu, bitarteko bat behar dugu* / sin. ararteko / INTERMEDIARIO.
bitxi; normala ez dena: *gauza bitxi bat esan du* / sin. arraro /.
bizargin; bizarra eta ilea moztzen duena.
bizartegi; / sin. ileapaindegi /.
bizi, bizitu, biziitze; biziago egin; AVIVAR.
bizi lege; LEY DE VIDA.
bizidun; / ant. bizigabe /.
biziki; / sin. biziro / VIVAMENTE.
bizkar; gorputzaren atzeko alde: *bizkar gainean.*
biztanle; / sin. bizilagun / HABITANTE.
bular; *bularrik gabe utziko naute;* PECHO.
burezur; buruko hezurra.
burruka, burrukatu, burrukatze; talde batek bestea menperatzeko ahaleginak egin: *Errekalde kaleko burruka.*
burusi; oherako estalkia: *hiru burusi behar ditut neguan ohean;* MANTA.
buruzagi; talde baten buru eta gidari.
buztan; RABO.
buztanpean; buztanaren azpian.
buztin; ARCILLA.

D

dakarrela; ekartzen duelarik; TRAYENDO.
damu; gaizki eginak berez sortzen duen sentimendu mingarria: *damu naiz.*
darabilen; *arma darabilena beti dabil arriskutan* / sin. erabiltzen duen /.
dardara; TEMBLOR, VIBRACION.
dardarkada; TEMBLOR.
debeka, debekatu, debekatzte; *erretzea debekatuta dago* / sin. galeraz(i) / PROHIBIR.
dena dela; SEA LO QUE SEA.
denerako; *denerako balio du* / ant. ezertarako ere ez /.
derrigorrez; *soldadutzara joan behar derrigorrez* / sin. nahi ta nahi ez, beharrez /.
desager, desagertu, desagertze; ikusezin bihur(tu): *berehala desagertu zen* / ant. ager(tu) /.
digante; / sin. gizandi, erraldoi / GIGANTE.
dilindan; zintzilik mugimenduan: *elizako kanpaiak dilindan.*
diotena; esaten dutena.

dirudi; *euria dakarrela dirudi*; PARECE.

dirutza; diru asko.

diztiratsu; BRILLANTE.

dohainik; ezer ordaindu gabe: *euskara denontzat eta dohainik* / sin. *debalde* /

dohatsu; / sin. *zoriontsu* / ant. *dohakabe* / BIENAVENTURADO.

dote; emakumeak ezkontzara ala monja sartzean, eramaten duen dirua.

dotore; *dotore jantzita zaude* / sin. *ederki* /

duela; orain dela: *duela astebete*.

E

ebaki, ebakitze; tresna zorrotzez zati(tu): *besoak ebakiko dizkidate*.

ebatura; / sin. *ebaki* / CORTE.

edonork; / sin. *nornahik, edozeinek* /.

edozer; *tresna horrek edozertarako balio du* / sin. *zernahi* / CUALQUIER COSA.

egoera; egoteko era: *egoera txarrean aurkitzen gara* / sin. *situazio* /.

egoki, egokitu, egokitze; egokitasuna eman: *antzerkia egiteko, eleiza egokitu dute* / sin. *molda(tu)* /.

egos, egosi, egoste; COCER.

eguntsenti; egunaren hasiera: *atzo eguntsentian etxeratu zinen* / sin. *alba* /.

egurgin; basoan egur egiten duen langilea.

ehiza; CAZA.

ehiza, ehizatu, ehizatz; txoriak eta piztiak harrapa(tu).

ehiztari; piztiak eta hegaztiak harrapatzen dituen: *gure arbasoak ehiztariak ziren*.

ehortz, ehortzi, ehortze; hila obira(tu) / sin. *lur eman* /.

ehundaka; *ehundaka lagun bildu ginen*; CENTENARES.

ehundura; ehunen egitura; TEXTURA.

ehunen bat; / sin. *ehun inguru, ehun gutxi gorabehera* /.

ei; / sin. *omen* /.

ekialde; eguzkia irteten den aldea / sin. *sorkalde* / ant. *sarkalde, mendebalde* /.

ekinaldi; / sin. *aktuazio* /.

elikadura; janari eta edaria.

elikagarri; NUTRITIVO.

elizpe; elizaren behe aldea: *elizpean ikasi zuen pelotan*.

elkar; batak bestea: *elkar maite dute*.

elkarrekin; bata bestearekin: *elkarrekin joan ginen mendira*.

elkarren; bata bestearen: *elkarren etsai dira*.

elkarren artean; bata bestearen laguntzaz.

elkarri; batak besteari.

elkarri so; bata besteari begira: *maitaleak beti elkarri so*.

eltze bete gurin; gurinez betetako eltzea: *baso bete ardo*.

enankortasun; fruitu ugari emateko ahalmena / sin. *produktibi-tate* /.

enar; / sin. *elaia* / GOLONDRINA.

enbor; *hiru zati ditu zuhaitzak: sustraia, enborra eta adarrak*.

endreda, endredatu, endredatze; / sin. *nahas(tu), enreda(tu)* /.

entzute; *entzute handiko gizona* / sin. *ospe, izen, fama* /.

epe; zerbait egiteko aurretik jartzen den denbora: *epetan ordainduko duzu*.
era batera; aldi berean; AL MISMO TIEMPO.
era berean; modu berdinean: *senarra trenez joan zen eta emaztea era berean*
 / ant. alderantziz /.
erabaki; *oraintxe hartu behar duzu erabakia* / sin. dezisio /.
erabaki, erabakitze; asmoa har(tu): *Ameriketara joatea erabaki dut*; DECIDIR.
erabil, erabili, erabiltze; *euskaldun askok ez du bere hizkuntza erabiltzen*; USAR.
eragile; eragiten duena; egin erazlea: *liburu honen eragilea Euskaltzaindia da*;
 PROMOTOR.
eragin; *maixu horrek eragin handia du ikasleengan* / sin, influentzia /.
eragin, eragite; egin eraz(i), mugi eraz(i): *eragiok mutil aurreko danbolin horri*;
 HACER MOVER.
eragozpen; / sin. zailtasun, oztopo /.
eraiki, eraikitze; jaiki eraz(i): *etxe berria eraiki behar dugu hemen*.
eraits, eraitsi, eraiste; esnea atera: *behiak eraitsi ditut* / sin. jaits(i) /.
erakar, erakarri, erakartzte; ekar eraz(i); ATRAER.
eramale; eramaten duena.
erantz, erantzi, erantzte; jantzia ken(du) / ant. jantz(i) /.
erauz, erauzi, erauzte; *tximistak zuhaitza erauzi du*; ARRANCAR.
eraztun; hatzamarrean eramaten den bitxia.
erbi; *erbi txakurra*; LIEBRE.
erdibana, erdibanatu, erdibanatze; *irabaziak bion artean erdibanatuko ditugu*;
 REPARTIR A MEDIAS.
erein, ereite; *garia erein*; SEMBRAR.
ereintza; *harriak ereintzak hondatu dizkigu aurtan*; SEMBRADO.
eritasun; / sin. gaixotasun, gaitz /.
erlauntza; COLMENA.
erlax; RELAX.
erlaxa, erlaxatu, erlaxatze; RELAJAR.
erlaxapen; RELAJACION.
erle; ABEJA.
ernagarri; *kafea ernagarria da* / ant. lasaigarri /.
ernal, ernaldtu, ernaltze; *arrak emea ernaltzen du*; FECUNDAR.
ernalerazle; ernalmena bizkortzen duena.
ernalmen; ernaltzeko mena (ahalmen, kapazidade).
ernari; umedun dagoen emea.
erne, ernetze; landarea sortu eta hazten has(i).
ero; zentzua galdu duena / sin. zoro /.
erorrera; / sin. jauskera / CAIDA.
eroturik; burua galdurik / sin. zoraturik /.
erpe; *deabruaren erpea baino gaiztoagoa da* / sin. hatzapar / GARRA.
erratz; / sin. isats / ESCOBA.
erreka; ARROYO.
errementaldegia; burdinezko lanak egiteko lantokia.
errepide; errege-bidea / sin. kamino / CARRETERA.
erretore; RECTOR, PARROCO.
erretxina; RESINA.
erritu; RITO.
erro; sustrai handia: *errotik atera dugu zuhaitza*.

erromes; *Arantzazura erromes;* PEREGRINO.
erromesaldi; / sin. peregrinazio /
errota; *haize errota;* MOLINO.
errotarri; errotako harri biribil handia; PIEDRA DE MOLINO.
errudun; *nor ez da errudun?* / sin. kulpadun / ant. errugabe /
erruki; / sin. pena /
errukitsu; / ant. errukigabe / COMPASIVO.
esate baterako; / sin. adibidez, halanola /
eser, eseri, esertze; / sin. jezar(i).
eska eraz, erazi, erazte; eskatzera behar(tu).
eskabide; eskatzen dena: *entzun gure eskabidea* / sin. eskari /
eskailu; BERMEJUELA.
eskain, eskaini, eskaintze; *laguntza eskaintzen dizut* / sin. opa(tu), opa egin / OFRECER.
eskale; diru eske bizi den pobrea / sin. eskeko /
eskari; eskatzen dena: *Jainkoak entzun du zure eskaria* / sin. eskaera, eskabide, erregu /
eskasia; / sin. pobrezia /
eskegi, eskegitze; zintzilik jar(ri); lurra ikutu gabe lot(u) / sin. eseki /
eskubide; *langileen eskubideak;* DERECHO.
eskutitz; / sin. gutun, idazki, karta /
esnegai; esneaz egiten diren janariak.
estal, estali, estaltze; / sin. tapa(tu) /
estalarik; / sin. tapaturik /
estalki; goialdea tapatzeko zerbeit: *estalki ederraren azpian, barne ustela.*
estu; zabalera gutxikoa: *kale hestua* / ant. zabal /
estualdi; mementu estu eta larria; APURO.
etengabe; gelditu gabe: *ikasten ari gara etengabe.*
ets, etsi, etsitze; esperantza gal(du): *Euskadik ez du etsiko* / sin. amore eman /
etsai; / sin. arerio / ant. lagun /
etsipen; esperantzarik eza.
etxerantz; norantz? deklinabide-kasua: *etxerantz nentorren.* HACIA CASA.
etxerantzean; etxerantz etortzean.
etzan, etzate; *ohean etzanda hobeto nago* / ant. jaiki /
etzanda; *belarretan etzanda* / ant. zutik /
euspen; / sin. erresistentzia /
euts, eutsi, euste; gauza bat ez galtzeko, berari indarrez lot(u): *Lege Zaharrari eutsi!* RESISTIR.
ez dago bizitzerik; / sin. ezin da bizi /
ezar, ezarri, ezartze; / sin. ipin(i) /
ezbehar; / sin. istripu, zorigaitz, akzidente /
ezer gutxi; gauza askorik ez.
ezezagun; / ant. ezagun /
ezizen; izen ez dena / sin. gaitzizen, izenorde / MOTE, SOBRENOMBRE.
ezkonberri; duela denbora gutxi ezkondu dena: *Zorionak ezkonberriei.*
ezkongai; senargai edo emaztegaia.
ezkur; artearen fruitua; BELLOTA.
ezkuta, ezkutatu, ezkutatzte; bistatik gal(du): *botila hori ezkutatu behar dut* / sin. gorde /

ezkutaketa; / sin. ezkutatze / ant. agerketa / OCULTAMIENTO.
eztabaida; eritzi borroka / sin. diskusio /
eztanda egin, egite; hots haundiz leher(tu).
ezti; erleek egiten duten janari gozoa: *eztia bezain gozo*.
eztul; *txakur ezsula*; TOS.

F

finka, finkatu, finkatze; *aditzen iragana hobeto finkatu behar duzu* / sin. erro-
(tu), oinarri(tu) /
forjari; forjan lan egiten duena.
funts; *gizon horrek ez du funtsik* / sin. oinarri, fundamentu /.

G

gai; *gai likidoak* / sin. materia /
gainbehera; goitik behera jaistea / sin. dekadentzia /
gaindi, gainditu, gainditze; *horrek marka guztiak gainditu ditu*; SUPERAR.
gainera; *berandu eta gainera mozkortuta etorri zen*; ADEMÁS.
gaitz; MAL.
gaixotasun; / sin. eritasun / ant. osasun /
gal, galdu, galtze; / ant. aurki(tu) /
galai; GALAN.
galant; *emakume galanta* / sin. eder, bikain /
galdezka; / sin. galde eginez, galdetzen /
galeraz, galerazi, galerazte; *muga pasatzea galerazi didate* / sin. eragotz(i), tra-
ba(tu), debeka(tu) / IMPEDIR, OBLIGAR A PERDER.
galtzapeko; galtzen azpian dagoena.
galzorian; galtzeko arriskuan.
ganbara; baserrietako goi aldea: *liburu zaharrez beteta dago gure ganbara*.
garau; ale lehor txikia.
garbi, garbitu, garbitze; / sin. erahil /
garesti; asko balio duena / ant. merke /
garia jo, jotze; TRILLAR.
garizuma; CUARESMA.
garondo; lepoaren atzeko aldea / sin. lepondo / NUCA.
garraio; toki batetik bestera gauzak eramatea: *Garraio Enpresa*.
garrasika; / sin. oihuka, orroaka / A GRITOS.
garratz; *ardo garratza* / sin. mingots, latz / ant. gozo, atsegin /
gau, gautu, gautze; *gaua etor(ri)* / sin. ilun(du) /
gaubela; *gauetz defuntuari egiten zaion belatorioa*.
gauzain; *gauetz etxea eta inguruak zaintzen dituena*; SERENO.
gazte, gaztetu, gaztetze; *gazte egin: jantzi horrek hamar urtez gaztetzen zaitu* /
ant. zahar(tu) /.

gehi, gehitu, gehitze; / sin. gehiago(tu), ugari(tu) / ant. gutxi(tu) /
gehiegi; (asko, gehiago, gehien, gehiegi): *hori gehiegi da* / ant. gutxiegi /
geldo; arintasunik gabekoa / sin. makal / ant. bizkor /
gerezi; CEREZA.
gerezionario; gereziak ematen dituen arbola.
gerlari; / sin. gudari /
gero eta ...ago; *gero eta gehiago ikasten ari naiz*; CADA VEZ MAS.
geroztik; handik aurrera: *geroztik askotan ikusi dut* / sin. harrezkero / A PARTIR DE ENTONCES.
gerra ondoa; gerra ondoren datorren sasoia; POSTGUERRA.
gerri; CINTURA.
gertakizun; gertatuko den zerbait: *oraindik gertakizun dago*.
gezi; FLECHA.
gibel; *gibeleko mina*; HIGADO.
gisa; *Lizardiren gisara idatzi nahi du* / sin. modu, era /
gizaixo; giza gaixoa: *gizaixo kalean hil zen.* / sin. zoritzarreko /
gizaki; giza-pertsona.
gizaseme; gizaki arra: «gizasemea eta emakumea egin zituen, Jainkoak».
giza-zerebro; gizasemearen zerebroa.
gizen; / sin. lodik / ant. argal /
gogo; *ez daukat bazkaltzeko gogorik*; MENTE, ESPIRITU, VOLUNTAD.
goiz; ordua baino lehenago / ant. berandu /
golda, goldatu, goldatze; lurra goldeaz iraul(i); ARAR.
goldaketa; goldeaz lurra iraultze lana.
golde; lurra iraultzeko lantresna; ARADO.
golko; *golkoa bete diru*; SENO.
gomendio; / sin. errekomentazio /
gor; entzumenik ez duena.
gordin; CRUDO, VERDE, OBSCENO.
goren; *munduko mendirik gorena Everest da* / sin. altuen /
gori; sutan berotutako mineraleak hartzen duen kolore gorria: *ikatz gorria*.
gori, goritu, goritze; sutan berotutako burdinaren kolore gorria har(tu).
gormutu; entzumenik eta mintzamenik ez daukana.
gorotz; abereen kaka.
gorpu; gorputz hila, bizigabea.
gorputzadar; gorputzaren adarrak; EXTREMIDAD.
gorroto; / ant. maitasun /
goza eraz, erazi, erazte; gozatzeraz bultza(tu) / ant. sufrieraz(i) /
gozagarri; gozo egitekoa: *kafe honek gozagarria behar du*.
gupidagabe; / sin. errukigabe / ant. errukitsu / CRUEL.
gura izan, izate; / sin. nahi izan /
gurdi; idiek bultza ohi duten gurpildun garraio-tresna / sin. burdi / CARRO.
gurdi ta guzti; CON CARRO Y TODO.
gurean; *gurean ez dago txakurrik* / sin. gure etxean /
gurpil; *bizikletak bi gurpil dauzka, autoak lau*.
gurutza, gurutzatu, gurutzatze; zeharka igaro: *kalea gurutzatzean auto batek jo zuen*.
gutxi, gutxitu, gutxitze; *pagoak gutxitu egin dira gure mendietan* / sin. urri(tu) / ant. gehi(tu), ugai(du) /

gutxienez; *ehun kilo ditu gutxienez* / ant. *gehienez* /
guztiz; *guztiz ondo nabil* / sin. *erabat* /.

H

habia; txoriek eta piztiek humeak ateratzeko daukaten tokia.

haginka egin; hortzak sar(tu): *kontuz txakurrarekin! haginka egiten du eta!*
/ sin. *koska egin* / MORDER.

hain; *hain polita da!*; TAN.

hain zuzen; *horixe esan nahi nuen, hain zuzen* / sin. *prezeski* /.

hainbeste; (honenbeste, horrenbeste, hainbeste) / 1., 2. eta 3. pertsonetan / *non ikasi duzu horrenbeste?*; TANTO.

haitz; *Haitzgorri* / sin. *arroka* /.

haitzulo; haitz zuloa / sin. *koba* /.

haizpe; haitzaren behea; GRUTA.

hala; (honela, horrela, hala); modu hartan: *hala bedi.*

halako... non...; TAN... QUE...

halako batetan; EN UNA DE ESTAS.

hamaika; kopuru handia / sin. *makina bat* /.

hankapera, hankaperatu, hankaperatze; / sin. *zabal(du), menpera(tu)* /.

hara han; (hona hemen, horra hor, haran han): *hara han itsasoa!*

haran; mendi arteko zelai luzea / sin. *bailara* /.

harantz; (han, hara, harantz): *joan harantz!*

haril; hariz egindako pilotaren antzeko bola; OVILLO.

haritz; ezkurak ematen dituen zuhaitza; ROBLE.

harreman; *horiekin ez dugu harremanik* / sin. *hartueman, erlazio* /.

harresi; harriz egindako hesia / sin. *murraila* /.

harri eta larri; / sin. *harrituta eta larrituta* /.

harrigarri; *gauza harrigarriak esaten ditu*; ASOMBROSO.

harrika; *harrika hil dute piztia*; A PEDRADAS.

harritzar; harri haundia.

harro; inor baino gehiago dela uste duena: *santurtziarrak harro dabilta aurten.*

harroaren harroz; DE PURO ORGULLO.

harrogarri; ENORGULLECEDOR.

harroputz; VANIDOSO.

harroturik; / sin. *harro* / ant. *apal* /.

hartxori; ESTORNINO.

hasi baino ez; / sin. *hasi besterik ez, hasi bakarrik* /.

hatsitu; usain txarreko.

hatz; *eskuak bost hatz dauzka* / sin. *hatzamar* / DEDO DE LA MANO.

haurdun; emakume ernaria; EN CINTA.

hauskaitz; nekez hausten dena / sin. *gogor* / ant. *hauskor* /.

hauta, hautatu, hautatze; batzuren artean bat har(tu): *alkate berria hautatu dugu* / sin. *aukera(tu)* /.

hautaketa; / sin. *selekzio* /.

hauts; *hautsontzi berria ekarri dut*; POLVO.

hauts, hautsi, hauste; / sin. puska(tu), apur(tu) /
haz, hazi, hazte; landareak eta animaliak handi(tu).
hegada; VUELO.
hegaz egin, egite; *oraindik ez du hegaz egiten ikasi;* VOLAR.
hegazti; hegaldun eta lumadun animalia.
hego; *hegoak ebaki banizkio;* ALA.
hel, heldu, heltze; *negua heldu da* / sin. iritx(i), ailega(tu) /
hel, heldu, heltze; eskuz euts(i): *lepotik heldu zion.*
hel, heldu, heltze; *laster helduko dira gereziak;* MADURAR.
helburu; lortu nahi dena: *azken helburua.*
herensuge; Euskal Mitologiako suge beldurgarri handia; DRAGON.
herrira, herriratu, herriratzte; herrira etor(ri).
heste; sabeleko tripa luzeak.
hestu, hestutu, hestutze; / sin. apura(tu) / ant. zabal(du) /
hestuasun; / sin. larritasun / APURO.
heze, hezi, hezitze; *lehoiak hezitzen ditu* / sin. otzan(du) / EDUCAR, DOMAR.
heze; / ant. siku, lehor / HUMEDO.
hezadura; HUMEDAD.
hil zorian; A PUNTO DE MORIR.
hilberri; orain dela gutxi hil dena / ant. jaioberri /
hilik; *hilik aurkitu dute* / sin. hilda / ant. bizirik /
hiri giro; hiriko ambientea.
hitz batez; / sin. laburki /
hobe, hobetu, hobetze; hobe egin: *eguraldia hobetu da* / sin. hobeago(tu) / ant. txar(tu) /
hodei; *hodei gorri, haize edo euri* / sin. laino /
hona; HE AQUÍ.
hona hemen; *hona hemen, gure alkate berria;* HE AQUÍ.
honaino; (noraino galderari erantzun); HASTA AQUÍ.
honantz; (hemen, hona, honantz): *etor honantz!*
honda, hondatu, hondatze; *kutsadurak hondatu egin ditu gure ibaiak* / sin. desegin, lur jo / DESTROZAR, ARRUINAR.
hondamendi; *harrokeria izan da neska horren hondamendia;* RUINA.
hondo; goitik behera neurria / sin. sakonera /
honela; era(modu) honetan: *honela esaten zuen gure aitonak.*
honen; (honen, horren, hain); 1., 2., 3., pertsona; TAN.
honenbeste; *honenbeste ordaindutako etxea!*; TANTO.
horren; *horren txarto zaude!*; TAN.
hortz; janaria mastikatzeko ahoan dauzkagun hezur zuriak.
hosto; HOJA VERDE.
hots; / sin. hau da, alegia, halanola /
hotz, hoztu, hozte; beroa galdu eta hotz bihur(tu) / ant. bero(tu) /
hozkil; kemenik gabea / sin. koldar, beldurri / ant. ausart, kementsu / COBARDE.
hurbil; *Aitzgorri, Urbiatik hurbil dago* / sin. gertu / ant. urrun /
hurbil, hurbildu, hurbiltze; hurbil etor(ri): *unea negarrez hurbildu zait* / sin. gertura(tu) / ant. urrun(du), urrutira(tu) /
hurrengo; / ant. aurreko / SIGUIENTE.
hurrera, hurreratu, hurreratzte; gertura joan / etor(ri) / sin. hurbil(du), gertura(tu) / ACERCARSE.

huts; *huts egin du;* FALLO.

huts egin, egite; *hutsik egin gabe jokatu du;* FALLAR.

huts; *mitoak, hitz hutsak;* PURO.

I

idorte; *euririk eza / sin. lehorte / ant. eurite /.*

igar, igarri, igartze; *gertakizun bat aurretik jakin: ezetz igar? / sin. asma(tu) /.*

igaro, igarotze; / *sin. pasa(tu), iragan /.*

igeltsero; *igeltsuz (zementuz) lan egiten duena.*

igeri egin, egite; *uretan hondoratu gabe mugi(tu): arrain batek bezala igeri egiten du / sin. ugar egin /.*

igertoki; *igeri egiteko tokia;* PISCINA.

igurtz, igurtzi, igurzte; *behin eta berriz gainetik pasa(tu): eskuak igurtz(i) / sin. igortz(i) /.*

ihar; *edertasuna galdu duena / sin. zimel /.*

ihar, ihartu, ihartze; *landarea urik gabe gera(tu) / sin. sika(tu) /.*

ihardun; *ihardun neketsua / sin. ekintza, aktibitate /.*

ihesi; / *sin. ihes egin ez, ospa egin ez, hanka egin ez, eskapatu /.*

iheskor; *ihes egiten duena: txakur iheskorra; FUGAZ, HUIDIZO.*

ikara, ikaratu, ikaratze; *bizar horrekin umea ikaratuko duzu / sin. beldur(tu) /.*

ikerketa; / *sin. inbestigazio /.*

ikerlan; / *sin. inbestigazio /.*

ikerlari; *ikertzen ari dena; INVESTIGADOR.*

ikuskizun; *ikusteko dagoena: hori, ikuskizun dago oraindik.*

ikuspegi; *zerbait ikusteko modua; ASPECTO.*

ikustezin; *ikusit ezin dena; INVISIBLE.*

ilargi bete; LUNA LLENA.

ileak kizkurturik; *ileak puntan.*

ilenti; *egur zati gorria.*

iltze; CLAVO.

ilun; *argirik eza / ant. argi /.*

ilunabar; *gauaren hasiera / sin. iluntze, arrats /.*

indiano; *Ameriketatik aberats etorri dena.*

industriagintza; / *sin. industrializazio /.*

ingura, inguratu, inguratze; / *sin. gertura(tu), hurbil(du) /.* ACERCARSE, RO-DEAR.

inguru; *gutxi gorabehera: hiru kilometro inguru dira.*

inguruko; *bi kilo inguruko oilaskoa / sin. gutxi gorabeherako /.*

inoiz; *lehendik ere inoiz elkar ikusi dugu, ezta? / sin. noizbait / ALGUNA VEZ.*

inola ere; / *ant. nolabait / DE NINGUNA MANERA.*

inola ere ez; *hori ez dut inola ere egingo; DE NINGUNA MANERA.*

intsentsontzi; *intsentsua edukitzeko ontzia.*

inurri; / *sin. txindurri / HORMIGA.*

ira; HELECHO.

irabaz, irabazi, irabazte; *Kaikuk irabazi du / ant. gal(du) /.*

irabazi; *denda honek irabazi bikainak eman dizkigu* / sin. ganantzia / ant. gale-
ra /.

iragan, iragate / sin. igaro, pasa(tu) /.

iragar, iragarri, iragartze; aditzera eman, berri eman: *euskarazko klaseak egunkarian iragarri ditugu*.

iragarki; ANUNCIO.

iragarpen; gertakizunen berri ematea; VATICINIO.

iragaz, iragazi, iragazte; likidoa garbitzeko leku hestu batetik pasa(tu); FIL-
TRAR, COLAR.

irain; / sin. desohore / INJURIA.

iraingarri; / sin. desohoretsu / ULTRAJANTE.

irakin, irakite; *urak 100 gradutan irakiten du*.

iratzar, iratzarri, iratzartze; *iratzargailua* / sin. esnaraz(i) /.

iraul, irauli, iraultze; REVOLUCIONAR.

iraun, iraute; izaten jarrai(tu): *elurteak aurten luzaro iraungo du*.

iraupen; denbora luzean izaten jarraitzea / sin. jarraipen /.

irents, irentsi, irenste; ahotik sar(tu) eta bat batean barrura(tu): *sugeak xagua irentsi du*. / sin. traga(tu) /.

irribarre; *irribarretxo bat mesedez*; SONRISA.

irrista, irristatu, irristatze; *kaminu izoztuan errez irristatzen da* / sin. laban egin,
irrist egin / RESBALAR.

irtenberri; duela gutxi irten dena; RECIEN SALIDO.

irudi; FIGURA, IMAGEN.

irudi, iruditu, iruditze; *ederra iruditzen zaigu*; PARECER.

isaskada; ESCOBAZO.

isileko; *isileko poltsa* / sin. sekretu /.

istilu; arazo larria.

istripu; / sin. akzidente, ezbehar /.

itaizur; teilatutik tantaka erortzen den ura: *gela horretan itaizura dago* / sin.
itogina /.

ito, itotze; arnasa gal(du): *itsasora erori eta ito egin zen*.

itsasadar; itsasoaren adarra: *Gernikaldeko itsasadarra*; RIA.

itsats, itsatsi, itsaste; gauza bat beste baten azalean lot(u): *lapa harkaitzari itsasten zaio*.

itsu; ikusmenik ez duena.

itsu, itsutu, itsutze; ikusmenik gabe gera(tu).

itsusi; *itsusi zaude jantzi horrekin* / ant. polit /.

itxaron, itxarote; zain egon: *itxaron apur bat mesedez*.

itzal; *zuhaitzaren itzalean, atsedean hartuko dugu* / sin. gerizpe / SOMBRA.

itzal, itzali, itzaltze; *pipa itzali zait berriro* / sin. amata(tu) / ant. piz(tu) /.

itzar, itzarri, itzartze; *goizeko lauretan itzarri naiz* / sin. esna(tu) / ant, loak har-
(tu) /.

itzarrik; *goizeko bostetan itzarrik egoten naiz egunero* / sin. esanaturik / ant. lo-
tan /.

itzul, itzuli, itzultze; *zer ordutan itzuliko zara etxera?* / sin. bihur(tu), buelta-
(tu) /.

izaki; (EL) SER.

izan arren; *txikia izan arren, irabazi egin du* / sin. izanda ere, nahiz eta... izan /.

izan ere; EN EFECTO.

izan ezik; *zu izan ezik, beste guztiak joango dira mendira* / sin. ezik, salbu / ant. ez ezik / EXCEPTO.
izerditan; izerdi egiten: *izerditan etorri da menditik*; SUDANDO.
izorratu; / sin. gaixotu /.
izorraturik; FASTIDIADO.
izotz; ur jelaztatua: *goiko mendian elurra dago, errekaldean izotza* / sin. lehia /.
izozte; izotz denbora / sin. leialdi /.
izpi; argi hari mehea: *X izpiak*; RAYO.
izu; beldur handia.
izu, izutu, izutze; biziki beldur(tu).
izurri; gaixotasun zital eta kutsakorra; EPIDEMIA.
izurrite; izurri sasoi; EPIDEMIA.
izuturik; / sin. beldurturik /.

J

jagon, jagote; *txakurrak etxea jagoten du* / sin. zain(du) /.
jaioberri; orain dela gutxi jaiio dena: *zorionak jaioberriari*.
jaits, jaitsi, jaiste; goitik behera joan edo eraman / sin. behera(tu) / ant. igon /.
jakinez gero; jakin eta gero: *jakinez gero erraza da*.
jan eraz, erazi, erazte; jatera behar(tu).
jan truke; lanaren ordaina janaria denean: *jan truke, baserrian lan egiten, euskara ikasi du* / sin. tripa truke /.
jan-edana; / sin. janari eta edaria, elikadura /.
jantz, jantzi, jante; / ant. erantz(i) /.
jaramonik; / sin. kasurik /.
jario; *a ze hitz jarioa duen berritsu horrek!*; FLUJO.
jarleku; jezartzeko lekua: *jarleku hau hutsik dago* / sin. esertoki /.
jarraian; *zinemari jarraian elkarrizketa egingo dugu* / sin. segidan /.
jarrera; *jarrera horretan ez duzue ezer irabaziko* / sin. portaera /.
jasale; sufritzen duena; VICTIMA.
jasan, jasate; *haginetako min hau ezin dut jasan* / sin. sufri(tu), aguanta(tu) /.
jatorriz; *jatorriz Arrigorriagakoa zen*; ORIGINARIAMENTE.
jauregi; / sin. palazio /.
jaurreri; jaun herria; SEÑORIO.
jaurtiki, jaurtikitze; urrunera bidal(i) / sin. bota /. LANZAR.
jaus, jausi, jauste; *jausiko zara!* / sin. eror(i) /.
jauzika; / sin. saltoka /.
jazo, jazotze; *zer jazotzen da hor?* / sin. gerta(tu) /.
jelazta, jelaztatu, jelaztatze; *arrain jelaztatua* / sin. konjela(tu) /.
jentila; kristau fedea sinesten ez zuen euskaldun zaharra.
jipoi; / sin. paliza /.
jiraka; bueltak emanez: *lurra, eguzkiaren inguruan, etengabe jiraka dabil* / sin. bueltaka /.
joera; *txakur horrek joera gaiztoak ditu* / sin. zaletasun / TENDENCIA.
jokaera; / sin. portaera /.
jorra; lur landuetan belar txarrak kentzeko egintza: *artajorra*.

josi, josi, joste; *botoiak josi.*
jostailu; jolas egiteko tresna.
Juntetxe; Junta etxea.
juxtuan; / sin. juxtu juxtu, ozta ozta /.

K

kaiola; txoriak eta piztiak gordetzeko burdinezko kaxa; *txorinoak kaiolan tris-
terik du kantatzen.*
kalte; ondorio txarra: *zigarroak kalte egingo dizu* / sin. gaitz /.
kare; CAL.
katabute; / sin. zerraldo, ataute /.
katilu; *katilu bat esne;* TAZON.
katuño; katu txiki maitea.
keinu; eskuen edo begien bitartez, adierazpen ixila; MUECA, SEÑA.
keltar; CELTA.
ketxuera; ketxua-indioen hizkera.
kezka; **kezkatu, kezkatze;** *etorkizunak kezkatzen gaitu* / sin. preokupa(tu), ar-
dura(tu) /.
kidetasun; / sin. hurbiltasun / AFINIDAD.
kinkilari; QUINCALLERO.
kiribil, kiribildu, kiribiltze; espiralearen itxura har(tu); ENROSCARSE.
kiskal, kiskali, kiskaltze; guztiz erre: *bixigua kiskali egin duzu.*
kito; zorrik gabe: *kito geratu gara.*
klabelin; CLAVEL.
koipe; GRASA.
koko; INSECTO PEQUEÑO.
kokot; *legatz-kokot errea jan dugu* / sin. lepondo / COGOTE.
komeni, komenitze; egoki izan: *lagun hori ez zaizu komeni.*
komunikabide; komunikatzeko bidea: *Euskal Herriko komunikabideak euska-
raz nahi ditugu.*
kondaira; / sin. historia /.
konpon, konpondu, konpontze; apurtuta dagoena osotu: *erlojua konpotzera bi-
dali dut.*
kopuru; *ikasle kopuru txikia daukagu* / sin. kantitate /.
korupe; *korupeko salmoak* / sin. koru azpi /.
koska; / sin. arazo /.
kriseilu; kandeladun argiontzia.
kukuka; *umeak kukuka jolasten ari dira;* AL ESCONDITE.
kurrikatzar; / sin. suhatzak / TENAZAS GRANDES.
kurubilkaturik; ACURRUCADO.
kutun; AMULETO, PREDILECTO.

L

laban; / sin. irristagarri / RESBALADIZO.
labore; CEREAL.

lamia; Euskal Mitologian erdi emakume erdi hegazti den pertsonaia.
lan saria; lanaren truke irabazten dena.
landare; *landare bakoitzak bere lorea*; PLANTA.
lapiko; janariak berotzeko ontzia / sin. eltze /.
larri eta hestu; oso ikaraturik.
larri, larritu, larritze; / sin. ikara(tu), apura(tu) /.
larru, larrutu, larrutze; animalari azala ken(du).
lasaigarri; lasaitzen duena / ant. ernagarri / TRANQUILIZANTE.
lasterka; / sin. korrika, arinka /.
launa; bakoitzak lau: *launa sagar jan dugu*.
lauski, lauskitu, lauskitze; gehiegi erabil(i); ESTRUJAR.
lautada; lurralde berdin eta zabala.
laztan, lazandu, lazantze; maitasunez eskuzta(tu); ACARICIAR.
lehenbaitlehen; ahal den lasterren.
lehenbizi; / sin. aurren, lehenik /.
leher egin, egite; guztiz neka(tu): *leher eginda, bidean geratu da*.
leher, lehertu, lehertze; indarrez eta zarataz hauts(i): *barrez lehertu ginen*. / sin. leher egin /.
lehiaketa; / sin. txapelketa, sariketa /.
lehorrera, lehorreratu, lehorreratze; untzitik lurrera pasa(tu): *Donostian lehorreratu ginen*.
leize; haitzulo sakona: *ifernuko su-leizea*.
lekazi; LEGUMBRE.
lekutik lekura; toki batetik bestera: *lekutik lekura, euskara ezberdina hitz egi-ten da*.
lepamoztu; lepoa moz(tu).
lepo; *lehengo lepotik burua*; CUELLO.
leun; latzik gabea: *esku leunak dauzkazu* / sin. fin / ant. latz /.
lingirdatsu; likidoetaz mintzatzen, bigun eta lodi; VISCOSO.
logabetasun; lo egin ezina: *sendagai horrek logabetasuna ematen du*; INSOMNIO.
logarri; lo egiteko lagungarria: *sendagai hori logarri da* / sin. lasaigarri / ant. ernagarri /.
lohidura; / sin. mantxa /.
lor, lortu, lortze; *nahi baduzu lortuko duzu* / sin. eskura(tu), kontsegi(tu) /.
lorratz; / sin. arrasto / HUELLA.
lotsa, lotsatu, lotsatze; *zuen aurrean hitz egin beharrak lotsatzen nau*; AVERGONZAR.
lotsagarri; lotsa ematen duena.
lotsaturik; / sin. lotsatuta / AVERGONZADO.
loturik; / sin. lotuta / ant. askaturik, askatuta /.
Luiando; Arabako herri txiki bat.
luma, lumatu, lumatze; hegaztiari lumak ken(du); inor ezer gabe utz(i); DESPLUMAR.
lur azal; lurraren kanpoko aldea / sin. lur gain / SUPERFICIE TERRESTRE.
lurra jo, jotze; / sin. honda(tu) / DESTROZAR.
lurrintsu; usai gozoduna.
lurrun; likido gas bihurtua: *leihoko lurruna kendu dut*; VAPOR.
lurrun, lurrundu, lurruntze; likidoa gas bihur(tu); EVAPORAR.

luzaro; denbora luzez: *luzaro mintzatu da*.

luzeago eta nahiago; *gorago eta elur gehiago*; CUANTO MAS LARGO MAS DESEADO.

luzeegi; (luze, luzeago, luzeen, luzeegi) / ant. laburregi /.

M

mahaiburu; mahaiaren ohorezko lekua; leku hau okupatzen duen pertsona / sin. presidentzia /.

mahasti; mahats landare ugari dagoen lekua.

maila, mailatu, mailatze; kolpez oker(tu). ABOLLAR.

mairu; / sin. moru /.

maizter; etxe bat errentaren truke hartzen duen pertsona / ant. ugazaba / INQUILINO.

makal, makaldu, makaltze; *ume hori makaltzen ari da* / sin. ahul(du) / ant. bizkor(tu) / DEBILITAR.

makilaka; makilaz jo eta jo.

makina bat; kopuru handia: *makina bat jende hil da!* / sin. asko, hamaika /.

makur; behera begira.

makur, makurtu, makurtze; beherantz oker(tu). / ant. altxa(tu) / INCLINARSE.

malko; negar tanta; LAGRIMA.

maltzur; malezia duena: *kontuz gizon maltzur horrekin* / ant. zintzo /.

mandatari; mezua daramana: *uso mandatari*.

mandazain; mandoak zaintzen dituena; MULERO.

mando; asto eta behorraren ume antzua: *mandoak umerik ez*.

mancia, manciatu, manciatze; esku artean erabil(i).

mangolino; itsasoko marraskiloa.

marmario; hitzen hots ixila; MURMULLO.

marraoka; miao haserreka (katua).

marrazka, marrazkatu, marrazkatze; hortzez harraska(tu) / sin. hortzika(tu) /.

marrubi; / sin. mailuki /; FRESA.

marruska, marruskatu, marruskatze; FROTAR.

masaia; MASAJE.

matelhezur; mazail hezur; MANDIBULA.

matxango; / sin. tximino, makako /.

matxinada; herri zapalduaren iraultza.

mazkor; CONCHA.

mehatxu; norbait beldurtzeko egiten den hitz edo keinua: *mehatxuka hasi zen* / sin. amenazu /.

mende; 100 urte: *XX. mendean bizi gara*.

mendebalde; eguzkia sartzen den aldea / ant. ekialde /.

menderik mende; *menderen mendetan amen* / sin. gizaldiz gizaldi /.

menpera, menperatu, menperatze; *kanpotik menperatzen gaituzte* / sin. zapal(du), domina(tu) / ant. nagusi(tu) /.

merezi, merezitu, merezitze; *zigorra merezi du*; MEREZER.

meza ondoren; meza eta gero: *Meza ondoren, pilota partidua* / ant. Meza aurretik /.

mezu; / sin. abisu, berri / MENSAJE.
miazka, miazkatu, miazkatze; mihiaz xurga(tu): *katuak esnea miazkatu du* / sin. zurrupa(tu) /.
mihigabe; mihirik gabe; SIN LENGUA.
min; gustu garratzekoa: *biper mina* / sin. pikante /.
minbera; ukitzen denean min ematen duena: *zauri minbera* / sin. sentikor / SENSIBLE AL DOLOR.
minbizi; / sin. kantzer /.
miragarri; / sin. harrigarri, miresgarri /.
mirakulu; / sin. mirari /.
miseria gorri; *gerra ostean miseria gorriak jasan genituen* / sin. miseria latz /.
moeta; / sin. mota, klase /.
moko; txoriaren ahoa: *xoxoak galdu du moko*.
molda, moldatu, moldatze; / sin. presta(tu), era(tu), konpon(du) /.
morroi; mutil zerbitzaria.
mortairu; MORTERO.
moz, moztu, mozte; zerbaitu punta edo goiko aldean ken(du): *bizarra moztu*.
moxal; zaldi behorren ume arra; POTRO.
mugikor; mugitu ahal dena: *etxe mugikorra*.
multz; / sin. talde, bilduma, mordo, pila /.
murko; / sin. ontzi /.
murru; orma zabala.
mutur; *muturzikinori!*; MORRO, HOCICO.
muturkada; muturraz kolpea.

N

nabari, nabaritu, nabaritze; / sin. antzeman, senti(tu) /.
nabarmen; argi dagoena: *gizon horren beldurra nabarmena da*.
nagi; / sin. alfer /.
nahasketa; / sin. nahaste borrate / MEZCLA.
nahaspila; ordenarik gabeko egoera.
nahiz eta; / sin. -arren / AUNQUE.
nahiz; *Zarautzen nahiz Donostian bizi, berdin zait* / sin. ala /.
narrasti; REPTIL.
nasai; / sin. lasai / HOLGADO.
nazka, nazkatu, nazkatze; / sin. gogai(tu), asper(tu) / ASQUEARSE.
neba; neska batentzat beraren aitaren semea.
negutegi; negu tokia; INVERNADERO.
nekearen nekez; DE PURO CANSANCIO.
nekez; eragozpen(lan) handiz: *nekez hitzegiten du euskaraz*.
nerbadura; NERVADURA.
neronek; *neronek ikusi dut hori* / sin. nik neuk /.
neska-laguntzea; neska etxerako bidean laguntzea.
neskame; etxe batetan zerbitzari dagoen neska.
neur, neurtu, neurtze; neurria har(tu); MEDIR.

nik beste; *nik beste badakizu zuk ere* / sin. nik aina, nik hainbat /.

noiz; / sin. noizbait, noizean behin /.

noizbait; uneren batetan: *noizbait entzun dut hori* / sin. inoiz, noiz edo noiz /.

noizean behin; *noizean behin berandu etortzen da* / sin. batzutan, gutxitan /.

noizik noizera; *noizik noizera, afaltzera irteten gara* / sin. noizean behin, noiz behinka /.

noiznahi; edozein mementutan.

nondik edo handik; *dirua, nondik edo handik, aterako dugu* / sin. nonbaitetik, handik edo hemendik /.

nonnahi; edozein tokitan: *nonnahi, noiznahi aurkitzen zaitut.* / sin. edonon / ant. inon ere ez /.

norbait; *norbait ibili da hemen* / sin. batenbat, inor /.

norbera; *norberak jakingo du zer egin;* CADA UNO, UNO MISMO.

norbere; bakoitza bere: *norbere autoz etorri dira.*

nork bere; bakoitzak bere: *nork bere osasuna zaindu behar du.*

nortasun; *Mikelek bere nortasuna galdu du* / sin. pertsonalitate /.

O

ohaburu; ohearen burua; CABECERA.

ohar, ohartu, ohartz; *orañdik ez zarete ohartu* / sin. kontura(tu) / DARSE CUENTA, ADVERTIR.

oharkabean; konturatu gabe; DESAPERCIBIDO.

oharkabez; konturatu gabe.

ohatze; / sin. habia /.

ohiturazko; sarritan egiten dena.

ohorezko domina; / sin. honorezko medaila /.

ohos, ohostu, ohoste; / sin. lapur(tu), ebats(i) /.

oihal; TELA.

oihan; zuhaitz asko dagoen lekua: *urtxintxak oihanean* / sin. baso /.

oihuka; / sin. garrasika, deiadarka, zarataka /.

oilo loka; GALLINA CLUECA.

oinarri; *oinarrizko euskara* / sin. funts, fundamentu /.

oinarri, oinarritu, oinarritze; oinarri har(tu); BASARSE.

oinezaldi; oinez egiteko bidea.

oka egin, egite; ahotik kanpora bota.

okerretik okerrera; DE MAL EN PEOR.

ola; aintzinako burdindegia; FERRERIA.

olagizon; olan lan egiten duena.

oldarkortasun; / sin. agresibitate /.

omen; *etorri omen dira* / sin. ei /.

omen, omendu, omentze; norbaiti omenaldi egin: *Xalbador bertsolaria omenduko dugu.*

onar, onartu, onartz; ondo har(tu) / sin. admiti(tu) /.

ondapen; / sin. ondamen, destrukzio /.

ondasun; / sin. aberastasun /.

onddo; *onddo beltza*; HONGO.
ondorio; *drogaren ondorioak ezagutzen ditugu* / sin. kontsekuentzia /
onean; modu onean / ant. txarrean / A BUENAS.
onen; (on, hobe, onen) / ant. txarren /.
oneritzi; gauza bati buruz pentsamentu ona: *zure oneritzia behar dugu* / sin. onartze, aprobazio, onespen /.
opa, opatu, opatze; *zorionak opa dizkizut bihotzez* / sin. desira(tu) /.
orain 500 urte; duela (orain dela) 500 urte.
oraindio; *gazteak gara oraindio* / sin. oraindik, oraindino /.
oraintsu arte; orain dela gutxi arte.
ordez; beste nor edo zerbaiten lekuan: *irakaslearen ordez nator*.
ordezko; *irakaslea gaixotu egin delako, ordezko bat behar dugu*.
orduantxe; mementu hartan bertan.
orein; CIERVO.
orekatu; / sin. ekilibratu /.
orhetsu; PASTOSO.
orkatila; TOBILLO.
oroigarri; *Arantzazuko oroigarri* / sin. gomutagarri / RECORDATORIO.
oroit, oroitu, oroitze; gogora etor(ri): *zutaz oroitu nintzen* / sin. gogora(tu) / ant. ahantz(i) /.
oroitzapen; *hautzaroko oroitzapenak*; RECUERDO.
orratz; tresnatxo fina, punta zorrotza duena: *gizon orratza*; ALFILER.
orratz; BRUJULA.
orraz, orraztu, orrazte; ilea apain(du).
orrialde; *liburu honek 200 orrialde ditu*; PAGINA.
orroa; *behiak orroa egin du*; BRAMIDO.
orroaka; / sin. oihuka, deiadarka /.
orroe; / sin. oihu /.
osa, osatu, osatze; / sin. senda(tu) / ant. gaixo(tu) /.
osin; / sin. putzu / POZO.
ostalari; ostatua zaintzen duen pertsona.
ostatu; jateko eta lo egiteko tokia / sin. benta /.
ostean; / sin. atzean /.
ote; ARGOMA.
ote; (galde egiteko partikula): *irabaziko ote dugu?*
otzara; zumez (mimbre) egindako boltsa / sin. otarre, saski /.
ozpin; ardo garraztua; VINAGRE.
oztopa, oztopatu, oztopatze; egiten ez utz(i); enbarazu egin / sin. traba(tu), eragotz(i) /.

P

pagondo; HAYA.
paregabe; berdinek ez duena.
parera; / sin. aurrera /.
partez; *zure partez ni joango naiz* / sin. ordez /.

perra, perratu, perratze; zaldiei eta behiei ankapetan burdinezko zapatak ezar(ri).

pilaketa; *negozio horretan diru pilaketa ederra egin du;* ACUMULACION.

pinadi; pinu oihana / sin. pinudi /.

pinugin; pinaditako langilea.

pitxer; edaria gordetzeko ontzia; *sagardo pitxer bat aterako dugu;*

JARRA.

pizkunde; bizitzara bihurtzea: *Herriaren pizkundera;* RESURRECCION.

piztia; basoko animalia.

porotsu; poro asko duena.

portaera; portatzeko modua / sin. konportamendu /.

pozoin; VENENO.

putz egin, egite; SOPLAR.

S

sagasti; sagarrondo ugari dagoen tokia.

saguxar; / sin. saguzahar / MURCIELAGO.

saia, saiatu, saiatze; *saiatzen gara baina...* / sin. ari izan, ihardun, ekin /.

sailean; bata bestearen ondoren: *gaitzak sailean etortzen dira* / sin. sailka / EN

SERIE.

saka, sakatu, sakatze; *saka atea mesedez* / sin. bultza(tu) / ant. erakar(ri) /.

sakel; *sakela bete diru* / sin. poltsiko /.

sal, saldu, saltze; / ant. eros(i) /.

saldo; / sin. talde /.

salgai; saltzeko dagoena: *etxea salgai daukagu.*

saltzaile; saltzen ari dena / ant. erosle /.

samar; / sin. nahiko, aski /.

sare; arrainak harrapatzeko harizko tranpa; RED.

sarekada; sare bete; REDADA.

sar-irten; bisita laburra: *itxoin pixka bat; sar-irtentxo bat egitera noa.*

sarritan; / sin. askotan / ant. gutxitan /.

sasi; basoko arantzadun landarea: *sasi guztien gainetik.*

sasitza; sasiz beteriko lurra; MATORRAL.

saskil; / sin. zikin, itsusi /.

sastada; / sin. labainkada / CUCHILLADA.

sehaska; haurraren ohe txikia: *hautxo politta sehaskan dago.*

sekula; / sin. inoiz /.

sen; INSTINTO.

sineskera; / sin. fede / CREENCIA.

sineste; / sin. fede /.

sinets, sinetsi, sineste; zerbait egiazkotzat onar(tu): *esaten dioten guztia sinesten du.*

soil; *adibide soil bat emango dizut* / sin. simple, bakar /.

soineko; gorputz osoa estaltzen duen jantzia.

solas; *solas egin* / sin. hizketa /.

soma, somatu, somatze; zerbaitez ohar(tu): *txakurrak berehala somatu zuen oialagorra.* / sin. senti(tu) /.

sorreraz, sorrerazi, sorrerazte; sortu eraz(i).

suerta, suertatu, suertatze; / sin. egoki(tu), toka(tu) /.

suge; hankarik gabeko narraztia: *eta sugeak Ebari esan zion...*

suil; / sin. pitxar / RECIPIENTE.

sukar; / sin. kalentura /.

sumin, sumindu, sumintze; / sin. su(tu), haserre(tu) /.

susma, susmatu, susmatze; / sin. sospetxa(tu) /.

susmo; / sin. errezelu / SOSPECHA.

sutako gako; sua berdintzeko erabiltzen den burdinezko pieza / sin. suhatzak /.

suturik; / sin. beroturik / ENARDECIDO.

T

tabernarik taberna; *kalerik kale ibili ginen zure bila.*

talaiari; talaiatik itsasoa zaintzen duena; ATALAYERO.

tankera; *tankera ona daukazu* / sin. itxura /.

tantai; zuhaitz luze eta zuzena; ARBOL BRAVIO.

tantatxo; tanta txikia: *olio tantatxo bat*; GOTITA.

tarteka; *tarteka zerbait ondo ere egiten du;* / sin. noizean behin / A RATOS.

tema, tematu, tematze; iritzi edo erabaki bat, behin eta berriro, errepika(tu); OBSTINARSE.

tentel; adimen gutxikoa: *zaude ixilik, tentelori!* / ant. azkar /.

tiki taka; *Koldo tiki taka dabil* / sin. oinez /.

topa, topatu, topatze; / sin. aurki(tu) / ant. gal(du) /.

topo egin, egite; elkar aurki(tu): *kalean Joxerekin topo egin nuen.* / sin. topa(tu) /.

trebe; / sin. bizkor /.

trebetasun; / sin. abilitade /.

trinko; hutsarterik gabe elkarturik: *aditz trinkoa*; COMPACTO, SINTETICO, ESPE-SO.

troka; zulo haundi, zabal eta sakona; SIMA.

turuta; / sin. tronpeta /.

txantxetako; / sin. brometako /.

txapligu; / sin. bolandera, suziri, zipunga / COHETE.

txaputxeru; lekeitiarren ezizena.

txarren; (txar, txarrago, txarren) / ant. onen /.

txerta, txertatu, txertatze; INJERTAR.

txilina; / sin. zintzarri /.

tximista; / sin. oineztu / RAYO.

txirkanda; hatzamarretarik txikiena.

txirrita; CIGARRA.

txistuka; txistu jotzen: *jendea txistuka hasi zen.*

txonta; PINZON.

txukun; /sin. garbi / ant. zikin /.

U

ugal, ugaldu, ugaltze; / sin. gehiago(tu) / ant. urri(tu) / AUMENTAR.

ugari; *aurten sagar ugari dago* / sin. asko, franko / ant. gutxi, urri /.

ugazama; aitaren bigarren emaztea.

ukabil; esku itxia: *ukabilaz jo zuen*.

uki, ukitu, ukitze; *ikus, ez uki!* / sin. iku(tu) /.

uko egin, egite; ezetza eman: *ezkontzeari uko egin dio*; RENUNCIAR.

uluka; / sin. oihuka /.

umil, umildu, umiltze; / sin. apal(du) / HUMILLAR.

umontzi; ume ontzi; jaio aurretik umeak amaren sabelean okupatzen duen to-
kia; UTERO.

untzira, untziratu, untziratze; untzira sar(tu): *Bermeon untziratu ginen*.

upel; barrika haundia.

ur, urtu, urtze; likido bihur(tu): *elurra urtzen denean*; DERRETIRSE, FUNDIRSE.

urdama; txerri ama.

urez gora; uraren norabidearen kontra; ur korrontearen kontra.

urezta, ureztatu, ureztatze; urez busti: *lehioetatik ureztatu gaituzte*; REGAR.

urpe; ur azpia: *batela urpean dago*.

urrakada; RASGUÑO.

urre; ORO.

urri; *hobe da urri eta ongi, asko eta gaizki baino* / sin. eskas / ant. ugari /.

urrun; *urrundik ikusten dut* / sin. urruti / ant. gertu /.

urtean baino, urtean handiagoa; desio ona adierazten duen esaera zaharra; QUE

VAYA EN AUMENTO CADA AÑO.

urteotan; urte hauetan.

usantza; / sin. ohitura /.

usin; airea, aho sudurretik, indarrez botatzea / sin. domistikun / ESTORNUDO.

ustekabe; espero ez dena; SORPRESA.

ustekabez; pentsatu gabe.

ustel, usteldu, usteltze; gai organiko bat honda(tu): *beroak haragia usteltzen du*.

ustez; *hori ez da egia nire ustez* / sin. ustetan, pentsamentuz, eritiz /.

utz, utzi, uzte; *bakarrik utziko zaitut* / sin. abandona(tu) / ant. har(tu) /.

uzker; ipurditik botatzen den haizea / sin. putz /.

uzta; *uztail*; RECOLECCION.

uztarri; idi pareari buru gainean ezartzen zaion egurrezko pieza / sin. buztarri /
YUGO.

uzteko; / sin. abandonatzeko /.

X

xamur; / sin. erraz / ant. zail /.

xehetasun; *xehetasunetan sartu gabe*; DETALLE.

xerlo; ile sorta; MECHON DE PELO.
xuka, xukatu, xukatze; ura ken(du).

Z

zabalkunde; / sin. hedakuntza, difusio /
zaharraren zaharrez; *zaharraren zaharrez hil da;* DE PURO VIEJO.
zahartegi; zaharrak bizi diren tokia; ASILO.
zailen; (zail, zailago (konp.), zailen (superlatiboa)) / ant. errozen /
zain; gorputz barruan odola daraman kanala.
zain; *zure erantzunaren zain nago* / sin. itxaroten / EN ESPERA DE.
zalantzan; *zinemara ala dantzara joan, zalantzan nago.*
zaldun; *zaldidun: ez dugu zaldirik, ez gara zaldunak.*
zalekeria; / sin. kapritxu, hobby /
zartailu; LATIGO.
zaunkaka; *zakurra zaunkaka ibili da gau osoan* / sin. orroaka /
zauri, zauritu, zauritze; *bat hil, eta hiru zauritu dituzte;* HERIR.
zehar; *kaleetan zehar ibili naiz;* POR, A TRAVES DE.
zehatz; *ongi aukeratzten dakiena: gizon zehatzak behar ditugu hemen* / sin. egoki / ant, gutxi gorabeherako /
zehazki; / sin. egoki /
zenbat eta ...ago; CUANTO MAS...
zentso; CENSO.
zentzumen; *giza zentzumenak: ikusmena, entzumena, ukimena...;* SENTIDO.
zerga; IMPUESTO.
zerikusi; *euskarak ez dauka grekoarekin zerikusirik* / sin. erlazio /
zerrenda; / sin. ilara, lerro / FRANJA, LISTA.
zertan edo hartan; *zertan edo hartan, lan egin behar dut;* EN ALGO.
zigor; / sin. kastigu, kondena /
zigor, zigortu, zigortze; CASTIGAR, FLAGELAR.
zikiro; ardiaren arra, irendua.
zilar; PLATA.
zil; / sin. zilbor / OMBLIGO.
zimel; bere edertasuna galdu duena: *arpegi zimela jarri zaio* / ant. xamur /
zimendu; / sin. oinarri /
zintzarri; / sin. ezkila, txilina/CENCERRO.
zintzilik; *urdaiazpikoa sukaldean daukazu zintzilik* / sin. dindilizka, esekita/COLGANDO.
zirrika; maitekiro ikutzen / sin. laztanka /
zirritu; bi zatiren artean irekidura luze eta mehea: *atearen zirritua* / sin. zirrikitu / . RESQUICIO.
zital; / sin. gaizto /
zoaz; joan zu! / ant. zatoz /
zoko; / sin. bazter / RINCON.
zolu; *kontuz! zolu irristakorra!* / sin. behe / SUELO, PISO.
zorian; *atea, puskatzeko zorian dago;* A PUNTO DE.
zorne; *zauriari zornea dario;* PUS.

zorri; PIOJO.

zorrotz; *erantzun zorrotza* / sin. azkar / AGUDO.

zorrotz, zorroztu, zorrozte; punta edo ertzea mehe(tu): *aizkora zorroztera eramán dut* / ant. *kamus(tu)* /.

zotz egin, egite; zozketa egin / sin. zortea(tu) /.

zozo; TORDO.

zozo saila; / sin. zozo banda (taldea) /.

zuhaitz malatua; Euskal Herriko zuhaitz famatu baten izena: ROBLE MALATO

zula, zulatu, zulatze; zuloa egin.

zure galdez; zutaz galde eginez; zutaz galdezka.

zurezko; / sin. egurrezko /.

zurrutean; *beti zurrutean zabilta!* / sin. edaten /.

zuti, zutitu, zutitze; zutik jar(ri) / ant. etzan /.

zuzenbide; DERECHO.

zuzenki; modu zuzenez / sin. artez / ant. zeharka /.

AURKIBIDEA

Zenba-kiak	Tituluak	Orrial-deak	Zenba-kiak	Tituluak	Orrial-deak
45	Adimena bisturi puntan ...	57	99	Artoa apaingarri eta janari	111
8	Aezkoako sakristaua		70	Astoa eta astronomoak ...	81
	Iruñera	19	153	Astoa salgai	167
123	Aintzinako euskaldunak		160	Astolasterrak eta galarro-	
	ibaizale	137	sak	174	
127	Aintzinako ohiturak gaur		78	Atarrabioren ahalmenak ..	89
	ere	141	155	Auzo-lanak eta auzo-janak	169
156	Aita semeak lapur artean ..	170	18	Azeria eta batelduna	30
130	Alaba eta alabordea	144	83	Basabikuaren lorea	93
76	Albokari bat Parisen	87	139	Behatz izorratua	153
6	Alemanian emazteari jipoia	17	31	Behinbehineko heriotza ...	44
67	Alferra zuhaitzean	78	87	Behor antzua eta moxalak	97
122	Alkatea galtzontzilo eta		113	Bejetarianoak eta biluzik ..	127
	guzti	136	90	Berriatuko Txanbolinen	
16	Alkohola munduan zehar	28	txakurra	100	
102	Ama besogabea	114	33	Berriro jaio	46
93	Amaren seme eroa	103	132	Beti zerbait falta	146
88	Amazonak espainolen		48	Bi begi eta irudi bat	60
	aurka	98	135	Bizkaitarrak izaturik	149
59	Amerikanoa eta mandazai-		36	Bizkarrak berotzen	49
	na	70	152	Burua erre kara	166
136	Andre gizonak apartatzeko	150	125	Burua galtzontziloen orde z	139
69	Animalia harrigarriak	80	47	Burusi osoa ala erdia	59
114	Argiaren abiadura	128	89	Cuzco, munduaren zila ...	99
150	Arrateko uso tiroa	164	28	Diru eta Txori	40
66	Arrolanen harriak Basabu-		151	Doktor Kastro	165
	run	77	111	Doministikun	126

Zenba-kiak	Tituluak	Orrial-deak	Zenba-kiak	Tituluak	Orrial-deak
29	Dorreen mugimendua neurtzeko	43	74	Hil eta bizi	85
43	Droga negoziua	55	108	Hiri berri bat oihanean	123
15	Drogarik txarrena alkohola	27	40	Hitler garesti dago	53
23	Eguraldiaren profetak	36	17	Homosexualak eta homosexualak	29
157	Elizaren lurra ala herriarena	171	13	Hori bai txakurra!	25
65	Erlaxa eta autosugestia ..	76	149	Hortzak eta hankak	163
19	Erleek frigorifikoa asmatu ..	30	158	Hura zen erbia hura!	172
124	Erlojuak atzekoz aurrera ..	138	42	Idortea eta idorzeria	54
44	Ernalmena gutxitu	56	120	Intsektuak jan?	133
21	Erreumaren kontra inurriak	34	64	Irla mugikorra	75
2	Erroketxo eta ama	12	4	Itsusien diskriminazioa	15
53	Esklabu izateko beldurra ..	64	109	Izurriak Euskal Herrian ..	124
37	Eta orain bananak	50	25	Jentila eta olagizona	38
63	Etnaren haserreak	74	22	Jesusen izenean sexualki anikilatu	35
103	Euskal musika nondik	116	3	Kafea ala temperatura?	14
161	Gabiriako misioak	175	97	Kapela paregabea	107
119	Gantzagako hiru egiak	132	159	Katu lapurraren sententzia ..	13
129	Gaubelatik ilargira	143	95	Katu salbatzailea	105
24	Geografian ere bai	37	133	Katuaren deabruak	147
5	Ginbel eta Liska	16	134	Kinkiña alkatea	148
110	Gizona galdu eta kautxua aurkitu	125	148	Kokota konpondu	162
84	Globoen azkena	94	137	Konformitate oneko neskalaguntzea	151
10	Gorputz guztia sexuala	21	38	Kosmoan zehar ibiliko gara	51
107	Gorputz erdia artifiziala ..	122	82	Kurdoak ezin hil	92
7	Gorputzean droga fabrika ..	18	80	Labazko lakuak	91
147	Gurpilak eta perretxikoak ..	161	62	Lamiaren senargaia	73
72	Haritzeko koroa	83	115	Lanetik txistuka	129
91	Hemingway Iruineko entzerruan	101	177	Legionarien eritasuna	88
100	Herensugea eta artzaina	111	20	Lekeitioko talaiaariaren beldurra	31
117	Herensugearen azkena	131	75	Loaren molekula	86
34	Heriotza dohatsua ala dohakabea?		39	Mandarraingo lamiak	52
49	Heriotze baten berria	61	32	Mari Urraka	45
154	Hil ala zer	168	55	Mariaren ibilerak	66
			51	Matxangoen ezkontzak eta dibortzioak	62

Zenba- kiak	Tituluak	Orrial- deak	Zenba- kiak	Tituluak	Orrial- deak
143	Menditik mahaira	157	138	San Antonioren txerria	152
128	Munitibartarraren konfe- sioa	142	94	Senar emazteen bixigua ...	104
116	Mutiko bat 11.000 kilome- tro ihesi	130	79	Senargai hila agertu	90
9	Napoleseko esaera bat	20	60	Singapurren irribarre ugari	71
118	Neskatoa eta «idi pinta- tuak»	131	71	Somoza Paraguayra	82
58	Ngumben antropologia se- xuala	69	81	Soriako pinadietan euskal- dunak	92
57	Nola desagertu ziren Ma- yak?	68	35	Sua eta izotza batera	48
104	Nola osasunez jantzi	117	26	Sugestioaren indar harriga- rria	39
86	Nudismoa atzo	96	68	Sumbatarren ezkontza	79
144	Oñaztarren eta Ganboa- rren kazetaria	158	61	Telebista eta logabetasuna	72
105	Okerretik okerrera	119	98	Turkiako kirol nagusia	109
92	Ondo hiltzeko elkarteak	102	146	Txakurraren mirakulua ...	160
73	Orein lurrintsuak	84	41	Txapelketa bitxia	54
126	Otxandioko bikuak	140	112	Txerri arkeologoa	127
50	Pastilekin istripu gehiago ..	62	11	Tximinoak hizketan	22
141	Patxiko Garratza	155	106	Txinako harresia	121
12	Pepetxu eta Popatxu	23	56	Txinpantzeen bizimodua ..	67
131	Petralandako sorgin batza- rra	145	101	Txinpantzea eta politika ..	113
85	Piztien oposizioak	95	27	Unibertsoa galaxiak	40
46	Prefazio berria	58	14	Upel beroak	26
30	Ptolomeoren krimena	43	145	Urkiolara ipurdia bistan ..	159
54	Requiem meza	65	52	Vudu erlijioa jaingoak ...	63
			96	Wounded Knee: indioak hil	106
			140	Zergatik gehiegi jan?	154
			1	Zintzarri berritsua	11
			121	Zorria eta danborra	134
			142	Zuhaitz Malatua eta armak	156

EUSKALTZAINDIAREN

**OINARRIZKO
EUSKARARAKO
BATZORDEA**

IBERDUEROREN LAGUNTZAZ